



Corte 11<sup>a</sup> 6<sup>a</sup>

Ca  
s. de D<sup>no</sup> Manuel Ignacio de  
Arangueren



# CONFESIO TA COMUNIOCO

SACRAMENTUEN GAÑEAN


## ERACASTEAC

ED O

*Cembat gauzac lagundu bear dien Confesio  
ta Comunioari ondo eguiñac  
izaiteco.*

*Ateratzen du arguira Guiputz itzqueran  
Crist au euscaldunen oneraco*

DON JUAN ANTONIO MOGUEL, TA  
Urquizac: Marquinaco Cura, edo  
Anima-zaia.



Bear bezela.

*Iruñeco Libruguille Ezquerrorem Alargu-  
naren Echean: 1800. Urtean.*

(III)  
ERACURLE EUSCALDUNARI

ITZ-AURRECOA

**A**Rtu nuen orduco asmo ta gogoa arguitaratze-  
zeco orain ecusten dezun Libro eusquerazco au,  
ezagutu nuen, batec baño gueiagoc jardungo zu-  
teela marmarioz, ta nere leporaco cirala itz go-  
gor ta astunen carga guciac. Beldurtzen nintzan  
cerbait, atzeratu ere bai aldi batzuetan beste as-  
cotan artzen nituen gogo guri, ta beroetatic. Ne-  
re buru zalea, edo nerecoia izanic jatorriz, esa-  
ten nuen nere artean : Cerc sartu nai zaitu, zu-  
baño guizon jaqnintzua goac artu nai izan ez du-  
ten lan gogorrean? Eusquera ondo itzac eracastea,  
gauza gaitza da ; Confesio, ta Comunioeo Sacra-  
mentuac ceero, ta banaan azaldu ta adieraztea,  
oraindic gaitzagoa certan edo artan utseguin ga-  
be. Cer eguin bearnuen bada? Issildu? Gorde bu-  
rua, ta ez eman Euscaldun nequezale edo langui-  
llai Jangoicoaren itz santuaren oguia? Au cerda?  
Erdaldunac izango dituztela Libru guisa gucieta-  
coac ugari, ta gueieguiaz becela, ta Euscaldu-  
nac ain urri? Erdaldunac ez dira atzeratzen ate-  
ratzetic Doctrina santuco Libruac, badaquite ere  
gauza gaitza dala eracastea ceero ta apur apure-  
guinda becela Fedeco gauzaac, ta gure Christau-  
tasuneco eguin videac, ala Jangoicoaren amar-  
aguindu edo mandamentuen, nola Sacramentu san-  
tuen gañean, ta eragozpen guciac, ta gaitzasan  
garaitu ecinac egongo dirala Euscaldunentzat? Cer  
eguin bear nuen bada, diot berriz? Larga coldar-

queria, ta icara guciac, ez enzuteric eman erauntzi, berriqueta ta esamesai, ta dendatu azcortu, ta viotz-anditu emateco Euscaldun bearguillai arguia beren jaquin-ezetan.

Eguia esan bear bada, Euscal-errietaco Apaiz, Fraile, ta Anima-zai guciac esan dezaquegu bidualduaedo autuac guerala berri on animaren gañecoac emateco, ez Erreguei beren Jaureguetan, ez Andiqui goratu, edo Jaun urre-cillarra ugari darabiltenai, ez jaquituria lurreoz beren ustez betteric dauden guizon arrotzarrari, ta bai nequezale, bearguin, archulari, olaguizon, icazquin-emacume gorala, eula, jostun, ta onelaco gende mé ta becoquico icerdi latriarequin oguia billatu bear duteenai. Ez degu Pablo Apostoluac becela aguertu bear Athenasco Bilcui, ta Eracasteguiari, eran-zuteco Jaquitun gaizto-asmariari beren galdetze guciatara Aguertu bear degu enzula viotz oneco ta samurer racen aurrera; ceintuzec enzungo gaituzten gueienez ao, ta viotz zabalequin, ta beti is-sillic. *Evangelizare pauperibus miscit me Dominus.*

Orain bada, nolaco eracaste edo doctrina eman bear zaie onelaco gende argui laburrecoai? *Aurchoac ogui esque ceuden*, dio Espiritu Santuac, *ta etzan norc pusca ciezatzen*. Aurcho chiqui indar gabei ematen badiezu ogui oso ta azaltsua, ilco ditu goseac beste jan gabe. Ecingo dute gaissoac ebaqui ez gañibetarequin, ez escuarequin, ez ortzequin, oguia gogorra dagoalaco, ta berac indar-ric ez dutelaco. Berriz ceatzen, puscetzen, ta apurtzen badiezu, equingo die, aseco dute gosea, ta

vieico dira. Ala bada gure euscal-errietaco guizon ta andra, nescach ta mutillic gueien gueienac dira jaquituriaren aldetic, aurchoac becela, ta eman bear diegu animaco oguia ceatu ta puscatura. Esan nai det, escuaz becela eracatsi bear diegu, non dagoan infernucio videá, non Cerucoa, non Purgatoriocoa; anda, noiz eguiten dan becatu astun edo mortala, noiz becatu chiqui edo veniala, ta noiz gauza ona. Pilloan, edo albastuan eracatsiaz ecer eguitenez da; da ogui osoa ematea ebaqui ecin duen aurrari; gueldituco dira lengo ez jaquinean; becatu andiac iduquico dituzte chiquitzat; chiquiac, edo utstzat, edo anditzat; ondo dana chaarra dala iritzico die, ta ebillico dira illum-bean larra-pastaca, non oña ipiñico duten ez daquitela; erorten badira ezagutueo ez dute non erori diran. Cembat calte emendic, jaquineza bada gaitz guciari guraso, edo iturburua? Ordea ez det uste utseguin ta jaquinez gueiago dagoala ecertan, nola Confesioco Sacramentuaren gañean. Pozoi izatera buirtzen dute ascoc, Jesu-Christoc gure animen osagarritzat larga cigun Sacramentu ar. Ecusten degu cristauen artean lasaitasun lotzagarrizcoa, urte batac dirudi bestea gaiztagoa ezpada datorrena igarro dana baño. Ecusten ditugunean Eliza Santuaren contra jaiqui, ta jarquita etsaiezagun, ta aguriac, damutzen guera. Ecin aituditugu viotzeco min gabe Christoren contraco gaizqui esate, ta izt astunac. Negar malcoac eraiten dira gure beguietat-ric jaquitzen degunean gure Fede santuco etsaiac amorruric andienarequin ezarri dituztela lurrera Elizac, erre Santuen corputz-apur edo erliquiac, era-

(VI)

gozten dutcela meza ematea, confesatuta comulgatzea, Sacerdote onai paquerie ematen ez diela, catigatzen dituztela Presondegui gogorretan, deserri-tu asco, ta ez guchi ill, cristau onai lagundu nai cielaco, ta gaiztoai eracatsi beren vide utseguina. Bada negargarriago da cristau icenecoac, Eliza Santari ematen dien naigabea, adisquide ta paque estalquiaz jasotzen dien persecucio motel, ta ots-gavearequin. Paquean, dio San Bernardoc, ematen zaiola mingozitasun ta sentigarriric andiena. Ecusten ditugu Confesateguiac gendez inguraturic; urbiltzen dira guero aldara santura; uste guenza-que poztutzeeco gauza dala. Baña nolacoa da ateratzen dan onera, edo frutua? Cere gueien estatzen da gaureo egunean Eliza Santa gure Ama? Ona cer eranzun zua Florenciaco Bileui, edo Concilio Santuac, dala Penitencia palso, edo ichurapea utsecoa. *Falsa scilicet pœnitentia.* Batzuec erratzen dira becatuac eguiteric confesatuco dituztelaco sesio, edo aitzakiac: beste batzuec uste dute confesioan aguertu ezquero ecer estaldu gabe, gucia dagoala eguinda, ta irteten duteela garbi garbiric, beguiratu bearrean nolacoac izan bear duen becatuen damuac, ta aurrera onizateco gogoac. Asco dijoaz concienciaco esamina, billacuntza, edo azterren arin ta gañetico bat eguinda, ezagutzeco nequerie artu gabe, nola ez eguinaz edo eguin bearrae largaz, edo esan oi dan becela itz arrotzean, omisioz eguiten diran becatu chit asco. Onezaz gañetic, cembat cristau daude lotsaz becatuac ucatzen, guchitzen, apaintzen, edo estaltzen? Cembat Confesio gucien edo generala eguiteco premia estuan,

(VII)

tuan, ta ez daquitela nola eguin! Uste izan det bada ecin nezaqueala gauza obeagoric, nola dan gauza oien gañean eracastea ceero ta arguiro jaquin bear duten gueia cristauac. Confesio onac dacar berez comunio ona, ta confesio ta comunio ondo eguina: vicitza berria, ta guero betico salvacioa. Eracurten da Santa Teresac Cerutic etorrira adirazo ciola anima chit onbati, Confesari, ta Predicatzalleac beti becela jardun ta equin bear luqueela itz eguiten confesio gaiztoen gañean; sinistu ecin citequeala cembat anima betico galten ciran confesio gaizqui eguinae gatic.

Ori orrela da, esango dit norc edo norc; baña iduquiric Sacerdote edo Eliz guizon eracaslac libru asco ta ugari erdaraz, certaco dute euscarazco au? Berac biurtuco dituzte erderatic euscarara. Ala dirudi, ordea ez da alperra nere nequea. Badi-Eliz guizon asco, Apaiz eguin berrian chit atzeraac daudenac euscaraz itzeguiten, ta guciz Elizan. Apurtzen detuzte beren buruac Sermoi bat euscaratu ecinic. Nola erdaterrietatic etortzen diran urtetan batzuec igarotic Eliz gauzac icasten, ta aztu zaien asco len eguiten itzquera. Amaren bularretic cecartena, ezda esatecoa cembat gaiztasun ta atzerapen arkitzen duten eusquera itz eguiten Eliz gaucetan. Ez da berdin oen gañean bear becela itzeguitea aguirian, ta bestelaco gaucetan. Gure guizon ta andra baserrietacoac chit ederqui, ta bear bada inorc ez becela, itzeguiten dute berai dagozquien gauza ascotan. Ordea ez luquee jaquingo nola zucendu itzac gauza goratu ta beren gañeticoetan. Au onela izanic, Libru euscarazcoac,

cz

ez dira alpeercac, ta bai mesede andicoac Eliz-guizon ascorentzat ere. Eracurriaz icasico dute nola esaten dan euscaraz berac etzequitena. Oituco ere dira erraz eracurtera, eeren gauza lotsagarria da ecustea asco, errazago eracurten Frances ta Ingles libruac oen itzquerac aitu edo jaquin gabe, jatorriz dacarten eusquera ondo daquitena baño. Cerc eguiten du au? Ecandu, edo oia ez diralaco euscarazco libruac eracurtera.

Badira bai animen cargua daucaten artean ere, ain icaracor, edo beldurtiac, non da ecin azartu diran buruz Sermoi bat eguiten, ta cembat calte emendic? Baleuzque Libru egoquiac erdaldunac beccela, eracurrieo luque Elizaan, joango litzaque beldurra gueldiro, ta eguingo liraque guero buruz ta itzvician eracastera.

Cer esango det berriz bestelaco cristauet elduco zaien onarero gañean, badituzte libru eusquerazco ta animaren oneraco eguiñac? Eracurricoo lituzquee echeetan. Eracurtenez daquiten ascoa, eracurten icastera dendatuco liraque. Emendic cembat becatu vide larga? Cembat jaquinez quendu?

Badira eusecarazco libruac esango didate. Aitor det, ta euscaldun guciac eman bear dizte esquer andiac onetan jardun duten animazaleac izan diran guizonai. Gora-bera gucien artean ez dira aztu euscalderritan Cardaberaz, ta Mendibururen icen onac. Au ezagutazu zuten bai Napar ta Guiputzae; ura, oec ta Vizeaitarrae Arabar ta Napparquin. Zabaldu zuten alizan zuten artean aoz misio santuetan Jangoicoaren itzaren acia, artu ere bai frutu gozoac. Beren anima gosea etzan onembestean gueldi-

ditu; irauncorrigo izan cidin frutua, izcribitu ci-tuzten devociozco libruac. Ala ere esan bear da, ez dala arqitzen laburqui baño itz eguin duteenic Confesio, Comunio ta beste Sacramentuen gañean, ta oro bat Doctrina libru oso batec escatzen dituan zabaltasun, ta ceetasunez. Astete ta Dutari-ren librucho euscaratuac ecin obeac dira eguin ci-ran asmoraco; au da buruz icasteco doctrina bear-ra. Baña cembat cer icasi ta jaquin gure Fedeco Estal pon-edo misterio miragarrien gañean? Cembat argui zabalduco ez dira Jangoicoaren Legueco aguindu edo mandamentuac ceatuaz, ta eracatsiaz, nola utseguiten dan oen contra? Nere gogoa izan da Doctrinaco lau Zati edo Parteen gañean eguita eracaste edo esplicacio osoac. Etzait gogoa oz-tu. Baña nola gauzaric bearrenecotzat iduqui de-dan Confesio ta Comunio Santuen gañean astiro it-zeguitea, ta eracastea gendeai, orain bein iritzi izan dit, obe dala oen gañeco Libru au aguert-zea. Arrera ta gera ona eguiten badie oni, beste gauza ez ustecoren batec galeracitzen ezpadit, ar-guitaratuco ditut guerora aitatu ditudan gaien ga-ñeco beste libruac, ta lan edo nequeric andiena eguin det.

Izango dira bear bada jaquitun bupera, milica, ta beguiratuegui batzuec, ondo iritzico ezdienac emen arqituco diran guertaera miragarri, edo esan oi dan bezala, egemploai. Ez dala esan bear Eca-castegui Santuetatic Escritura Santeetan arqitzen diran guertaera edo egemploac baño. Ipuiac quen-du bear dirala Eliza, eguia billatzen duanetic. Ipuiac quendu bear dirala? Arqitzen det nic Escritura

(X)

Santan ere Arbolen gañeco ipui egoqui bat, cefie-  
quin Profeta Santuac adiraci zueñ berac gogo ta  
Jangoicoac nai zuena. Ipui ero, ume ta atzocu ar-  
tecoac ez dira Pulpitoraco eguiñac, ez daere pue-  
zur ichuraquin datocen egemploac. Ordea, gaizqui  
eguintzat ematea, egemplocho bat edo beste, era-  
cutsi dan gauzaren sinisgarri gueiagoraco, contut-  
zea gende pocie ta onandiaz enzun nai dituztenai,  
da esatea gaizqui eguiten zuteela San Agustin, ta  
San Gregorio Elizaco Eracaela ta Jaquitun andia-  
goac, gaizquetzat ematen dituztenac bañio. Da esa-  
tea gaizqui eguiten zuteela San Antonio Padoacoc,  
San Vicente Ferer miraguillac, San Bernardino  
Senaco ta cembat beste virtute ta jaquituria an-  
dico Predicari veneragarriac! Iracurri bidiz oen  
Sermoiac, ta issilduditecela guero lotza apur bat  
badie alaco Santuai, ta ez gaitzala inor salatu,  
béren videti bagabiltza. Jesu-Christoc predicatu  
cien penitencia, ta cematu cituan naguiac mundu  
onetan ecusi ciran castiguac gogoraeracrie. Bere  
Sermoiac ciran chit lauac, berdintza edo compa-  
racio ederrequin eguinac; ez itz apañduz melda-  
tuac. Apostduen Burua zan Pedroc, doctrina erra-  
zarequin, bilduzituan anima asco Cristoren artal dre-  
ra: Onela bada gauza onic eguin nai dutee-  
nac gure Errietaco gendeetan, eman bear die ogui  
biguña, ta San Pabloc dionaz, Ama batec aur-  
rari ugatza becela. *Lac dedi vobis.*

Cer billatu bear du Animazale izan bear du-  
ten edocéin Eliz-guizonec? Ez besterie ezpada ani-  
mac irabaztea. Nore esan bada cembat anima al-  
datu diran becatutic Jangoicoaren aldera enzunaz  
beste gabe egemplo edo guertaera mirarizcoren bat?

(XI)

Cembat cristau urte osoetan egon ciranac lotsaz  
aguertu gabe becatu ichusiren bat edo asco, joan  
dira arinea Confesorearen onetara eguiteco confe-  
sio zucen, garbi ta damuz betea bacarric enzunaz  
Sermojen artean Jangoicoac eguin dituan castigu  
latzgarriac onelaco ta aláco anima confesatu gabe  
gordetzen cituztenequin! Au daquite Misionari, ta  
anima billa dabiltzan Confesore guciac. Onelaco  
egemploac enzuten dituzte necazariac ao zabal, ta  
atencio andiarequin; egemploa bucatzean asitzen  
dira Jesusca, larritzen dira beste ambeste guerta-  
tu ez didin beraquin, daramate arantza viotzean,  
erasten zaizte guertaera guciac, contatzen dituzte  
echeetan joan etziranen aurrean, ta Jangoicoac be-  
rac bacarric jaquin dezaque, cembat on dacarren  
predicatze erraz, ta humill onec. Tito Libio, Pla-  
tarcoc, ta onelaco mundu-jaquitun batzuec cerbait  
contatzen badute, sinisten zaic. Berriz testigu ohea-  
goetatic datocen egemploac, Ipuizat dauzquec one-  
laco Gende jaquitun ustecoac. Fedeco gauccen si-  
nisgarriraco eguin dituala Jangoicoac mirari an-  
diac, nore uea lezaque? Ala bada eguin ditu mi-  
rari asco becatariac zueñtzeco vicitza onera, obli-  
gatzeco ondo confesatzera ta comulgatzera.

Euscararen gañean cer esan dezaquet? Batzuec  
dituzu, dio Aita Larramendi euscaldunean mai-  
suae, gure eusqueran nai ez luqueenac beste itzem-  
deatic itzecho bat ere. Eusquerari crachi zaizca  
erdaldunetatic itz ez guchi; bañia adituaz, ta oi-  
tuaz, eusqueracoac bezain ongui aditzen diranac;  
ta oyec utzi bear ezlitugu, ta bear bada noiz edo  
berriz oheco da onelacoac usatzea eusqueracoac ba-



## (XII)

ño, batezere Eliz gauceetan, ta gure animen salvacioari dagozten eguicarietan. Onela itz eguiten digu Maisu icen andico onec. Eta eguia esateco, Elizac beretu ta consagratuta becela dauzca itz asco doctrina santua eracasteco. Ez dira bada utzi bear icen oiec, Bateoa, Confirmacioa, Comunioa, Confesio edo Penitencia, Oleo acioa, Ordena, ta onelaco Eliz itz asco igaro diranac cristau erri gucietaco itzcundeetara. Oen ordean esandi tezque itz eusearacoac, ordea gucia naaitzea da, ta ez adierazotzea gauzaac bear bezala. Esaten badet nic *Bautismo* orde *Garbituntzaco* Sacramentua, eguia esango det, baña ez ciurqui ta bear becela azaldu, ceren garbitzea zabaltzen da gauza ascotara, berriz *bateatzea*, ematen zaion sentidu edo esan narian gauza bacar ta guciae aditzen dutenera. Beraz eraqueria edo arrotasun caltegarria da animaco gauceetan ez jarraitzea arturic dauden Eliz itzai.

Beste batzuec, dituzu premia gabe ta animen calte andiarequin euscara gucia galtzen duteenac, bein eusquera, bein latinera, gucia barautsu ta ciquindua. Guchic daqui bere jaieterrico eusqueraren erdia, ta alpertzen, naguitzen, ta lotsatzen ere dira icasten, ta galdetzen; ta guero gaitzqui esaca dabilta garbiro eusquera eguiten duteenac gatic. Beguitantzen zaie necazari eusquera baño ez daquitena, aditu bear dituzteela erdera eusqueratuac. Eusquerac dauzcanen itz ederrac, gucien aotetan dabilzanac, certaco da erdera mordollo jardutea Eracastegui santuan? Euscaldun garbiac, cer aituco du esaten bazaio Seme *Unigenitua*, *Aita Omnipotentea*, Espiritu Santu *Vivificadorea*, gauza

ne-

## (XIII)

*necesarioac*, ta ecin esan beste itz onelaco? Ala bada ebilli bear da vide erditic gueieguiac edo guchieguiac utsic eguin ez dezagun. Norc ez daqui Jesu Christoc itz eguiten ciela Hebreo, edo Judatarrai, ez ancinaco Gurasoac cequitena itzquera garbi Adan egandic artuan, ta bai Salvaguille onen egunetan itz eguiten zan bezala, noiz cecatena itzquera naasia ta erachiric itz arrotz ta erbestecoac. Bacequian eguiac Christoc nola itz eguin anciancoen guisaan naste gabe, edo garbiro: ordea etzuen ala itz eguiten, ezpada bere egunetaco Judatarrac eguiten zuten becela. Onela guc ere eguin bear degu. Norc aserre gabe enzunlezaque eusquera ederqui jaquin bear duten Eliz guizon ac esatea *Pulpitotic* itz zatar oec *Abarientoac* dira *Idoloen sierboac*, *Ira da vicio capital*, ta venganzaren *origina puru puru*, *Jangoicoaren Clemencia infinitoac* asco *aborrecitzen duena*: ta cembat onelaco astaqueria! Cer adituco dute necazariac, belarriquin enzuena gatic, alaco itzquera irutic bateguiña?

Uste det berriz libru onetaco eusquera izangodala aditua Guiputz gucian, Vizcaico erri ascotan, ta Naparroa gueienean. Cardaverasen libruac aditzen errazagoac dira Euscal-errietan Mendibururenac baño. Onec itz asco artu ditu Napar eusqueratic, ta nola urruti dauden bata besteac gandic Naparroa, ta Vizcaia, ez ala Guiputzac (bada oec erdian daude) errazago eguiten zaie Vizcaitarrai aditzea Cardaverasen itzquera guiputz utsecoa, mendibururen guiputz-naparra baño. Auez da esatea, Mendibururen eusquera, ederra ez dala; da eguiac ta itzac garbiago ta eusqueratsuagoac Car-

da-

daverasen libruetacoac baño; ala ere onénac lecu zabalagoan aditzen dira esan dedan arrazoiagatic. Nie ere oni jarraitu diot aleguinez arrazoi beragatic.

Bada atsecabe ematen didan beste gauza bat, au da enzutea Euscaldunac gaitzqui esaten, ta au-eitan becela batzuec bestequin. Guiputzac enzuten dutenean Vizcaitarren itzquera, bereala aviatzen dira esaten, *au dec eusquera zatar, astun, ta gogaitcarria. Norc enzun belarriac estaldu gabé?* Vizcaitar ascoc (ez erri gucietacoac) esango dizute guiputzac dirala *labañuc beren itzqueran, emacumen mingain zorrotzentzat ona dada, vizcaicoa guizontsuagoa*. Asitzen dira quiñu ta siñuca; oec arpeguian ematen die aiei, *nion, sion, diot, ta ala beste epai moldequin. Aiec berriz Vizcaitarrai, deuscat, neutsan, zeuntsan, esan juan, ez doe, bai doe* ta onela beste itz ascotan. Euscaldun maiteac, certaco dira itzauci! oec? Cer esango digute erdaldunac errietan ta siñuca bagabiltza alcarren artean? Gare eusquera gauza ez dala. Aita Larramendi, ta Cardaverasec, guiputzac izanie, aitortzen zuten, etzequitela cein zanobeagoa: bacoitzac jarrai beza bere jaieterrico eusquera; ordea ez gaizquiric esan. Ez degu erricoiac, edo errico amorean ichutuac izan bear. Nie guciac dauzcat edertzat. Zati bat naiz guiputza, ta beste zati bat vizcaitarra, ta bietara cerbait eguin banaiz ere, guaiago vizcaico eusquerara nere vicitarie gueiena emen igaro dedalaco gendeai eracasten animaco gauzaac. Libru beran ipintzea uste det Vizcaico eusqueran ere. Ez daquitenac uste dute Vizcaicai

caicai gucian esaten dala: *Ené, ara toroa plazaanmanzania jaaten*. Bilbotarren erdi erdera erdi eusquera daucate Vizcaicai gucico euscaratzat. Ez da ordea ala. Eztitsuagoac dira guiputzen itzac; bañaitzen eusqueratasun, garbitasun, ta eusquera legueen aldetic, ez dio ecer zór Vizcaicoac, ta Cardaverasen iritzian, obeto gordetzen dira eusqueraren regla edo zucen videac Vizcaian, Guiputzean baño. Dan becela dala, O euscaldun onac! arzazute nere vorondatea libru onetan. Ez arren utzi inoiz, sartu zanetic, euscal-errietan galdu ez dan Fede eguiazcoa. Fede oni lagundu bear dio vicitza onac, gaiztoa eraman duenarentzat, ona emen Onvidea, Confesioco Sacramentuan. Jaunari esquerrac, gauza onic badago. Aaztu citzatan gauza bat adieráztea bere lecuac, edo eusqueraren gafean aitatu dedanean. Ezda berdina itz-joco edo conjugacioa Eusquera guiputza ederqui daquitanen artean. Aita Vbillosec, ceñec Frances erderatic euscaratu diguu Fleuriren Doctrina-librua, onela ebaquitzen du baten itzquetca, ta ascorena. Nie eguin *nuan, aiec eguin zuen*, ta ala oetatic jaiotzen diranac. Bizcaico eusqueran ere jarraitzen da itzjoco au letra bi oequin, *a, ta e; a* batena danean itzquera edo eguiera; eta *é* ascorena danean; nie eguin *neban*, aec eguin *eben*; ala Aita Vbillosec ere *nuan, zuan*; zuen letra aldátze labur onequin. Berriz Aita Larramendic, Cardaveras, Mendiburu, ta Labort eusqueraco libruguillac, beintzat nie ecusi ditudanaç, ez dute ala conjugatzen, ta bai onela, nie eguin *nien*, are eguin *zuen*, aiec eguin *zuten*, ta ala oetatic jaiotzen diranac. Cein dan

(XVI)

dan conjugacio ohea, nic ez daquit; errazagoa ta garbiagoa dirudi Aita Vbillozenac. Baña nola aitatu ditudan beste euscaldunac diran icen andicoac, oien guisara nic ere conjugacio esana eguidet. Cein batera, cein bestera eguin, ez da cer esanic. Guiputz garbi garbia billatu bear da Guiputz erdian, ez Frances, Napar, ta Bizcai urrean dauden errietan, ceren erasten zaiez alcarren itzac urrean dauden erricoai. Irun, ta alderetan Frances eusqueraren usaia dute, ala ebaquitzen itzac, nola itzen batuetan. Elgoibar, Eibar, Vergara, Mondragoe, ta ala besteericho batucetan erdi guiputz, ta erdi vizcaicoac dirudite, Bizcai urrean daudelaco. Ezda ordea ansi. Libruetan bacoitzari eman bear zaio. guiputz izeriditzen danean, guiputz eusquera naaste gabea aleguñez; Labortarrac beren guisara, ta orobat Bizcaitarrac. Baña buruz icasten dan doctrina, obe da eracastea bacoitzaren errian itz eguiten dan becëla. Ezdago onen premiari Sermoi ta bestelaco libruetan. Elgoibar, Eibar ta Vergaran predicatzen bazate guiputz garbian, ondo adituac izango dira Sermoiguillac, baita-ere guiputz urrean dauden Bizcaico errietan. Ordea Cura Jaun edo animazaiac itzeguin bear dute, aldezatela, beren cargura daucaten erricoac itz eguiten duten bezala errian eracasten dutenean. Itzcho bi oei ta beste Elizgui-zon Eracaleai, ta ona San Pabloc gucioi esaten diguna: *Attende tibi, et doctrinæ. Hoc ænim faciens, et te ipsum salvum facies, et eos qui te audiunt.* Et certe, quid nobis proderit clamor et tumultus in docendo, predicatio opportuna et importuna, argumenta ægregia metho-

do

(XVII)

do elaborata, increpationes, et obsecrationes in populum effutire, si unum audiunt, et aliud vident? Si exempla pravitatis in nobis observant? Praenstans prædicatio exemplum bonum. *Attendamus ergo nobis bene vivendo.* Sed nulla vita bona in Ecclesiæ Pastoribus sine doctrina. Qui non docet iam iudicatus est: qui suarum ovium curam non habet fidem negavit et est infideli deterior. Qui Ecclesiæ doctrinæ in Tridentino anuntiatae non obedit, Christi vocem non audit, et tamquam et nicus habendus. Qui autem ad virtutem erudiunt multos, et qui bene præsunt Præsviteri, magnam remunerationem habebunt, et in Dei iudicio dicent, *Ecce pueri, quos dedisti mihi.*

# LENENGO PARTEA

*Sacramentu Santu Confesiocoaren gañean.*

## ERACASTE I.

Cein gauza bearra dan Confesioco Sacramentua.

G. *A* So da bat bateatua izatea salvacioa izateso?

E. Bai, bateoco gracia galdu ez dutenentzat; ta bateoco gracia ez dute galtzeen, gracia au artuezquero becatu mortal edo eriotzeoric eguiten ez duteenac.

G. *E*ta galdu badu cristauac bateoco gracia, ta ichusitu animaco jansi xuri ta ederra, cein vide guelditzen zaio graciara biurtzeko, ta berriz xuritzeko anima becatuz loitu ta ichusitua?

E. Sacramentu Santu Penitenciaco, edo Confesio oso ta bear dan becela eguina, al didilla; ta beti gogoz.

G. *C*er esan nai du Penitenciaren icenac?

E. Esan nai du naigave, edo pena iduquitzea, edo artzea damu eguiazco ta Jangoicoagandic datorrena.

G. *P*enitencia guisa bat baño guaiago ote da?

E. Bai: bi dira; batari deritzo Penitencia Virtutea, ta besteari Penitenciaco Sacramentua.

G. *C*erda Penitencia Virtutea?

E. Da Jangoicozco doai bat garamazana gorrotatze-ra becatua, ta artzeera gogo sendo bat ez guaiago beaturic eguiteco. Da, dio San Agustinec, negar eguita igaro edo eguin ciran becatuac gatic, ta damuturic, ez guaiago eguita.

G. *O*ri orrela bada, berriz beaturatzen danac, ez du penitenciaric leenago eguin?

E. Ez du eguin penitencia salvacioa ecarrico dionis,

ceren penitencia irauncorra ezpada, ez da corroatzen. *Irauten duenac onean azqueneraño, salvatioa izango du, dio Espiritu Santuac.* Eguia da becatu bihurtu gatic, izancitequeala eguiazcoa lengo confesioa naiz danua. Baña Penitencia igaroac ez dio ecer valioco inori salvatzeco, beccatu mortalarequin galdu bada Penitenciaco irabaci edo frutua. Cembat daude Infernuan dempora zati edo urte batzuetan penitenciaco negarrac issuricituztenaz? Ordea etzuten iraun, gogait eguin zuten, eman cien espalda Jangoicoari, ta beingo baten becela galdu zuten Ceruco coroa.

G. *Beraz bear bearra da Penitencia peccatuan erori dan edoceñentzat?*

E. Bai, ta ala dempora gucietan bear bearra izan da Virtutea dan aldetic Penitencia onen vitez salvatu ciran Adan ta Eva. Penitenciaren soñu au beti becela eracurten da Escritura Santa gucietan. Profeta santuac soñuau jotzen zuten. Cer izango zan David Erregueaz Natanen itzetara bihurtu ezpalitza! Ala beste penitenteac. Baña nolaco penitencia escatzen du Jangoicoac? *Biur zaitezte nigana viotz guciarequin, baraur, ta negar eguiñaz. Urratu edo ausiezazute viotza, ta ez soñocoac.* Itz oequin aditzen eman digu Jangoicoac ezdala ecertaco gauza viotzaren erditic irtetzen ez duen penitencia edo becatuaren danua; Viotza eman bearzaiola osoro edo guciiz. Benetaco penitenteac prestegon bear duela galtzeco honra, ondasunac, vicitza, edo edocein gauza Jangoicoa ofenditu baño leenago. Corputza ere eci edo mortificatu bear dala baraur edo beste necagarriequin. *In jejunió et fletu.* Ezdala asco becatuaren batzuen danua, baita ere gorrotatu bear dirala becatu mortal guciac: bularrac colpetzea viotza ausi gabe, auda damu sendo gabe, dala penitencia irudi utsa, edo hipocresia garbia. Norc esan lezaque, cembat utseguite ta ichutasun daggan gauza onetan? Badaquite cristauac penitenciari esqueñita dagoana barcacioa; baña beguitantzen zaie chit erraza dala penitencia eguitea. Arquitu bear dira Jangoicoaren itzetan eguiazco penitenciaren señaie, edo ezaugarriac. Ordea

cer

cer eracasten digu Jangoicoac? Ona cer dioan Ezequiel Profeta Santuarenaoz. *Becatu eguiten duen anima, dio, bera illo da. Baña becatariac eguiten badu bere becatu gucien penitencia, nere agüнду edo esanac aurreracoan gordetzen dituela, ta badarama vicitza zuten ta garbia, vicico da ta ez illo. Atozte nigana, ta egueiazute gaiztaqueria gucien penitencia...* Bota ezazuez *zuegandi eguitada equer guciac, ta egueiazute viotz ta espiritu berri bat. Cergatic iltzen cerate? Eztet nai ilzaitetzten, ta bai biur zaitezten nigana, ta vici onela.* Orra nolaco penitencia escatzen duen Jangoicoac. *Becatu guci gucien danua. Ab omnibus peccatis, aurrera gordetzea bere agüндуac. Ut custodiat omnia precepta mea.* Eguita guero justicia, edo eramatea vicitza zuceña. *Ut faciat iudicium et justitiam.* Artzea viotzta anima berribat bezala. *Facite cor novum, et Spiritum novum.*

G. *Ori ala izango zan ancinaco leguean, Confesioco Sacramentua etzegoan orduan, baña norc sinistu Jesu-Christoren legue biguñean bear dirala orrelaco penitencia señaieat?*

E. Ezdet ucatuco legue ancinacoan gracion jartzeco Penitenciaco virtutearen vitez, bearciola lagundu Jangoicoaren amorio garbi garbiac, ta esan oi dan becela, Contricio osoac, edo Jangoicoaren amorioac ausitzea. Eta Confesioraco ezdala bear modu orretaco damuric guero eracatsico degun becela. Baña cer? Viotza osoz aldatu gabe gaitzetic onera, becatu mortal gucien eguiazco damu gabe Jangoicoaren ofensac diralaco, artugabe gogo sendo bat ez gueiago becatuac eguiteco, gordetzeco osoz Jaunaren mandamentubac, jarraitzeco aurreracoan vitez zuten ta garbiari, eduqui gabe vorondatea emateco satisfacioa Jangoico ofendituari eguin diogun injuria, vitez gabe edo ofensagatic, deritzagu irichico degula becatuen parcacioa? Ez inolare; animaco penitencia gabe, ezdu Penitencia aguirico edo Confesioac ecer valioco, bairican guere animen calteraco.

G. *Beraz Confesio da eguiazco Sacramentua?*

E. Baita ala daduca erabaquita Eleiza Ama Santac be-

re

re Anima arzaïen Batzacuntza, Bilc<sup>u</sup>, edo Concilio Santuetan. Ona nola siniseracitzen duen eguia au Erromaco Catecismo edo Doctrina-Libru urrezcoac. Bautismoa dá Sacramentua, cerren barcatzen dituan becatu guciac, batezere original, edo jatörrizcoa. Ala bada Confesioac ere barcatzen ditu bateatu ezquero eguin diran becatuac Penitenteac ematen dituan señale agui, ta Confesorearen absolucioarequin. Ordea bein ondo bateatua ecin berriz bateatu diteque, baña bai nai adiañ aldiz confesatu.

G. Ote da becatu ain andi ta izugarriri, ceña ecin barcatu ditequean ondo confesatu ezquero?

E. Ez; bear diran prestaeraquin confesatzen bada.

G. Nola ordea eraturten da Evangelio Santuan esak zuela Jesu-Christoc Espiritu Santuaren contraco becatuac barcatuco ezdirala mundu onetan, ez bestean?

E. Ezdira itz oec aditzen barcatu ecin ditezquealaco, ceren Jangoicoac emanda daduca itza barcatuco zaizcola becatariari becatu guciac batera utzi gabe, eguiten bada eguiazco penitencia; Esaten da bada barcatuco ezdirala, cerren dan gucz gauza gaitza eguita alaco becatuen eguiazco penitencia. Esaten da eritasun edo corputzeco gaitzen bat osatu ecincorra dala gaissoac artu nai ezdituanean osacari edo erremedio aguitzen dizqueenac. Ala bada becatu batzuec dira barcatzen ezdiran ac becatariac artu nai ezdituztelaco bear diran sendagarri edo erremedioac animaco eritasun, edo gaitzetatic osatzeco. Bear dira bada milagrozo gracia ugariac alaz gaitz gogorretatic osatzeco; eta nola milagroac guchienac diran, alaere guchienac dira alaco becatuetatic barcacio eguiazcoa viotz penitentearequin escatzen dutenac.

G. Nola bada esatenda badirala becatu batzuec Aita Santuari, edo Obispo Jaunai gordeac, edo errietaco Confesoreac absoluitu ecin dezaguecenac?

E. Ezda ori Sacramentu Confesioacaren virtuteren paltaz, baicican absolucioaren gaiztasunac ezagueraci dezen becatariari becaturen batzuenanditasuna. Aita Santu ta Obispo Jaunac ere barcacioa eman bear dute Confesore nagusiac bezala berai becatuac aguerruta, edo bai

be-

berac ematendiela beste Confesore beera gocoai absolvitzeo escuidea. Baña betida eguia Elizan dagoala escuide edo podere osoa barcatzeo edocein becatu anima eguiaz huirtu, edo convertituarentzat.

G. Beraz badira becaturen batzuec Erromara joan gabe, edo Obispo Jaunai confesatu gabe barcatuco ecin diranac. Cer eguingo da bada becatari joanecin danac Erromara, edo Obispo Jaunarequin confesatu ecin danac? Eta erietico arriscu edo peligroan badago, cer eguin?

E. Guciraco arquitzen da erremedioa. Eliza Ama Santac ematen die escuidea Sacerdote, Confesore ezdiranai ere, confesatzeco ta absolvitzeo alaco gaisoac, edolaere ezdagoanean confesore dan Sacerdoteric. Ona nola erruquitzen dan bere umeequin. Oro bat bulda curutzeco santua daducana absolvi dezaque edocein Confesorec Aita Santu ta Obispo Jaunai gorderic dauden becatu guciatatic, bacarric ez benetaco heregia aoz: edo bestela atera danetic. Baña arquituco balitza bat heregia ascorequin ere, Erromara joan gabe errietaco Confesoreac arquituco luque videa absolvitzeo escaturic ezcutuan, ta diruric costa gabe absolvitzeo licencia edo escuidea. Eta ala ezda arquituco becatariac edergarri; escusa edo aitzaguiaric ez confesatzeco zucen ta arguiro bere becatu guciac. Badira berrizasco, heregiazco becatutzat dauquenac ezdiranac ere. Ai balego anima benetan humilde ta convertitua, ta cein erraz arquitucoluquean salvaciocovidea! Ordea becatuandiequin matasaturic daudenac bear dute billatu Confesore jaquitun ta animen celo edo gozeandico bat besteac bafio ere contu gueiagorequin. Baña cer guertatzen da? Billatzea Confesore nola alacoac, irentsicu dituztenac becatuac azertu gabe noizcoa dan gaitza, ta absolucio arin batequin bialtzen dituztenac paque guezurrezcoan, biac galdutzeco peligroan guelditzen dirala. Anima Jangoicoac jo dituenac, salvacioaren esque da biltzanac, ta eguiaz irten nai dutenac becatuaren gaitzetific, billatzen dituzte Confesoreric santuenac. Betor Missio bat. Cer guertatzen da? Anima bigunduac, confesio oso ta eguiazco bat eguin nai dutenac, confesio genera-

lac

la: eguiteco, alditela, billatzen dituzte, ez Confesore nasai ta contu guchicotzat daudenac, baicican jaquitunenac, anima zaleenac, lén nasai vici ciranean enzunere nai etzituztenac, ta misionisten artean ere bata baño bestea fervorosoago bada, urase nai Inque Orobat eriotzatarasc. Eta eguia esateco, nola anima gueldituco da paquean Confesore arin dijoacenequin, enzun ta enzun, igaro ta igaro dabilzanequin? Combat esanquizun gueldituco dira guero quezca emango dutenac? Ordea Confesore jaquitun batec, ta guciz confesio generalac eguin bear diranean, galdetuco diozca bear diranac, aztertucodu conciencia gucia, ta utzico du penitentea chitpaque andian. Britzen edo gaisotzen gueranean badaude escuor edo prest sei edo giteiago Medico, esaten ote degu, betor edocein? Ez; onena nai degu. Cergatic? Cerren osasuna benetan nai degun. Aucibat daducanac billatzen du Letraduric jaquitupena. O ichutasun caltegarria! Anima-co osasuna dijoacunean, edocein Confesore dala ona, ta bear bada billatzen dira pama chaarrecoac, becatuaren contra gorroto andiric ez dutenac. Cer esan? Ezdala nai osatu, ezdala nai deabruarequin dauagun aucia irabaci, baicic engafiatu edo zoraeraci conciencia.

G. Ori orrela dala confesio chaar asco eguin vide dira?

E. Ala da, ta eztago christau errietan calte gueia go eguiten duen gauzaric, nola dan Penitencia palsa edo ichurapen utsecoac. Eguiten da becatu beldurgabe, ta esaten da, confesatuco det, becatuac esatean balego becela barcacioa. Enzuten dutenean, Confesioac edocein becatu barcatzen duela, aisatzen dira edocein becatu eguitera, Penitencia eguiazcoa balitza becela Jaunaren la-guanta gabe eguin ditequeana. Ala erremedio Christoc atzi ciguna buirtzen da animaco pozoizatera, ta guero dijoaz ichu ichuan eriotza gaizto batera.

G. Nondic daquigu Jesu-Christos utzicigula Penitencia Sacramentu, edo aozco Confesioa?

E. Evangelio Santuan eracurten da, nola Jesu-Christo,

to, illenartetic piztuta guero, aguertu citzaien beldurrez ezcutuan ta alcaturic ceuden Apostolui esaten cie-la. Paquea zuequin, ta au esanda eracutsi eizten escuac ta alboac; ta berriz esanere bai, Paquea zuequin. Nere Aitac ni bidaldu nauen becela, ala nic ere zuec bidaltzen zaituztez: Zan esatea, nola niri Aitac eman cidan escua izateco guizonen Juez, ala nic ere ematen dizuet escuidea lurren guizonac juzgatzeco. Guero ezarri cien bere arnasa Jangoicozcoa, ta esan ere bai, Arzazute Espiritu Santua, zuec barcatzen dituzuten becatuac barcatuac izango dira; ta zuec barcatugabe lergatzen dituzunac, ez dira izango barcatuac. Esan ere cien beste bein gauza bera beste itz batzuequin, zuec ascatzen dituzuten becatuac, ascatuac izango dira, ta zuec lotzea dezuna, lotua izango da. Ona nola Jesu-Christoc eman cien Apostolui becatuen gafean sententia emateco escuidea, ta sententia emango ecin da becatuac jaquin gabe, becatariac declaracio zucena eman gabe, ta declaracio au da aozco Confesio garbi guezur ta estalqui gabea.

G. Cer esan nai du ordea ascatzeac ta lotzeac?

E. Esan nai du, Jesu-Christoc emanciela Apostolui escuidea absolvitzeac edo libratzeac becatuencatea gogorretatic benetaco penitenteac, damuandiarequin zucen confesatzen ciranac; ta ez libratzeac edo ucatzeac absolucioa damueguiazcoaren ezaugarri edo señalearquin confesatzen etziranai; cerren onelacoiematen zaien absolucioa dan caltegarria emiten ta artzen duenarentzat.

G. Cer eguin bear du penitenteac esaten badio Confesoreac eztagoala orduan prestatua absolucioa artutzeac?

E. Pensatu, obetó daquiala Confesoreac cer eguin bear daen, ta biurrera guero esatendion demporaa, arturic ematen dioa ordena. Badira christau asco dijoazanac confesatzera absolucioa artuecin dezaquin vici moduan. Onelacoen artecoac dira becatuaren ocasio urrecoan vorundatez daudenac, uzten ezdituztenac lecuado lagun, anima lén sarri galdu dienac, Confesoreac leenago esandaere egunetic egunera luzatzen dituztenac buirrera edo

errestitucioac eguiteac, eguiazco arrazoi gabe; ta ecin contatu beste ecandu, oitura, edo costumbre jarraitu ta lucecoac dauzqueenac, leenagoco confesioetan itz onac emandaere zacurrac becela buirtzen diranac jaatera lenago trocatu edo errebesatu cizaten becatuen loiac. Ona nola itzeguiten dien Jangoicoac bere Sacerdoteai; Ezarren egotzi gauza Santua Zacurrai, ezda ganau beltzaierre arri preciosoac. Da esatea, ez eman Jesu-Christoren Corputz Santua zacurrac becelacoai, becatuetara erraz buirtzen diranai, ta ganau beltzac becela garbitu ondoan dijoazanai loitzera berriz cingura, edo basatzan. Baña cer guertatzen da? Confesore zur edo prudente batec esaten badie utzi decela absolvitu orduco becatuaren ocasioa, beguia ta onac baño bearrago bada ere, aguintzen duen becela Jesu-Christoc; biur dozatela ostua, calte eguina, ta videgabeco irabacia, buirtu ditecela confesatzera absolucioa guero, emendatuta artutzeco, asitzen dira erreguca palagatzen Confesorea; Jauna absolbitu naza; biurtuco det ostua, utzico edo botaco det ocasioa, emendatuco naiz, ta ala milla onirudico itzac emanda absolucioa ateratzeco. Badira bai esaten dienac Confesoreari, gueiago confesatuco ezdirala absolvitzen ezpaditu orduartan, ta bai errosarioac botatzen edo ematen dioztenac Confesoreari esanaz, nere anima galdutzen bada izango da berorren contura. Onolaco prestamentua humildadearequin confesatzeco! Cein señaie arguiagoric eza gutzeco cijoala gaizqui prestatua! Ala bada utzi Confesoreari eguin dezan ondo deritzona, artu berac ematen dituan osavideac eza gutu, Confesoreac inore baño naiago luqueala eman absolucioa animaren calte gabe albañu, ta ex ibilli berarequin itz aucitan. Bestela gaizqui prestatua dagoala penitentea, esaten badu Confesoreac *nic absolvitzen zaitut* esango du Jesu-Christoc, *nic lotuago langatzen zaitut*, ta irtengodu Eleizatic sartuzanean baño gaiztoago sacrilegio andi birequin, absolucio eman bear etzanaren ondoan comulgatzen bada, ta batequin comulgatzen ezpada.

G. Cer bear da bada ondo prestatzeco Confesioraco.  
E.

E. Bost gauza. Concienciaren Aztertze, billaciantza, edo Esamina contuzcoa. Bigarrena, Damueguizco edo viotz osocoa Jangoicoa ofenditu dalaco. Irugarrena, Asmo, gogo, edo propositu sendoa ez gueiagoren gueiago becatu mortalic edo laere eguiteco, ta aldeguiteco becatuaren labanarri, edo ocasio, urrecoetic. Langarrena, aguertzea becatu mortalac jaquinac jaquinac becela, dudacoac dudacoac becela, spaindu, guchitu ta gueitu gabe. Bostgarrena, eguita Confesoreac ematen duan Penitencia. Ecusico dira gauza oec doctrina batzuetan.

## ERACACASTE II.

### *Confesio aurreco Esamina.*

**E** San degu igaro dan doctrinan ondo confesatzeco bear dan lenvico gauza dala Concienciaco Esamina.

G. Cer da bada Concienciaco Esamina au?

E. Da cristauac eguiten duan bere viotzaren aztertze, edo billacuntza contuzco bat, gogora ecartzeco azqueneco Confesio ondo eguinetic eguin dituan becatuac.

G. Cergatic esaten da Confesio ondo eguinetic?

E. Cerren ez dan asco confesio azquenecotic esamina eguita, leenago confesioten bat, bi, edo gueiago gaizqui eguina badauzca. Arquitzen dira cristau dauzqueenac gaizqui eguinda Confesio asco, edo lotsaz becaturen batco gueiago isildu dituztelaco, edo eguiazco dama gabe confesatu diralaco. Oec cer eguingo dute azqueneco Confesiotic, eguin bear duenera, esamina eguiteaz? Ecer ez gauza onic, ta bai videac eguin gueitze-co sacrilegioac. Onelacoa, guero astiro eracatsico degua becela bear dute eguin Confesio gaizqui eguin gucien Confesio generala, ta artaraco, dempora guci artaco becatu gucien ta confesio eguinen esamina contuzcoa; bestela ecin salvatuco da, ta ecin ondo confesa diteque Confesio generala eguin artean. Ala bada Concienciaco Esami-



mina eguitera dihoanean lenengo eguin yidea da aztertzea, edo billatzea ote daucan edo ez confesio gaizqui eguini. Ordea leenago contuau atera duenac, ta arqñitu ez arrazoi onic sinisteco gaizqui confesatu dala, ez tu beti ebilli bear alaco arazo ta ardura gueieguian, batezere ezaguera osuaz ecer estaldu ezpadu ta oitura gaiztoetan sarturic egon ezpada; eta arrazoi gueiagorequin Confesoreoc agundu badio ez artan bururic ausitzeco.

*G. Certo da esamina concienciacoa?*

*E.* Aguertzeco Confesoreari bere conciencia, acusatzeco bere burua, Jangoicoaren ordean barca ditzan becatuac absolucioaren videz. Esan gñenuzan, nola Confesorea dan Jesu-Christoren ordeco Jueza. Juezac ematzeco sentencia jaquin bear du ceren gñean eman, bestela oqer ebillico da. Lurreco Tribunaletan daude Fiscal, edo Acusatzalleac, Testigoac, ta gaistaguillearen declaracio edo Confesio Juezac artu bear dizeonac. Guçiac aituta ematen da sentencia, edo libratzeco, edo castigatzeco. Nola bada Confesore batec eman dezaque sentencia zucena ezpadago acusacio, ta declaracio garbiric? Eta nola declaracio edo confesio zucena eman, viotza esaminatu gabe? Guçiago. Lurreco Juezac eñtie inori aguintzen burua acusatzeco, edo aguerrzeco gaiztaqñeria, ezpadago acusatzalleric, edo eguin duelaco señaieren bat. Baña Jesu-Christoc aguintzen dio, barcacioa nai diren becatariari, eguiteco berac acusacio edo confesio zucen garbi bat ecer utzigabe, cerren eguin zuan Tribunale Inquisiciocoa baño issillagoa, beste acusatzalle ta testigugabe becataria bera baño. Beraz bear da esamina contuzco bat eguin acusacio osoa aleguinez eguiteco. Lurreco Tribunalac dira Justicia utsecoac becela, Juezac ondo badabilta. Berriz Confesioco Tribunalac da misericordia utseco Tribunalac, cerren Confesioa eguin zan barcatzeco gaizqui eguiña confesio zucen ta garbi bat eguiten bada becatuaren damuarequin. Eriotzaren bat eguin da Justicia arrapatzen duenari, cer eracusten etzaio? Darame Carcelara, ezarten diez cateac, sartzendute cepon, an dira gosea, otza, loia, lur gogorra, bacartadea, ta cembat

bat nalgave? Confesioac artzen diozquenean andira Escribauac, ta Jueza bera, edo bere ordecoa itz onbat esaten ezdiela, ta bai aguertu becoqui illuna. Vcatzen badu, arrapatzcen dute guezurreac milla contu artzerequin; artzen dira testigoac, ta eztio ecer valio ucatzeco probantza osoa billatu dutelaco. Eguia esanagatic, ezdago barcacioc, condenatzen dute vicitza galtzera; ezdio ecer valio culpagabe badagoere, baldin egotzi badie eriotz eguina, arqñitzen badira testigo guezurrezco sendo dau denac. Milla negar malcorequin barcacioa escatuarren, ezta enuzia, Justicia eguiten du berea, ta arrazoiac. Ez ala Confesioco Tribunale Jesu-Christoc ipiaian. Confesatzen badu zucen eguia, ta ori ezcutuan Juez inori esango ezdionari, ta escatzen badu barcacioa humiltasun ta damuandi batequin, ezdago castigu esatecoric, ta bai barcacioa. Eriotza bat eguin da dagoanari deituco balio issillic Juezac, ta esan, libratuco zaitut Carcelatic esateri badidazu eguia, edo confesatzen badidazu neuri bacaric, norc confesatuco ez lioque? Nolaco esquerrac eman ez alaco Juez biguñ, ta erruquiorrari? Orra bada certo da Esamina, aguertzeco Confesoreari becatu, edo gaizqui eguiñac barcatu ditzan Jesu-Christoren Juez ordecoac becela. Norc ezagutu ez jaicio onen biguntasuna? Norc emanez Jesu-Christori esquer andiac ambeste erruqui aguertzen digulaco?

*G. Cergatic gueiago eguin bear da Concienciaco Esamina?*

*E.* Cerrren Confesorea Juez ez ece, danere animaco Osaguille edo Medicua, ta Medicu bati esan bear zaizca garbira corputzeco gaitzac, ta ez ecer estaldu utsic eguin ezdezan. Medicu bates combat azterri eguiten ezditu gaitza ezagutzeco? Jaquin bear du gaitza zaarra edo berria dan, nondic jaio dan, ta cer ez? Beraz Confesoreac animaco Medicua dan aldetic, jaquin bear du becatua zaarra edo berria dan, ancinatic datorren edo ez, nondic jaiotzen dan, nolaco lecu edo adisquide gaiztoetic, dan gaitza misgñecoa, escucoa, bularrecoa, edo toqui ascotacoa, au da itzez, escuz, viotzez edo non-

goac diran becatuac. Ematen ezpadio contuzucena becatariac osatu bearrean, eriotzarequin irtengo du. Beraz bear da becatu edo animaco gaitzen esamina contuzco bat eguin, aguertzeco garbiri Confesoreari.

G. *Cergatic guciago eguin bear da Esamina au?*

E. Cerrea gure salvacioco osasuna dagoan esequita bere becatuaren ezagutzatic. *Inituum salutis notitia peccati.* Ala dio Seneca Jaquitua fedaezagutu etzuanac. Ezagutu gabe, ecingo du confesatu, damuric ore artuez; ezagutzen ez dan becatu nola gorrotatu? Nola berriz ezagutu, aztertu, edo esaminatu gabe viotza?

G. *Beraz Concienciaco esamina da obligacioco?*

E. Nolaere dan; ta ala bacoitzaren naguitasun osoaz, edo andiz largatzen bada confesatugabe becatu mortalen bat, izango da Confesioa chaarra; naguitasun esamina-coa laburra edo guchibaten bada, izango da becatu veniala, ordea ez gaiztoa confesioa beste utseguinic ezpadu.

G. *Nolacoac bada izan bear du Confesioraco esamina?*

E. Contuzcoac, arretaz eguiñac, ez itoca, arinca, ta senian bezala. Cereguin astun edo ardura ematen dutenac, ez dira beingoan ta itomendian eguiten, baicican astiro ta contuz. Cerbait irabaci bear bada, edo bai aldeguin calte andi batetic, nolaco diligenciac? Galdu danean creztun eder bat, ecusten dira eche gucico bazterrac, artzen da ichuqui edo escaba, garbitzen dira loiac. Ecu-sico bagueu sartutzen echean Sugue bat, nolaco beldurra, cembat arazo? zulo, oape, ta zoco guciac aztertzen dira arqutzeco piztia citala. Norc lo eguin baquean arqutu ta illgabe? Cerc eguiten du au? Estimatzen dalaco ereztuna, osasuna edo vicitza. Non da gure fedea? Cem-hat christau dira daquitenac, beren viotzean sartu dirala suguea baño caltegarriagoco becatuac, ta lo eguiten dutenac beldurgabe, ta ecusi gabe nolacoac ta cembat diran, arqutu, ta iltzeco Confesioco ezpataz? Erregue bategen irten biar badu guerrara beste Erregue batequin, dio Jesu-Christoc, Parten da contuac ateratzen nolaco gastuac eguin

eguin bearco diran, cembat Soldadu prestatu bear dituan etsaiari arpegui emateco. *Sedens prius cogitar: asitzen da pensatzen eserita,* au da astiro, ez itoca, ez arin ta beingoan. Orain bada, cer eguin bear ezdu Cristauac bere cereguinician dianan? Atera bear du contu Erregue alacoac, dira Christoren itzac, asco ote dituen, gauza guciac ondo aztertuta, amar milla Soldadu, oguei millarequin bere contra datorrenari irtetzeco. Nolacoac ez dagure guerra Infernaco etsiarequin? Badauzca etsai gaiztoac oguei becatu mortal guriateratzeco, guri guerra berequin emateco; ta guc contuac ondo ez ateratzegatic, gure esaminaren paltaz, amar baño ezpadaramaguz Confesioco batallara, ta au gure naguitasunez, arduraric ezaz, igues eguitei degulaco doctrina ta Sermoietatic, non icasi guenzequean esamina ondo eguiten, cer guratuco zaigu? Garaituco gaituetsaiac, beretuco gaitu, ta Jangoicoaren gracia atera bearrean. Confesiotic, ateraco ditugu Sacrilégioac.

G. *Nai nuque enzun guertaera edo egemplu egoqui bat gauza onen goñean.*

E. Ona eracurten dana Santa Margarita Cortonaren vicitzan. Zegoala mundico vicitza leñai eraman zuena castigatzen ~~...~~ penitencia arrigarri batequin ~~...~~, aguertu citzaion sarri Christo, baña beti ematencion becatari gaisoaren icena. Jauna, esan cion alaco aguer aldi baten, cergatic ematen ezdit noiz bait alabaren icena? Ez dizue ematen, eranzucion Christoc, danzcat zulaco becatu ezcuru ancinaco vicitzan eguiñac bear dan becela confesatu gabe bear adina esamina eguin etzenualaco. Onere Jauna, esancion Santa Penitenteac, zu cera argui eguiac, quenzazuz bada nere animaco illuntasunac, ezagutu detzadan arguiro ta banaan becela nere becatu ta circunstancia guciac, berriz Confesio general ta vicitza gucico bat eguinda, irichi dezadan gucien barcacio osoa, ta zuc ematean niri alabaren icena. Bereala ispillubaten becela aguertu edo ecusi eraci ciozcan Jangoicoac argui vici batequin bere vicitza gucico utseguinac, ta confesatu cituan, norc esan nolaco damu amore garbicoarequin?

Orduan agueritu citraion berriz Jesu-Christo, ta emanic alabaren icena, artu uen bere secreto andi ta ascoren contua emateco. Santa onec eguin zuan convertituta laster vicitza gucico Confesio generala danu guciz andiarequin, et uen ecer ut i lotsa, ta igaroere cituan urte osoac sarri confesat en ta comulgat en vala, egultencitua t obra onasco, ceintuen vitez zegoan ez bacurric Jangoicoaren gracion, baitaere aurrera penandian perfiditico videdean eguinda. Cerc bada atzeratzen zuen Jangoicoa alabaren icena ematera, ta ez becatari gaisoarena? Aguerzu etzuelaco becatoren batzuec, Juas nai uen ceeratumarequin, ez vorondate onaren pitat, ta bai bear adina esamina edo a tertze eguin etzuelaco. Santa onen utseguita et an andia i an, ez becatu coa ere bere esaminaren laburtasuna; ala ere escatu cim esamina ceagoa. Eguia da esamina ondo eguiteco naguitasuna e tanean andia, barcatzen dirala confesatu gabe gueldit en diran becatuac, nola barcat en diran esamina oso ta contu coa eguinda aa tuac; ordea confesatzeco cargarequin gogoratzen ditencan. Ez ala naguitasun andiarequin, edo ceatuer esamina chit laburra eguiten danean Confesorearen galdet e es ta contu coarequin suplitu edanean esaminaren laburtasuna, ta au noiz edo berriz gueta diteque buru haarecoren bat uequin, ez beti ta ez guciequin. Ona cer dion Trentoco Concilio Santuac gaua onen gafean: Bear ditu Penitenteac agurru esamina contu co baten atera dituen becatu mortal guciac. Bebat en du esamina ciur ta contuzco bat. Nolaco ciurtasun, arreta ta contua iduquitzen e da gauza pisucoetan? Guraso on ta zur batec nai duenean ezcondu bere alaba, e dio ematen ematet at edocein gui asemeri. Nolaco a terriac eguitenez ditu Senargaiaren ondasun, cristantian, genio, ta Odolaren gafean? Censo bat ipini nai duene beguiratzen du contuz, nori ematendion, ceren gafean: a tertzen duleenago beste censo edo zorric duen, ta combateraño; escatzen diozcaz piadore segurua. Jaun batec escatzen diozca bere acienda edo ondasunen Maiordomoari contu estuac, ez dio esan utsari sinistea ematen. No-

la bada cristaua gauza ain pisucoan, nola dan animaco salvacioa, izan diteque nagui ta arretagabea? Nola bere buruari contu estuac artu ez jaquiteco nolaco moduz, ta cembat bider ta ce aldetatic utseguin duen Jangoicoac ondo erabiltzeco emandionai animaco governuan?

G. Ori ondo ezagutzen da, ordea combateraño eldu bear du esamina onen contu ta ceztasunac?

E. Eztago zuzen vide edo erregla, jaquin ta erabaquiric; batzuec bear dute dempora gueiago, besteac guchiago. Norc nai ezagutuen du, Confesio vicitza gucicoa, edo general osoa eguiteco, bear dala gueiago lau edo bost urteco Confesio generala eguiteco baño Buru iratzarri, azcor, ta onecoac guchiago bear duela buru char, ta guchi jaquin batec baño. Confesio urte osocoac guchiago, urte erdicoac baño; ta alaere guchiago confesio sarri eguinae. Languintza edo officioac ere badira batzuec baño besteac arazorsuagoac ta obligacio gueiago dcartenac. Beréz, nescame batec obligacio guchiago du eche-co Jaun edo andreae baño, nescach batec ezconduac baño, a vicijs batec nequezaleac baño, mercatari batec achurlariac baño; bada estaduco obligacioac escatzen dute berezco esamina. Ola guizon baten alcandorea ezda ain erraz garbitzen, nola beste ascorena. Urte gucian suregui, icatz, ta mallu burnizcoequin dabillenaren esenac ur gueiago, igortzi estu ta sarriagoac bear dituzte arotz baten esenac garbitzeco baño.

G. Ondo dio, ta ezdet cer esanic orren contra; ordea beti guelditzen nai beldurrarequin ondo esaminatzen naizon edo ez.

E. Bein eranzungo dizut zuzen jaquin gabe nolacoa dan zure vicitza. Bi aldetatic utseguiten da gauza onetan, gucieguiaren ta guchieguiaren aldetic. Gueieguiaz utseguiten dute Cristau escrupuloso, icaracor, ta videdagabeco beldurrez burua autsitzen dutenac esamina luceetan. Deabruac siniseraci nai du Confesioa dala tormentu lecuac, ez legue biguna, gogaiteraciric, eramatea guc vicitza estua, ta igues eraci animo onai confesio ta comunitic. Anima naiago duenac vicitza galdu becatu mortal bat

bat eguin baño, ta prestaera viotzeco onequin betico beldurrean daudenac ondo esaminatu diran edo ez, leenagoco confesioac onac diran edo ez, berriz eguin bear dutela esamina luceagoarequin Confesio generala, Confesoreac uzteco esana gatic baquetu ecin diranac, utseguiten duté. Certaco onelacoac ausi burua esamina gogaitgarri ta lucean? Eztute besteric eguiten baican asmatu becela becatu eguin ez dituztenac; beguitantzen zaiez becatu naiac, edo tentacioai Iecu emanac eman ezdien orduan. Onelacoac becatu mortalén bat eguin balute, ecin eguitéco bear dan ezaguera ta vorondate osoa, ecin aztuco luque, ez loric eguin beldurgabe, ta ezdute esamina andiren bearric gogoratzeco becatu mortala. Becatu venialen confesioa chit ona bada ere, ezta obligaciocoa; beraz ezda beren esamina ere. Ait esaten det Cristau eguiaz escrupulosoac diranentzat, ez gauza batzuetan lasai.c., besteetan estubegniac. Onelacoac dira euscalerrietan esan oi dan becela *Zaietan ciogui, irinetan ero.* Zai apur bat galdu ezdidin estu ta larri, ta irin zaiac galduagatic farre galanqui. Ancinaco Sacristauac becela, ostu Elizan ostuala arguizai, ta beldur izan chistu apur bat Eliz barruan botatzen. Ecusten dira cristau becatu mortal galantac irinsten dituztenac, ta bestetic becatu ezdiran gauceetan chit beldurtzac Fariseo arro ta hipocritac becela. Oec dira deabruac poliqui engañatzen dituenac. Onelacoac bear dute Ceruco argui eder bat, ta esamina lucearen bearra. Baña benetaco escrupulosoac ez luque becuric eguingo esamina apur batequin, ta esaminaric gabe balijoazere confesatzerá; cerren esamina ezda bear bearra daquianean batec azqueneco confesio onetic becatu mortalic eguin ezdala, ta au chit sarri guertatzen da anima onetan. Ai, Cristau escrupulosoac esamina guintzan igarotzen duten dempora, alperric galdu ta caltegarria, igaroco balute Jesu-Christoc digun amoreaztertzen, batezere altaraco mai santuan, eta nola beldur eragabeac utziric elduco hraquean comulgat era gozamen ta baque gueiagorequin! Cer vide artu onetarraco? Enzun Jesu-Christoren itza Confesorearen aotic, ta

begui ichuequin eguin bere esanac. Besteac dira contra-co videtic dabiltzanac; oec dira cristau nasai, ta ardura gabeac animaco salvacioaren gañean. Oen artecoen illacoraco edo urte gucico Confesioac dijoaz esaminagabe, edo chit arin batequin Confesorearen onetara, ta esaten dio, Jauna galdetu beguit. Nola igarrico die leenago ezagutu eztuan conciencian cer igarotzen dan? Confesore artuac, sarri concienciaco bazterren berri izan dutenac, laster ta erraz igarten die dan edo ez pecatu penitenteac iduqui duen tentacioa, ezta baida edo duda aldietan ebaquitzen dute gaitzgabe. Medicu ez ezaguna ezda ain ona besteac berdin dirala, nola Medicu guisoaren berriac daquizquiána. Eche baten sarri sartu danac, edo urteetan vici danac, gavaz ta illuneanere ebillico da erori gabe. Berrizen echeco berri eztaquiána, ebillico da, arguisc eypadu, atzaparca eztaquiála nori escua erratsi erori ezdidin, ta gueldica dabillelaere banatu diteque erraz bazterren baten contra, edo erori escalleratic. Ala concienciaco eche illunean sarri sartu dan Confesorea, ebillico da erraz; badaqui non dauden guelaac, cer dagoan, non labandu ditequean, nolacoac diran penitentearen genio, pasio, oitura, tentacio, ta daranna viciniódna. Cer eguin berriz Confesore jaquitunenac ere esamina contuzco gabe datorren penitente ez ezagunarequin! Ecin jaquin lezaque certaraño galdetu, ez cer ebaqui ezta baida edo duda ascotan. Ain erraz eranzungo dio amar, cein oguei, ta laster consintituzuela, nola ez. Ala dio Suarez jaquintsuac. Egua da cristau guchi dirala conciencia chit ona eypadute confesio luce ta naastuetan eguin dezaquetenac esplicacio argui, zucen ta bear diran circunstancia guciana, ta bear dutela Confesorearen laguntasuna galdetzeetan. Ordea, eldu Confesorearen onetara esaminaric gabe, edo ichurapenezcoarequin igarri dezon cer eguin duen, aulitzaque jartea confesio gauza ezdan bateguitéco videan. Badira beste batzuec Confesio luce edo urte gucicoarequin beren esamina modua eguinda asico diranac esaten, acusatzen naiz Jauna, aserre apurcho batzuec izan ditudala nere echean, ta auzocoequin, galdu det cerbait

nere paciencia, esan ditut farre era guiteco itzat, baita guezur chiqui batzuec, ezarri det noiz bait trago bat gueisseago, baña eztet trocatu, ez paqueric galdu, ez errierta andiric jaso, ez inori gaitzic eguin... Eztet Jauna gueiago cer confesatu. Acusatze labur onequin cer aditu lezaque confesoreac? Eztu acusacio garbiric eguin, pecatu arintzat esan ditu guciac. Onelacoac gueienez dira oracioa cer dan ezdaquitenac, mortificacioaren icenare aitu ezdutenac, dara menac vicitza lasai ta gauza onic eguingabea. Cembat becatu estaltzen dira beren animaco begui lausotu, edo gueunduetatic? Itz farre eraguiteco acusatu dituenac dira edo murmuracio astunac, edo ichusi, zatargarbitasunaren contracoac, ta anima ascoren galgarriac. Errierta edo aserre apurchoac dira birao edo maldicio gogoz echeco ta auzocoen escandalagarriac, tragocho bat gueiago edatea, da albo alboca, beguiac lausotuta, onac locatuta echera nequez biurtzea echecoac bear zutena gastatuaz ardantegui edo Tabernan. Onela dijoaz confesatzera esamina gabe lenengo burura etorten zatena esatera, apintzen dituztela becatu andiac ta utsera joeracita. O confesio ederrac! O esamina prestaera ederrecoa! Eguzqui arguitic sartutzen dana guela illunean, ichutzen becela da ordu artan, ta ezdu ecerecusten ordeu irautn badu guela artan egotez, ecusico ditu guerora an dauden pintura, ta tresna guciac. Beste onembeste guertatzen zaie cristau ascori beren concienciaco leiza, edo cobao illuna becelacoan. Beguiratze edo lenvicico sarrean, esamina laburruean, ezdute ecer ecuesten egonagatic becatu itsusi asco. Baña iraungo balute esamina, edo concienciaco beguiratze, ta azertzean ecusico lituzque an dauden gauza lotsagarriac. An arquituco luque nola lecu emancien tentacioari, nola berriquetatzat ceudenac, diran murmuracio astunac, itz farre eraguitecoac, cirala itz zatar ta escandalagarriac; nola eragotzi bear cituzten gauzac, eragotzi etzituzten, ta ala beste gauza chiar asco. Idiqui orna, ta anarquituco dira gordeta norcesan cembat gaizqui eguin. *Fode parietem.*

ERA-

## ERACASTE III.

*Gauza beraren Jarraitza.*

**I**Cusi ditugu igaro dan doctrinan, cer dan Esamina concienciacoa, nolacoac izan bear duen, ta cembatec utseguiten duten gauza ain bearrean; baña nola gauza asco dagoan cer eracatsi gai ugari onetan, nai ditut azaldu, edo esplicatu beste doctrina baten, dauden cer jaquifac.

**G.** *Certan bada utseguiten dute cristau ascoc esamina ondo ez eguitean?*

**E.** Bi aldetara; bat, ez animari contu artuaz becatu omisiocoen gafean, ta bestea pilloan, ta ceaztasun gabe mandamentuac igaroaz becatuac gogoratzeco.

Cer da becatu omisiocoa, edo eguimezeco?

Da ez eguitea eguin bear dan gauzarenbat. Ona egemplo bat edo beste. Aguintzen da Jesu-Christoc eguiteco limosna. Au da obligacio estua. Bada ez eguitea limosna eguin bear dan aldietan, da omisioco becatua. Ala beste obra misericordiacoen gafean utseguiten da obligatzen gaituzten aldi ascotan. Guraso bati aguitzen dio Jangoicac aciera ona emateco beren umeai. Ez ematea aciera ona da omisioco becatua. Emen sartzen dira bacoitzac bere estadu edo ofcioco obligacioai ez eranzutea. Norcesan berriz cein guchi diran onelaco eguinecen gafean esaminitzen diranac? Elduzan bein Erregue campoan cebillen bat errichiqui batera, ta billatuzuen confesatzeco errico Cura, edo Erretora. Eguin zuen Erreguec mandamentuetatic bere confesioa, ta uste zuenean etzeucala cer esan gueiago, esancion Confesore onarc, Jauna, confesatu ditu guizonaren becatuac, orain confesatu bear ditu Erreguerenac. Artucion guero contu, nola zucentzen zuen bere Reinoa nolaco Ministroac ceuzcan, nola beguiratzen zuen empleoac ematen, ta ala beste gauza asco. Etzion gaitziritzu Confesore aren contu artzeari, ta bai eguin

eguin Toledaco Arzobispo, ain beguiratua zalaco animac zucentzen, ta itzeguiten beldurgabe. Eli Israelgo Jueza guciz ona zan alde ascotara, baña bear becela castigatu ezizuelaco bere Seme gaizto biac, ceintzuec eguiten cituzten oquerasco, ta eragotzi ezizuelaco Seme aien becatuac, irurac il ciran beingo bateau, ta igaro zan castigua beren ondoren goetara. Ala guizon averats batec igarotzen badu mezaac ezuten goiz gucia, ta egunac dituen beste ordu guciac gauza onasco eguiten, bada diruzalea, cequena, ta ez limosnaria, ezda saluatuco, cerren ezduen eguiten eguin bear duena, ezduen caridaderic; ta cerren pobreal ucatzea limosna bear ordnetan, dan ucatzea Jesu-Christori. Beraz dirudunac esaminatu bear dute conciencia eguiten duten edo ez bear beste limosna, bere gogortasunagatic atzeratzen ote diran edo ez premian da-odenac berari limosna escatzen. Cergatic erori zan Infernura Averats cicotz, cequen ta diru zalea? Beretzat zuen mai chit ona, jatecoa gueleguiac, ta bere atarian cegoan pobre Lazaro ceritzanari, eracusten cion arpegui astuna socorritu bearrean. Orra nola condenatuzan ez eguiñaz edo omisioco becatuagatic. Beste ambeste guertatuco zaic vlotz gogorren jaubeai, erruquirac ezdiranai, ondasun asco eduqui ta gueituaz disoazenai, zabaldugabe pobren artean. Cutzcia, edo Cequentasuna da Idolaco servitzea, ta becatu ascoren iturburu edo sinistraia. Ala dio Espiritu Santuac. Ezdute onelacoac cer ecusirie izango Jangoicoaren Reinuan, ala dio San Pablo. Ordea, nore ezagutzen du becatu au? Bai averats vlotz biguneco ta limosnaguillac, ez cequen diruzaleac. Beraz eguin bear da esamina zucen ez eguinen gafiñean eguin bear diran gauceetan. Escola-maisu batec iduqui bear du contu andia escola mutillequin, eman bear die doctrina ta egeuplo on, eracatsi ondo doctrina, eracurten ta escrititzen, meza santuan ondo egotea; naguia bada, eguingo du becatu ez eguiñaz eguin bear zuena; ta confesatzeco esaminatu bear du, nola cumplitzen edo betetzen dituen bere obligacioac. Gurasoac berriz ceibat utseguite? Oec eguingo balute eguin bear dutena, egui-

eguiñaz aleguina aciera on bat chiquitatic emateco beren uacai, noli ecusico liraque ambar nasaitasun ta becatu mutil ta mescachetan? Ceibat guraso dira onen gafiñean esaminatzen diranac? Guchi. Ceibar echeco-jain edo andra beren morroe ta mirabeaquin animaco gauze tan conturic ezdutenac? Echeraco ona bada, bearguina bada, ta escu garbicoa, mingasia ta obrac gaiztoac baditu ere, chit conturitu daude beren servicioarequin. Cer dio berriz San Pablo? Bere echecoen ardura, edo conturic ez duenac, fedea ucatu du, ta da fedegabe edo Gentila bafio gaiztoagoa. Ordu osoac ezdira asco adieratzeco Oficio ta estadu bacoitzeco obligacioac, ta eguiten diran utseguinac. Jaquin bear ditu bacoitzac bere oficioari dagozquionac, ta jaquinezta da giteinez bere erru edo culpaz. Estadu guciac dituzte beren carguac, Cura Jaunac Sacerdoteac, Confesoreac, medicu-barberac, Letradu Escribadu, Juezac, ta ala beste oficioacoac. Bera bacoit ac jaquin bear du nola utseguin dezaquean bere oficioan, ta nola ondo eguin: esaminatu ere bai nola eranzun dien obligacioai.

G. Cein dira gatzqui esaminatzen diranac pilloan, ta ceartasun gabe mandamentuac igaro ac?

E. Dira mandamentuen itz utsai beguiratzen dienac, ta ez sarturic dauden ambeste gauzari. Demagun asitzen dala esamina eguiteco anar mandamentuac banaan igarotzen, ta dio bere artean lenvicioa Jangoicoa amiatzea gauza guciez gafiñean. Nie Jauna maita izan det, ez diot gafiñe nai izan. Eztet cer acusatatu mandamentu onetan. Emen guelditzen da esaminatze gucia. Ederqui. Eta ezdio concienciaari beguiratu bear aztertzeo Jangoicoa amiatu duen edo ez? Eguin ote dituen Fedeco, Esperanzaco ta amoriozeo actaac? Arquituco dira asco etzaitenac gogoratu ere eguitea; eguin badituzte aoz, ezdala izan bear becelaco becatuaren danuaz, egon diralaco becatu mortalean dempora lucean. Bigarrena, ez juramenturic eguitea alperrie. Justiciaren aurrean guezurrezco juramenturic eguin ezpadute, aurrera igarotzen dira asco esamina guelago eguin gabe, eguiten dituztela guezuraren gafiñeco juramentuac bestelaco demporetan, esanaz gue-

guezurren bat siniseracitzeco, *Jangoicoac ala salva nazala, emendic pausoric eman ezdezadala*, ta onelaco bere contraco biraoac. Ustedute guezur chiquien gañeco juramentuac, becatu arinac dirala. Yrugarrenean mezaric enzungabe utzi ezpadute, guchi esaminatzen dira nola enzuuduten. Laugarrenean lenago esan guenuan becela Gurasoac asco dute cer esaminatu umeen aciera onaren gañean, umeac ere bai gurasoai zor dien lotsa edo honraren gañean, ta utseguinac ezagutu bear lituzque Teologiaric jaquin ezagatic. Bostgarrenean daquitelaco inor ill ezdutela, guelditzen ere ezdira. Baña cembat daude aserre baten ondoren itzicere eguin gabe, gorrotoan, ta promigimo alacoen gaitzetan poztutzen dirala bene benetan? Moscortzen diranac, cembat edergarri estaltzeco beren becatua? Seigarrenean, *ez araguiazco becatuoric eguitea*. Jangoico maitea, nolaco esamina mandamentu onetan? Cembat cristau dira becatu oso edo aragui-corputzecoric eguin ezpadute, ecereztzat ez dauzquenac apa laztanac, escuca loiac, itz caltegarriac, ta viotz bacarreco atsegui-nac? Nolaco esamina eguingo dute alacoac? Eta cer valioco die beren ichutasun vorondatezcoac? Cembat aldiz edo bider aitu dute Pulpitoetic, Confesorearena otic, dirala becatuac pensamentu nai izan edo consentituac, ta esan diran beste gauzaac? Zazpigarrena, *ez ostutzea*. Escuz ecer artutzen ezpadute, eztago beste esaminaguintzaric ascorentzat. Norc esan berriz cembat aldetara becatu eguiten daa mandamentu santu onen contra? Cembat logreria, irabazte videgabeco salduerosietan, cembat caltemodu inoren ondasunetan! Zortzigarrena, *ez guezurrezco testimonioric egozte*, ta *ez guezurric esatea*. Yñori asmatu ezpaziao guezur caltegarriac, eztago ascorentzat beste esaminaric. Baña cembat murmuracio astun ta ezcutuco? Onela, ala Jangoicoaren Legueco amar mandamentuen, nola Elizaco bosten gañean eguiten da esamina, edo concienciaco aztertze chit azalecoa ta laburra, uzten dira ezagutu ta confesatu gabe becatu asco, ta eguiten dira confesio gaiztoac. Nondic dator calte au? Ez ote dituzte animazai edo Cura Jaunac ceaztzen mandamentuac

be-

beren Sermoi edo doctrinetan? Ote dira naguiac eracasten ta beren obligacio ain estuari eranzuten? Ala balitza, cer contu emango lioque bere escuetatic, entregatu diozcan animac, escatuco dituen Jesu-Christori? Baña cer esesio edo escusa emango dute doctrina Santuetatic iguesi dabilzan animac; edo ardi aldenduric dabilzanac enzun nai ezdutela Arzaiaeren deia? Beren ezjaquina le-torque icasi naieza gatic, ta au litzaque becatu, beste becatuoric estaldu ecingo duena. Ezagutzen ezdalaco becatua, ezda bere damuric artutzen. Ala dio Jangoicoac Jeremias Profetaren aoz. *Eztago norc eguin dexan bere becatuaren penitencia, diotela, cer eguin det?* Esamina bi eguin bear dira confesio ona eguiteco: bata ezagutze-co becatuen cembatasun edo numeroa, nolaco gauzatan, becatu eguin dañ, ta becatuaren circunstancia edo cer celidade batzuec. Au eguin bear da aozco Confesio osoa aleguinez eguiteco. Bigarren esamina eguin bear da ezagutze-co becatuaren malicia, edo gaiztotasuna, nor dan ofenditua, edo noren contra becatu eguiten dan, nor dan becatu eguiten duena, cergatic; cein diran becatuaren ondorengo, edo calteac. Esamina au eguin bear da viotzeco Contricio edo damua iristeco, ceina gabe aozco Confesioa alperra dan, guero aguertuco degun becela damuaren gañeco doctrinan.

G. *Nola bada eguin bear da aozco Confesio osoa eguiteco Esamina?*

E. Jaquin bear da bada eztuela esamina onec izan bear ez munduco gauzeen aztertze edo esamina bezalacoa, baicican fede vici batetic jaioa. Mercatari batec ateratzen ditu bere artu eman, galdu irabacien contuac beti viotza daducala iratsiric ezagutzean, nola irtengo duen bere contuetan. Ordea Christau, confesatzeco esamina eguia edo becatuen contuac ateratzen dituanac, egin bear du lotsa santu batequin, ta barcacioa escatzeco Jangoico ofendituari viotzeco damu andi batequin. Jarri bear du Jangoicoaren aurrean, ta lecu bagar baten; escatu bear dio animaco beguien arguitasuna, escarucion becela Evangelio-co ichuac Jesu-Christori corputzeco-en icusvidea. Gui-

D

zon

zon gaiso arc, sentitu zuenean igarotzen zala Jesu-Christo bere urretic, asi citzaion deadarrez, *Jesus Daviden Semea*, *erruquitu zaitte nizax*. Gendeac esaten cion, zauda issillic orrembeste jardungabe. Bafia orduan deadarra gueiago jasotzen zuen. Biurtu zan Salvaguillea beragan, ta galdetu cion cer nai zuen? Jauna ecustea, edo beguietaco arguia. *Domine ut videam*. Jesusec ecusiric bere escatze fed e osocoa esan cion, ala izan didilla escatzen dezun becela; ta arguitu citzaion bere beguiac. Gu guerez ichuac guera anima ta salvacioari dagozquion gauza gucietan. Bear degu Ceruco arguia ecusteco gure viotz barrenean igarotzen dana, ona iduqui ezdezagun gaiztzat, ta gaitza ontzat; ta alaere gueiago, ezagutzeeo becatuaren gaiztotasun edo malicia. Dijoa vidiazti bat lecuez ezagunetan, ta artzen du gavac baso andi baten. Nolaco esua berea? Nolaco icara ta beldurra? Alaco baten arkitzen du bacartadean eche erdi erori ta zarbat. Sartutzen da ta videco nequea arintzeco echuten da bazter baten lo eguiteco. Arguitzen da eguna, ta orra non ecusten dituen bere aldamenen sugue, Dragoi ta beste Piztia asco. Yzuturic, jaiquitzen da bereala, ta icara ta guci igues eguiten du. Non lo eguin det? dio; Nola irentsi ez naute Piztia odol zale aiec? Norc eraman nau ni alaco lecura? Zorionecoa Eguzqui atera nauena peligro ain anditic. Cerc igues eracitzen dio len ordu osocotan lo piztia egon zan lecu artatic? Ecusi zuelaco arguiaren vitez bere galvide edo peligro andia. Ala bada becatariac ecusten dituenen Ceruco arguiaren vitez bere anima barrenean dauden becatu Dragoiac baio caltegarriagoac, nola lo becela egon dan becatu ascoren erdian, artzen duicara santu batec, igues eguiten du Confesorearen onetara, ta an arkitzen du libra videc. Nola bada esaminatzeco unean escatu bear ezdio Jongoicoari bere arguia, escatzez aspertu gabe, ezagutzeco, cembat becatu ta nolacoac eguin dituen, damuandibatequin confesio oso bat eguiteco? Argui au escatuta, asi bear du contuac ateratzan, noiz eguin zuen azqueneco confesioa, utsiric ote daucan becatuaren bat lotsaz, noequin lagundu

du daa, non igaro dituen demporac, utsie eguitea ote duen bere oficioco carguetan; igaro bear ditu mandamentuac contuz. Cer eguiten du ereztun eder bat galdu zaionac? Asitzen da contuac bere buruari artutzea, ta aztertzen non izan dan, noiz galdutzen, nondic nora ebilli dan, ta guero dijoa vide ta lecu aiec ecusten begui azarriquin damuz heteric bezala bere crez tanaren galtzapenaz. Arkitzen badu, nolaco poza? arkitzen ezpada, dijoa berrizere obeto aztertzen videac ta lecu ebillic. Cerc areracitzen dio ambat neque ta arazo? Ereztunaren amorioac. Munduco pichi ta ereztun guciac cer valio dute Jangoicoaren graciaren aldean? Nola bada damutu bear ezta bera galtzean? Nola damu onequin aztertuez, non edo nolaco lecuac galdu duen? Sartu bear du guero bere inclinacio, edo pasio chatarrac esaminatzera. Aserre erraza ta sutsua bada, ecusi, nola eci duen bere genio gaisto au; edo larga ote dion inoiz, ta cembat aldiz eguiten nai duena: emendic birao gaiztoren batzuec inori egotzi ote diozcan; golperen bat inori eman ote dion, edo gorroto andiren bat artu. Ala ere eguin dezaque beste pasio charretan.

Esaminatu bear dira pensamentuac, itzac, ta eguiteac, batez ere seigarren mandamentuan, izan bada cembait lasaia alde onetatic. Cristau contu andiarequin vici diranac, ta gueiago beldurtzegui edo esculpulosoz ezdute esamina luceric cer eguin. Onelacoac iduquico halute beren naiz ta ezaguera osoaz pensamentu loa, piquerio izango ez luque ez eguaez ez gavaz. Esango balute itz desonesto edo garbitasunaren contracoa, ta oro bat eguin echatarqueriaren bat, ezluque esaminaren bearric; quenduco ecingo luque gogotic becatu itsaia. Berriz cristau Jangoicoaren beldur guchicoa irentsiagatic becatu loiac, ala pensamentuz nola itzez eguific, eguiten dute lo arduragabe; gucizen dituzte becatuac, ta esamina contu andico gabe ezdute gauza garbiric ateraco. Esaminaco demporan dudan edo eztabaidan guelditzen bada lecuric eman ote dion pensamentu gaisto loiari, confesatu bear du conciencia dau den bezala.



G. *Cein da videric errazena esamina oso batequin Confesioa eguiteco?*

E. Da egunoro bein edo bi bider eguneco esamina eguitea, ta esamina eguinda confesatzea Jangoicoari danu andi batequin becatuic arquitzen badu. Cer diot nic? Au da San Ignacio Loiolaco animaco Maisu andiari sinistu nai badiogu, virtute goratu batera eldutzeco vintartecoric egoquienua. Badira echeco Jaun asco egunoro echean cergastatzen dan contu ce cea daramenac : onembeste diru atera nituen araguia erosteco, ambeste ardoarentzat. Astean daquite guero cer gastatu dan. Azteetic ateratzen dute ill gucico gastua, ta illetic urtecoa; ta urtearen azquenean, noraño igo duen urte gucicoac. Daucate beste contu bat errenta, ta irabacienac, ta contuai jo eracita ezagutzen dute, castua edo artua guciago izan dan. Berriz batere contuic ezduenac, baicican eman ta eman, artu ta artu, dauzca contu loi ta garbitzen gaitzac, ta onegatic gaitzen ere dira eche asco. Aia bada, nola iduquico ezditu confesioraco garbituac bere animaco contuac bere conciencia egunoro aztartzen edo esaminatzen duenac? Nola betico contu artze onec, ta Jangoicoari egunoro eguiten zaion confesio bacarrecoac ecarri ez vicitza guciz onbat? Demagun cristau batec dauzcala oitura chatar batzuec, guezur chiquiac esatea, aserratzea erraz, caridadeco paltac, ta ambeste pasioren frutuac : Artzen du onec asmoa goizcan Jangoicoari egun gucico lan edo obrac esquinutzeco, ta ez eguitzeco ezagueraz paltacic, ta erorten bada impaciencia edo guezur chiquiren baten mingañarequin igortitzeco lurra, ta escatzeco barcacioa Jangoicoari. Dator gava : artzen dio contu animari, nola igaro duen eguna ; no-requin lagundu dan, nolaco itzquetan egonciran ; nolaco tentacio ac izan dituen, ta nola portatu dan. Erraz gogoratuco zaio cer eguin duen, batez ere paltaren bat eguinda bere buruari eman bazion mingai gogora garriren bat. Arquitzen baditu colera, vizcortasun gueiegui, edo guezurrac, confesatzen diozca humildade andiarequin Jangoicoari, artzen du gogoa urrengo eguna obeto era-

mateco, ezaguturic nola Jangoicoa maite duen cristauac (ta nore maite izan bear ezdu) ez dion ofensaric eguin bear becatu venialea icena dutenequin; nola castigatzen dituen Jaunac Purgatorioco pena andiequin. Nola izan ditteque egunoro onelaco contuac animari artzen diozcan cristaua ez izatea guciz oia dempora guchian? Esamina oni laguntzen badi goiceco, ta arrats aldeco oracio mental, edo viotzecoac, ò ta nolaco irabaciac ta aurrera penac Jangoicoaren videan! Cer? Lurreco ondasun labur batzuec gatic quenduco liraquean oitura chatarrac, quendu ez Jaunaren graciaz ala billatzen duen cristauac egunoroco esamina, ta oracioarequin? Esango baciño guezurti bati; guezurric esaten ezdezun egunean emango zaitu oguei errialeco bat, Jangoico ona! Nolaco cuidado edo ardurarequin itzeguin ez! Nola esaminatu bere barrena itza atera bear duenean! Eta erorico bati guezurrean, nolaco naigave ta damua itz chatarbat esan gabe ez egote agatic galdu duelaco oguei errealecoa? Vrrrengo egunean contu gusiago iduquico luque. ta bear bada illa bete osoan ezluque esango, beintzat ezaguera osoz, guezur bat ere. Beste batec du biraoc eguiteco oitura zaarra. Confesoreac esana gatic garai dezala ecandu, edo usario charura; eranzungo dio naita ez becala irretzen diola, ta confesio asco eguinda ere beti ofean deabruai deitzeco oitura chatarra. Esango baciño biraoric eguiten ez duen egun bacoitzean emango diozcatzula amar errial, nolaco poza? Nolaco arreca contua ez esateco biraoric? Nolaco damua berriz beingo baten ta us-tecabea, edo lengo oitura chaarraren indarrez irrengo balia? Nolaco contua urrengo eguneraco! Onela lurreco sari esquintzac gatic quenduco liraque colera, edo aserratzea, ta eci grina ta obenic vizcorrenac. Non ote da Cristauen fedea? Jangoicoac pasio gaiztoac ecitzen dituen animari, esquintzen diozca Ceruco sari andiac, emen concienciaco paque, ta pozandia; ta lurreco ondasun circil ta galgorrac gatic garaitzen diran pasio chatarrac, ez dira ecitzen Ceruco ta animaco ondasun andiac gatic, ezda Jangoicoac, Juez zucenac becala, prestatuta dauzcan

castiguac gaticere. Cergatic ez? Cerren eguiten ezdan bear dan diligenciaric, arretaricere artuez. Ceinda bada vide bacarra ecitzeco pasio andi ta chiqui guciac? Egunoroco contuartze, edo esamina, onen ondorengo confesio gauero Jangoicoari bacarrean eguitzen zaiona, artutzen dan damua paltaren bat arquitzen danean, ta ematen zaizcon esquerrac Jaunari gorde gueranean bere graciaz becatu eguitetic. Esamina artan ezagutuco dira len ezagutzen etziran palta asco; anima edertu ta zurituaz aguertuco dira motaric ta orbanic chiquienac, egunetic egunera gueituco da becatuaren gorrotoa, Jangoicoaren amorica, ta virtutetic virtutera ebillico guera. Certaco? Ecusteco guero Jangoicoa animaco begui garbituequin. Esamina egunoroco au eguingo balute Cristauac, irtingo luque epeltasuneco vide caltegarritic, ez liraque eguingo becatu venialac ere ain erraz, ta ain begui arguiequin; gure viotzac eraatsico liraque Jangoicoa gana ta ala eguin aurrerapen andiac Jangoicoaren videan. Cerc ecarri zuan David Erreguea Santu ain andia izatera munduco cerequin ascoren artean? Gau ta eguneco nere oguia dira negarrac, esaten zuen, galdetzen didatenean, non da zure Jangoicoa? Cergatic ambeste negar? *Scopebam Spiritu meum*. Aztertzen zuen bere conciencia, oroitzen zan becatu eguin zuenaz, Jangoicoa gandic artucituan mesedequin. Eguin dezagun guc ere ala, ta elduco guera virtute goratu batera. Ala izan didilla.

## ERACASTE IV.

*Nola ondo confesatzeco bear dan viotze-  
co. damua.*

G. **C** Eren gañean itz eguin bear degu doctrina onetan?

E. Christauac guchien daquiten, ta gueien jaquin bear

bear duten gauzaren gañean, ceña dan becatuen damu confesioraco bear dana.

G. Orren bearra da damu ori? Ez ote da asco becatuen esamina contuzco bat eguin ta guciac ecer utzi gabe humiltasun andi batequin Confesoreari agueritzea?

E. Ezdago confesio humillic viotzean maite bada becatua. Becatua animanduen cristaua da Jangoicoaren contra jaiqui dan traidore andia, ta traicio onetan irauten du damu expadu vietz guciarequin becatu eguina. Nola bada izango da humilla? Escuetan mun eguin, ta escumun eguina erretzea nai. Alacoa da cristau ascoren humiltasuna confesioan. Daude belaunico, gelpetzen dituzte bularrac, escatzen dute barcacioa, aza dirudite humilde batzuec, ta viotzez guezurti andiac. Itza Jacobo justuarena, ordea escuac, edo eguitadac. Esau gaiztoarenac.

G. Cergatic esan du damu andala guchien daquiten, ta gueien jaquin bear dutena cristauac?

Ezda sarri predicatzen gauza au, edo damuaren premia? Nola bada egon diteque jaquizea?

E. Enzuten dute Pulpituetatic; aurchotatic ere erastan zaie esaminaren ondoren bear dala becatuen gorroto edo damua. Bana etzaie erastan viotzean. Beguitantzen zaie becatuac osoro confesatu ezquero, ta nere Jesus-Christo Jauna colpe batzuec bularrari enranda eguin da dagoala gucia. Au da Eliza Ama Santa duen guerarric caltegarriena; penitencia falso edo guezurtibat. Aoarequin damutzea, viotzarequin becatua laztantzea. Ichurapenutseco penitencia dacar berequin animaco lo ta ichutasun osagaita. Ecustenez duen beguia, da damutzen ezdan viotza. Igarten ezdan gaitza nola osatu? Gaizqui confesatzen danac arguiro, becatuen batzuec lotsaz issildu edo estalduta, igarten dio non duan main, non dagoan gaitza, ezdu paqueric, viotza samintzen zaio chitsarri, arantzaz beteric darabil, sermoietan enzuten badi Jangoicoac eguinduen castiguandixen bat becatuac gorde cituztenequin, larritzen dira, icerdi otzac irtetzerario, ta ecusten dira beldurrez beteric dijoazala aguertze-

zera becatu ezcutatuac Confesio oso edo general batean. Ordea becatuac aguertu dituztenac, ta damu irudi batequin confesatu diranac, daude lotan deadarrequin ere iratzartzen ezdirala beren lō zorro gogorretic. Ezdute quezcaric ez larriric; beguitantzen zaie ondo confesaturic daudela, dijoaz comulgatzera beldur gabe, ta confesio ta comunio becatuzcoequin vici dira condenciocoo arriseu andian.

G. Nola gaizqui confesatu ta comulgatu igarrigabe?

E. Erantzuten da Santo Thomas Maisu andiac, ez igarte edo ez ezagutzea danean bacoitzaren erruz, edo culpaz; ceren jaquinez ta ez ezagutzea dan becatua, ta becatu bat izango ecin dalaco beste batan escusa eguia zcoi. Gauzaren bat danean icasi bearra ta icaserraza, ez icastea ta ez jaquitea, becatua da. Damua da guiza bear bearra confesio onri eguiteco, inore ucatuco ez duen becela, ta bestetic jaquinerraza sarri eracasten dalaco. Bada ezdaqutenac, edo Serapietatic igues eguiten dutelaco, edo enzunda sinesten ez dutelaco, edo sinistuta prestatzen ezdiralaco, baren naiz eguiten dituzte confesio ta comunio gaiztoac, ta dijoaz otsgabe ta animaco begui estaliequin beti iraungo duen Suleza edo Infernura. Egua au ezagutzeco ezdago galdetu baño edocin cristauri confesioa eguinda ecer issikdu ezpadu; damu dezu Jangoicoa ofenditua? ezagutzen dezu ceure gaizqui eguina Jaun gaitzic eguin ezdizunaren alderaco? Esazue eguia, damu dezu? Bui Jauna, da nu det; extet damu izango? Nolaere damu dedan; emango ditu golpene bularrean, macurtuco du burua, ta esango du ezpañez nere Jesu-Christo Jauna edo acto contriciocoa eztnela. Onela confesatzen dira becatuen inguruan beti dabilzanac. Onela ocasio galdustan sarturic daudenac. Onela urte osoetan obetu ezdiranac sarri confesatuz ere. Onela ordi, luxurioso, lapur, ta vicio gaiztoen oitura jarraituac dauzquecnac. Artutzen badute absolvicio arin emana becatuic ezagueraz utzi gabe, dijoaz paque iridico biten comulgatzera ta eracustera Jesu-Christori bere ostatu gaizto artan, nola viotza dagoan becatuarequin oratuta. Odolezco

mal-

milcoquin negar eguia bear guenuquean ichutasuna! Becatuaren icent ezlute nai, bai ordea becatuaren izana. Beraz ezda egongo doctrina bearragoric nola damu onen gañecoa, eracatsiaz, cer dan, ceubat moducoa, nore daraman confesioa, ta nore ez. Eracurten da Santa Theresaren guertaeretan escritu, edo adirazo ciola Santa onec Predicadore bati predica cezala chit sarri confesio gaiztoen gañean, cerren ezdu, cion, deabruac animac arrapatzeco catiguarri edo laquirio seguruagoric, nola confesio gaiztoac. O gauza arritzecoa! Confesioa berrez izanic animac libratzeco deabruaren cateetatic, ascorrentzat da, bacoitzaren culpaz, beren animen galvidea. Eensdezagun bada ceero ta astiro doctrinagai au.

G. Cer da bada Contricio edo damu confesioa eraman bear dama?

E. Contricio edo damua da, dio Trentoco Concilio Santuac, ceñen itza da Elizaren ta Fedeco itza, becatu eguin danaren naigave, eta gorroto viotzeco bat aurrenacoan gueiago ez eguiteco gogo edo propositoaz. Penitenciaco Sacramentuac dauzca iru Parte, Contricioa, Confesioa, ta Satisfacioa. Contricioan sarturic dago becatuic gueiago ez eguiteco proposito edo gogo sendoa; Confesioan, aurrez eguin bear dan esamina. Contricio edo damuac, dio berriz Concilio Santu onec, prestatzen du becatuen barcacioa iristeco, laguntzen badio Jangoicoaren misericordiaran icbaropen edo confianza, ta vorondateac eguitaco Sacramentu au artzeco bear diran beste gauzaac. Emendic ateraco duta cristauac, dio Erromaco Doctrina-libruac, damu edo Contricio au ezdagoala bacarric bateg guerora becatuic ez eguitean, ez becatuic gueiago ez eguiteco asmoan, ezda vicitza on bat asitzen ere; bear dala gueien aurrez becela, arri lengo vicitza gaiztoaren igui edo gorroto sendo bat lema edo satisfaccioa emateco gogoarequin. Egua da ecin egongo dala eguia zeco proposito edo becatuic ez eguiteco gogo Jangoicoagandic jaioric, becatu lengoen damu, edolare eztutuco gabe; ta asitza ta eramatea aurrecoan vicitza onbat, dala eguiteric onena ezagutzeco contricio edo da-

E

muu.

mua. Baña escatzen da ez bacarric propositoan sarturic dagoan damua, baita ere Jangoicoagandic datorren movimentu bat, ceñec gorrota eracitzen digun leengo becatua. *Confesatuco dizquitzudax nere urte guciac nere animaco naigave, edo mingaixtasunarequin.* Ala dio Isaias Profetac. *Enzun zuen Jaunac nere negarren itza, ala cion David Erregueac.*

G. Beraz negar eguin bear da eguiazco Contricioa iduquitzeco.

E. Ez ori, dio Doctrinaco libru aitatu degun, ta beneric ez becelacoa. Contricioa da vorondateco acto edo eguicari bat; damua da dio San Agustinec Penitenciaren laguna, ez Penitencia bera. Ordea Elizaco Iracaslac becatuaren gorrotoari ematen die damu edo dolorearen icena; baitaere Escritura Santuac. Damu au dator Contriciotic; damu au aguertzeco aldatu oicituzten ancinaco penitenteac beren janci, edo soñocoac, ta eguin oi zuten penitencia cilicio ta autsez estalixic. Nola bada soñoco penitenciaoequin egon ditequean viotz becatuan sartua, ta penitenciao jancigabe becatuaren damu chit andia, alaere malco ta cizpurugabe egon diteque becatuaren damu edo gorroto vicibat, ta negarrequinere bai damu viotzecoric eza. Beraz negar eguitea confesio aurean, edo confesioan bertan ezda damuaren ezaugarri edo señale arguia, ezda damuric ezdagoanarenaere malcoric ez ematea. Ecusico degu eguia au gueroago.

G. Cergatic becatuen damuari ematenzaio Contricioaren icena?

E. Adirazotzeco Penitenciarequin ausitzen, urratzen, ta biguntzen dirala gure viotzac, nola arti batequin ausitzen, edo mallatzen dan gauza gogorren hat. Becatuac dauzca gogortuac viotzac, ta penitenciao ausitzen edo biguntzen ditu. Argatic lurreco gauzaren batzuen galtzapenac ematen duen naigaveari, ematen zaio damuaren icena, ez ordea Contricioarena. Itz oec dira Erromaco Doctrina-libruarenac, non dic icentatu gabe ere artuco ditut gauza chit asco. Iturri garbiana ura edan dezagun.

G. Cergatic esaten da viotzeco Contricioa? Viotza da

Cor-

Corputzaren zati bat, ta contricioac izan bear du animacoac. Contricioa nola egon viotzean?

E. Ederqui galdetzen dezu; ona cer eranzuten duen aitatu dedan Doctrina-libruac. Viotzaren icenez aditzen da animaco vorondatea, ta nola corputzeco movimentu guciac sortutzen diran viotzetic, ala vorondateare da zucentzen dituen animaco accio eta afecto guciac. Viotza ustela badago, ezda corputza usteldu gabe egongo; viotzeco eriotza esan dezaquegu dala corputz guciaren eriotza. Iturburu agortzen bada, ezda chorrotic uric erorico. Oro bat, vorondate on dagoanean ta calte gabe, animan calteric egongo ezda; berriz vorondatea daniatua edo caltetua badago, animaere caltetua egongo da. *Zure beguia garbia badago, dio Jesu-Christoc, corputza ere garbi edo arguia egongo da; ta zure beguia gueundua, ta gaixtoa badago, corputz gucia illunean egongo da. Buirzaiteste nigana viotz gucitic bararrequin, negarrequin, cizpuruequin, ta zaitu itzatuex zuen viotzac;* ala dio Jangoicoac Joel Profetaren aoz.

G. Contricio gabe baxatu diteque becuric?

E. Ez inolaere. Esamina, aozco confesio, ta penitencia obrazco gabe salva liteque, ez ordea becatuaren damu eguiazco gabe.

G. Nai nuque jaquin nola dan ori?

Artzen du norbait gaitz erioztacor batec Sacerdoteric bertan ezduela, ta esaminaric eguiteco astiric ere ez. Nai luque confesatu, ta ezduelaco norequin, artzen du becatuen damu eguiazcoa, ta galtzen zaio itza. Dacarte arinca Confesorea ta arquitzen du confesatu ecin ditequean estaduan. Ordea, nola escatuzen Confesioa ta eman damuaren señaleac absolvitzen du confesatu balitza becela. Gaissoare et zuen esamina ta aozco confesioa eguiteco eperic izan; baña eguiazco contricio edo damua bazuen, barcatuco citzaion becatua confesatu belitza becela. Berriz esamina contu andieo ta confesio zucen ta oso batequin iltzen bada ta absolucioa artutaere, ezpadu contricio edo eguiazco damuric, ez dio ecer valio, ta condenatuco da. Munduan igarozten dira asco alditan Es-

Ez

cri-

critura ta diru palsoac; baña ez Jangoicoaren aurean contricio eguiazcoa ezdanic. Ezda ecer eguiten, dio San Gregorioc, Osaguilla edo Medico bati gaitz gucia aguartzea; bear ere da osasuna benetan naiz izatea, ta gaitzari gorroto becela artzea.

*G. Cembat moducoa da bada Contricio edo damu au?*

*E.* Bi moducoa; bata da Contricio perfecto, edo oso osoa, ta bestea Contricio ez osoa. Contricio osoari deitzen zaio Contricioa, ta osoa ez danari deitzen zaio Atricioa. Arguiroago jaquituria gabeco ta euscaldunentzat, Contricio edo damu osoa da Amorio-damua, ta Atricioa Beldur-damua.

*G. Cergatic Contricio, edo amorio damua da oso edo perfectoa, ta ez Atricioa edo beldur damua?*

*E.* Cerron contricio edo amore-damua bera bacarric asco dan becatua barcatzeco ta animari gracia iristeco. Ez ordea Atricioa, edo beldur damua. Damu onec prestatzen du becataria Confesio o Sacramen uaren videz gracian jarteco. Doctrina au da Trentoco Concilio Santuarena. Eiztari batec jarraitzen dio Basaurde bati ta jaurtiqui edo tiratzen dio; joten du garunetan balarequin, ta bertan guelditzen da illic abere zatarra. Irtetzen dio gueroago beste Basaurde batec, tiratzen dio oniere; ordea etzuan jó leena becela beingoan eriotza emateco toquian; ausitzen dio aurreco besoa; ecin abere erituac arinic eguin du iguesa artzeco: jarritzen die zacurrac ta Eiztariac; ta atrapatuac iltzen dute bertan colpea, ta usiquiequin. Ona emen Contricio ta Atricioaren berdintza edo compario ederra. Eiztariaren lenvicio tiroa zan oso osoa, cerren ilzuen bertan; ala Contricioa ere da damu osoa, cerren Confesioaren laguntasun gabe edo confesatu baño leenago, iltzen du becatua berriz beldur damu edo Atricioa ez da colpe osoa iltzeco becatua: mancatzen du, ta confesioac lagunduric guelditzen da illic becatua.

*G. Cer da bada Contricio edo damu osoa?*

*E.* Da gorrotatzea becatua gauza gaitz guciac baño gueiago Jangoico chit on ta maitagarriaren ofensa dala-

co. Damu au dator. Jaunari artzen diogun maitetasun, amorio, edo caridade garbitic guere onari beguiratu gabe, alaco moduz, ecen Ceruric ezpalego ere saristatzeco gure vicitza ona, Infernuric ere ez castigatzeco gure becatu mortalec, naico guenuquean ondo vici ta becatu-ric eguin ez, meréci duelaco Jaunac guc bera amatzea bere ontasun neurrigabecoagati. Jangoicoa Ceruac ta Infernua baño leenago zan berez orain bezcein ona; ez dio perfeccioric gueitu creaturac eguiteac. Egun baten artuzuen Santa Maria Magdalena Pacisco Jangoicoaren amorio-colpe ain andiac, non da irten zuen bere guelatic illit bat escubatean, ta urez betericaco morco bat bestean zuela. Cer darabilzu? nora zoaz, Magdalena, esancien beste Monjac? Noa nere gogoz, eranzuncien, illiti onequin erretzera Cerua, ta ur onequin iltzera Infernuco sua maitatzeco Jau-nain ona Infernuco beldurgabe, ta Ceruaren interes gabe.

*G. Bérax quendu bear degu Infernuaren beldurra, ta Ceruraco gogo ta esperanza Jangoicoa garbi garbi maitatzeco?*

*E.* Ez orrelacoric. Ori litzaque doctrina chit chaarra. Jangoicoaren beldurra ta Ceruaren Esperanza dira Espiritu Santuac ematen dizquigun dóa ta mesede andiac; ta ezdute eragozten Jangoicoaren amoreric andiena. Gu-chi izan dira San Agustinec baño amorio andiagoa Jangoicoari izan dionic. Orregatic ere esaten zuen *Ignem æternum timeo*. San Francisco Borjacoc amorio andi ta garbi garbia cion Jangoicoari; orregatican ere ordu osoac igarotzen cituen egunoro Infernuaren gafioco consideracionan. Ala San Ignacio Loiolacoc, ala San Luis Beltran-goc, ala beste Santu ta Santac amorio ta Jaunaren beldurraren ego blaquin igo zuten perfeccioco mendi goratura. Certaco dira besteen egemploac gure Salvaguille ta Maisu Jesu-Christorenac iduqui-z quero? Bere Leguea amore leguea da; predicatzen cituen amore legue bi oec, ceintzuetan sartutzen diran beste mandamentu guciac; am-tuco dezu zere Jau ta Jangoicoa viotz, anima, ta indar guciaquin, ta cere progimoa cere bitua becela. Orregatic ere, esaten zuen, ez beldurtu munduco vicitza gal-

36  
galdu dezaquenac gatic. Beldur izan zaitezte bai anima ta gorputza Infernura bora dezaqueanaren. Beraz beldur au da chit ona, ta Jaunaren aguinuac gordetzeco videa.

G. *Eta Ceruco Gloriaren esperanz: gaita becatu-ric ez eguitea ote da gauza ona?*

E. Nolaere dan, ta Infernuco beldurragatic Jangoicoa ez ofenditzea baño ere obea.

G. *Cergatic ala?*

E. Cerren Jangoicoaren amoriora viotza eramateco dan gai obeagoa. Guizonac gucienez ecin ezagutu lezaquete cein ona ta maitagarria dan Jangoicoa, baicibe-  
re eguitada edo obra misericordiaz beteetatic. Ecusten diran gauzeetatic aditzenere dira ecusten ezdiranac. Erraz dijoa viotza amatzera Onguillea. Cembat Santu ta Santac consideratzen cituzten sarri Jangoicoaren mesede ta ontarteac, ta emendic iriciqui beren viotzac amorio chit garbi ta andira? Ecusten dituenac fedeco bequiaquin Jesu-Christoc guizonen amorez eguin dituen gauza andiac nola bere eriotzarequin urratu dizquigun becatuco cateac, nola Infernutic libratzeco videac idiqui dituen, baitaere Ceruraco alteac, nola piztuko ezta amatzera Salvaguille ain maitagarria? Santu ta Santac gogoratuaz Ceruan Jangoicoac bere maiteentzat prestatu-ric dauzcan atseguin neurri gabeac, azcortzen edo animatzen ciran igarotzera persecucio ta martirioac poz andi batequin. Beraz Jangoicoac aguertzen dizquigun bere Ontasunaren seña-  
leac dira vide ta gai egoquiac amorio eder ta garbi ba-  
tera eldutzeco. Au ezda amatzea bacarric Jangoicoa gu-  
retzat ona dalaco, baitaere amatzea bere ontasuna gatic. In-  
fernucó pena ta Jangoicoaren castiguen beldurrac ere presta lezaque viotza Contricio oso edo amoriozco damu-  
ra. Jonas Profetac esan cien Ninivetarra, *berroquei egu-  
nen buruan ondatuco da Ninive*. Beldurtu ciran; beldur  
onequin eguin zuten penitencia eguiatzco edó paquetu ci-  
tuana Jangoicoarequin. Etzegoan orduan Confesioric, ta  
becatuaren barcacioa iristeco bear zan Contricio oso edo  
amoriotic sortua. Ezagutu zuen Jangoicoa zala Jueza, ta

Ai-

Aita; ta bere aserrea palagarzeco joan ciran Aitaren er-  
ruqui ta Ontasunaren billa. Beldur santu batec eramanci-  
tuban Aitagana, prestatu amatzera ta penitencia eguiatz-  
coa eguitera. Orregatic dio Espiritu Santuac amorioaren  
asiera dala Jaunaren beldurra. *Timor Domini initium di-  
lectionis*. Ala bada Cerua izaiteco esperantia sortutzen  
da Jangoico emallearen amarioa, ta amorio onec prestat-  
zen du ederqui viotza amatzera Jangoicoa bere Ontasu-  
nagatic; ceni deitzen dien Jaquitunac onguinaico amoria.  
*Amor benevolentia*.

G. *Beraz Jangoicoaren amorio garbia ezta eragoz-  
ten Esperanzaco virtute, ta emendic sortutzen dan amo-  
rio Santuae?*

E. Ala da; ta Esperanzaco virtutea bear bearra da  
virtute gucietaraco. Amatzeac Jangoicoa guretzat dauzan  
sari Cerucoac gatic, ezdu eragozten amatzea Jauna sari-  
gabe ere. Seme on batec artzen ditu amorezco ezague-  
raz. Aitac ematen diozcan sariac ondo servitzen duelaco;  
amatzen du Aita, aguertzen dion amorioagatic ematean  
sari edo erregalac. Ordea pobretzen bada Aita ura, ez-  
padu cer emaa, Semeonac jarraitzen dio servitzeari len  
becela sariaren ustegabe.

Au da amorio garbi sari utsagatic sortutzen ez dana.

G. *Nola Ceruco deseotic igaroco guera erraz Jangoi-  
coaren amorio garbi garbira?*

E. Cerua deseaten degunean ez bacarric gure cor-  
putz ta animac an iduqui dezaqueen gozamentu ta atse-  
guin andiac gatic, baita ere an amatuco degulaco Jauna  
amorio chit andi ta guciz garbiarequin; an ofendituco  
ecin degulaco deseo viciarequin; an bedincatu ta alaba-  
tucó degulaco amorearequin. Au da nai izatea Jangoicoa-  
ren onra ta ona, ta amatzea bere ontasunagatic. Oro bat  
damutzen duena Infernuac, ez bacarric an gorputz ta ani-  
mac eramango dituzten tormentu ta naigave icaragarriac-  
gatic, baita ere an amatuco ecin dalaco Jangoico maita-  
garria, ta bai gorrotatu, ta bere Justiciaren contra bi-  
rago andiac egotzi, ta emendic damutzen bagaitu beca-  
tuac galeracitzen duelaco betico Jangoico amatzea, da

idu-

38  
 iduquitzea becatuaren damu amoffio garbitic datorrena. Eguia esateco, Infernuco penaric, edo zorigaitziz andiena da Jangoicoa an inoiz amatu ecina, ta Jangoicoaren contra madaricacioac egozte; eta Jangoicoa an amatu albaliteque, guciz laburtaco litzaque ango pena. Ala bada aleguinaz dendatu bear guera, ala Ceruco gloria, nola Infernuco tormentuen consideraciotic eguitera amorezco actoac ta pecatuari gorroto artzera Contricio osoarequin.

G. *Cer da beldur-damu edo Atricioa?*

E. Da artzea gorrotoa becatuari edo Jangoicoac gaiztoentzat prestaturic dauzean castiguac gatic, edo galaracitzen ditu alaco onentzat dauzean betico atseguinac gatic, edo becatuaren insusitasuna gatic, Fedeco arguiac laguntzen digunean. Damu au dator Jangoicoaren beldur santutic.

G. *Eta Infernuaren beldur gucia da Atricio ta damu santua?*

E. Ez: Gauza bat da Infernuaren beldurra, ta beste bat becatuaren damua Infernuaren beldurrez. Beldurtzen zaitu Infernuco suac, ta ez becatuac, dio San Agustinec becatari ascoren beldur utsagatic. Iru beldur guisa edo modu ezagutzen dituzte Jaquitunac; bata da Jangoicoaren Semeen beldurra, bigarrena bere servitzariena, ta irugarrena Esclavoena. Semeen beldurra da beldurtzea becatuac dalaco Jangoico Aitaric onen ofensa becatuaren castiguac beguiratu gabe. Servitzarien beldurra, da damu ematea becatuac animaco calteac gatic; oec dira Ceruco gloria galtzea, ta Infernuraco videan ipintzea. Esclavoen beldurra da batec gordetzen duenean bere burua becatu eguitetic Infernuaren edo beste castiguen beldurrez, castiguric ezpalego becatu eguitico vorondatearequin. Seme on batec eguiten ditu Aitaren esanac Aitac castigatzen ezpadaquiere pobre izan ta herenciaric icharaten ezpadu ere. Auda amorio garbia. Servitzari onac eguiten ditu vorondate onarequin echecho Jaunaren esanac, ta bearrac, ala aserratu ezdidin, nola ematendion ogui ta aloguera gatic, ta ezdabil bearric eguin nai

ez-

ezta echecho Jauna campoan danean edo ecusten ezduenean: beguiratzen dio echeari amorio moduaz, ta eguiten du bearra vorondate onarequin. Esclavoac gucienez eguiten dituzte Jaunaren esanac ecin beste, damuz becela; beti dute gogoan azote edo maquilla, ez die beguiratzen Jaunaren aurrera penai vorondate garbiaz, ta igueseguin albadue castigutic, uzten dute bearra. Oen servitza da vorondate gaiztoaco. Mutil-jocolari batec jarduten du carta jocoan beste lagunequin. Ecusten du datorrela bere billa Maisua. Ezcutatzen ditu bereala carta ta joco diruac, ta asitzen dira itzeguiten modu onean. Esango degu mutil arc gorroto diela carta ta joco chaarrari? Ez. Beldurtzen dute Maisuaren aguiraca ta castiguac. Otso gosesto batec irtetzen du basotic ardiren bat arrapatze, ta artaldrera urreratzean, enzuten ditu zaur zaucac, ta ecusten du <sup>azala</sup> agabat escuetan duela. Beldurrac guelditzen du; ez dio ardiari gaitzic eguiten, ta biurtzen da bere basora. Otsu au aldatu da bildots izatera? Ez, dio San Agustinec. Bere gogoa ta ardia arrapatu naia leengoa da. *Lupus fremens, lupus tremens, sed semper lupus.* Etorri zan arrapatzera, orroaz, buirtu zan beldurrez, baña beti da otsoa. Oen lacoac dira becatari chit asco. Enzuten edo eracurtzen dituzte Infernuco tormentu inoiz bucatuco ez diranac. Beldurrac atzeratzen ditu cerbait beren vide gaiztoetic. Ordea ez dute gorrotatzen becatuaren gaiztotasuna, *malitiam autem non odit.* Poztuc liraque ezpalego Jangoicoaren Justiciaco cigoric, ezpalego Infernuric, ezpaleude zauca becela Jangoicoaren Ministroac beldur gabe becatu eguitico. Ah anima zorigaiztoco Jangoicoari ematen ez dienac viotza, ez viotz onetic utzi becatua? Lapur batec videra irtemda escatzen du bolsa: beldurrac eman eracitzen du dirua; ordea dio bacoitzac bere artean, igues eguin albancea, banu lagun sendo ta armaduna ucatze,co bolsa escatu didana. Ematen diozunean ematen diozu vorondate onez? Ez; ta bai damuz ta ecin beste. Ala dira cristau asco; ematen die Jangoicoari viotza, viotz ta vorondate gabe; ezpalego eriotzaric, ez-

F

pa-

palego Infernuc, iraungo luquee becatuan. Eta artuco du Jangoicoac onelacoen viotz gaitoa? Ez, ta bai guei-ago castigatu becatua, gueitzen dutelaco beren viotzeco prestaera chaarrarequin.

G. *Cer bear da bada Atricio edo beldur santu edo vide onecoa iduquitzeo?*

E. Becatuarentzat vorondate gucia quentzea, dio Trentoco Concilio Saatuac, naiago galdu honra, vicitza ta gauza guciac Jangoicoa ofenditu baño, artu asmo sendo bat aldeguituco becatuco ocasio, lagun ta ebillune urreco guciatic, ta viotza giratzea benetan ta osoro Jangoicoagana; otso zana bildots eguin. Artu bear da beldur santuaren videz badaere viotz ta espiritu berri bat, ta damu emanaz Infernu utsac, eta bai becatuac berac Jangoicoaren ofensa dalaco. Beldur santu ta vide oneco au da amorio garbiaren asiera, ta irauten badegu Jangoicoa servitzen, gueituaz joango guera Jangoicoaren amorioan. Juez Jangoicoaren beldur onac eramango gaitu escatze-*r*a barcacioa ontasunez beteadan Aita Jangoico beragana. Evangeloco Seme ondatzalla ta Aitaren echetic igues eguin zuenac ecusizuanean gosea, premia, ta gauza guci-*e*n palta, cer eguin zuen? Joango naiz, cion, nere Aitagana. Vate cezaquean goseac, premiac, ta interesac ceranala Aitagana. Ordea beldurrac, ta miseriac ezagutu eracion, nor galduzuen; nor ofendidu zuen, ta norgana biurtu bear zuen; eta au zala bere Aita maitagarri ta viotz biguñecoa. Ala bada Jangoicoaren beldur santuac ezagutu eracio digu, nor ofenditu degun, cein ona ta maitagarria dan Jangoico, castigatu guintzaquea-*l*a pecatu eguin guenuanean asco becela, castigatu ez gaituena, bedecatu ta alabatuco degu bere ontasun ta misericordia andiac gatic, ta servituco degu aurreracoan Seme esquer onecoa bere Aita becela.

G. *Baña bear ote da Confesio ona eguituco Contricio oso edo amorio garbitic jaitoa?*

E. Da chit ona, ez premiázcoa, edo bear bearra.

G. *Cergatic ezda bear bearra?*

E. Cerren Contricio oso ta amore damu garbitic ir-

tenac, beti ipintzen duen anima Jangoicoaren gracia, ta Sacramentu penitenciacoan Confesorearen absolucioaren videz jartzen dira asco becatari Jangoicoaren gracia, ta au ez litzaque guertatuco bear bearra balitza Contricio oso edo amorio garbico-damutic jaitoa.

G. *Beraz asco izango da ondo confesatzeo Atricio, edo beldur santutic sortu dan becatuaren damu eguiázcoa?*

E. Atricio edo beldur damu onec ezdu amorio garbico-damuac becela confesioco sacramentu gabe gracia ipintzeo virtuterie; baño becatuaren vorondatea iltzen badu, prestatzen du anima Confesioco Sacramentuan gracia artutzeo. Au dio Trentoco Concilio Santuac. Eta Teologic gueienac dioe asco dala Confesioan gracia artutzeo Atricio edo beldurdamu esan dan becelacoa. Beste batzuec escatzen dute Jangoicoaren amorioaren asiera bat. Certan dagoan amorioaco asiera au, ezda guci-*e*n iritzi berdina. Trentoco Concilio Santuac bautismoan, arrazoi-*r*a eldu diranac gracia artutzeo, escatzen du asi ditecela maitatzen Jangoicoa Justicia guciaren Iturburua, be-*c*ela. *Incipiat diligere Deum tanquam omnis justitiae fontem.* Ez dio, asi bear duela maitatzen Ontasun guciaren Iturria becela, baicic Justicia guztiaren iturria be-*c*ela. Ala ecin esan diteque escatzen duela Jangoicoaren amorio garbi edo caridada, cein dagoan maitatzean Jau-*n*a dana dalaco, edo berez duen ontasuna gatic. Esan degu len Espiritu Santuac dioala, Jangoicoaren beldur santua dala amorioaren asipena. *Timor Domini initium dilectionis.* Beraz atricio eguiázcoa bera da amorio santuaren asipena. Atricioac escatzen du asmo sendoa, gordetzeo Jangoicoaren legueco amar mandamentuac; beraz bai gogo sendoa amatzeo Jangoicoa gauza guciez gañean, cein dan lenvico mandamentua. Jangoicoaren mandamentuac gordetzen dituenac, maite nau ni, dio Christoc. Beraz mandamentu guciac gorde ezdituelaco damu duenac, gogo edo vorondate sendo batequin gordetzeo aurreracoan guciac, iduqui bear du amorio santuaren asipenen bat. Ala bada Jangoicozco damu eguiáz-



coaz confesatzen diranae ; ezdute estutu ta larritu bear amorioz damutu baciraa edo ez. Biotza aldatzen ezpada, eztago eguiazco atricioric ; aldatzen edo convertitzen bada, Confesioa ona izango da. Eguin dezagun aleguina becatuaren damua artzeco consideracio beldurgarri, ta amoregarriaquin. Consejo au chit ona ta guciac ematen dutena da.

*G. Nai nuque enzun berdintza edo comparacio onbat Contricio oso ta Atricioa adituta ezagutzeco.*

E. Ona emen. Seme batec bere aserrear ematen dio Aitari colpe andi bat. Jaquiten du Justiciac. Seme gaizto ura darame carcelara ; ezarten diez grillo edo cateac, ematen die guchi jaaten. Artzen dute Informacioa, ta quentzen die Seme oni Aitaren ondasunetaraco escuvide gucia. Seme onec ezagutzen du bere gaizqui eguina. Deitzen dio Carcelara bere Gurasoari, ta ecusiric onen aurpeguia zauritu edo banatua, asitzen da negarrez, erdibitzen zaio viotza, ta esaten dio damuandi batequin, Ai nere Aita ona ! Cer eguin det nic nere ichutasun gogorrean? Zuc aguiraca eguin bacindan, izan zan nere amorez. Zuri zor dizut Jangoicoaz bean nere izatea; zuc ni mantentzeco artu dituzu neque andiac. Eta nic escuac ezarrico niz, quitzula zuri? Niczu banatu? Eznau-te penatzen, ez dauzcadan cateac, ez lecu loi onec, ez goseac, ez nere gaizqui eguina gatic Justiciac quendu didan zure ondasunetara escuvidea. Oec ta gueiago mereci ditut : bacarric damu ematen dit zuri eguin dizudan videgabe ta injuria ain andia; zuri, cein ceran nere Aita, ta Aita nere ona billatu dezuna aguiraca eguiten cindanean ere. Ona emen Contricio oso edo amorezco damu garbiaren irudi edo pintura ederbat. Becatariac fedeco arguiarequin ezagutzen duenean becatu mortal batequin. Aita baño Aitaago dan Jangoicoari eguin dion ofensa ichusia, ez bacarric colpetu, baita ere berriz crucificatzen duela Jangoicoaren Semea, ta artzea duenean damu chit andia, ez galdu duelaco Ceruraco escuvidea, ez Infernuco pena icaragartien beldurrez baicican bere Aita ain on ta ain maitagarriori eguin dion videgabea

ga-

gatic, artzen du amore garbi ta interes gabeco damua; ta au da Contricio oso animaren santificagarria. Ordea esan degun Seme arc ezaguturic cembat calte ecarri diozcan bere buruari. Aitari escua ezarriaz, damuturic eguiaz bere gaizqui eguinaz erregutuco balio viotz humillaz Gurasoari, empeña didilla Justiciaco buruarequin libra dezan Carcelatic, ta biur dezon heredatzeco quenducion escuvidea, ematen diola itz sendoa ez diola gueiago injuriaric emango, erregu au eguiten diola ezaguturic bere Aita dala erruquiorra, ta confianza oso batequin, damu ematen diola ez bacarric castigu daramanac, baita ere Aitari eguin dion ofensac, au litzaque Atricio edo beldur damu santuaren irudia. Emen ondo eguiten du Semeac humildade osoarequin barcacioa escatuaz gañetic, hillatzea bere vitartetasuna libratzeco Carcelatic, ta biurtzeco Semeen escuvidera. Ala bada ecusten duenean cristauac becatu mortalaren vitez ecarri diozcola bere animari calte andiac, galdu duela Ceruraco derecho edo escuvidea, jarri dala condenacioco peligroan, anima ichusitu dala becatuaz galdu dituela lengo obra onen irabaci ta merecimentuac, daducala deabruac lotuta becelá, ondo eguiten du zucentzeaz Jangoico ofendituagana confianza oso batequin artzen duela eguiazco damua aserrera eracia diolaco Jangoicoaren Justiciari. Emendic datorquie Jangoicoaren misericordiaren ezauera osoa, ceñen besoetan ezarten dan humil humillic, ta amatzen du Jauna, edo la ere ain ona izan dalaco beretzat castigatu cezaqueala castigatu eztuelaco, ta bai icharan penitencia eguiteco. Presta era onequin eldu ezquero Confesiora, irichico du becatuaren barcacioa.

*G. Nai nuque enzun guerta era cdo egemplo zucen bat ezagutzeco nolacoa da Contricio oso, edo amore damuaren indarra edo virtutea.*

Ona San Vicente Ferrercori guertatu citzaiona, ta berac contatzen duena, ta eztet uste guezurrac escritzen cituela Santu ain miraguilla onec. Cegoan predicatzen gure Españaco erri baten. Joan zan Sermoira besteen artean emacume mundutar, la sai, ta lujuriaco pasio gaiztoan

toan sartua. Adirazo cituen Santu onec araguiaren vicio onen ichusitasuna, ta Jangoicoac prestatuic ceuzcan castiguac. Guero asi zan pintatzen Jaunaren ontasuna, ta nola Magdilenac artuco cituen amoreric andienarequin. O anima deabruac lotuta zaudenac! Esaten cien. Atozte, atozte Christorea onetara. Ezaguzazute nolaco injuria ematen diezun zuen amorez ill zan Jangoicoaren Semeari. Biur zaitezte nigana maitatzalle ascorequin enredatu ceranac, esaten dizue Jaunac. *Fornicata es cum amatoribus multis, tamen revertere adme.* Ceren zai zaude anima gaisoa? Cergatic eman nai diozu viotza creatura ustelcor ta gaizto bati, ta ucatu Jangoicoain onta maitagarriari? Itz oec igaro ciran emacumearen viotzera; ezagutu zuen becatua Ceruco argui andi batequin, ta ain andia izan zan artu zuen Contricio, edo amore damua, ecen guelditu zan bertan illda penaren penaz. Gende gucia icaratu zan Sacramentu gabe ill zalaco vicitza gaiztoa eraman zuen emacume ura. Orduan Predicadore Santu ari aguertucion Jangoicoac, nola illzan damuaren anditasunaz, ta enzun ere zan Eliza gucianitzaro edo voz zoli bat; *Ezezatute erreguetu onen anima gatic, cerren dagoan Ceruan.* O Contticio andiaren frutua! Deabruaren esclava zana, eguin zuen Jangoicoaren alaba. Ai norc eman lezaquean bere vicitza Jaunari ona ofenditu duela-co amore vicio damuaz! Ai jetsico balitza gure viotzetara Espiritu Santuaren su andi bat garbitzeco gure animetaco bazterrac, ta erreac becela guelditzeco su eder onetan! Ordea, cembat dira benetan danutzen diranac? Cembat ondo prestatzen diranac Confesio santuraco? Au ecusi bear degu datorren doctrinan.

## ERACASTE V.

### *Confesioraco bear dan Damuaren gañean bigarren doctrina.*

**I**Cusi degu igaro dan doctrinan, cer dan dolore edo damu Confesio onari lagundu bear diona, cein bear dan, ceimbat modutacoa dan. Orain ecusi beardeguna da, cembat penitente guezurti diran, edo cein guchic, becatarien artean, daramen eguiazco damua.

**G.** *Nondic jaquin lezaque ori, baldin damua badago viotzean, ta viotzeto berri Jangoicoac bacarric badaqui?*

**E.** Badira señale edo ezauvide arguiac igarteco. Ona batzuec. Damuac eguia coa izateco, bear du jaiio Espiritu Santuaren colpetic, ez mundaco motivotic. Izan bear du sendoac, au da naigave gueiago eman bear du becatu mortal batequin Jangoicoa ofendituac onra osasuua, ta lurreco gauzaric estimagarrienac galtzeac baño. Izan bear du guciena, edo ezdidilla becatu mortal motaric izan, ceini gorroto artzen etzaion. Orain bada ecusi bear degu norc ez daraman eguiazco damurie.

Lenvico circunstanciaren aldetic, ezdarame eguiazco damuric munduco calteac gatic bacarric danutzen diranac. Ecusico da jocolari charbat bere animaren caltean jocatzen duena, edo joco debecatuetan, edo bear baño gueiago ornitzen dala, edo birao ta aserre andiac eraguiten diozcana. Galtzen ditu batec diru asco; amorratzen zaió, eguiten ditu birao andiac, urratzen ditu Cartaac, ta eguiten du promes becela carta gueiago ez escuetan artzeco. O nolaco damua! Nalaco propositoa! Ordea munducoa. Diru galduac min ematen dio; galdu cituen becela irabaci balitu, bedecatuco cituen dio; galdu cituen becela irabaci balitu, bedecatu citen cartac, ta jocatu ere zuen orduan. Munduco calteac ere at-

zeratu bear gaituzte gauza gaiztoetatic; ordea ascoz guei-  
iago animaco calteac, Jangoicoaren gracia galduac, cei-  
nec gueiago valio duen lurreco ondasunac baño, ta fe-  
dedeco arguiaren videz ezagutzen ditugun becatuaren on-  
doren gaiztoac. Orditzen edo moscortzen da beste bat,  
ta colpe andi bat artuta banatzen du burua, ta osat-  
zeco eguiten ditu castuac, ta igaro min portitzac. Ma-  
daricatzen du Taberna, edanzuen ardoa, tentatu zuten  
lagunac, ta damu du ala orditua. Ongui da. Ordea, cerc  
ematen dio ardo edan zuenaren ambeste gorrioto? Ema-  
ten duen escandaluac echean ta errian? Jangoicoari eguin  
dion injuriac, izanic bere Irudi edo imaginara eguina  
berdindu duelaco abere arrazoi gabecoequin? Ez. Damu  
ematen die corputzeco miñac, ta dauzcan castuac osat-  
zen. Damu alperra, confesioraco ecer valio eztena. Eror-  
zen da Guizaseme edo emacume bat becatu loi baten, ta  
erasten zaio gaitz lotsagarri ta minandietacoa. Bere cor-  
putza galdu ta erituta ecustean, aitzego da madaricat-  
zen becatu lagunduciona, edo tentatu zuzna. Damudu  
becatuan eroria. Baña cergatic? Cerren corputzari ecar-  
ri dion calte andia, igaro bear dituen min edo oñaza  
portitzac, osatuco bada aguertu bear duen bere gaitza,  
farre eguingo dien daquitenac. Eta Jangoicoari eguin dion  
injuria andia gauza ain ciquiñean erorita? Eta animari  
ecarri dion caltea? Ezda ánci. Jangoicoa issillic dago; ez-  
du quejaric ematen. Mutil, edo guizon lotsagabe batec  
milla eregu palagu, ta esquintzarequin dacar becatuari  
lecuematera Emacume bat. Aguertzen da becatuaren fru-  
tua. Artzen die cargu mutil edo guizonari. Onec garbit-  
zen du burua: Guezur andi bat egotzen dit, dio, nes-  
cach traidore orrec, ezdu nrequin conturic izan, billa  
dezala bere adisquide galanta. Ecusten duenean nescachac  
bere burua lotsari ain andian, bere onra gucia galduta,  
arpeguiric eman écin duela, senideen naigaveac, ta am-  
bat burucomin, asitzen da madaricatzen jalozan eguna,  
tentatu zuen mutilla: Ai, dio, nic sinistu ezpanie Gui-  
zon gaztearen itz labañai, arpeguia ausibanio becatuaco  
videa eman cidanean.... Cer eguin nuen? Cer eguingo det?

O

O nolaco damu atsegua cital bategatic ambat naigave  
bere buruari ecarri diozcalaco? Ordeidamu alperra, mun-  
ducoa, Judisena becalaco. Saldu zuen Apostolo traido-  
re onec bere Maisu. Eguin det pecatu dio. Botatzen di-  
tu diru becatu eraguin cienac Christoren etsaiea aurean.  
Cer eranzun cien oec? Or compon, Judas or compon.  
Orain ez degu zure bearric, len bai. Ala bada esaten  
dute mutil edo guizon gaiztoac berena eguin da. Or com-  
pon, or compon, ta uzten dute nescacha ernegu ta bi-  
raoz aicea betetzen. O negar alperrac! Combat andiagoc  
dira bere becatuti etorri diran animaco calteac! Nolaco  
escandaluac zabaldu ez dira? Combat pecaturi videa eman  
ez die? Non da Jangoicoaren gracia galdu dana? Non In-  
fernu irabaci dana! Non Cerua? Oac ez lute negarric ate-  
ratzen. Aguertu ezpalitza becatua munduan aguertuta ere  
logratu balitza dote andi bat, edo ezcontza, etzan ne-  
garric ecusico, ez malco bat emango, ez becatua ma-  
daricatuco. Esango zan bear bada viotzeco guelan. O Zo-  
rioneco becatu ambeste on ecarri didana! *O felix culpa!*  
Ala bada ascoren becatu damuac dira munduocac, Jau-  
goicoa gandic sortzen ez diranac, Gentil Jauna ezagut-  
zen ezdutenac ere izan oidituztenac. Eguia da, dala gu-  
ciz gaitzaco becatuaren damu eguiazcoa artzea, becatu-  
tic munduraco onac atera diranean, calteac atera diranean  
baño. Baña fedeco beguiac jasotzen ezpadira Jangoico ofen-  
dituasgana, ta animaco calteac gueiago sentitzen ezpadira  
lurreco edo corputzecoac baño, ez du alaco da nunc ecer  
valio Confesio santuraco. Saulec, nolaco damua Jangoi-  
coari obediencia ecarri etziolaco? Nolaco esatea Samuel  
Santuari, *eguin det becatu! Peccavi.* Ordea cergatic?  
Despreciatu etzecen bere mendeco edo vasalloac. *Sed nunc  
honora me coram Israel.* Eguin det gaizqui baña onra  
nazazu Israelen beguietan. Cein bestera guertatu zan. Di-  
viden *becatu eguin det* esatearequin! Erregue Penitente  
onec artucituen vorondate osoa requin. Jangoicoaren cas-  
tigu Natanece adirazoac. Etzion erregutu libra cezala cas-  
tiguetic, ta bai negar eguin aldendu zalaco ardi galdu  
bat becala bere Jaun ta Arzai amorosoagandic. *Erravi si-  
cut Quis quæ peruit.*

G

G.

G. *Eta asco ote dira damu iebura edo estalquia-requin confesatzen diranac, damu sendo, portitz, ta eraguille gabe?*

E. Chit asco, chit asco, ta emendic dator ambeste Christauren galtzapen edo condenacioa. Eguiá da inore uste baño confesio gaizto gueiago eguiten dirala minaren, edo itzaren faltaz, ordea gueiago viotzaren faltaz. Esan nai det, asco confesatzen dirala gaizqui beldurrez issildu, guchitu, edo edertzen dituztelaco beren becatuac; baña gueiago viotzeco damu zoli, sendo edo eguiazcoaric ez daramalaco confesiora, ta damu onelaco gabe ezdago barcacioric. Ancinatic esanzuen Tertulianoc, Confesioa dalá lurreco Comercio edo artuemanetan dirua becela. Cerbait erosteco bear da dirua, baña diru leguecoa, benetacoa, ez echura utsecoa ta falsoa. Zoaz mercatari bategana diru oquer batequin. Badirudi urrea azaletic; urrea ezpada botaco zaitu ordu gaiztoan. Nolaco castigu barcacio gabeac eztaude diruguin falsoentzat? Orain bada, dio jaquitza andi onec, nola dan bearra dirua ta ona, edo cindoa cerbait erosteco, ala ere bear bearra da Cerua erosteco becatuaren damua, ta damu eguiazcoa, damu vide onecoa, cindoa, edo piñpina, ez falsoa ta onirudi utsecoa; urrezcoa; ez metal basto urre estalquiz becela eguiña. Damu sendo onec viotz gucia giratu edo aldatu bear du, barrena moldatu, ta ez bacarric arpeguia. Espiritu Santuac dio penitente char batzuec adierazteco esaera eder au; emango du viotza pintura moduan. *Cor suum dabit in similitudinem picturae.* Pintore batec, ta orobat Santu guin edo Escultoreac eguin nai duenean Irudi edo Imaginaren bat, ezta necatzen barrena apaintzen edo edertzen. Bear eguiten du bai moldatzen ta edertzen aguirian ta beguien aurean egon bear duena, arpeguia, escuac, bularra ta ofiac. Guibel alde ecusten ezdana guelditzen da zatarra, ta molde chaarrecoa. Ala eguiten dute cristau ascoc; uste dute malco batuec beguieatic ematen badituzte, colpe batzuec bularrari emanda lepoa macurtuta, itz zoli batequin esaten badute *damu det, Jauna*, gucia dagoala eguiña barrena, edo

edo viotza aldatu gabe. Ah bai, nola esan bear zaien onelaco Penitente azalecoai Fariseo arroai esaten ciena Jesu-Christoc, Ai zuec Fariseo garbitzen dituzutenac vaso edo onciac campotic barrumbea garbitugabe; viotzean trampa ta lapurreta gaiztoac quendugabe zaudela Sepultura zuritoac barrumbean ezur ustelez beteac. Itz ederrac guizonac engañateco, ordea ez Jangoico dacusana viotzean dagoana. Ala bada eztago barcacioric, ezpagueara buirtzen Jaunagana viotzgucitic. Biur zaitezte nigana, dio Jangoicoac, viotz guci guciarequin, baraur ta malcoequin. Da esatea baraurrac ta malcoac irten bear dutela viotz convertitutic. Ausi ezazuez damuz zuen viotzac, ta ez zuen soñocoac. *Scindite corda vestra, et non vestimenta vestra.*

G. *Eta egon liteque damu sendo ta zolibat viotz si-  
au edo agor batean?*

E. Nola ere egon litequean. Gauza arrigarria! anima chit onac estutzen dira damu gabe confesatzen diralaco beldurrez, ta vicitza gaiztoco asco vici dira ardura gabe ta damuarequin confesatzen diralaco uste edo iritu betean? Cerc eguiten du? Onac beldurtzen ditu Jangoicoaren juicioac, betico condenacioac, maite dute Jauna, ta eldu nai luquee garbiro Sacramentu-santu aldaracora. Bearra gueiztoac ezditu ecerc beldurtzen bear becela, ezdié amorioric Jangoicoari, ta ez dira batere estutzen damuaren gañean.

Jauna, dio cristau on batec. Confesatzera noanean nai nuque damu andi bat iduqui, nai nituzque Magdalena baten negarrac; ordea nere viotza dago gogorra, ecin eman det malco bat. Nola egon liteque dolore edo damu eguiazcoa sentimentu gueiago gabe? Beldur naiz nere confesioaquin.

Oen consolacioraco jaquin bear da dolore moduoi dirala, bata barren barrenecoa, viotzean gordea, aguertzen ezdana sentimentu samurrequin. Bestea da aguertzen dana viotzeco samurtasun, ta sentimentu aguiricoequin. Samurtasun oec, cizpuru ta negarrac irtezen badute viotz damuz ausitetic, dira chit onac, ta estimagarriac. Ala

San Pedroc emancituen malco ugari, ta samihac bere Maisua ucatu ondoan, viotzeco damu andiac laguntzen ciola. Ala Magdalenac busticituen Jesusen oñac amorez ta damuzco negar ugariaquin. Ala Davidec bustitzen zuen bere oea malco ascorequin. Ordea badira animaren batzuec sarri confesatzen diranac, chit contu andiarequin vi ei diranac, ta malcoric egozten ezdu tenac. Egua esateco, anima guchi dira becatuetatic irten berri diranac ta Jangoicoaren gracia ondo icustuac beren confesio general lenengoetan samurtzen ezdiranac. Agortasunac ta sentimenturic ezac izan oi dira urteren bat zuec vicitza onean igarota. Orain bada jaquin bear da eguiazco damua dagoala becatuaren gorroto, ta ecusi naiz ez sendo baten Jangoicoaren ofensa dan aldetic gorroto andi oni laguntzen diola propositu edo gogo viotz viotzeco batec ez gueiagoren gueiago becatu mortalean erorteco, ta aldeguiteco becatuco vide, lagunta ebillune urreco gucieta-tic; eta onelaco damua egon liteque negar malco gabe. Cembat alditan münduco naigaveric andienetan batzuec penaren penaz malcoric ere eman ecindute? Erregue bati ematen die berria guerra baten bere Exercitua deseguin dutela etsaiac. Nolaco damua artzen ez du? Ordea ezda gueienez negarrez ecusico. Ilco zaie Gurazo batzuei Seme maite bat; Amac ematen ditu illeta andiac, atera bear ditu bere buruco illeac deadarrez ta arrantzaz. Berri-z Aitac ezdu alaco demostracioric aguetzen, bere nai gavea, ta Semea ill zaiolaco damua izanagatic ain sendoa, nola Amarena. Ori baño gueiago, Persona virtute andicoac confesatzen diranean, egoten dira viotz agor ta sicuarequin gogora dacarzteanean ancinaco beren becatuac, ta virtute chiquico batec emango ditu malco asco. Ala ere virtute andicoac becatuai dien damua da ascoz andiagoo, sendoagoo, zoli ta zalagoo virtute chiquicoena baño. Emendic ateratzen da, damuaren sendotasuna ezta-goala negarretan, baicican becatuari zaijon gorrotoaren anditasunean. Norbaitec ezarrico balizu colcora sugue andi bat nolaco damua negarric gabe ere? Bada becatuaci izan bear zaijon gorroto andiagoo.

Orain

Orain bada, eldu oi dira confesatzera damu gabe, mirabe echean becatuaco ocasio gaiztoa daucatenac. Confesatzean eguiten dute negar vicia: Ordea certaco dira negar alperrac, nolacoac diran becatuco ocasioan dagoala ematen diranac? Ai Jauna! esango die Confesoreari; nai nuque teatatuco ezpanendu, erori banaiz gueiago izanda Echecho Jaunaren lotsaz ta beldurrez araguiaren atseguin gaiztoagatic baño. Igues zazu eche orretatic es-talqui onen batequin, esaten dio Confesoreac; eztago absolvitzeco escuvideric ocasio vorondatezcoetan daudenent-zat. Bioc condenatuco guera zu absolvitzzen bazaitut; zu, gaizqui prestatuta artu nai dezulaco absolvicio ecer valioco ezdizuna calte andiraco baño; ta ni, zure pretaera charra ecusita zuri ematen baditut absolucioa. Jauna, ez naiz erorico gueiago; ausico diot aurpegiu videde gaiztoric berriz ematen badit. Irriten badet eche artatic murmuratuco naute, izango da cer esan; edolaere urtea osotu bear det. Utzico balit paquean, ez nuque nic becatuac egungo. Itz ederrac, Confesore asco engaiatzen dituztenac. Ordea, ona Christoren doctrina deseguingo ezdana. Beguiac ematen badizu becatuaco vide, aterazazu, ta oñac becatuac bazaramaz ebaquizazu: Obede Cerura joan begui ta oin bacoitzaquin, biaquin In-fernura baño. Itzoec esan nai dite, beguia, ta oñac baño bearrago bada ere becatuaco vide ematen duen lectia, laguna, edo gauzaren bat, utzi bear dala. Orain bada, atoz ona eche becatuacoan zaudena irtetzeco ambeste atzerapen ta naguitasunequin, bacinaqui zeure echecho Jaun, edo bere Seme becatuac zaituenac ateraco dizula beguiren bat, edo ebaqui oña, egongo cinaque alaco echean? Esango cenuque emango dala cer esan?.... Ceinguchi! Badaquit laster iguesco cenuqueala cer esanai, irabaciari, edo lotsari beguiratu gabe. Eta zure anima galtzeac guchiago merce du begui edo oñac galtzeac baño? Ezetz dio Christoc berac, baita fede apur bat duen edocin christaucere. Erorico etzerala? Ausico diozula aurpegiu tentatzen bazaitu gueiago? Ala diozu orain estuan absolucioa ateratzeagatic. Cer? Pecatuan erori baño leenago

et-

etzenuen orrelácoric eguin ta orain eguingo dezula? Ez-  
daquizu zuec naieza ta arpegui astuna lenengoan aguerri-  
zen badiozu, berac gucituco dituela esquintzat, sariac,  
palaguac, indarrac ta cer ez? Uste dezu gord-ditequea-  
la bat tentacio partitzetan Jangoicoaren laguntasun andi  
gabe? Eta lagunduco die Jaunac tentaciac garaitzen be-  
ren naiz daudenai becatuco echean? Eraqueria andia. Be-  
raz ezdago becatuaren damuric aldeguiten ezpada voron-  
datezco ocasiotic. Beren becatuen damua, edo naieza da  
argala, ta ez sendoa negarrenartean: bear da eguin ale-  
guña becatuco ocasiotic irtetzeco. Orobat esan bear da  
becatuco ocasio artuac ehetic campora dauzquenen ga-  
ñean. Utzi nai ezpadute sarrera ocasio gaiztoa daucaten  
beste echean, ezdarame damuric, ta ematen dituzten zse-  
sio edo escusac dira damu gabeco viotzetic irtenac, ta  
igaroco ezdiranac Christoren Tribunale Santuan. Onela-  
coac, dio San Fulgencioc, ez dituzte inoiz garbituco be-  
catuac beren malcoequin, ceren laster biurtzen dira be-  
catura negar eguin ondoan. Becatu guztien iturburua da  
Fedearen iltasuna, edo nola ere bait ez sinistea Fedeco  
doctrina Christo ber berac dio utzi bear dala becatuco  
edocein lecu ta gauza beguia, eta oniac baño bearrago  
bada ere. Au sinistuco balitza, nola animaco salvacioa-  
gatic uti ez, edo eche, edo lagun, edo diversio beca-  
tura eraman gaitustenac, ta peligru urcoan gauzqueenac?  
Nola eman ambeste atzerapen, esesio, edo aitzagui? Si-  
nisten ez dalaco Christoren esana.

Etorrico da confesatzera gazte danzazale bat. Arqu-  
tuco du ondo azterzen dituen Confesoreac, nola danza  
nastuetan eguin edo consentitu dituen sari accio chaar-  
rac, itz amoragarri edo desonestoac. Anigaró dira po-  
cic escu estutze amorezcoac, an escu ezarte tentagarriac,  
an beguirane erascor ta cariñozcoac, an itz samur mai-  
tagarri, ta chit peligrusoac. An cer ez? ... Musu emate,  
edo emannaiac, magal erabilteac, arpeguia arpeguiari ar-  
riinatzeac, ta danzan eraman duelaco gueroraco gueldi-  
tu diran estimacio calte andicoac. Eta danza ostein, ca-  
le, vide, ta lagun zoro nasaien artean cer igarotzen ez-  
da?

da? Jangoicoac aguertuco ditu egun baten. Diaz onela-  
coac confesatzera; ta burura ere etortzen ez zaie acu-  
satu bear dutela alaco danza ebileric, ceren eguiten di-  
ran aguirian, ascorequin, ta lotsagabe. Confesio ede-  
ra! Confesoreac ateratzen diez gauza charar asco; esaten  
dio, zuretzat danza ori da becatuaco ocasioa, becatu  
ascoren iturburua, nasaitzen cera, ematen diezu lecu ac-  
cio charrai, iriciquitzen dezu lujuriaco sua, acitzen di-  
tuzu amore gaiztoaren sustraiac, ta jartzen cera becatu  
gauzai berrizere lecu emateco peligroan. Utzi bada be-  
tico olgantzta edo diversio ain galgarriac. Jauna, cer die?  
Badabiltza beste asco ere, confesatzen dira ni becela. Cer  
esango dute ezpanoa? Farra ta burla eguingo didate.  
Contuz ebillico naiz emendic aurrera; baño ez joan? Ori  
ecin dezaquet. Ez? Beraz ez diozu sinistzen Espiritu  
Santuari dionean, *peligroa maitatzen duena, bertan gal-  
duco dala*. Edo jarrea peligro ainezagutuan len igaro zat-  
zuenaz, da hera becatua. Ez diozu sinisten Christori  
beguia baño maiteago edo bearrago dan gauzaere utzi  
bear dala gure animaco caltean bada. Eta bearrago da  
danza zatarretaco diversio edo olgantzta beguia baño? Eta  
eztago peligroric len ambeste becatu eguin dituzun ebi-  
llera zoroetan? Illico zatzu araguiac? Egongo, dira san-  
tuac becela gueldi zu tentatugabe albo bietan edo es-  
cubietatic oratuta ebillico diran guizon edo mutil gaiz-  
toac? O ichutasun andia! Ezda sinisten ez Christoren  
esanac gure pasioen contra diranean, sinisten dira enten-  
dimentuan guelditzen diran eguiac. Eztago damuric ez,  
utzi nai ezpadira becatuco ocasio ain ezagunac. Sarna  
gaiztoa beteric baleude danzan dabiltzanen escuac, gor-  
deco cifaque alacoen arten ebilteaz; arquituco cenuque  
estalqui edo escusa bat. Sarna eraatsi ez daquizun bel-  
durrac garaituco luque danzaraco zure pasioa. Eta ani-  
man eratsi ezditezten becatu mortalac len eratsi citzazun  
becela, et zaituela atzeratuco? Eta uste dezu damu dc-  
zula becatua, ta gorroto gueiago diozula beste gaitz gu-  
cici baño? Guezurra, guezurra.

Ezdarame damuric Confesiora alcarren gorrotoan vici-  
di-

diranac, ta gorrotoa quendu gabe confesatzera dijoazanac. Ona emen beste soñu ederra. Eguin cidan videgabe edo injuria chit andi bat; ecin aztu zar; odola irakuiten zait nere etsaia ecusita beste gabe. Ala ere barcatzen diot: ez diot gaitzic nai. Norc eduqui paciencia alaco ofensaren ondoren? Nic gaitzic eguin ez nion. Cergatic eguin bear cidan berac? Damu ederra cristauac. Confesioan beretan ere buruac garbitzen dituzte; aserrea aldean dácarte, acusatzen dute progimo gaisoa ta bere burua ez. Barcatzen diot. Guezurra guezurra. Ezpada atoz. Poztutzencera bere contra itz eguiten duenean besteren batec? Bere contra etortzen zaituen aserre, edo deseocharra ezagututa bereala quentzen dezu gogotic? Ucatzen diozu agur ona? Ematen dezu cer esanic auzoeran tratatzen ez dezulaco auzo onac becela? Ezarren engañatu cere burua, ez Confesorearena. Damu bacina iduqui dezulaco aserre vide gabea, venganza gaitztoa, ta gorroto viotzecoa, egongo ciñaque prest escatzeco Jangoicoari cere etsai ustecoa gatic, bedecatuco cenuque madaricatu zaituena; ezagutuco cenuque zuri lagunac eguin dizun ofensa dala cer ez bat zue Jangoicoari eguin diozun ofensaren aldean edoecin becatuquin, baita iduqui diozun gorrotoarequin ofenditu zaitzanari. Ezaguera onec ecarrico zaitu viotz guciarequin barcatcera, ta ez ezpain guezurrezcoequin, barcatu daguizun zuri Jangoicoac. Etzenuque alaco quejaric emango Confesorearen onetan, ta ez esango, ez nion nic gaitzic eguin, cergatic berac eguin bear cidan! O itz arro ta vide gaitzocoa? Eguin dizu zuri Jangoicoac gaitzic? Cergatic zuc ofenditu dezu? Eta zuc bera ofendiduta berac zu ofenditu gabe, cergatic dabil Jangoicoa bera zurequin paqueac eguin nairic, zure billa zuri barcatzeco, zure viotza bere ganatzeco? Ala bada urbiltzen dana confesiora Progimoari viotz on onez, ta garbi garbiz barcatu gabea dijoa damu gabe, ta bere anima galtzera. Cer esan? Sinisten duela Christoren doctrina? Ez ez.

Dijoaz damu eguiazco gabe confesatzera Oficio ascotacoac irabaci chaarrac eguin ta dirautenac urte osoetan

ondu gabe ta bear bada confesatu gabe. Cembat dendera edo tratulari guchica guchica lapurreta citalac eguiten dituztenac, edo neurri chiquiagoo emanaz, edo gauza chaarra edo erdi galdua ontzat salduaz, edo bear baño gueiagoo emanaz? Cembat Languillaé aloguer osoa artuta, neque osoa artu nai ezdutenac, Jaubea beguira ezpada alperric demporan igarotzen dituztenac! Diru ona artu, ta bear chaarra eman.

Cembat lapurreta chiquitic ascoracoac eguiten ezdituzte errietaco Saltzallac; puscaca puscaca gauza andietara igoten dutela? Vitartean confesatzen dira. Nolaco dolorearequin? Damu dute gueiagoo ecin ostua Justiciaren beldurrez. Olio, aragua, oguia, ardoa ta beste janaria saltzean, cembat ostutzen ezda? Gendeac ezagutzen du, quejatzen da, ta esan oi dute ezdaquitela nola confesatzen diran. Nola? Gaizqui damu gabe, conciencia deabruari emanda. Oec pensatzen dute cer dan anima galtzea lurreco gauza ta irabazte laburrac gatic? Cer dan saltzea Cerua erreal, ta ezcutu batzuec gatic? Amaten dute ezcutu bat gueiagoo Jangoicoa baño. Nolaco damua darame? Berriz esango det gueiagoo ecin ostuarena. Confesio ederrac!

Ezdarame eguiazco damuric Confesiora dijoazanac confesatzera restitucioac eguin gabe iñola ere eguin dezaquela. O cembat confesio gaizto alde onetatic! Beti esan oi dute, *eguingo det, eguingo det*. Oei esan bear die Confesoreac, eguinzazu eguinzazu ta absolvitueo zaitut eguiten dezuenean. Sinisten ote dute barcatzen dala becatua biurtu gabe ostua, quendua, edo eguiten dan caltea, biurtu aldutela? Ez tet uste. Eta Confesioraco presta era damu andicoa da joatea obligacio aia estua cumplitu gabe? Zaqueo ceritzon tratulari batec convidatu zuen bein Jesus maitea bere echeraco. Eta cer esancion Jaunari? Nere ondasun guztien erdiac ematen dizquiedaz pobreai, ta calte eguin diedenai, ematen diet lau bider gueiagoo. *Do pauperibus, reddo quatruplum*. Eta cer eranzun cion Jesu-Christoc? *Gaur sartu da osasuna (animacoa), eche onetan*. Buirtu quendua baño gueiagoo, ta be-

re ondasun garbietatic eman ambeste limosna? O Penitencia ederra! O damu sendo negar gabe ere obraz aguertzen dana! Etzion Zaqueoc Christori esan, buirtuco diet Jauna quendu diedenai, eguingo ditut limosnac. *Non dixit dabo, reddam*; ezpada ematen diet, biurtzen diet, edo eman ta buirtu ditut. Ala sartu zan gracia edo animaco osasuna bertatic. *Hodie huic domini salus á Deo facta est*. Ala sartu zan Christo Zaqueoren echean vorondate andiarequin. Esan balio Christori buirtuco det biurtuco det, eltzen ezdala inoiz buirtzea: eduqui balu Zaqueoc bere viotza lotuta inoren ondasunetan, aterra ecinic becela bere echeti ostua edo irabaci gueiegui ta vide gaiztocoa, sartuco zan Zaqueoren animan gracia, ta guero Christo bere echean? Cein guchi! Bada nola ueste dute eraman Confesiora eguiazco damua buirtzen ezdituztenac ostu edo irabaci gaiztoac, eguin dezaqueela? Cer valioco du esatea, buirtuco det guero aldedanean, abustuan garia salduta, edo urrian artorequin? Ez ote dira igaro Abustu bat baño gueiago itz edo esquintza ederrequin? Etorquizunac noiz eguingo dira etorriac? Ez dezu len orrembeste esan Confesorearen oñetan? Ez daucat orain cer buirtu, gastatu nuen ostua... Ala guertacuco da, anima galdu ta pobreza gueitu. Ez ote dago cer saldu biurteco bear dana bestela ecia danean zatica bada ere?

Eztira Jangoicoaren aurrean igaroco ecin eguiñac eguiazcoac ezpadira; ta ecin eguin eguiazcoa dagoanean ere bear da becatuaren damu andi bat, asmo sendo batequin ez gueiago ecer ostutzeco, ta buirtzeco ambat lasterren alduanean.

Asco ostu, guchi buirtu; ta becatua ez damutus.

Ala galtzen dira ambeste anima.

Ah! Eta cembat cristau vici diran ueste gaiztoan, damu ichurapen batequin becatua eguiaz, edo bear beste gorrotatu gabe eltzen dirala confesatzera! Oen artecoac dira oitura gaiztoetan sarturic daodenac confesio batetic. Eta cembat onelaco? Arquituco da emacume aserracor, vici, edo colera andico bat umeai,

umeai, edo senarrari noizian bein birac edo maldicio gogorrac ezarri ta doctrina gaiztoa ematen dutenac echean ta auzoetan; Confesoreac conseju ta penitenciac emanarren, beti leenac, aurrera esateari, *illo alaiz, itoco alaiz, extanda eguingo al dec, viciric etorrico ez alaiz*, ta cer ez? Oec absolucia itz guezurrezcoequin Confesore siniscor bati aterata diaz comulgatzera, ta artzera Jesu-Christoren aragui ederra beren mingain madaricatuetan. Oen artecoac dira jaiegun santuetan bear eragotzi ta luceac beren cuticiac ta maña charrez eguiten dituztenac Confesoreac sarri debecatuagatic. Oen artecoac dira Amarren ta Primiciac gaizqui pagaturic buirtu gabe quendua confesatzen diranac. Oen artecoac dira chit asco araguiaren vicio ezcutucoetan sarturic daodenac beren artean pensamentu loiac vorondatez ta ezagueraz confesio ascotan iduqui dituztenac; beren buruequin eguin oi dituztenac accio lotsagarri, ciquin, ta Gentil bati gaizqui iritzico liqueenac. Oen artecoac dira Confesore nasai ta contu guchicoen atzean dabilzananac estutu ez ditzan uztera becatuco lagun, edo ocasioac Confesore jaquitun, beguiratu, ta Jangoicoaren beldurreco batec. Ichuac billatu ichua guidari edo ichumutiltzat? Biac erori ta banatuco dira Deitu gaitz asco ta andietan Medicu edo Osaguilla guchi jaquin, ardura gabeco, ta gaisoaren gusto edo gogoco osacarriac emango dituena? Ez die gairzac damu andiric ematen, ezdute osasuna eguiaz nai. Ala bada biltzen dituztenac animaco gaitzetan gucia igaroco dien Confesoreac, obligatuco ezdituenac obligacioac cumplitzera, uztera ocasio gaiztoac, ez dute becatuaren Jangoicozco damuric: nai dute ezarri carga, berriz beste bat eguiteco, ezarri albaleze becela Confesio gaiztoarequin.

Badira beste batzuec, edo Justiciaren, edo Gurasoen beldurrez utzi zutenac tratu gaiztoa, baitaere Confesoreac absoluitu nai ezda bota edo quendu duteenac Ocasio becatucoa. Badirudite ondu dirala, becatu gabe guel-ditu dirala, ta darabela damua Confesiora. Ordea ez dute damuric, ceren osatu ezdan viotza; gordetzen dute



amorio gaiztoa vorondatean, Loten emazteac becela ezar-  
ten dituzte pensamentuco beguiac beren Sodoma maite-  
ra, au da gozatten dira, aguirian utzi zuten adisquide  
chaarraren oniritzi edo cariño galgarrian. Ipituco quipu-  
la porroac dauzque viotzearan Igitatic irten arren. Au da  
gordetzea occasioa vorondatean ta irauuneracitzea viotzearan  
leengo vicitza gaiztoari, ta damuric ez iduquitzea, ta  
bai atseguin ta poza. Ezdio Medicuac utzi nai eri edo  
gaiso dan bati ur prescoric edaten ill ezdidin. Gaisso da-  
na beldurrac atzeratzen du edatetic; baña gueitzen da egar-  
ria, calenturaren berotasunarequin; sicutzen zaió minga-  
ña. Gogoratzen zaió errico Iturrietaco ur eder ta pres-  
coac; vorondatea aietan ipinten du, viotzarequin asetzen  
da aoarequin edanecin duenean. Onec gorrotoric artzen dio  
urari! Cein guchi! Ancina edo edaten zuenean baño ere  
maiteago du. Ala dira cristau gaizqui vici izan diran as-  
co. Animaco Medicuaren aguintzaz, edo lurreco beste at-  
zera garriren bategatic quendu dute tratatze gaiztoa, ez  
dira alcar ecusten, edo beintzat itzeguiteco eram adis-  
quide biac. Ordea egarri andia dute ez alcarrequin edate-  
co lujuriaco ardao gozo irudico, baña pozoiz bete. E-  
daten dute gogoz ta viotzez, vorondatea leena da, itza  
dirudi Jacob onarena, ordea vorondateco obra, edo es-  
cuac. Esan gaiztoarenac. Viotza erituta daucan guizonac  
beste corputz gucia sendo badu ere, galdua da. Ala ere  
vorondatea becatuari eraatsita daucana, galduco da, it-  
zez, ta sendidu azalecoequin becatuac eguin ezagatic.  
Osatu bear da viotza: quendu vorondateti becatuaco la-  
gungarriac, artu gorroto santu bat occasio gaiztoraco izan  
ditugun personai, quendu beren oniritzi edo cariño gu-  
cia, igues viotzezere; bestela ezdago damuric, ez Con-  
fessio onic, ta bai Sacrilegio garbi garbiac.

Eta cer esan, nai becela urtean vici, ta confesatzen  
ez diranen gañean Pazcoaco egunen baten baño? Oec du-  
te becatuen damua? Nondic igarri? Cerc daramaz Confe-  
siora? Oniritzi utsac, edo Chartela eracutsi bearrac. Au  
da becatuen damuz eltzea Confesorearen onietara? Urte  
gucian ló galanqui ta beldur gabe becatu mortalequin.

Ez

Ez icaratu, ez eriotzaz, edo Infernuaren pensamentuz.  
Garizuman enzun Sermoi batzuec gogo andi gabe. Da-  
tor confesatzeco epea. Nori, dio, ezarrico diot maleta  
au? Alcartzen dira lagun ederrac, aitatzen dute Confe-  
sioa, ta Confesorea. Norequin confesatuco aiz, dio batac?  
Ni dio urlia Fraile edo Apaizarequin. Ah choroa! eran-  
zuten du lenengoac; ori estua dec, farezgarri erabillico  
au; bein confesatu nintzoan orrequin; baña eznu beste  
bein arrapatuco. Simple bat dec, galdetzen zituc milla  
gauza, baita len confesatuac ere, noizcoa dan oitura chaa-  
rra jaquiteco asmoarequin. Ala dabilta tratatzen nola iga-  
ro dempora confesio arin batequin. Comulgatzen dira gue-  
ro, artzen dute chartela, ta urrengo urterano paquea  
vici izateco libertade osoarequin leenagoco urtean becela. O  
zorigaiztoco gende moduac! Zoazte, zoazte Infernura, edo  
la ere Sacrilegio gabe. Ez diozu farraric edo burlaric eguin-  
go Jangoicoari. Eragutzen zaitu munduac baño obeto,  
loitzen cera leenaren gañera Confesioco Iturrian, ta bilt-  
zen dezue bere aserre santuaren tesoroa bere eguneraco.

Beste tramposo edo mausari batzuec dira confesatu ba-  
ño leenago amabost egun edo iru astean becatuac eguin  
gabe egoten diranac, pensadezan Confesoreac emendat-  
zen asi dirala; confesatuta ere egun batzuetan devoto da-  
bilitza. Ordea guero? Errecachoa igarotzeco hota dan al-  
forja, artu berriz. *Non rumpunt sed interrumpunt peccata.*  
Ez dituzte urratzen becatuac, dio Elizaco Eracarla san-  
tu batec, baicican atseren, arnasa artu gogo gueiagore-  
quin ta ariñago ebiltzeco becatuco vide gogorretan. O  
errucarriac! Nola ezcutatu Jangoicoari trampa edo mau-  
sa oiec? Ori da becatuaren danua? O Penitente ederrae!  
Certaco da zucen ez ebiltea Jangoicoaren beguietan? Cer-  
taco engañatu edo paque gaiztoan ipini nai izatea zuen  
conciencia. O Penitenciaren burlariac! Gaur Confesioan  
bularra jootzen, negarrez becela damu det esaten lepo  
macurrarequin; andic laster becatu billa, cale ta baztet-  
retan occasioac billatzen edo ematen; becatutic Confesiora,  
confesiotic becatu ondu gabe zabilzatela. Sinisten de-  
zute ondo damuturic zaudetela lengo vicitza gaiztoaz buirt-  
zen

zen ceratenoc ain erraz, ain laster lengo bacatuetara? Certan dago gueienez damuric eza? Ona certan. Ebaquitzen ez dira sustraciak, artzen ez da ontzeco bear becalaco gai edo videric, ezagutzen ez da cer dan becatua. Bizarguilla edo Barberac ebaquitzen du bizarra, apaintzen du arpeguia; ordea laster beltitzen da, jaiotzen da berriz bizarra. Cergatic? Sustraiac atera ezdituelaco. Garbitzen da baratza bat achurrarequin lurra saratuaz; baiña laster betetzen da belarrez, sustraiac quendu etzirialaco. Nola bada jaioco ez dirá berriz ta berriz becatuac ebaquitzen ez padira sustraitic? Cer? Beguitandu daramala batec becatuen damu eguiazcoa, gorroto artugabe becatuen ocasio, ebillera, ta lagun chaarrai? Eci gabe aragui gaizkira macurtua becatuen pisuat? Munduco ospe, baralla, iscambilla, ta olgantzta ero ta caltegarrietan ebillico dala Penitente eguiazco ta damu andi bat viotzcan duena? Au da negar eguitea? Au ezagutzea nor ofenditu duen; cer mereci izan duen, cer galdu duen? Eguiazco penitenciac escatzen du berriz, ez bacarric aldeguitea becatuetatic, baita ere vicitza on bat aurrera eramatea. *Declina á malo, et fac bonum.* Vicitza on batec cer escatzen ezdu? Sacramentuetara sarri ta prestaera onaquin eltzea, oracio zalea izatea, corputza ilduratzeta edo mortificacioequin bezatu, edo ecitzea, obra misericordiacoe-tan jardutea bacoitzac alduen bestein. Ezda asco belar chaarrec quentzea soroetatic; bear dira ereinaci onac frutu onac artu nai badira. A? Christauac! Cembat arquitzen dira gaurco penitente icenecoen artean contu onequin vici diranac? Gahi. Cer eguiten dute gueienac? Confesio isqui batzuec eguin gira ta bira becatuetan dabiltzala; munduaren, deabruaren, ta araguiaren legueac guero jarraitu viciro ta gogoqui; animaco etsaientzat mamniá, Jangoicoarentzat azala. Meza bat edo beste enzun devocio gabe, errosarioac esan itoca becatuequin paquean daudela. Ala daramaz deabruac gueldica cristau estalquiaz eriotzaco peligroraño. Itzen ezipadira beingoan, edo ezaguera gucia galdu ta concertuta, eguiten dute beldurrezco Confesio estu bat, daramaz Sepulturara ez urbe-

catuetan coipetuac ustelduac izatera. Eta anima gaisoac? Jesu-Christoren Tribunalera onera edo probechu gabeco Confesio general bat eguitera deabru ta Conciencia acusatzaile dirala. Ah Christauac! Ezda au beguitacio, edo beldurtzeco gueitzeaz esaten dana. Da eguia garbi garbia. Orain eguiten dira damu gabe Confesio asco, ta Infernuan guero confesatuco dira betico damuarequin ecer ateraco ez dan demporan. Pensatu ondo.

## ERACASTE VI.

*Nola Confesio onac esáitzen duen Gogo berriri edo Proposito sendoa ez gueiago becuric eguiteco.*

**E**Cusi degu doctrina bitan, cer dan becatuen damua, nolacoac izan bear duen, ta cein diran damuaren seña-le ta ezauvideac. Ordea damu onia lagundu ber dío Proposito Jangoicozco, sendo ta gucienac Confesioa ona izango bada.

*G. Jaquin nai nuque cer dan Proposito ori?*

*E.* Da badá becatuaz ondo damutua dagoan cristauac artzen duen viotzeco erabaquimentu, edo gogo sendo bat ez gueiago becatu edolaere mortalic eguiteco, aldeguiteco becatuaren peligro urreco, ta ezagunetatic.

*G. Egom lifeque eguiazco damuric proposito sendogabe?*

*E.* Ez inolaere; ceren, nola damu izan becatua berriz eguiteco gogogabe? Becatuari eratsita dagoan viotzac ezdu damuric. Ordea, damuan sarturic badago ere becatuari vorondateric ez iduquitzea, baiña Proposito formal (icen au ematen die Jaquitunac) edo berezcoac, escatzen du gogo bana banaco bat ez gueiago becuric eguiteco. Jangoicoaren amorezco acto edo egucarietan

sarturic daude Fede, ta Esperanzacoac, amatu ecin guen-  
zaquealaco Jangoicoa beragan sinistu ta espera edo icha-  
ron gabe. Lau errealeco baten sarturic daude ogueta ama-  
lau lauco edo quarto. Orobat valio dute ceinbatac, cein  
besteac. Baña cillarra cobrea ezda bere izatean. Ala bada  
Propositoa sarturic badago ere Dolore, edo damuan, ba-  
dute beren desberdintasua edo diferencia. Dimua zucen-  
zen da leenagoco, edo igaro ciran becatuetara; berriz  
propositoa etorquizunetara. Batarequin damu da eguina,  
bestearequin gogo da aurrera ez eguiteco.

G. *Eta Confesioraco bear bearra da proposito argui berezco edo banacoa? Asco ote da dama eguiazcoan sarturic dagoana?*

E. Trentoco Concilio Santuac dio, Contricioa dala animaco damu becatu eguiñarera, aurrera ez eguiteco proposito edo gogoaz. Eta dirudi escatzen duela aparteso edo berezco Propositoa, ta ez bacarric damuan sarturic dagoana. Ordea, beste lecu baten aditzen du Proposito onen icenez, quentzea, edo ez iduquitzea becatuaren vorondatean: *Si voluntatem peccandi excludat*. Eta eguiazco damuac quentzen du becatuaren vorondatean. Beti da chit ondo, eguitea proposito argui ta banacoac; baña christau onac, becatuari gorroto dienac, ezdute larritu bear absolucioa Sacerdoteac ezarri badie *Fauna proponitzen det acto* Contricioco an esan baño leenago, ta oro bat oroitzen ezpadira proposito ezagun, argui edo berezeoric eguin zutela. Becatuaren gorroto andi, ta sendoa dagoan viotzean, nola ezdaquiala egoten dira gogo onac, edo propositoaren actoac. Jangoicoaren amorezco acto eguiazcoac eguiten dituztenac, ezdute cer larritu Fedeco ta Esperanzacoac eguin ote dituzten, berac ez igarria gatic; cerren amore eguiazcoac berequin ditu lagun Fedea, ta Esperanza. Ala bada becatuaren gorroto vide oneoac bere lagun du proposito, edo ez becaturic eguiteco gogo.

G. *Eta egon liteque eguiazco Propositoric becatuaren baten erori ditequealaco beldurraz?*

E. Badu cer ecusi galdetze onec bear becela erantzute-co. Batec beldur on bat iduqui lezaque Infernucio etsa-  
iac.

iac garaitu ta becatuaren bat eguin ez dezan. Baña beldur on lagundu bear dio Esperanzaco virtuteac, icharoten degula Jaunaren gracia, ceñequin garaitzen diran tentacioac, ta iraun asi dan sail edo vide onean. Asi duenac obra ona berac bucatu ta sendotuco du. *Qui cepit opus bonum ipse perficiet, solidabit que. Guca dezaquet indarra ematen duenagan*, dio San Pablo Apostoluac. Gue-  
rez argal ta erorcorrac guera, ta ecin esan dezaquegu Jesusen icena ere Jaunaren laguntza gabe. Nondic etorri da becatuaren damua ta Confesio ona? Jangoicoaren misericordiac bere graciarequin gure viotza trucatu duela-co. Eta nondic etorri bear du irauteac vicitza ona asi danean? Jangoicoagandic. Eta ez ote digu lagundu nai? Ez dio ber berac, nai duela gure vicitza ona, ta azqueneraño irautea gracion? Certan dago ez irautea? Certan propositoric sendoenac ausitza? Escatzen ez diogulaco Jangoicoari bere laguntasuna oracio bero ta gogotsuarequin. Sartzen diralaco asco beren naiz becatuen peligro jaquitetan, nora lagunduco ez digun Jangoicoaren gracia becatutic gordeco gaituenac. Ala bada guc eguin bear deguna da, artzea asmo ta gogo sendo bat aldeguiteco peligro ezagunetatic, ta escatu sarri Ceruco laguntasuna; au eguin ezquero, iduquiagatic batec beldurra iraungo ote duen artzen duen proposito sendoan, izan diteque Contricio ona iduquitza. Ona emen adigarri batzuec.

Pillota jocoan apostatzen badu jocolariac amar ezcutuco bat, beldur da galdu ez dezan. Ordea badu proposito edo gogo sendoa irabazteco. Beldurrac ez du naguitzen, ta bai dendatzen edo vizcortzen eguiteco aleguina irabazteco. Eta combat eta gueiago valio duen jocoac, ambat eta andiagoa da galtzeco beldurra, baira ere irabazteco diligenciac. Guerra andi baten sartu bear duen Soldaduen Aguintaria, beldur da galdu ez dezan bata-  
lla edo Guda. Baña badu gogo ta vorondate sendo sendoa irabazteco ta garaitzeco etsaia: beldurrac ezdu naguitzen eta bai animatzen irne, edo portizqui paleatze-  
ra. Ala bada cristauac ere iduquilezaque beldurra beca-  
tu berriren batequin anima galdu ez dezan, ta iduqui  
I go-

gogo ta vorondate sendoa ez becatuan erorteco, naguitzen ezdala beldurrarequin, ta bai portiztu, dendatu, azcorru, ta animatu eguiteco aleguia gucia animaco etsaiac garaitzeco. Ordea beldurra badator gogo ta vorondate illetic, esaten bada bacarric, nai nuque ondu, eza gutzen duela berequico ezduela animoric uzteco ocasio gaiztoac, eguiteco Confesoreac aguintzen diona; naguitzen bada artzeera vitartecb onac irauteco vicitza onean, ezdago proposito eguiazcoric, baicican nai erdi argal ecer valio ez duenac. Beldurra dago entendimentuan, proposito ona vorondatean; bafia vorondateac artzen ezpadio becatuari gorroto andi bat, aurrera ez eguiteco gogo sendo ta zoli batequin, ecin iduqui lezaque proposito bear becelacoric Confesioac onac izateco. Beldur on ta zuce na dator humiltasunetic. Santuac vici ciran beldur santu baten becatuic eguin etzecea. Nolacoa etzan beren vorondatea onizateco? Ordea arroae, beren buruen confianza gueiegui ceucatenac Jangoicoaren graciarequin conturric atera gabe, erori ciran lotsagarrizco becatuetan. Orta bada nola beldurra ta Esperanza ondo alcartzen, edo laguntzen diran.

*G. Nolacoa izan bear du bada Propositoac?*

*E.* Izan bear du piñac edo cindoac, ez palsoac; viotzaren barrenetic irtenac, ez bacarric aoan ta ezpañetan dagoanac. Confesatzera dijoan edoceñi galdetzen bazaio, duen ontzeco edo emendatzeco gogoric? Eranzungo du tricaratu, ta guelditu gabe, bai Jauna, badet, ta ala usteco du. Bafia cer esango dio Concienciac ondo aztertzen badu? Ezdaquiala nola urratuco dituen becatuaren locarri ta cateac, nola utzi lagin ta ebillera len pecaturaco videa eman cienac. Gaitz deritzo ezdu viotzic urratzeco catea oriec. Inore ezdu becatua nai becatuaren icenarequin; bai ordea izanarequin. Nai luque nola bait Jangoicoa ez ofenditu, bafia ez die utzi nai Jangoicoaren ofensa gabe izan ecin ditezquean gauza. Gogo ederra ta Jangoicoaren leguearen onra garria! Da nai izatea Jangoicoac debecatu ez balitu debecatu dituenac beldur gabe becatu eguiteco.

G.

*G. Orren bearra ote da Propositoaren sendotasuna?*

*E.* Bai, ta berdintza, edo comparacio onequin adira-citzen du San Agustinec. Arzazu esueñtan adrillu ondo gogortu ta errea, ta garbizazu urarequia. Ebusico dezu nola eder garbia guelditu ta argui eguingo duen.

Ordea artzen badezu adrillu bigun, eguin berria, ta su onetic igaro gabea, cembat gueiago garbitu nai de-zun ambat gueiago ciquinduago ta galduago gueldituzo da. Ala bada Anima damuaren su gabe, ta Ptopositoa-ren gogortasun edo sendotasun gabe, cembat garbituago eguin nai dan Confesioico Iturrian, ambat ciquiñago, ta galduago guelditzen da.

*G. Esan beza bada, nolacoa izan bear du Propositoaren benetasun, ta Sendotasunac?*

*E.* Iduqui bear da vorondate edo gogo zoli zoli, ta zailla ez inoiz becatu mortalic eguiteco. Ez aidetasun, adisquidetasun, ez lurreco esaquizon, edo egui quizunegatic urratzeco Jangoicoaren Leguea. Ni baño beste gauzaric gueiago maite duena, ez da neretzat gauza, dio Christoac. Gorroto artzen ez dienac Guraso ta beste senideai Jangoicoaren gauzeetan atzeraten gaituztenean, ez da izango Christoren jarratzallea. Ala daduca esanda berberac. Gorrotoa aguintzen duenean ezdu aguintzen gaizqui nai izatea Guraso ta besteai, bafia bai ez eguitea beren esanic Jangoicoaren onraren contra danean. Emendic dator eztaucanac. Proposito ain sendoa, non galduco ez luquean leenago onra, vicitza, ta edocein ondasun Jangoicoaren gracia baño, ez du eguiazco propositoric ta dago becatu mortalean. Atoz ona cristaua. Etorrico balitza Fedearen contraco Persecucio gogor bat eman bearco cemuque vicitza, ta galdu onrra, ta ondasun gucia Fedeco articuloren bat ubatu baño leenago? Baietz dio edocein cristauac. Bada Jangoicoaren gracia guchiago valio du? Fedea becela bear bearra ezda Gracia salvatze-co? Nola bada ezagutzen da ain arguiro, fedea galdu baño leenago galdu bear dirala vicitza, onrra, ta ondasunac, ta ezda ala ezagutzen gueienen artean beste am-beste eguin bear dala Jangoicoaren Leguea ausi baño lee-

nago? Certen Fedea gordetzea Persecucioric ez dagoanean gaitz eguiten ezdan, ta urrutitic ecusten diran etsaiac. Ordea egunoro daude mandamentuac ausieracitzeco perseguitzallac. Perseguitzen gaitu araguiac, ta au garaitzeco peleatu bear da. Perseguitzen gaituzte mundutar gaiztoac, ta oeratic ere gorde bear da burua. Perseguitzen gaitu deabruac milla aldetara, ta eman bear zaio arpegui etsai oni fedé vicibatequin. Ala bada erorten dira asco etsai oen persecucioetan, uzten da Jangoicoaren leguea. Cergatic? Cerren maiteago duten alacoac beren onra falsoa, beren vicitza, ta ondasunac, Jangoicoaren gracia baño. Ecusten ciranean christau argalen batzuec incensoac esquintzen Idoloai, ta itz gaiztoren bat esaten Christoren contra vicitza ez galtzea gatic, ta tormen-tuen beldurrez, nola beguiratzen cien beste Christauac alaco cristau icaracor ta beldurtiai? Esco malgatzten cituzten, ta guero persecucioa igarota etortzen baciran barcacioa esatzten, cembat urteco negar ta penitenciac eguin bear cituzten absolucio esa artu orduco? Ta beti guero ere beguiratuac ciran Soldadu guerra demporan beldurrez igues eguiñae becela. Eta bigarrenean penitencia eguinda erorten baciran fedea ucatzera munduco tormen-tuen beldurrez? Nolaco castiguac? Cein nequez sinistu beren negar ta barcacio escatzeai? Au da cristau bat, esaten zuten, bere vicitza maiteago duena Jesu-Christo baño. Eta cer esango zan amar ta ogui bidez ucatu balu Fedea tormentuen beldurrez? Esango zuten alacoac ematen cituan itzac cirala sendoac, zallac, ta eraguillac? Ez; ta bai epelac, ta indar gabeac. Orain bada, nola esan diteque dirala prosito eguiaczo ta sendoa ambeste bider ausitzen diranac confesio ondoan? Norc sinistu prest daudela onra, ondasun, ta vicitza galtzera becatu mortal bat eguin baño leenago, edocein tentacio ta ocasioc ezarten dituenac, persecucio gogor ta andi gabe? Nola eduqui gogo sendoa igarotzeco mártirioac, enra apur bategatic, erregu ta palagu batzuec gatic becaturatzen diranac? Cembat cristau dira Confesorearen ofietan itz ederrac eman, ta andican laster jaten dituztenac perse-

ucio gabe beren vorontate osoz, ta atseguin ustel batzuec gatic?

Batec escatcen ditu prestatzez lau anega gari esquintzen diola pagua illa beteren buruan. Eltzen da dempora, igarotzen dira ill bi ta pagua atzera. Pagatu gabe datorquie escatzera beste lau anega. Erantzuten zaio; ezdezu lengo zorra pagatu, ta nola sinistuco det nic pagatuco didazula gucia. Bai, dio escaleac, Guici gucia, lengoa ta oraingoa pagatuco det illa birenepean. Zaude beldur gabe; guizon prestua naiz. Itzonnaquin ateratzen diozeaz beste lau anega. Befetzen da epea; igarotzen dira ill biac, ta pagatzalle gaiztoa dator irugarren aldian diru gabe escatzera beste ambeste gari, esaten diola, lotsa naizala nago, baña ecusiric zure ontasuna, nator zuri escatzera beste lau anega. Ezdet eguingo len eguin dedanic, itza eman, ta cumplitu ez. Baditut artzeeco asco, ta dempora guchirem buruan etorrico naitzatzu amabi anegaren diruarequin. Sinisnazazu; ematen dizut itz sendoa. Ceresango cifoque onelaco pagatzalle chaarrari? Eman escatzen dizun gucia ecusi ezquero cembat bider engañatu zaiten? Ceinguchi! Esango cifoque, zure itzac ta utsa, gucia dabat. Itz ederrac escatzeco, ta pagatzeco moduric ez. Zuaz ordu gaitztoan; ecartzen ezpadidazu laster eramanen pagua, eguingo dizut justicia. Ala ezda? Becatuaquin confesatzera dijoanac escatzendio Jangoico ofendituari barcacio osoa. Nola Confesoreac ez daquian viotzaren berri, ematendio Jaunaren partez absolucioa sinisturic ematenduzuen itzai; onduco naiz dio penitenteac, ez naiz berriez errorico, aldeguingo det erorteco occasioetatic. Zoaz paquean, dio bere aldetic Confesoreac; contu ez gueiagoren gueiago becaturatzeric. Dator berri ondu gabe. Ematen dituitz berriac. Dator ta dator irugarren ta laugarren aldian emendatu gabe, ta beti esquintzen duela emendatzea. Onelacoen proposito ta itzai norc sinisten eman? Norc esan guezurtipalso batzuecez dirala? Ala dabilta becatari asco becatuen inguruan, gira ta gira be-ti baten, gueroago ta gaiztoago eguiten ezpadira. Za-

cur jaunac atera edo trocatzen dituztenac becela dio San Pedro Apostoloac, berriz jaateco. O Proposito ederrac! Cein ederqui dion David Erregueac onelacoac gatic; *mingañean guezurra dute*, itz onac; *ordea beren viotza ur-ruti dago*, edo ez *zucena Jangoicoarequico*. Eta guezur-tiac enaña lezaquete Jauna? Eta *artuco* ot<sup>e</sup> ditu viotz-gaitzo ta oquerratic irtetzen duten itzac? Eta irichi bar-cacioa proposito guezurrezcoequin?

Jauna, nic ondu nai nuen Confesioan itzac ematen nituenean. Neritzon neramala proposito, ta voron-date ona.

Ona cer dion Espiritu Santuac; *Alperrac nai du ta nai ez du. Vult et non vult piger*. Nai du jan, ordea ez erein, ez soroan necatu, ez laarrac quendu ez orzie ta beroric igaro achurlari bearguin onac becela. Nequeac ac-zeratzen du. Alperraren jannaia ezda sendoa, cindoa edo piña. Ala dira nagui alperrac christau asco antinaco gau-ccetan. Nai dute Ceruco; baña ez eguin Ceruraco bear danic ez ne queric artu. Nai dute becatuen barcacioa ta diru dite nai dutela ondu ordea ezdute ez onduteco ez barcacioa iristeco bear dan gauzaric eguin nai.

Dira bada alperrac, ta naguiac, ta beren nai izatea ez da cindoa edo piña, ta bai azal azalecoa. Ala Jangoi-coac madaricatzen ditu, alper nagui eguiten dituztenac bere obrac. *Maledictus qui opus Dei fecerit negligenter*. Au da vorondatea osozzenatea Jangoicoari, ta irastea gueiena becatuari; itzac Jangoicoarentzat, viotzi deabrua-rentzat. Da naiera on irulicoequin ichutzea beren animic, ta Infernura erortea ezagutu gabe becela. Confesatzen di-ranac gaizqui ezaguera oso osoaz, beldurtzen dira bada-quite berea estatu gaiztoa, ta ezaguera onequin erraza-go da ondutzea, ta Confesio verri ta danuzcoarequin biurtzea Jangoicoaren graciura. Biña ondo confesatzen di-ralaco beguitacio, ta iritzi videgabecoequin urbiltzen di-radenac Comunio santura bein baño sarrigo, ta bear ba-da urte osoetan, jaaten dute iehuichuan Jangoicoaren jui-cioa; ta nola giratu beren viotza ondo confesatzera? Ezagutzen ex dan gaitza, nola osatu? Bada vide bat,  
dio

dio Jangoicoac, ona diru diana baña azquen chaarra due-na. Onac diruditez ascoren Confesio oso ta ecer utzi ga-beac; onac alacoen Comunioac, baña azquen charra du-te, ceren Santo Tomas andiac dion becella, proposito ta damu eguiazco gabe eguiten diran confesio ta ondoren-go comunioac dira sacrilegioac ezagutu dezaqueanean ba-coitzac ezdara mala prestaera bear danic; ez ezagutzea bera dalaco becatu verria. Ordea cer guertatzen da? Vicitzaonean ta becatu mortalic eguin gabe urte osoac igarotzen dituztenac veldurtzen dira; beti daude icara becela ote daramen eguiasco Propositoric; eta becatuen ertuedan girata bira dabilzandat gaur confesatu, laster be-caturatu confesio baño becatu gueiago eguiten dituzte-nac, ez dira beldurtzen, ez dute loric galdutzen, vici-dera confianza ederrean. O ichutassun caltegarri anima as-co Infernura daramazana!

Ona emen arguivide zucena ecusteco, nola alaco jai-qui ta erori, confesio ta pecatu dabilzatenen proposi-toac diran argal, ta ez sendo benetacoac. Gauza bat viotz-onez edo sendo nai danean necatzen da burua, ta egui-ten dira diligencia andiac alcantatzeco. Cer eguiten ez dute oguia ta dirua irabaci nai dutenac? Largatzen dituzte aide ezaguac erriac; sarturtzen dira Onciba-ten Ichaso luceac igarotzeko vicitzaco arriscoarequin. Jaa-na laburra, lo guchita beldurrezcoa, otza ta beroa al-dizca chitandiac. Oroituco dira, Ichasoac cembat irenci dituen arraitzarren janari izateco. Azquenean Indietara el-duta, ezdute an pilloca dirua arquitzen. Necatu bear du-te tratu andietan ta asco guelditzen dira ecer irabaci ga-be, edo onic onenean guciac galduta. Cerc eguitendu au-beste buucomin ta neque artzea? Dirunai sendoac; vo-rondate benetacoac. Gaisotzen diranac artzen ditutze edaa-ri mingoitza ta iguigarriac ta beinbaño gueiagotan barbe-ren escuetatic eraguiac ebaquitzea. Osatu nai, ta ta osa-garriric artu nai ezduenac garratz ta mingoitzac diralaco esesioz; ezdu benetan osasunic nai. Nequezaleac, cembat arazo ta lan oguia irabazteco? Olagnizonac surtan erre-zen becela dabilza; lo gozo gabea, gaua ta eguna oro-ba-

batecoac, nolaco icerdia ematen ez dute? Achurlariac, Icatzguiaic cembat cer eguin neque andico? Cerc eguiren du? Vorondate sendoa dutelaco oguiu billatzeco. Orain bada, cer da gauza bearragoa lurreco diruac, edo Ceruco aberastasun beticoac? Corputzeco osasuna edo animacoa? Emengo oguiu, edo Jancoicoa bera gozatzea? Nola dira bada lurrean guizonac ain beguiratuac, nolain sendoac beren vicimodua ateratzeco; ta ain epel, nagui ta arretagabeac animaco gauza ain pisucoetan? Nola becatuan ez erorteco ain otzac, ta contu guchicoac? Nola? Ez da bururic ausi bear igarteco. Ez dute proposito sendo ondutzeco ta onean irauteco ta onean gogo viceric artutzen. Auda gucia. O lotzatzeco gauza! Miila bider neque gueiago artu bearrean animaco osasun ta betico salvacioagatic corputzeco gatic baño, ascoz guchiago eguitenda. Nai dezuenzun Escritura Santaco guertaera bat? Ona emen. Arqitzen zan Naaman ceritzon Jaun andi bat ezeabi loi ta gorputz gucico batequin inolaere osatu ecin zutela Medicuric joquitunenat. Esancien osatzencituela chiterraz gaitzmota guciac Eliseo Profeta Santuac. Osatu niaz jarri zan videan ta vide luceac eguinda, el du zan Profeta andi miraguilla au cegoon errira. ~~Esatu~~ cion osa cezala Zoaz bada, eranzun cion Eliseoc, Jordango Ibaira, ta garbizaite zazpi aldiz. Enzun zuen aguintza an becoqui illunarequin, esaten zuela; cer? Ez taude gure errian edo inguruan emen baño Itai ur obeagocoac? Certaco eguinditut nie ambeste vide? Ta cijoan Profetac eguinduciona eguitemo gogo gabe. Esancion bere morroc batec, Jauna, gauza andi, necatsu, ta gogorren bat aguindu balio Jancoicoaren guizon arc, eguin bear luque berorren osasunogatic. Ordea arguintzen badio gauza ain erraza, nola dan garbitzea corputz eritua, zazpi bider, cergatic eguin ez? Ezagutu zuen arrazoia Naaman Jaunare, garbitu zan Profeta Santuac aguindu cion bezela, osatu zan, corputz gucia garbi garbi guelditzen citzaiola. Nolaco eraqueria izango zan neque apur bat ez artzea gatic biurtu balitza bere errira osatu gabe? Orain bada edo sein cristau animaco osasuna billatu nai duenari esan bear-

zaio arrazo ber bera; Jesu-Christoc aguinduco baligu gauza guciz gaiz ta gogorra animaco ezeabi gaiztotic garbitua guelditzeco; aguindu baligu esatea becatuic ichusunac Elizabaten gende ascoren aurean, urte gucian urta ogui utsequin baraurtzea, corputz gucia cilici iguratzea lur gogorraren gañean lo apur bat eguin; ta gaua guero oracioan igarotzea, eguin bear guenuque animaco osasun, ta betico salvacioagatic. Santu ascoc eguin duten becela. *Si rem grandem præcepisset tibi Propheta Ec.* Baña gauza errazagoac aguintzen badizquiguz, cergatic eguin ez? Ez digu aguintzen aguertzea becatuac, baicican ezcutuan gordeco dituen Sacerdoti bati; ez digu aguintzen urte gucian baraurtzea ur ta ogui, baicican urteco egunen batzuetan orrelaco gogortasan gabe; ez digu aguintzen lur gogorraren gañean ta ordu guchián lo eguitea. Cer bada? Negar eguitea Jangoico ona ofenditua, ez aurreracoan bere legue santua ausitza, ta ausi ez dizagun largatzea becatuco lagunac, ocasio gaiztoac, ta contu iduquitzea guere animarequin; eta ez eguin? Animac orren guchi valio du? Gure salvacio, edo condena-cio beticoa ardura guchico gauza da? Becatu bacarbat baño eguin ezpaguendu ere, vicitza gucico damu ta negarrequin barcacioa escatu bear guenuque, dio San Agustinec. Nola bada, uste degu proposito argal, igarocor, frutu onic ezdacarrenarequin irichi parcacioa, edo eguin confesio ona? Nondic dator berri sinistea trojanaico proposito, asco dala confesio ona eguitemo?

Esagutzen ezdalaco becatuaren pisua, ta cerdaa conversio edo viotzeco aldatze osoa.

Santo Thomasec dio becatari bat graciaco vicitzara igarotzea obra andiagoo dala Ceruac ta Lurrac eguitea baño, ta Jangoicoarentzat gauza gaiztic ezpado ere, dirudi gure aditzeco moduan, gueiago costatzen zaiola becatuco eriotzatic graciaco vicitzara aldatzea guizona, beste gauza guciac eguitea baño. Jangoicoac eguin cituen gauza guciac bere esan edo aguinduz beste gabe. Esan zuen, eguin bidi Cerua, eguin bidi Lurra, eguin bidi arguia, ta beste gabe Cerua, Lurra, ta arguia eguinditza.

Cembat bider esaten du Jancoicoae, biur zaillezte nigana viotz guciarequin, ta guizon gogorra guelditzen da bēcatuan? Cembat inspiracio ta argui ematen diozca becatari ascoi, ta orregatican au beti lengoa?

Jesu-Christoc chit erraz piztu cezaquean Lazaro difuntua; ordea cembat demonstracio aguertu cituen piztu bāñ lenago? Eguin cion oracio bero beroa Aita Eternoari, eman cituenbere beguietatic negar malcoac ascaeracituen difuntuaren locaariac, artuzuen espiritu edo viotzeco icara andi batec, ta esancion ez edonala, ta bai deadarrez *Lazaro, irten campora*. Onembeste demonstacioren ondoan piztu zan Lazaro. Elizaco Eracasla Santuac ecusten due Lazaro difuntu atsitan becatu mortalarequin illda dagoan anima, ceñec ematen dion Christori icara andi bat, atera eracitzen diozca negarrac, ta convertitu edo piztutzeo graciaco vicitzara eguiten diozca bere Aitari erregu, edo escaariac. *Ipsē interpellat pro peccatis nostris*. Jesu-Christoc beste mirari andiac cein erraz eguiten cituen! Orain bada, nola sinistu dezaquegu becatuetic confesiora, confesioric becatuetara, edo oitura chaarretan sarturic daudenac piztu ta ill, illta piztu dabiltzala, edo convertitzen dirala eguia Jancoicoagana beren confesio ondutze gabeztan? Cer? Cristauaren anima izango da hostatu idiqui bat gaur deabrua artzeeco, viar Jancoicoa; etzi berriz deabrua etzi damu Jancoicoa, urte gucian, edo osoetan aldizea dabiltzala deabrua ta Jancoicoa? Norc sinistu haaste betico au? Ala bada proposito iraute laburrecoac, ta sarri utsematen dutenac ezdaude anima barrenean ez dira sendo ta eraguillac, ez cindo edo piñac; ta bai ezpañ utzeoac, edo viotz gāñecoac, eta falsoac. San Agustinec dio, proposito ezta baidacoac, gāñso, argal, edo indargabeac, ta batera ta bestera dabilten vorondatetic irtenac, ezdirala penitente eguiazcoarenac. Bear dala nai izan sendo ta osoro: *Velle fortiter, et integre*: bear dirala urratu eragozpen ta catea guciac irtingo bada deabruaren Carcelā, edo Presondeguitic.

G. *Ab fauna! Guizona da erorcorra, argala, ta milla etsaiz inguratua. Nai izanagatic, proposito sendoa*  
idu-

*iduquiagatic buirtuliteque bacatura. Ala ba da egon ditteque proposito sendoa, ta eguin guero bacatu.*

E. Eguia batequin estaldu nai dituzte cristau ascoc beren becatu ta confesio gaiztoac. Guizona erorcorra da, argala da, milla etsaiz inguratua. Ordea Jancoicoaren graciā jarri danean confesio onarequin ta alde eguiten bada becatuaren ocasio gaiztoetic, nolaco indarra artutzen ez du animac garaitzeo etsaiae? Nola cristau berez argal ascoc irauten dute vicitza onean urte osoetan, ta eguin obra on asco? Ceren indartzen dituen Jancoicoaren graciāc, ta gracia artu zutena gueitzeco, eguiten dituzten gāñza on asco. Ordea, cer eguiten dute proposito argalequin confesatzen diranac? Eguin bearrean guero aleguin gucia irauteco vide onean, ebaqui bearrean guero gaiztoen sustraiac, eguin bearrean oracio jarraitua tenta ioan berriz erori ez ditezen, vici dira lasai lasai munduco atseguinen atzean, etsai gaizto oni beldurric izan gabe. Leabecela dijoaz bulla guciatara, lengoac adisquideac, conversacioac, ta ebilmoduac. Artu balio gorroto becatuari, artuco cien becatara dezaqueen ocasio guciāc ere, ta gordeco liraque oetan sartzeetic. Magdalenaren Propositoa sendoa zala nondie daquigu? Larga cituelaco becatu vide ta lagun guciac, ta leen amoreā cien gauza guciāc gorroto artucielaco. Eta iraungo zuen luzaro Jancoicoaren amorioan biurta balitza negar eguin ondoan bere lengo lagun, adisquide, ta munduco nasaivideetara? Laster galduco zuten ta sartuco zan becatuen ciqintzan. Berriz buirtu balitza. Jesu-Christogana becatu eguinda, ta urte gucian ebilli, batean munduco adisquideetera, bestean Christoren oñetara negarrez, cer esango zau? Bere negarrac, ta bere propositoac cirala sendoac? Cein guchi! Jesu-Christoc amorez artu cituen bacataria ematen cien encargua zan ez berriz becatuetic eguiteco. *Noli amplius peccare*. Alā esan cion Adultera castigatic libratu zutenari eta gaitz andietatic osatu zuen batiere esancion; ez ezazu gueiāgo becatuetic eguin, guerta ez daquizun gauza gaiztoagoren bat.

G. *Cein da bada Proposito eguiazcoaren ezarvide?*  
igargarri edo señaleric onena? K2 Aur-



E. Aurrera eramatea vicitza ona, ta au eramateco edo onean irauteco artzea vitarteco sendoac. Propositoaren onetasuna ezagutzen da, dio Santo Thomasec, eguite edo obra onetatic. Certaco dira Santuen esanac, estalqui gabe badio Christoc, ezagutuco dituzu beren frutuetic? *Ex fructibus eorum cognoscetis eos.* Nondic ezagutzen da Arbola bat ona edo chatarra dan? Arbola onac ematen ditu fruta onac; chatarrac, chatárrac. Confesio asco eguiten dira, ta urte batac besteá dirudi. Cembat gaiztaqueria ecusten ta enzuten diranac? Eta cembat gueiágo ecusten ez diranac? Cer esan bada frutu ain gaiztoac ecusita? Proposito guezurrezco asco dala.

Proposito eguiázcoa izan duenaren señaleac dira confesio ondoan ta gueroco demporetan ere egotea beti icara ta beldur santu baten; gau ta egun Davidec becela negarrequin animaco bazcari ta afaria billatzea; lotsatu ta buruz bera becela ebiltea Jangoicoaren aurrean bere becatuen belztasuna ecusita fedeco beguiequin, ta dapu ematea besteen becatuac ere; eman nai izatea Jangoicoaren Justiciari bere gaizqui eguiñen ta animaco zoorren satisfaccio, edo lema osoa.

Proposito onaren señalea da irauteco vide onean artzea Confesoreric onena, bere esan edo obedienciaren bean jarraitzeco sarri confesatzeari, oracioco lan santuari, corputzeco penitenciari araguiari indarrac quentzeco: Jangoicoac bialtzen diozcanean atsacabe, edo gaitzen batuec, Job sentuac, virtute andien arteco becatu chiqui chichi batzuec gatic becela esatea. *Eguin det becatu, ta actu ezdet bear nuan besteco castigua.*

Proposito onaren señalea da becatu chiquietan ez erorteco contu edo ardura, ta erorten danean bereala damuzzea, ta penitenciachoren bat laster eguitea; da Jangoicoaren amorean aurrerau nai sendoa, ta suguearen arpeguitic becela igues eguitea becatuco ocasio, lagun ta vide gucietatic. Oec dira frutu onac. Baña becatuen confesioa eguinda ebiltea munduco alegriarequin beldur santuac irauten ez duela; ebiltea Confesore lasai ta gucia igaroco dutenen billa, edo batetic ta bestera oitura zaaren

ren berri jaquin ez decen; Jangoicoaren amorearen atzean ez ebiltea, ta vici izatea pena gabe eguin cituen becatuac gatic? oitura chaarrac quendutzeco vitartecoac ez artzea, ta eramatea vicitza araguiaren eregatzallea jan edan, ta diversioetan viotza ipiñita daducala, da proposito ichura utcedo edo cirimoniazcoaren señalea. Oec dira frutu gaiztoac. Beraz arbola chatarreti cirtenac.

G. *Eta cer eguin becatu señale chaarreco propositoquin confesatu danac salvatu nai badu?*

E. Eguin confesio gaiztoen señaleac dauzqueenea berriestacio edo confesio general garbi ta damuandico bat, ta aurrera eraman vicitza frutu onac dacarzuqiana. Ala izan didilla.

## ERACASTE VII.

*Nola eguiázco Propositoa dan guciz gaitza ala vicitza, nola ereriotzaco egunetan oitura chaarretan sarturic daudenetan.*

**E**Racatsi da igaro dan doctrinac cer dan! Propositoa, ta nondic igarrico dan bere sendotasun, ta argaltasunas ordea ecusi bear da, cein gauza gaitza dan vicio edo oitura gaiztoetan sarturic daudenetan.

G. *Nondic dator becatariac egotea beldar gabe beren vicitza gaiztota guztiere?*

E. Dator beguitantzen zaielaco Confesio on batequin noiz edo noiz irichico dutela becatu gucien barcacioa, ezagutu bearrean gueroago ta gaitzago eguingo zatecela viotza onera giratzera.

G. *Beraz eraqueria andia da asmo onelacoa?*

E. Bai ta nola ere dan. Nor da bere vicitzaren jabe? Norc dauzcaz eriotzaren gutilzac? Jangoicoac. Norc neurrian ta mugatuta ipiñi ditu egunac? Nori ematen dio

nuac

Jauñac contu, noiz izango dan vicitzaren azquena? Eta aritzen bagaitu eriotzac uste utecabe beingo batean ondutzeo asmo soil ta eroequin? Guero Penitenciaco Propositoac salbatuco ote gaitu? Datorren urtean bilduco dan gariarequin jango degu aurten? Infernta beteta dago Proposito onez, dio San Bernardoc. Cristau guchi dirá Judas becela ernegatuta galdu diranaç betico; guciennac condenatzen dira salatu esperanza viledgabeaquin. Gueiago. Espiritu Santuac esanqui gábe dio, gaiztoen egunac laburtuco dirala; gavaz lapurra becela etorrico dala eriotza. Beráz luzavide eroequin ta becatuac becatuei gueituaz ipinten dute cristauac anima inoiz Penitenciaric ez eguiteco arriscu edo peligro ezagunean; ta Proposito utsequin salvatuco ez da.

*G. Baña osasuna ta entendimentuco arguia egon exquero noiz nai giratu edo biurta diteque becataric gogorrena, ta nola guciac iltzen ez diran itoca ta beingoan, uste det salatu.*

*E. Arrazoeroa baño gaiztoagoa eman dezu. Bacifiaqui ecin gaitza dan oitura gaiztoan sartuta daudenen eguiazco biurrera edo conversioa, etzenueque alaco gauzaric esango. Osasun onac ez du ematen Penitencia, ta bai gueienez atzeratu guizonen gaiztaqueriaz. Berriz norc esan dizu guero naiz nai zuri ota edo antojatzen zatzin egun edo orduan, nai det esan ta beste gabe zure anima giratu ta aldatuco dala beingoan becatutic ta gratiara? Conversio eguiazcoa ez da gure aleguin utsaquin eguiten; bear digu lagundu Jangoicoac bere misericordiaco ausilio santuaquin. Nola ateratzen ditugu contuac? Icharan dezala Jangoicoac ordu onean gu becatuz asperduac ecertaco nai ez gaituenean, datorrela Jangoicoa gure billa, ta nai ta ez becela eramán gaitzala beraganatu; orain nai gaitu beraganatu; deitzen gaitu; guc ez deguenzun nai bere dei amorezcoa. Ordea guc nai degunean, guc deitzen degunean artu gaitzala, obligatua balego becela guri obedecitzera, ta ez gu berari. O ichutasun galdugarria! Atoz ona. Oituta ez dagoan bati erloju bat eguiter:*

tera obligatu nai hacenu beingo baten, cer eranzungo lizuque? Icasi ez duela officio gaitz ori, ta escatzen diozula ecin dezaquean gauza bat. Bada nola beingoan ta noiz nai eguingo ditu viotzeo acto contricioac eguiteira oituta ezdagoanac? Nola ondo eguin oracioa oitu ezdanac? Eta nola, escatu gabe bear becela, irichi Jangoicoaren laguntasun sendo, ta portitzac aldatzeo becatutic graciara, edo animaco eriotzatic vicitzara? Becatuac gueitzea, confesio chaarrac eguitea, da merecimentu ederera biguntzeo Jangoicoa? Non icasi dezu onelaco doctrina? Baña demagun etzaituela largatzen Jangoicoac zurre vorondate gaiztoaren atzaparretan; guero ta guero ere deitzen zaituela gracia, edo auxilio pi correquin, baqueric arquitzen ez dezula eere becatuetan concieciaco icara ta quezca andiequin eman nai dizula Jauñac beraganaco videa becatuena utzita. Jarratuco diozu bere deiari? Elduco cera bere besoetara becatuen damu andi batequin! A; ta nola beldur izateco dan gogortuco cerala, ecasi maico ez dezula argui santua, ta desprecia-tuco dituzula Jangoicoaren dei amorezoac, ta illico cerala becatuan beti convertitzeco Proposito argalequin. Ez orain, ez orain, eranzungo diozu; bai guero. Eto guero au noiz elduco da? Gueroago gogortigo, ta azque-nic paquatuco zera concieciaco arrarequin, ta ignes eguine Jangoicoaren arguiri, e billico cera becatuaren illum-pean, ta joco deau Infortu. Leizan, nondic irtingo ecin dezu. Suregaitic atera berrin dan burnia, biguna dago mallucarequin dator edoecin molde artzera. Ordea oztu ezquero, gogortzen da, ta mallucariac ecin du besteric, ezpada becatu atperfic burua. Beccatian berriac diranaç beldur errazac ilira gurenean, edarri ditezque gauze onetara, artu oi dute chit sarti proposito sendo ta eguiazcoa. Ordea becatuetan zartu damac, urteetan gaztea izanagatic, oitura eguin danean becatua, alaco modaz gogortzen dira, ecen galtzen dute Jangoicoaren gauzeetaraco gogo gucia, ta ontzeo beren Propositoac dira guezur garbiac. Barata zaitzen duen Zacur andiac, ecusten badu urrutitic ezaguna ez duena, irentse nai du:

ordea echeco ezagun, edo campoco sarri ecusten dituztenai, ez die gaitzic eguiten, ezda zauca bat ere, bai jolas ta jostatzeac. Ala bada lenvicio becatuetan concien-  
ciac eguiten die zauca, ito nui ditu, ezdu paqueric ar-  
quitzen. Confesatu bear det bereala, dio animac bere ar-  
tean, chiquitecu du burua negarrez. Baña becatuequin  
ezagun eguiten dana, echecotu dana, maiz edo sarri con-  
fesatu dana ondu gabe, becatuequin dabill guero pestan,  
jolasetan; ta beldur gucia galduric ez du proposito  
eguiazcoric, ceren ondutzeo asmo ta gogo gucia galdu  
zaion. Espiritu Santuac lujuria edo araguiaren becatueta-  
ra oitu diranac gatic arguiro dio; Ez dute Jangoicoaga-  
na buirtzeo gogoric edo proposito eguiazcoric artuco,  
ceren beren erdian edo anima barrenean, sarturic dauca-  
ten lujuriaco espiritua. *Non dabunt cogitationes suas, ut  
revertantur ad Dominum, quia Spiritus fornicationis in  
medio eorum.*

Eta eguia esateco, nola Jangoicoaren mirari andi ga-  
be eci aragui atseguin gaiztoetara emanic dagoana? Ta-  
bacoa artutzer a oituric dagoanari, guciz gaitz eguiten  
zaio ez artzea. Berez tabacoa artzeo inclinacio, edo gri-  
ña ezdator guere naturalezatic. Ecusten dira chit asco ar-  
tu nai ezdutenac, ta gorroto ere ematen dienac; tabacoa  
artzen dutenac leavicio aldiatan, ez die atseguinic art-  
zen, ta erraz utzico luque; ordea, astara oitu danac,  
urte osoetan sudurrac antstu diruenac, nequez utzico du,  
ta egun baten palta bazaio, vlotz triste edo illunarequin  
ebillico da beti bere Tabaquera, ta tabacoa gogoan di-  
zuela. Norc esan lezaque ain quendu gaitza dala vicio  
arin au, ta cefietaraco, ez dute berez guizonac inclina-  
cioric? Baña ala da, Cere eguiten du au? Eguiñac, edo  
artara oituac. Orain bada, cembat eragozpen izango ez  
ditu guizonac quendutzeo araguiaren vicio erascor, ta  
naturaleza gaiztotic, datorrena artara emana bada? Nola  
erraz eci edo bezatu aragui becatuequin uzutua? Nola  
lotu begui oitu diranac ecustera amore gaiztoz adisqui-  
de becatucoac? Nola mingain noizetic noiceri, ta sarri  
gozatu diranac esatera, itz ta canta loi zatarrac, egongo  
dira

dira izcuue chatarric atera gabe? Nola beste atseguinic  
iduqui ezduenac baicic ebiltzea danzi gaiztoetan, artu  
gorroto olgantzac caltegarriai? Nola eduqui gueldi orat-  
ze ta tocamentu loietara ecandu edo oituric egon dican  
escuac? Pasio oiturazco gaizto bat garaitzea bada ain gauza  
gaitza, nola garaitu sentidu guciequin eguia ditueu oi-  
tura edo usuario chatarrac? Nola garaitu ambeste etsai  
gaizto? Oracio bero, negarrezco escaari Jangoicoari eguia-  
dacoaquin? Ordea ezta anima gaizquir a obendu edo oi-  
tuac atseguinic oracioa eguiteco. Gorputza eci ta manca-  
tuaz penitenciaquin? Baña gorputz atseguin gaiztoetara  
emanac, gorroto dio penitenciaric. Eracurriaz libru San-  
tu ta eguia beldur gabe esango dienac? Baña ezta gu-  
sto edo gozoric alaco libruetaraco, ta ecin bestez. Ala ar-  
quitzen da anima abere bat eguinda gauza on gucieta-  
raco atzeratua, bacarric arquitzen duela atseguina ara-  
guiaren gusto ciquiñetan, becatuen pisuaz obendu ta ma-  
macurtua, beguiac Cerura gogoz eracoritzen ez ditue-  
la. Nolacoac izango dira onelacoen propositoac? Nolacoac  
oen Confesioac?

G. Dirudi extagnala cer eraxun arrazo ai argui-  
tara; ordea ecusten dira becatuetara oituac ere, dem-  
pora apur baten cerbait onduac. Pazcoaz confesatu, mi-  
sio bat enzun, egercicio batzuec eguinda, egon oi dira  
vicitza on bat daramelaco estalquiaz.

E. Ongui diozu Balirudite cerbait onduac; ordea ez  
dira animan obeagoac. Ez dituzte urratzen becatuen sus-  
traiac, ez ebaqui arbola gaiztoa, ta bai adarren batzuec  
inansi. Egun guchiren ondean ecusico dira erro berriac,  
juncico da arbola bear bada adar andi ta sendoagoquin.  
Vide luce baten sartu danac, atseren bear du cerbait; ta  
atseren an ezda videu largatzta, ta bai inlarrac ta ar-  
nasa artzea aurrera ibiltzeo gogo sendoarequin. Ala ba-  
da ecusten badira becatari zaartu asco garizunaco, eger-  
cicio ondoco, edo misio osteco egunetan buruz beera be-  
cela, becatuco videan aurrera ez dijoazala, ez misitu,  
utzi diela guciz becatuco vidari; arnasa artzen dute at-  
serretzen claude ta jaiquico dira site edo laster jarraitzeo

gogo berri ta sendoaquin leengo vide gaiztoari. Ama bost egunean becuric eguin gabe, gogait becela eguin dutelaco becatuco videan, *lassati sumus in via iniquitatis*, ta guero urte gucia Jangoicoa ofenditzen. Jangoicoari zor dienac vicitza gucia, daramez egunac asteac, illac ta urteac becatuari egun baten ere guciz larga gabe, oficean sendo daduquelaco becatuaren iturburua. O negar eguizeco gauza! Eta cer guertatuco zaie? Indartuco dira pasio gaiztoac gogortuco da viotza, ta gueroago ta gaitzago Jangoicoagana biurtzeco proposito edo gogo eguiazcoa.

G. *Nai nituque enzun irudi eda comparacio onen gañecoac:*

E. Ona emen. Aurchoac, edo gende gazteac chit erraz, ta ederqui icasten dituzte itzquerac. Lau edo bost urteco mutilcho bat badator Gaztelatic Euscalerrira, laster icasico du esquera, ta ebaquico ditu itzac guc becela, ta aztuco zaio erdera baserri baten acizzen bada. Baña badator berroguci urteco bat, bearco du dempora lucea, ta icasten duena ere, ez ondo. Beti izango da ezaguna. Ecusi ditut nic erdaldun audi urte asco eguindare, ecer icasi ez dutenac. Mingaña eguiten da molda gaitza ta gogorra betico erderarequin. Landaracho gazteac oquer badatoz ere, zucen errazac dira, ordea arbola lurrean lodituac, ausi ditezquez, baña ez zucendu squerxean ondo aci ta sustraitu badira. Ibai chiquicho bat igarotzen erraza-da, berriz ez ufolac jauqui badira. Ala bada, nola uste dute icasi ta artu virtuteco videan, becatuetan zaartu diranac? Nola zucendu confesio proposito eguiazcora urte osoetan becatuan gogortu ta sustraitu diranac? Nola igaro erraz Penitenciaco Ibaia becatuen ufol andiequien aci bada?

Bai cristada bai; becatuaren iltze sartu berria atera diteque erraz, ez ordea becatuquin mallucetzen badezu, dio San Chrisostomo andiac. Pecatu eguin berri bat confesatzean lotsatzen dira asco. Baña nolacoa izango ez da lotsaren indarra Confesio gaizto asco eguin badira beldurrez estalduta? Norc atera iltze ain mallucatu? Leuviceoa becatua berá aguertzea asco zan; baña guero

guer-

aguertu bear da becatua bera, ta lotsazco confesio gaito guciac. Eta cernbat gaitzaco da au? Mildicio edo birao astunac asieran quantzea etzan gauza orren gaitza; baña itzquera inferaico onetara oitu diranac, ezdute beste doctrinaric beren esturasua guztietan, ta nola eztaquitela ere irtetzen die aotic. Garrotoa quantzei, ta etsaia-requin baquean jartzea, ez ta orren gauza gaitza lenengo asieran edo aserre ondoan. Baña gorrotoac sustraiandiac bota baditu, milla venganza nairequin naastu bada, norc atera iltze ain sartua? Gauzaren bat ostu danean, calteren bat eguin danean, edo irabaci chaarren bat, erraz da buirtzea; baña inoren gauza araguitu bada, ta echecotu, norc atera iltze gogortua. Nola min andi gabe atera? Amorio loi bat urratzea asita bereala, ez da gauza chit gaitza; baña amorio ura luzatu bada, norc atera? Nola bigundu alaco viotza amorio gaitzotic Jangoicoaren amorio ederrera? Ez milagro chit andi gabe.

G. *Baña guezur andia da deabruac cristau ascori siniseracitzen diena; au da guerora aldatuco zaicela viotza oneraco, proposito sendoac eguingo dituztela araguia macaldu ta indargabetu didinean?*

E. Bai bai, ta nola dan guezur andia. Ona cerdion Jeremias Profeta Santuaren aoz guezurric esan ecin dezaquean Jangoico ber berac. Gaitza eraatsiric daducana, noiz osatuco da! Noiz largaco dio gaizqui eguiteari? Etioppe beltzac narra, edo azala zuritzen edo aldatzen duenean; edo Leopardo edo arreac aldatzen dituanean bere colore edo manchac. Mauru beltz batec nola zuritu bere arpeguia milla urequin ere? Nola catu arrea churitu? Ez Jangoicoaren milagro andi gabe. Ona bada, cein gauza gaitza dan zuritzea becatu asco ta oiturazcoquin beltzitu dan anima. Bear da Jangoicoaren milagro andi bat, ta milagroac gucienac dira. Zori gaiztoacoac milagroetan salvacioa ipiñi nai dutenac. O ichutasun ecin esanecoa! Beste gauza gucietan ezagutzen da asieran erraza dana, gaitza dala gueroracoan. Gorputzeco gaitzetan esaten da, asieran bear dala erremedio, edo osacaria, berandu etorrico dala gaitzac indarrac artzen baditu. *Iru soca alcar-*

Guerr. Cap.  
13 023

*requin buirtuñe nequeñ urratzñ dirñ, dio Espiritu Santuac. Funiculus triplex difficile solvitur.* Combat neque-zago amar edo amabi orapillotuac? Combat gaitzago izan-go da bada becatuen orapillo lodi bat urratzea? O cein nequez datocen Jangoicoaren videra viotz berri batequin, becatuetan urteetan irauten dutenac! *Gazteac gueienez ez dio zartuta ere utzico bere videari.* Oec dira Espiritu Santuaren itsac. Vorondatea lengoa izango du aguirian aguertzen ezpada ere, gaztetan becelacoa. Ezpadiaz pes-ta ta danza gaizto edo peligrasøetara, emango die aur-rera pena gazteai joan ditecen, ta egongo dira parrez gazteen nasaitasunac ecusita. Ezpadabiltza escuca loietan, esango dituzte itz berde, zatar ta anima ascoren galgar-riac. Egongo da buru ille murrutu edo zurituarequin, ta porrua baña eceago ta berdeago viotza ta ezpañac. Ala enzuten zaie esaten, gazteac bérenac dituztela egunac; berac ere ala oi cirala ta ez diela jaramon bear Ser-monguinen deadarrai; jarraitu bear dirala ancinacoen ol-ganza edo diversioac. Certan dago zu? Gaztetan uste da zaartzaco egunetan artuco dala virtuteco videa, ta zaar-tuta dabilitza nasaitasunac alabatzen. Baña cer izango da? Azeri gaizto oec beti dute berequin usai chaar edo qui-ratsa, ta zaarrago gueiago.

*G. Ex nuen sinistuco orren gaitza zala Jaangoicaga-na biurtzea amildu ta jaiqui, ta vicio gaiztoetan sartu-ta daudenac.*

*E.* Ona bada sinigarri gueiago. Eldu zan bein Jesu-Christo gana chit estu ta larri. Guizon bat, ceñec eedu-can bere Semea gaizquindua, ta esaten dio; Jauna, era-man det nere Seme au zure discipuluac gana osatuco du-telaco ustearequin, ta beren conjuru guciequin ezdute ecer eguin; sendo daude espiritu gaizquiñac, ta ezdute irten nai izan. Atoz ona, esancion Jesu-Christoc, ta noiz-tic onacoa du gaitz ori? Noizcoac ditu berequin gaiz-quinac? Aurra zanetic onacoac, Jauna, eranzun cion guizonac. Certaco zan galdetze ura? Ezagueracitzeco, gaitz zaarrac ezdirala osatzen edo nola: bear dala Jesu-Christoren conjuroa; bear dala milagro andi bat. Galdet-zen

zen bazaie confesatzera datozen cristau ascori, noizcoa dan itz gaiztoac esateco oitura: noizcoa gogoracio za-tarretan gozatzeco co-tumbre edo ecandu galdia; noiz asi zan ciquinqueriaco becatuac eguiten? Eranzungo dute eguia esatera, umetatic asi cirala escola gaizto artan; zazpi-garren urtean sartu orduco asi cirala loiqueriaco beca-tuac eguiten, zaitzen, edo beintzat bai eguin nai izaten. Guero cerbait acita ere jarraitu ciela oitura gaizto aurt-zaco egunetan artuai, ta buruco illeac adifia becatu eguin dutela pensamentuz, itzez, ta accioz. O ceia gaitz zaar-ra! Nola osatu? Nola eguiazco proposito sendoa artu virtutea amatzeco ta gorrotatzeco becatua! Asco dira S-ermoiguilla, ta Confesoren consejuac, edo conjuroac? Arrizcoac dira beren viotzac, deabruac posesio lucea du, ta Jesu-Christoc mirari andi bat ez eguitera, viotza len-goa izango da, ta iraungo du vorondatea aldatu gabe eriotzaraño.

Baña ona Evangelico bigarren egemplo izugarriagoa. Guizon bat libratu zan Infernucoc gaizquin loñ edo ciqui-netic. Ecusi zanean Infernucoc etsai loñ ura bere echetic aterata, cebillen basamortuan atseren edo descansuric ar-quitu ecinda. Esan zuen alaco baten, biurtuco naiz ir-ten dedan echera. Buirtu zan, baña nola arquitu zuen graciaz apaindua, etzuan sarrefaric izan. Cer asmatu-zuen? Joan zan lagun billa, ecarri cituen berequin bera baño gaiztoagoac ciran beste zazpi Espiritu infernucoc. Eguin cien guciac guizon ari batac batetic besteac bestetic; ga-raitu zuten, eraguin cien becatu, ta galdu eraci gra-cia; sartu ciran zortzirac guizon triste aren aniraañ, ta guelditu zan lenengoan baño gaizquiago; len infernucoc hatequin; ta bigarren becatu aldian zortzirequin. Orain bada, nola atera zortzi espiritu gaiztoac? Non da gure fedea? Oec ote dira ipui engañatzeco asmatuac, edo Christoren esanac? Nola gueldituco da bada anima beca-taria urte osoetaco confesio ta becatuen nasteaquin, bi-garren becatu edo erori aldian ambeste Infernucorequin arquitu bazan aitatu degun guizona? Nola sendotuco ez dira? Nola gogortu ez, irauteco beren echean ambeste dem-

demporaco posesioa iduqui ezquero? Ah ta nola dan guetzar andia gueroago ta errazago dala artzea proposito eguiazcoa, edo Jangoicoagana biurtzea. Becatuac becatuai gueituta eguiten da catea lodiago ta sendoagoa, ta anbeste neque ematen diena becatu bat edo besteren cate mea urratzeac, nolacoa emango ez die cate lodi lodi urratzea? Gueroago ta vorondatea gogorrigo, gueroago ta Jangoicoa aserreago, gueroago ta deabrua indartsuago. Nola bada buirtu eguiaz uste dan becein erraz? Baña ez naiz aspertuco eguzquia becein arguia ipiñi artean eguia au, San Geronimoc contatzen digun guerta era onequin. Cegoan bein Arsenio ceritzon Anacoreta edo Ecumutar suntu ascorea Maisua zana mendi guelan, ta esancion Aingueruac, irten ezazu, Arsenio, ortic campora, ta nic eracutsico dizut guizonequin guertatzen dana. Irten zuen, ta bai ecusi ere guizon bat basoan egurra eguiten. Eguin zuen carga galanta, ta asi zan leperra jaso nairic; ordea nola egur carga bere indarrac bafin andiagoa zan, ecin jaso zuen. Ezarri ciozcan egur berriac len jaso ecin zuen cargari, leiatzen edo dendatzen zan berriz carga leperra jasotzen; ordea alperric. Cegoan Arsenio arrituta esaten zuea, guizonaren eroa, jaso ecin egur carga, ta ezarri egur berriac? Gueitu, asi ta astundu gueiago, ta tematu jasotzen carga? Etzequin Arsenioc cer esan nai zuen ecumenare, ta esancion Aingueruac. Orra guizonen eraqueria. Da itza Infernuraco egur cargac eguiten becatuequin, batzuec lurjuria o basoan, beste batzuec inoren ondasunecoan, asco honra chaarra deritzonecoan, ta chit asco beste baso becatu coetan. Necat'en dira jaso ecinic carga gaizto ura. Cer eguiten dute? Aci carga, astundu, becatu berriac leengoai ezarrita. Abiatzen dira becatu bati bestea gueitzen, amarri oguei, ogueiri berroguai. Arnasa apur bat artzen dute becatuen becatuz gozait eguin, adicatu edo cansatuta. Berriz abiatzen dira becatuen carga gueit'en. O nolaco carga! Cein astuna! Indarrac guichit'en dira, ta gueitu carga? Nola erraz jaso? Len becatu guchirequin artzen ezpazuen confesatzeco proposito

sendoric, nola becatu ascorequin errazago artuco du? Icaratu zan cristau ta pensamentu gaizto zatar lecu emanbat a uertzen; celillen nola esan etzequiela, bear bada billatzen apainduric edertzeco ta utsera joeracitzeco. Nolaco icarac artuco ez du pensamentu bati gueitu adiozca deseo edo naicunde loi, ta itz, lotsagarriac? Nolaco colore gorriac irten go ez die bere bacarrean eguin baditu escuca ciquiñac ta araguiari atse uin gaitoa ematecoac? Nola erraz confesatu amorio gai toan sartu bada, ta eguin bere bacarrean ere lotsatzeco asco diran accio torpeac? Nola confesatu bein ichutu dan animac eguiten edo consentitzen dituen zatarqueria ichusiac? Larrituco da, baña bere quezea guciequin ere gordeco ditu becatuac, aguertuco ez ditu bear becela, ta joango da Infernura confesatzera estalqui ta provecho gabe. Ala bada guertatuco zaie beste vicioetan ere. Bai dio San Bueaventurac, lenengoan osatzen erraza zan gaitza, osatu nai etzuelaco, cangrenatzen da azquenean. Nola osatu milagro andi, edo aragui zati andiac ebaqui gabe? Aragua lizundu, ta atsitu bada, nola gatzarequin gorde? Jaquin ta sinistu bada, mugonez edo lenengoan bear dala artu Propositoa, gueroraco larga gabe.

## ERACASTE VIII.

*Nola eguiazco Propositoa ez dagoan becatuen ocasio urreco, eta vorondatezcoan arquitzen diran cristauetan.*

**G.** Eren gañeau izango da gaurco icasvide edo doctrina adirazo bear deguna?

**E.** Gauza premia chit andico baten gañean, eta da aguertzea ez dagoala eguiazco ondu nai edo propositoric larga nai ezpadira becatuen ocasio jaquin, urreco ta vor-

rondatezcoac; ta emendic ateraco da cergatic eguiten diran confesio gaizto asco, ta irauten duten aia guchie artu duten on izateco gogoan.

G. *Cein da eguiaxco Propositoaren leta edo condicio bear bearra?*

E. Iduquitzea vorondate sendo bat quendutzeco oitura gaiztoac, ta largatzeco becatuen ocasio ezagun ta urrecoac.

G. *Cer aditzen dezū becatuen ocasio ezagunaren icenez?*

E. Aditzen det becatu eramaten duen gauzaren bat, dala bere naturalezaren indarrez, dala jarraitzen diou circunstanciaren bate-gatic.

G. *Ez det ondo aditzen erantzute au, ceaxo edo arguiroago esaten expadit.*

E. Adizazu bada. Ocasio batzuec izatea ezagunac urrecoac, ta vorondatezcoac berenez, dator daduquelaco peligrū jaquiña, ceñean jarri ezquero ezagutu bear dan gueienez galduco dala, berez duen virtute galgarriagatic. Onela libru desonesto, ta contu loietacoac eracurtea premia gabe, ta gazteac, da vide ezaguna ta urrecoa, cerren chit asco galdu diran alaco eracurtearequin. Onela beste gauza ta ebillune asco guero astiroago aitatuco ditugunac. Beste ocasio batzuec dira berenez ez dutenac gaitzeraco lagunjarri ezagunic; ordea circunstanciarren bategatic galgarriac diranac. Cale batera joatea, eshe auzocora joatea, berez gauza gaiztoa ez da; ordea cale ta eche artan badaude tentatzalle gaiztoac, edo lengo adisquide becatuzcoac, izango litzaque acasio benetacoa alaco lecuetera joatea. Oro bat itz eguitea personaren batequin, berez becatu ez da; baina itz eguitera dijoanac badaqui emango diola becatuaco vide, orduan itz eguitea da becatuaco ocasio, ta bere vorondatez badia itz eguitera izango da ocasio billatzea. Ocasioa da ezagun ezaguna. urrecoa, edo jaquiña, ceñean, jarri ezquero jartzen dan bat becatuan erorteco arriscuan guizon aitu edo jaquitunen iritzian, edo nore berac leznago igaro zainetic ezagutu bear duenean. Badira ere munduan ocasio chit asco urruticoac, edo becatuaco ez

dutenac virtute jaquin ta urrecoric noiz edo berriz cristauac becatuatu badituzte ere. Mundua peligroz beteric dago, ta lurrean gauden artean, ez guera gordeco onelaco peligrū gucietatic. Religio estu baten sartuta ere ez dago anima guerra gabe. Ala bada bacarric gaude obligatuac aldeguitera peligrū banaan jaquin, ezagun edo urrecoetic.

Ocasio ezagun edo urrecoa izan liteque, edo vorondatezcoac, edo nora ececoa ta vorondategabea. Ocasio vorondatezcoac da, ceñetic aldeeguitea dagoan bacoitzaren escuan, ta onelacoac dira gueien gueienac. Noraececo edo vorondatezcoac ocasioa da, ceñetic aldeeguitea eztagoan bacoitzaren escuan, ta onelocoac dira chit guchi edo ez ascoc uste oi duten beste, guero aguertuco degun becela. Deabruac asmaeracitzent dizte ascori cerasanac, escandaluac, desonrac, ta ala dauzca beti ocasioco grillo edo eatea gogorretatic irten gabe. Artu bear dira artu alditzquen vide ta neurri on guciac irteteco ocasio gaizto ta ezagunetic. Eguin dezagun contu gurasoquin vici dan seme bat vici izan dala amorio loian eheco servitzari nescame batequin. Usteco da, ezdala vorondatezcoac ocasio alacoa, ezdagoala seme arenescuan nescacha echetic ateratzea. Au siniseracitzen badio Confesoreari milla itz emanda gueiago erorico ez dala, ateraco dio absulucioa. Ordea etzaie sinistu bear beren escuan ez dutela alaco Personac ocasioa quentzea. Esan ta erregutu bear dio seme arc eheco nescachari irten dezala aitraquia edo estalquiren batequin; ta nai ezpadu, esan isilchoric Aitari edo Amari, ezarian edo modu onbatequin atera dece-la echetic nescach ura arquizendalaco bere anima gaitzeco arriscu edo peligrūan gueiago adierazo gabe, onenbesterequin eguin albadili ocasioa quentzea. Cer honra galduco du Seme batec Gurasoari aguertzeaz bere animaco peligroa nescach ura echean dagoan artean? Ceinda Guraso estimatuco ez duena alaco abisua, ta eguingo ezduena alduena moduric onenean ta ospe andi gabe echetic ateratzeco nescamea? Oni berriz calteric eguiten ez die echetic ateratzeez ta bai mesede andibat. Ala benetan nai

balitz a ocasio guchi dira vorondatezcoac ez diranac.

Ocasio batzuec dira, dio San Carlos Borromeoc, ofiean edo izatean daudenac, ta beste batzuec ala ezdaudenac. Ocasio ofiean daudenac dira, batec iduquitzea bere echean, edo auzo baten echean becela, amore laguna; bai eta nescame servitzaria arkitzen danean becatuco ocasioan bere echeco Jaun edo Uazabarequin. Onelaco ocasioac dira gucien artean gaiztoenac. Beste ocasio ofiean edo izatean ez daudenac dira, dio Santu aitatu degunac, carta jooa, daquianarentzat ezarri dituela sarri blasfemia, edo birao astunac, edo gueiegui jocatuta ondatzen duela bere vici modu ona; edo besteena. Da Ardantegui edo Taberna, daquianarentzat leenago igaro zaionetic, au sartu ezquero jartzen dala moscortzeco ocasioan, edo gastatzeco echeco caltean. Da onelaco ta alaco Convite edo olgantzara joan ezquero jartzen dala itz gaiztoac esan edo atseguitzez enzuteco peligro andian, ta bai beste edocein becatu mortal consentitzeco ocasioan, biltzen diralaco gente modu gaiztoac, edo leenago joandan gucienetan, ala guertatu zalaco.

G. *Baña becuric eguin ta consentitu gabe egonlitque ocasio urreco ta andia?*

E. Bai bai. Demagun nescach bat arkitzen dala servitzen echeren baten; ta echeco Jaunac, edo bere Semeac, edo morroe bertacoac ematendiola becuraco vide itz gaizto, accio edo escuca zatar, edo tentacio loiequin; ez bein edo beste, baicic sarri. Nescach onec ecer consentitu ezpadu ere, arkitzen da consentitzeco peligro chitandian, eta ezdago guizon aitu edo prudente esango ez duenic alaco nescacharentzat dala ocasio urrecoa echeco persecucio edo tentacio ain esua. Onelaco nescameac ecusi duenean bere arpegui astun ta aguiracaquin largatzen ez diola tentatzaileac lan gaiztoari, irten bear du eche artati, ta igues beste lecu on batera, ta ipisi Jangoicoagan confianza osoa, ta ez dio paltaco, oguia animaren amorez vide au artu delaco.

G. *Baña obra osoco becatuan erori ezdanac consenti-*

ua-

*tuagatic pensamentu, itz ta accio gaiztoac echeco ocasioetan, cergatic irten bear du?*

E. Au da ascoren utseguite ta engañu caltegarria: beguitantzen zale erorten ezpadira corputzez becatuan, ez dagoala cer irtenic. Eta cer? Ezdira becatu mortalac pensamentu, itz, accio torpe consentitu edo vorondatezcoac? Bai. Bada becatu mortalaco ocasio jaquin edo urrecoan dagoanac vorondatez, ecin eraman lezaque absolucioric, ta larga nai ezdutenac daude becatu mortal becticoan edo jarraituan.

Eta nescame bat bein bacarric erori balitza echeco Jaun edo Semearequin obra osoco edo corputzeco becatuan, arkitzen ote da ocasio urrecoan? Irten bear ote du ehetic? Gauza gogorra dirudi.

Gogorra animaco salvacioa baño guchiago ez dijoana? Echean sartuta laster zurra andi bat eman balio echeco Jaunac ez luque iguesa artuco eceri beguiratu gabe? Ez luque esango bere artean, onela bein escuac ezarri ditzanac, cer eguingo ez dit guero? Ala bada becatu obracoan bein erori dan nescacha galdua da eche artan: bigarren becatua errazago eguiten da ta ala irten bear du laster campora, becatua San Pedroc becela negar eguitera. Pecatuco echeco negarrac laster leortuco ditu tentatzaileac. Onec esango diozca milla gauza zoragarri, ta nola daquian len ecarri zuela gaitzeguitera, usteco du erraz ecarrico duela berriz ta berriz ere eguitera; ala sartuco liraque biac amorio ichuam ez ecusteco honra galtzea, anima galtzea, corputza galtzea, ta cer esan edo escandalu etorri oi diranac. Ala bada irten nai ezpadu bereala becatuco eche artatic, dago vorondatezco ocasio jaquinean, ta ecin absolvi lezague Confesoreac biac galdu nai ezpadute.

G. *Nola bada arkitzen dira cristau ocasio gaiztoan sartuta daudenac confesatzen ta comulgatzen?*

E. Au dator edo Confesorearen utseguitez edo confesatzen danaren gaiztotasun edo maliciaz. Confesorea badabil presaca, ta ondo aztertu gabe becatuaren sustaiac, ta iturburuac, ez da ezagutuco gaitza azaletic baicic, ce-

M z

ce-



ceren Penitente alaco guenietan, ezda arquitzen cinzo-  
tasun, ta ondo explicatu nairic. Cer eguitendute ocasio  
gaiztoan sarturic dauden ascoc? Acusatzen dira, nola eguin  
dituzten eseuca torpeac edo aragui<sup>leco</sup> becatu osoac; or-  
dea estaltzen dute noizcoa dan oitura gaizto ura, nola  
len ere Confesoreac cargatu cien escua, nola echean, au-  
zoan, edo lecu jaquinen baten daucaten ocasio jarraitua.  
Confesoreac galdetzen ezpadio noiz artu zuen adisquide-  
tasun chatarra, noiz asi zan accio ciquifac eguiten edo  
consentitzen; echean, edo auzoan daducan ocasioa, eman-  
go dio absolucioa; gueldituco dira oñean oitura gaiztoac,  
oñean eheco ocasioa, ta osatu bearrean anima gueldituco  
da len baño gaitz andiagorequin, bada gueituco dira sa-  
crilegioac Confesio ta Comunion gaiztoac eguinda.

G. *Baña jaquin nai nuzue, nortzuec dauden, edo vi-  
ci diran ocasio gaiztoetan; cerren guchienac dira beren  
echeetan ocasio chatarra dutenac?*

E. Ecin izan liteque doctrina bearragoric ta alabeardu  
du explicacio argui ta bana banacobat.

Lenvico Zucenvidea. Jangoicoac eragozten duenean  
becatu gauzaren bat, eragozten ere du jaartzea voron-  
datezco peligro jaquin, edo ocasio urrecoan. Emendic da-  
tor peligroa nai duenac, nai ere duela <sup>ausi</sup> Jangoicoaren  
aguindua. Gueiago. Vorondatez jartzendanac becatu mor-  
talen baten erorteco peligro andi, ezagun edo urrecoan,  
guero eguin ezagatic becatua bera, ceifia eguiteco peli-  
groan jarri zan, eguiten du becatu mortala, ausi duela-  
co Jangoicoaren aguintza, ez peligro vorondatezco ta eza-  
gunean jartzeco. Ala bada ezagueraz, ta vorondatez jar-  
ri danac mesaez enzuteco peligroan jaegunen baten,  
guero meza enzun bazuen ere, eguin zuen becatu morta-  
la. Contu dezagun jartzen dala bat jaegunean beste er-  
ri batera joateco videan, beldur andiarequin arquituco ote  
duan meza. Bere errian meza enzun cezaqueala irten ba-  
ño leenago, beldur andi esan degunarequin, badijoa bes-  
te errira, guero meza enzunagatic mugonez eldu zalaco,  
eguiten du becatu mortala bacarric jarri zalaco meza ez  
enzuteco peligro ezagut<sup>etan</sup>; berriz ez, anchituco zua-  
le-

leco uste osoarequin erritic irten bazuen, uste gabe me-  
za leenago esan zalaco eldu zan errian. Orra nola peli-  
gro ezagutua bera da becatu mortala. Oro bat ocasio  
gaiztoa iduqui duenac echeren baten, jaquin bearric jart-  
zen dala becatu eguiteco peligroan ara badijoa, joanaz  
beste gabe eguin du becatu, guero becatu loiric eguin  
ezpadu ere. Orobat jocolari, te moscortzeco oitura du-  
te nac, batzuec gastu caltegarriac jocoan eguiten, dituz-  
telaco, ta besteac Ardantegui, edo Tabernan ardaoan iga-  
rotzen diralaco. Utzi bear die jocateari, utzi Tabernan  
sartzeari, ta joateaz bacarric eguiten dute becatu. *Peli-  
groa maitatzen duena, bertan galduco da*, dio Espiri-  
tu Santuac; au da peligroan bertan dauca anima galt-  
zea; eta beste lecubaten dio, *aldeguiten duena laqui-  
rio*, edo lazo etatic *seguru ibillico da. Qui cavet la-  
queos, securus erit*: Beraz aldeguiten ez duena, erori-  
co da. Ala bada ocasio gaiztoan vorondatez sartzea be-  
ra da becatu: ta sartuta eguiten bada Jangoicoac debe-  
caturico gauza, beste becatua, dio Aita Calataiud Jesui-  
ta misionista veneragarriac: *Ocasioa bertentat ez*

Bigarren zucenvidea. Gauza bat izan liteque bat-  
zuentzat ez; nola vigiliaco jaateac gaitz eguiten dien hat-  
zuei, besteai ez. Batzuec dira erorierrazac beren oitura  
lengo charrac gatic, ta beste batzuec ez.

Irugarren zucenvidea, ta len aitatu deguna. Ocasio  
urreco ta vorondatecoa izateco, ezda bere echean idu-  
qui bear becatuco vide edo laguna, ez becatu oso edo  
corputzarequicoac eguin; oro bat dago ocasioa campo-  
co lagun, eche, ta ebilleretan, pensamentuz itzez, edo  
accio charrarequin becatu eguiteco peligro andia dagoa-  
nean. Au onela izanic daude becatuco ocasio urrecoan,  
ez bacarric mirabe bere eheco Jaun onen seme, edo eche-  
co morroeren batequin becatu araguzcoetan erori dira-  
nac, haita ere ambesteraño eldu gabe ebilli diranac sar-  
ri escuca, apaca, ta beste accio ciquifetan. Au ezagut-  
zen erraza da. Oro bat campocoren, batec eche artan eche-  
co adisquide edo ezagunac becela sarrera badauca. No-  
ra joango naiz? esaten dute. Nora al. Jangoicoac lagun  
du.

duco dio bere providencia ederrarequin becatuco peligro ezagunetic aldeguiten duenari. Atoz ona ; norco cifaque, sarri ehecoren batec banatu edo mancatuco bacinuque? Gorputzeco calteac beldurtzen zaituzte ta animacoac ez? Christau ederra. Irteñarten Babiloniaco eche orretatic ; bestela zure confesioa gaiztoa da.

Ezagutzen dezu onelaco edo alaco echera joan ceran ascotan ebilli edo consentituco dituzula accio gaiztoac, edo esan itz zatarrac? Ez onic ipini eche artan , ebaqui comunicacio gucia estalquiren batequin. Aserre munduco bat izaten duenean, agur echeac, itz eguiteac : ez agur gozoric, bai becoqui iluna videan topatuta ere. Au ez-tu Christoc eracusten ; bai ordea gorroto santubat artzea ta igues eguitea beccatuco ocasioa dagoan lecuetic ; ez agur gozoric eguitea len amore gaiztoa izan zaionari, ta aguertzea becoqui illun ta astuna. Gurasoai berai ere artu bear zate gorroto santu bat, dio Jesu-Christoc, Jangoicoa ofenditzeco videa ematen dutenean. Cenbat gueiago bada gorrotatu bear ezditugu bestelaco cristau becatuco ocasioac izan diranac, infernuco etsaiac baño caltegarriagoac ! ceren infernucoac beldurtzen dira conjuero ta gurutze bat eguinaz ; ez ordea tentatzañe lurrecoac : oec batzuetan milla palagu ta esquintzarequin erraztzen dute becatu eguitea ; beste batzuetan oratze ta escuea loiaquin Idisco gorituac becela persecucio gogoragoa ematendute Infernuco guciac baño. Beraz igues eguiten ezpada, guelditzen da anima ocasio urreco ta vorondatecoan. Beraz ecin cristaua joanditeque becatu eguin gabe becatuco labanarriac dauden eche, lecu, ta diversioetara.

Ezagutzen duenac urlia lagunaren itzquetas, ta conseju chaarrequin len galdu dala, nai badu confesatu artu bear du asmo sendoa aldeguitico, ez tratatzeco alaco personarequin ceren gaizto batec erraz gaitztotzen du ondu nai duena, ta ecusten badu vicitza berri ta on baten, milla parre ta burlarequin atzeratucodu vide garvitic. San Pablo Apostoloac encargatzen du cristau lujuriosoquin ez jaartzeco mai baten ; au da beintzat, ez iduquitzea adisquidetasun ta traturic.

Cer

G. Cer esan fauna euscal errietan ecusten diran gente gazteen bilcui edo batzacuntza gatic bearren batera dijoacenean? Ote dira becaturo ocasioac?

E. Negar eguitico gauza. Erri chit asco oitura, edo usario chaar au dagoana. Artoac zuritu bear badira biltzen dira auzoetaco gente gazte nescach ta mutillac. Bearrean daudenean, esaten dituzte batzuec itz zatar ta gentil baten ere gaizqui irudituco luqueenac ; beste batzuec laguntzen die itzquera loiari cerbaiaurreratuaz ; nescach eroac eguiten dituzte algara gozoac ; guizon ta andra eragotzi bear luqueenac ez dute damuric artzen, ta uste dute gazteetan gucia ondo dirudiala. Ala ascotan guci guciac, zar ta gazteac betetzen dira becatuz. Ezda alaco baten palta norc itzeli edo amatatu cruseluco arguia, ta guero illunean andira apaca ta accio deshonesto nai diran bestecoac. Andic laster asmatzen da dantzatea; an fandango movimentu gaiztoetacoac, an bestelaco danza ecin oquerraçoac, beguiac, mingañac, ta escuac onquin batera dabilzala nasaitasun guciaquin. Ordu osoac pecatu asco eguiten igaro dituztenean, dijoaz echeetera illunean nescach ta mutil, ta aitatuere bear ezdira alcarren artean eguiten dituzten gaiztaqueriac, ta dijoaz oera becatuz ase ase eguinda. Gauetaco diversio oei ematen die biguiracen icena. Oec ecustendira cristau errietan, cristautzat daudenen artean ; gurasoac lrrgatzten die seme alaba joaten alaco biguira echeetera, ala artoac zuritzeco, nola linoac apainzeco estalquiiaz, ta beren echeetara ere artzen dituzte beste aldietan. O egemplo ederra! Oec dira becatuco ocasio ur urrecoac, ta becatu andi taascoren iturburuac. Zorigaiztoco Guraso seme alabai largatzen dienac alaco biguira echeetara joaten, ta beren echeeta dauzqueenac onelaco bulla ta batzacuntzac. Cer uste dute guertatuco dala azquenean? Jangoicoa alabatu bearrean, gari, arto, ta linoac eman diztelaco, artzen dute videa oetatic bera ofenditzeco becatu ichusiequin. Ocasio oei larga nai ez dienac, ecin absolvi litzaquez Aita Santu Erromacoac ere. Aguertzen ezpadute confesioan no. la joan diran, ta cer eguin duten, gaizqui confesatzen di-

dira ; aguertzen badituzte ta larga nai ez alaco lecu ta lagun artera joateari, confesatzen dira proposito gabe ta gaizqui. Animaric onena iru edo lau cilicio araguiari diruela badijoa, galduco da bereala alaco nasaitasunetan. Cembat gueiago bestelacoac?

Ah Jauna! esáten dute; nola bidalduco ez ditugu seme alaba, morroe edo mirabeac áuzoco echeetara laguntzeco artoac zuritzen, edo linoac apaintzen. Cer esango dute? Aserratuco dira. Aserratu ditecela nai badute, esan dezela nai duten gucia. Obe da guizonac aserratzea Jangoicoa aserratzea baño. O munduco esamesac! Eta cembat anima galdutzen dituzun! Bacoitzac bere echean zuritu dezaquez artoac, baitaere apaindu linoac onelaco bullac dauden errietan. Ebaquitzen ezpadituzte becatu videac, ecin lezaquete confesio onic, ta vici dira betico becatu mortalean.

*G. Eta cer esan bear da bermita ta erri albococoe-taco pestetara dijoazanac gatic? Arquitzen ote da ebillera oetan becatuco ocasio ezaguneta andiric?*

*E.* Galdetze oni eranzutea erraza da ascori miu emango badieere. Certaco da eguia estaltzea? Sinistu nai ez dutenac, ezdute esesioa baicic ateratzen. Atoz ona. Cer gauza on ecusten da vide orietan? Mutillac ta nescachac nola oi dabilta? Cer itz eguiten dute? Cembat escuca zatar, ta musuca? Cembat canta edo itz desonesto? Guel-ditzen badira edaten, edan lecuetan nescachac ta mutillac, nolaco modestia aguertzen dute? Cembat conversacio lotsagarri! Cembat algara gozo oec enzunda? Pestaco danceetan gauza chatarric eguingo ezpalute ere, bai asco ta asco videetaco egoera ta joan-etorrietan. Santa Teresac adiaña virtute balute ere, galduco liraque dempora guchiren buruan alaco pesteetan dabilta nescachac. Aztertu concienciac, pezta zaleac. Cer guertatu zatu alaco ebilleretan? Arquitu dezute exemplo onic? Iriciqui zerate devocio santuan? Galdudezute bai modestia gucia. Saltoca, brincoca ajuí edo deadarca escuac alcar emanda, orain itz berdeac esan ta enzuten, guero escuca ciquinac eguiten, gava eguinda ere lecu bacarretan... O cristau-

tautasuna! Oec ezpadira becatuco ocasioac ta becatu garbiac, non dago munduan ocasioa? Itz eguizute. Ala da? Bai Jauna, esango dute; ordea ez degu intencio gaiztoric, ala da usu, ala izan dira lengoac ere. Cer? Intencio chaarric ezdagoala becatu mortal andietan ebillita? Esan dezaque cristau icena duenac, ezdirala becatuac musuca ta escuca desonestoac, eta itz edo conversacio lujuria zabaltzen dutenac? Cer erangungo dute Jangoicoaren Juicio zucenean? Nola pensatuco dute eriotzaco esturasunean? Ala bada ecin dezaquete confesio onic aldeguin naiz ezdutenac onelaco ebillera nasai ta becatuzcoetatic. Ez daramate proposito eguiaczoric ta vici dira condenacioco videan. Ala da usu. Ez guera juzgatuac izango munduco legue ta usu chatarretatic, ta bai Jangoicoaren Legueti, dio Santu andi bat. Asco dabilta. Ambat gaiztoago. Ascoren becatuac guciago acerratzen dute Jangoicoa guchirenac baño, ta ez dira Infernuan guchiago erreco, dio San Agustinec, ascorequin erreco diralaco.

*G. Eta utzi nai ez dituztenac danza modu gaiztoacoac? Vici dira ocasio urrecoan?*

*E.* Edeceñec esango du danzaco olgantzaca edo vider-sioetan eguiten badira mobimentu loiac, esan amore itzac, ta ebilli escuca tentagarri indeceteetan, dagoala ocasio urreco ta gaiztoa. Ez det nic nai alacoric eguin decen, esán oi dute emacume ascoac; divertitu edo olgatu bai. Baña badaquite eguingo diozqueela, ala eguin oi dutelaco danza modu ascotan, certaco jarri anima galtzeco peligroan? Cer? Olgatu, edo divertitu itz desonesto, ta escuca ciquinac ecusten diran diversioetan? Oec die gorroto becatuari? Ematen die damu andia Jangoicoaren ofensac? Ez ote dira peligro andian jartzen consentitzeco accio gaiztoren baten? Orrea sendoac dira? Orren virtutetsuac becatu ascoren artean diversioa arquitzen dutenac? Norc ichutzen ditu onela pensatzeco? Badira berriz danza onelacoac pandangoetan, ta guchi batzuen artean mutil ta nescachac eguiten dituztenetan. Pandangoetan onequin magalac erabiltzea arinca aurrera etor-

ri ta eguitea demostracio becatucoac ta movimentu intencio gaiztocoac ecusten daudenai ere ematen diela ocasioa pensamentu loietaraco, ta musucac baño ere malicia gueia; o eracusten dutenac. Ezdago accio oec norc libra ditzaquean becatutic, ala ematen dielaco becatu videada danza lagunari, nola ecusten daudenai. Eguiten ere dira danza modu gaiztocoac inoren beldur gabe nescach ta mutillac bazterretan bilduric, edo eche barruetan eguiten dituztenean. Mingaña ta escuac ebilten dira ascatuac edocen gauzataraco. Onelaco danzeetatic guciz aldeguin nai ez dutenac vici dira becatuco ocasio ezagun ta andian, ta ecin eguin dezaquete confesio onic.

G. *Cer esan baña Plaza aguirietan Tamboril soñuequin Justiciac daquiala usatzen diran dancean gañean? Ote dira ocasio urrecoac?*

E. Oni eranzuteco asco esan bear litzaque, ta bada eguindo det berariazco doctrina euscal errico danza oen gañean. Orain bacarric esango det, danza oec ascorentzat dirala becatuaco ocasio andiac. Sarri ta aficioz onelaco danzeetan dabiltzanac daudeia ocasio andian, ta animaric onena ere galduco dala ta guciz nasaitu urte bete baño leenago. Beñ edo berriz guchi guchitan aficio gabe, lotsaz, edo obedienciaz conta andiarequin ebiltzeco gogoz danzatzan dutenac, becatu loiarri gorroto diela, liora litzaque becatutic, ta onelacoentzat ez da izango ocasio urrecoa. Bein edo berriz aficio amorezco gabe nescach batec itzequitea mutil batequin bacarric ere ta arrazoi onarequin, ezda becatuaco ocasioa; ordeaficioz, inclinacioz, gogoz sarri alcarrequin egon ta itzequitea nescacha mutillac, da amore gaiztoa artzecco, ta gauza charretara igarotzeco ocasio andia, ta utzi nai expadute tratu alacoa, ecin ondo confesatuco dira; cerren alaco ocasio etan galtzen dira gueienac, ta len onac ciranac ere. Ala bada oro bat, guchi guchitan, munduco beldurrez, ta asmo char gabe danza aguiari edo plazacora joatea, gorroto dionac becatu loiarri, ta gogo sendoarequin ez lecuric emateco gauza gaiztori, ezda izango beintzat becatu mortaleco ocasio ezagun ta

recoa. Guclaz ere Jangoicoari emango dio atseguin chit andia inola ere ez badijoa danza nastuetara, edo guizaseme, ta emacumeac batera eguiten dituztenetara, ezda ecusteraere; ta ezdute Seme-alabac obligatoric obedecitzeco Gurasoari aguintzen badie pestara joan, edo ala danzatzeco. Persona edo cristau onac ecusten badituzte danza lecuetan, nola siniseraci nasai, ta Jangoicoaren beldurgabeai ezdutela alaco danzeetara joan bear? Gauza bat da ez izatea becatu mortala bacan edo guchi guchitan, ta contuz ibiltzeco asmoz, ta aficiogabe danzatzea, beste bat ascoz obe izatea ez inoizere joatea. Baña bein edo berriz, ta bein bacarric ere joatea danza anguiro gaiztoetara da becatu mortala. Berriz Jangoicoaren videan aurera penac eguin nai dituztenac, utzi bear die guciz munduco bulla guclai.

Gauza gogorra, Jauna, esan oi dute eristau asco, urte guclian egotea pesta, ta danzeetara joangabe. Cer esango dute nigatic? Chaldan, gatzgabea, edo lelo bat naizala. Erotu zatala. Besteac ere salvatu uste dutela. . . Gauza gogorra dala animagatic orrembat eguitea? Atoz ona, esan oi diet, Gurasoac esquinico balizu amar bat erreal pesta edo danzara etzoacin egun bacoitzean, egongo cinaque echean joan gabe? Bai Jauna esan oi dute. Au zoco lagunbater erregutuco balizu berequin joateco, joango cinaque? Cein guchi? Amar errealecoac garaituco luque pasio guclia. Jangoicoaren amorez, ta animaco salvacioa gatic eguingo ez ote da erreal batzuec gatic eguingo litzaqueana? Cembat andiagoc dira Jangoicoac esquintzen dituen sariac bere amorez urrutico ocasio urrecoac laster eguiten dirametatic aldeguiten dutenai? Norc iduqui lezaque gogoa, ta norc gorroto artuez ebillera, ta olgantz nasai ai, ceintzuetan ambeste anima galtzen diran, ta eguin Jangoicoaren ofensa asco? Parre eguingo didate ez panoa. Eta lotsatuco cera Jesu-Christoren dicipulu izatea? Beraere lotsatuco da onelaco lotsoor ta beldurtiac bere dicipulutzat ezagutzeaz. Larga bada larga munduco legueai, ascoren eguite eroaiz, ta vici beñ iratzartuta tentacioco lecuetara joan gabe. Berriz leenago

animaco caiteac atera dituztenac, besteac baño arrazoi gueiagorequin.

Ezdet nic inoiz gauza chaarric eguin Plazaco danceetan; au da betico leloa edo soñua. Izan liteque zuc bear becela ez ezagutzea, ez sentitzea usai gaiztoa, nola Gai-sotegui edo Hospitaletan gaisoen artean sarri dabilzianac sentitzen eztuten usai chaarric, ta bai banaca batzuetan bancic ez diazanac. Atoz on. Eztiozu oniritzi edo berezco cariñoric artu danzara eraman zaituenari? Ez dizute esan itzqueta la baño, ta amorezcoren bat issilchoric belarrian? Ez dira igaro escu estutze maliciazcoac, ta beso chimurtzac? Eta noiz bait gueiago ere? Eta artu diezu gorroto andiric onelaco accio chaarrai? Esana esan. Peligrosoac dira gazte gucientzat euscalerrico danza aguiricoac; ta ascorentzat ocasio oso, ezagun ta becatuvide garbiac.

Gaiztoago da eбилtea bazterretan pandango ta danza lotsagabeetan edo conversacio chatarretan aguirian edo lotsa dagoan lecuana baño. Au da beste soñua. Contu ederra. Eta eguin lezaque cristau batec ondo ezdan gauzaren bat onandiac baleroz ere gaitz eguitetic? Ezetz dio San Pablo Apostoluac. O arrazoi sustrai gabea! Gaiztoagoa da guizon bat iltzea, maquillaca banatzea baño. Eta maquillaca bana lezaque? Ez: ceren biac eragozten ditu Jangoicoac. Gaiztoagoa da, oguei ezcutuco bat ostutzea ezcutu bat baño. Eta ostu dezaquegu ezcutu bat? Cer valioco dute Jangoicoaren juicio an apainduria ta esio charrac! Gauza on ez diran guciac eragozten ditu Jangoicoac. Becatu arin ta venial batere ecin guenzaque mundura mesederic andienac etortzea gatic. *Gorde buruac* dio Apostolu batec, *gauza chaarraren irudia duten gucitic. Ab omni specie mali abstinete.* Ez aaztu bada esan dedan eguia au; ezdagoala confesio onic Proposito eguiacoren paltaz, becatuco laban-arri, edo ocasio ezagunetic irten nai expada. Au da Elizaco doctrina. Sinicten ez diozu Elizari? Gentilen artean contatua cera.

G. Gaitz eguiten zaie ocasio gaiztoac dauzqueenai largatzea edo urratzea?

Bai;

E. Bai; bada lotuta dauzca deabruac amorio leiaren catea gogorrequin, ta urratu ez ditzen, ta igues ez decen astuntzen diztez grilloac. *Agravabit compedent vestrum ut non egrediamini.* Cembat asmacio ta aitzaquia ematen ez dute? Ateratzen badet echetic, edo irtetzen badet urtea bucatu baño leenago, gaizqui esango da. Agur nere honra: agur nere oguia: non arquituco det beste eche bat; non onelaco servitzaria? Cer da au? Becatuan barrumberago sartzea, cateac astunago eguita, edertu naia beren becatua. Baña cer eranzuten die Jesu-Christoc? *Baldin escuac, edo onac ematen badizu anima galtzeco videa, ebaqui itzazu: beguiac eraman nai bazaitu becatuara, aterazazu: obe da begui, escu ta oin bacoitzaquin sartu Ceruan, begui, escu ta oin binacquin Infernuan baño.* Nai dezu gueiago? Ona cer esan dizun Jesu-Christoc: beguia, escua, ta oiña bera baño ere bearragotzat badaucatu becatuara eramaten zaituen persona, lecu, eche, edo gauzac larga, igues-bota ta urratu. Infernura bazoaz, cerateraco dezu? Ateraco zaitu andic zure echo Jaun, edo becatuara eramaten zaituen Persona gorroto santua eman bear dizun orrec? Cer honra edo honra oste? Gendeac leenago ecer ezpadaqui, ecin ecer esan lezaque; badaqui, beragatic quendu bear dezu cer esana. Arquitzen bada gosea ematen duen echea, edo eheco-andra erriertari eta ernegatu bat, irteten da eceri beguiratu gabe. Nescame edo mirabeac cerbait ostutzen badu, botatzenda echetic, beinzat emendatzen ezpada aguiracarequia. Ecin irtenac dira berriz anima galtzeco peligroac daudenean. Ordwan milla apainduria, esio, asmacio ta aitzaquea. Eedo larga ocasio gaiztoa, edo larga confesioa, ta joan infernura sacrilegiac eguin gabe. Elizac de becatu edo eragozten die Confesoreai onelacoac absolvitzea; ordea cer eguiten dute ala vici diranac? Bilatu Confesore jaquituria edo conciencia gabeac, dio San Antonino Florenciacoac.

Jauna joango naiz len gaizqui vicitu izan naizan eche-  
ra, itzequinco ez det eche artan dagoan becatu lan-  
narequin. Len erorten banintzan ere pensamentu, itz ta

es-

escuca gaiztoetan, orain artu det proposito andi bat. Gue-  
zurra diozu. Ezda proposito bear becela, oac maita da-  
nean ocasioa. Gorroto andia baeingo becatuari, izango  
cifaque pelgroari ere. Lenengo sarreran egongo cera bel-  
dur apur batequin; nondic edo andic aguertuco da per-  
sona becatucoa. Au bear bada egongo da lengo gozor-  
tan, ta ezpadago ere, beguiac ez dituzu iduquico lur-  
rean beti josicu: elduco zafu ecusinaia, ecusteac piztu-  
co du carifioa gueldica, guceituco da tentacioa, ta dem-  
pora guchiren buruan asico dira irri-parreac, beguiac ca-  
tigatzeac, itz eguitea, bacar egoteac, ta orra berriz pre-  
so lenengoan baño ere catea gogorraoquin. Jangoicoa-  
ren laguntasun berezco gabe nola iruan on asi danean?  
Nola Jangoicoac lagundu bere naiz ocasioan jartzen da-  
nari? Ah christau deabruac loturic zaudena! Nora era-  
mango zaitu etsai zure anima goseac? Infernura. Eta an,  
eche artan becatu lagunarequin bazaude, cer atseguin  
emango dizu?

Nola Janna igaroco naiz agur edo itzic eguin gabe  
edola ere vide batea arquitzen banaiz adisquide izan de-  
dan personarequin? Adisquidetasun ori izanda etsaitasu-  
nic andiena; alcarri eguin cinguen calteric andiena, ceña  
da animac galtzea. Gorroto baciño becatuari, eguingo  
cenduque etsaitasun edo gorroto diran personac eguiten  
dutena; igues eguin videan alcar ecusi ez decen, ta jat-  
zen badira igaro edo agurric eguin gabe, edo agur otz  
bat eguinda becoqui illun batequin. Ala bada eguin bear  
dute gaizqui vici izan diran personac; eguin aleguin gu-  
cia ez ecusteco: ecusten bada uste gabe edo viderea  
baten arqitu, igaro aurrera itz eguiten guelditu gabe  
becoqui illun batequin. Bestela itzac dacar ecusi naia,  
onec pitzten du carifio, edo oniritzia, ta sartuco ditu  
laster deabruac lengo sarrean. Eta berriz arrapatzen ba-  
ditu, ez dute beingoan iguesic eguingo: gogortueo za-  
te viotza ta parre eguingo die len viotza bigundu ciea  
Sermoi edo Confesoren itzai. Certaco da contatzea onen  
gafieco milla egemplo izugarri? Cembat galdu dira eriot-  
zaco pelgroan ere negar andiaquin confesatu ciranac,

etor-

etorri citzatelaco guelara, edo oe aurrera amre gaiztoco  
persona, ecusiaz beste gabe viotza samurtu ta amorea  
berrituta? Cembat il dira lastan andi bat ematean oe on-  
doan cegoanari? San Juan Bautista, munduan Jesu-  
Christoren bean izan dan Predicadoreric santuenari ez dio  
enzuteric ematen Herodesec. Beldurtzen da, beste gauza  
onac eguiten ditu San Juanen consejuz; ez ordea larga He-  
rodiana gaiztoarequin ceducan ocasioa. Ez ez: loturic dau-  
ca deabruac, sartu ditu butroe barruan; ebillico dira gi-  
ra ta bira, baña irtengabe. Beti ecin eguiñac, murmu-  
rario beldurrac, ondunaiac, proposito ederrac; baña be-  
ti sare barruan, preso ocasioaren grilluaquin. Igaro Eger-  
cicio santuac, igaro misioac, negar eguin, confesio ge-  
neralen ondoren. Ordea egun guchiren buruan lengo oca-  
sioetara, eheetara, pestetara, lagunetara. Bizarra eguin,  
apaindu arpeguia, baña sustraiac quendu gabe berriz bi-  
zartu. Nora dira negarrac? Nora proposito ain sendoac?  
Nora Confesoreari esateac, ecusico du, emendic aurrera  
beste bat iango naiz? Eraman ditu aicac, deabruac sar-  
tu ditu idiquita ceducan ocasioco sarrean. O anima eru-  
carriac! O zacur, trocatu dituzun, lengo jaanac berriz,  
eztarriratzten dituzunac! Cer ateraco dezute aberetzarren  
vici moduan iraunda? Noraco cerate azquenean atseguin  
zatarrez aseta? Badaramez beren egunac, esaten dizute  
Isaiasec, atseguin edo contentuetan, ta beingo baten us-  
te gabe becela jesteri dira Infernura. Azquean ederra-

## ERACASTE IX.

### Aozco Confesioa.

**E**Racatsi degu doctrina batzuetan, cer dan Viotzeco  
Damu edo Contricio Confesioari lagundu bear diona,  
cein bearra dan, ceintzueo ez daramen, baita cer dan ta  
certan dagoan eguiaczo Propositoa. Orain ecusi bear de-

gu

gu cer dan Aozcoco Confesioa, ta oni dagozquion gauza bear andicoac.

G. *Asco ote da becatuen barcacioa iristeco viotzeco damua iduquitzea, edo bear dira aguertu Confesorearen oñetan.*

E. Ezda asco Magdalenaren damua bestecoa ere, aguertzen ezpadora aldidilla. Ona cein arguiro erabaqui zuen Trentoco Concilio Santuac. Inore esaten badu Confesioco Sacramentu Santua ezdala Jangoicoac aguindua, ezda bere aguinruz bearra salbatzeco, izan didilla descomulgátua. Jesu-Christo Jangoico ta guizonac illenartetic piztu ezquero ta Cerura igo baño leenago arnasa ezarriric Apostolaren gañera, eman cien Espiritu Santua esanaz? Zuec barcatzen diztezun becatuac, barcatuac izango dira, ta barcatu gabe largatzen diztezunai, etzaiez barcatuco. Onela eguin cituen animataco Juez, ta escuvide osoarequin barcatzeco edo ez barcatzeco; ta nola Juez batec sententia emateco jaquin bear duen causaren herria arguiro, ala becatu eguin duenac aguertu bear dio animaco Juezari, cein dan Confesorea, cer eguin duen ecer estaldu gabe. Lurreco Juezac bear dituzte probantzac; ordea nola Confesioco Juicioa dan ezcutucoa, inoren aurrean eguiten ezdana, baicic Penitente ta Confesorearen artean, airtortu edo aguertu bear du confesatuco danac, cer eguin duen, edo einan declaracio oso, zuec, ta eguiatzeco, ta ala ematen ezpada, ezdu valioco Sacerdoteac ematen duen sentenciac. Nola doctrina oec eguiñac diran cristau fede osoa dutenen arteraco, ez naiz luzatzen, eza gueraitzeco, dempora gucietan izan dala Elizan Confesioa Jesu-Christoren ordenantzaz, ta nola becatuac ezcutuenac, ta viotzetic irten ez dutenac etc, bear diran aguertu bácoitzac bere conciencian dauzean becela.

G. *Ala ere gauza gaitza ta gogorra dirudi aguertu bearra becatu inore ezdaquitzuionac, itsusi, eta lotsagarrienac badira ere. Ala legue astuna dala esan diteque Confesioco leguea.*

E. Ezda ordea ala. Jesu-Christoc berac dio bere uztarria samur, biguñ edo eramán erraza dala, ta arina be-

re

re carga. Anciñaco Leguean ceuden becatuen castiguac, arrica iltzeac, ta ambeste costatzen ciran sacrificioac, quenducituen Christoc, ta larga Confesioa. Cer da gauza gogorragoa, edo esatea isillic emacume ezcondu batec eguinduen becatua edo arrica illa izatea erri gucicoen aurrean? Cer da errazago? Edo aguertzea Confesore bati isillic ganadu edo animaliarene batequin eguindau becatua, edo animaliarequin batera errea izatea ascoren aurrean? Ala aguintzen zuen bada Jangoicoac legue zaarrean. Gueiago. Anciñaco leguean becatuen barcacioa iristeco bearzan Contricio oso edo amorio-damua, ta etzan asco Atricio, on ta garbia ere. Eta nore nai daqui errazago dala beldurdamu, edo Atricioa, amorio damu edo Contricio osoa baño. Ezda bada arkitzen gaurco egunean Teologo eracasten duenic, bearra dala confesioan Contricio osoa; ta eguia da, asco dala, ta bear bestecoa Atricioa edo Jangoicoaren amore apurren batec laguntzen diola, batzuec escatzen duten becela, edo amore garbi caridaderic irtenac lagundu gabe, ceña dan gueienen iritzia. Beraz Confesioco videac ta leguea biguñagoa, ta salbatzeco errazagoa da, Confesio gabe anciñaco leguean cegoana baño.

G. *Cergatic ordea anciñaco leguean, edo Jesu-Christo etorri baño leenago bear etzan aozco Confesio bana banacoa, edo becatu guciena, ta bai Christoc ipiñi zuen legue berrian?*

E. Jangoicoac eguiten dituen gauzeetan ezditu guizonac arrazoiac gueiegui aztetu bear, ta bai adoratatu isillic bere obra edo eguitada guciac. Ala ere ona emea arrazoi ona. Jangoicoa guizon eguin baño leenago, asco zan animaco edo espirituco-confesioa, au da Jangoicoari viotzarequin confesatzea, cerren Jangoicoa zan Jueza, ta corputzgabea, edo Espiritu utsa. Bafia Jangoicoa eguin zanean guizon, corputztu zan bere Espiritutasuna galdu gabe. Jangoico guizon eguin au da Jesu-Christo, edo Aita Eternoaren Seme Ana Virginaren sabel garbian corputztua. Aita Eternoac emancion bere Seme guizon eguinari, Guizonen juzgarze osoa. *Omne Judicium dedit Filio.* Bada juzgatu bear ditu Jesu-Christoc guizonac, ez bacar-

O

ric

ric Jangoicoa dan aldetic, baita guizona danetic ere, ta ala ezda asco espiritu ta viotzeco confesio utsa, bear ere da aldidilla, aozco Confesio osoa. Jesu-Christoc bada nola Eliza berac fundatzen zuenac iraun bear zu-n-munduaren azqueraño, ta ez bucatu bere eriotza santua-requin, emancien Apostoluei guizonac juzgatzeco escu-videa Confesioco Sacramentuan; Apostoluac berriz consa-gratu cituzten Obispo ta Sacerdoteac, ta consagracione san-tuan artzen zuten escuvide bera; ta ala beti consagratu dira Elizan Sacerdoteac Apostoluen ondorengo edo Obis-po Jaunen escuz; iraun du ta iraungo ere bai Confesio-co Sacramentuac, becatuac aguertzen dirala bear dan es-pirituico penitencia edo damuarquin, ta ala eguinda, Sa-cerdote Confesoreac parcatzen dituen becatuac barcatuac izango dira.

*G. Chit arguiro aditu det nondic datorren Confesia; baña jaquin nai nuque, cer ta nola eguin bear dan be-catueu aguertamen edo declaracioa.*

*E.* Ongui galdetzen dezu. Confesatu bear dira bada esamina contuzco baten videz gogoan edo conciencia dau-den becela becatu mortal guicia beren circunstancia be-catu beste bat eguiten dutenequin. Auda Elizaco doctri-na Trentoco Concilio Santuan erabaquia, beticoa izan bada ere doctrina au Confesioco Sacramentua eguin zanetic.

*G. Beraz becatu venial, edo arinac confesatzeco obli-gacioric ezdago?*

*E.* Ala da; ordea orretaco jaquin bear da ciurqui be-catu veniala baño ezdala batec eguin dien utseguña, edo falta. Bada cembat engañu arquitzen da gauza one-tan? Cembatec dauzcate becatu venial edo arintzat beca-tu astun edo mortalac diranac? Cembatec berriz becatu batere ez diranac, artutzen dituzte becatu itsusi, ta an-ditzat, ta guero lotsaz aguertu ecinda condenatzen di-ranac sustraian becatu etziranac gatic?

*G. Nola izan diteque ori? Esplica beza arguiro ta egemploequiu, bada bestela ecin ondo adinezague.*

*E.* Esan det bada jaquin bear dala cuirqui becatu be-nialetic igarotzen ezdala eguindan utseguña edo falta,

confesatzeco obligacioric ez iduquitzeo. Edoceñec daqui guezur chiqui edo caltegabe bat ezau eraz esana ere, da-la becatu veniala; oro bat gauza guchi bat ostutzea gau-za astunera eldutzeco asmo gabe, ta ala beste gauza ja-quin erracetan. Orain bada utzico balu batec confesatu gabe, dan becela dala, onelaco becatu arin edo chiqui bat, ez luque alde onetatic confesio gaiztoric eguingo, cerren badira beste videac onelaco becatuac barcatzeco confesio gabe ere, ta ezda berez becatu veniala conden-nacio-gaia. Baña norc esan cembat cristauc dauzqueen becatu arintzat mortalac diranac Jangoicoaren aurrean? Badira asco, pensamentu loi vorondatez ta ezaueraz idu-qui acertan ez dauz queenac, ezbadute vorondate, gogo edo deseoric gauza chaarren bat eguiteco. Badira bai viotzeco deseo gaizto ta vorondatezcoac arintzat dauz-queenac, azalean eguiten ezpadute gauza gaiztoric. Ba-dira bai esanagatic itz zatar, lotsagarri ta animen galgar-riac, uste dutenac, etzutela asmo gaiztoric, ta parre era-guiteco esaten dituztelaco edergarriaz, becatu andiac ez-palira becela confesatzen dituztenac, edo confesatzen ez-dituztenac. Badira eguñia gatic danceetan escuca tenta-garriac, edo danzatie campora ibilligatic apaca, laztan-ca, musuca, ta escuca lujuriosoetan, gauza chiquitzat dauzqueenac, ta eguiten ezpadituzte beste gauza andiogo-ac corputzequin, becatu arinac becela, edo confesatu ga-be largatzen dituztenac, edo confesatzen badituzte, izan oi da damu gabe becatu venialtzat iduquita. Norc esan cembat ignorancia edo ezjaquin gauza ascotan arquite oi dan? Ordea, ezdute escusa edo aitzaquiaric arquiteco. Predicatzen da, ta Confesoraac ere eracatsi oi dute, egui-ten dirala becatu mortalac pensamentuz, deseoz, accioz, ta obraz. Sinisten ezpadute eracasten zaiena, dira here-gen guisacoac; sinisten badute, ezla escusaric Ez-dago becatu beldurgarriagoric vorondatezco ez ezagut-ze ichua baño. Nola Confesatu ta damu artu ezagut-zen ezdana? Ala eguiten dira confesio gaizto chit asco ezagutu nai ezdiran, ta ezagatu bear ciran becatuac ez aguertzeagatic. Guraso asco dira chit naguiac uneen acie-ra



ra onean, ta guchic ezagutzen du obligacio andiau, ta guchic confesatu naguitasuna. Eguiten dira irabaci bidegabeac saldutzen diranean gauzac trampac eguinic, edo precioan, edo neurrian, edo pisuan, edo gauza ontzat, galduac diranac. Eta confesatu gabe becatu astun oec, vici dira conciencia nasaiarequin. Ala bada conciencia esaminatzen danean escatu bear zaio Jangoicoari argui andi bat ezagutzeco becatu ezagu-gaitzac, edo ezcutucoac. Lotsaz confesatzen ez duenac becatu jaquin edo ezagun bat, beti dago quezca, ta larritasunean, ta arantza ura ateratzeco gogoa artu dezaque paquea billatzeagatic. Ordea becatu ezagutu dezaqueana, ta ezagutu bearra ezagutzen ezduenac, ezdu quezcaric, vici da paque galantean, baña palsoan, ta ezditu confesatzen; damuric ere artu ez, ta dago condenacioco peligro chit andian, cerren jaquineza danean bacoitzaren erruz edo culpaz, da becatua dio Santo Thomasec. Onelacoai Jangoicoac emanazpadie argui gucz andi bat ezagutzeco beren ichutasuna, galduac dira. Argatic gau ta egunbecela esan bear guinoque David penitentearequin; Jauna, libra naza becatu estaldu edo escutucoetatic Argatic da vide ta conseju chit ona osoro viotza aguertzea Confesoreari aguertzen diozcala tentacioac, inclinacio, ta becatu venialtzat dauzcanac ere; cerren ascotan guertatzen da penitenteac venialtzat ceuzcanac ondo ezagutu ezaz, ezagutzea Confesoreac cirala mortalac, ta ala arguitzea confesatzen dana.

*G. Beraz tentacio utsac confesatzeco obligacio esturic ez dago?*

E. Ez, ezagutzen badu arguiro bacoitzac tentacioari lecuric emanazdiola: baña chit ondo eguingo da aguertzea, Confesorearen conseju santuequin anima didin garaitzera errazago, ez gueiegui larritzera, ta sariaren esperanzarequin deabruaren contra peleztera. Cristauric onezac dira gueien tentatuac debruaren aldetic, cerren gaiztoac arqitzen dituzte beren galvideac lagun ta ebillera chaarretan, edo beren vorondate gaiztoan. Ez ala cristau onac; oec aldeguiten dute lagun ta ocasio chaarretatic, vorondatea prest daucate Jangoicoa ez ofenditzeco; ta

ala

ala Infernuco etsaiac ematen dizte tentacio portizac alde ascotatic, ta bear dute Confesorearen laguntasuna ez garaituac izateco, ta duda andietatic irtezeco cerrren deabruac garaitu ecin dituanen becatuari lecu ematera, larritzen ditu erdi siniseracita becatu eguin dutela tentacioetan. Aguertu bada Confesoreari bere viotza, ta arqituco da argui ta paquea.

*G. Eta bates berez becatu ez dana becatutzac artu badu, confesatu bear oie da?*

E. Enzun contuz, ceren dan gauza, ascorenzat premia andicoa. Becaturic ez dago ezauera ta vorondategabe; baña badira cristau, bestetic becuric nai ez dutenac, artzen dituztenac becatutzat becatuac ez diranac Jangoicoaren aurrean. Ala ere arrazoi onarequin quendutzen ez dutenac becatu dalaco quezca, beldurra edo sinistea, bear dituzte confesatu becatutzat dauzqueen gauza aiec. Badira cristau errucarri batzuec uste dutenac Jangoicoaren contraco gogoracio edo pensamentu chaarren ban etorri bazaie, izan badute araguiaren guerra, berotasun, edo arrotasunen bat, edo igaro amesetan atseguin loiren batzuec, beguitantzen zaienac eguin dutela becatu, ezagueraz, ta vorondatez lecuric ematen espadie ere. Eta guero, cer guertatzen da? Uste dute becatu heregiacoren bat eguin dutela Fedearen contraco gogoracio chatarren bat etorri zaielaco, lotsatzen dira confesatzeaz ta eguiten dituzte confesio ta comunio sacrilegoac videgabeco siniste ta beldurrarequin. Etorriagatic gogoracio-ric ichusienac Jangoicoaren gañean, edo Jesu-Christoren Imaguñaquin, eztago becuric, ez confesatzeco premia-ric alaco pensamentuari lecuric ezagueraz eman etzaienean, ta guchitan ematen zaielaco gauza itzusieta.

Eracurri det emacume gucz ondo vici zan bati etorri citzaiola bein pensamentu ichusi bat Jangoicoaren contra. Alacoa izanzan confesatzeco beldurra, confesatzeaz eguin etzuen gauza artan, ecen egonzan urte osoetan sarri confesatu ta comulgatzen zala, Confesore ezagunari aguertu ecinda. Etorri zan Misio bat erri ar tara, joan zan confesatzera Misionista batezana ta esancion, Ai

ne-

nere Aita ona! Galdua naiz; daucat becatu bat ain itsusi ta lotsa garria, ecen ezdet confesatu urte osoetan, ta orain ere arquitzen naiz berorri ere esateco viotz gabe. Cer becatu izan diteque bada, esancion Confesore arc, niri esateco viotzic ez dezuna? Asi zan galdetzen mandamentu gucietatic, ta etzuen ecar arquitzen: eldudan seigarrenera, emenere chit garbi arqitu zuen. Galdetu cion, izan dezu inoiz Jangoicoaren contracto becatu itsusiric! Ai Jauna! igarri dit, esancion emacume gaiso arc cizparu ta zotin andi batemanda. Ori da gucia? Galdetu cion Confesoreac. Bai Jauna. Eta egon cian gozatzen ezauera ta vorondatez pensamentu ichusi orretan? Gozatu Jauna vorondatez? eranzan cion emacumeac. Larritu ta icaratu nintzan ezagutu nuenean bertatic gorroto ere artu nion alaco gogoracio itsusiarri. Bada choroa, etzenuen batere batere becatu eguin, etzenuan ordu artan cer confesatu ere; baña nola urte guci oetan egon ceran lotsaz confesatu gabe becatu andia zalaco sinisteaz eguin dituzu becatu chit asco ambeste confesio ta comunio gaizqui eguinetan. Ala arrapatu zuen debruac bestela arrapatu cin zuena. Esana esan, ezta go becatuic pensamentuic itsusi enetan, naiz Jesu-Christoren naiz Ana Virginaren, naiz Santu Santen contracto gauzeetan, ezda confesatzeco preniarri ere, ezaué. raz ta vorondatez lecuric ematen etzuenen, gusienez ematen etzaen becala. Baña egon danac becacuzat artuta, beldurra arrazoi onarequin quida gabe, confesatu ecinda, aguertu bear dio Confesoreari cer guertatu zaion, ta berriz eguin confesio gaizqui eguina. Orobat ezan bear da len aitatu dituzun gauzeetan; ames loiac izaitea berez becatu ezda, esnaatu ta ezagueraz lecuric eman expaziao amesetan igaro dan atseguin gaiztoari; ezdago confesatzeco obligacioric ames alacoac, ta guero consentitu ez diranac esnatu ondoan. Ezta go ere obligacioric aguertzeco araguiaren arrotasun loi vorondatearen contractoac, edo animac gorrotatzen dituenac, ceren ezdago becatuic bacoitzac bere escuan ez duen gauzan; ta ezdago bacoitzaren escuan gogoracioric gaiztoenac, amesic

zatarrenac, ta araguiaren arrotasunic andienac etortzea. Baña egon danac becatutzat artu ta confesatzeco ordum beldurrez cin aguertuta, bear ditu berriztatu ala eguin dituen confesioac. O cembat calte ecartzen dituen ez jaquinac! Batzuec edo condenatzen dira beren culpaz becatuac diranac becatutzat exagutugabe; ta beste gaiso ta errucariagoac becatu batere ez dinarac becatutzat artu, ta confesatzen ezdituztelaco lotsaz ta beldurrez: batzuec ematen die lecu pensamentu gaiztoei, ezan ta enzuten dituzte pocic itzic zatarranenac, dabilta escuca, ta olanza oquerretan, ta oec ecer ezpalira becala, largatzen dituzte confesatu gabe, edo confesatzen dituzte gauza arintzat apainduta; eta beste batzuec tentacio utsac, ta consentitzegabeac becatutzat artuta, daude lotsaz confesatu ecinda. O bai, ta cembat aldetatic arrapatzen dituen animac Infernuco etsai animazaleac. O Christauac! Nola vici etzerate Jangoicoaren doctrina ondo icasteco gose andiarequin? Cergetic galdetu ez Confesoreari etortzen zatun edocein duda, arrazoi onbat ez dezunean cerez beldurra ta ezjaquina quendutzeco? O lotsa caltegarria! Eta cembat anima eraman dezuen Infernuco Lana gorietara!

G. *Eta inorc emandaco tentacio edo becatuac bear videac confesatu bear ote dira consentimentu edo lecuric eman ez danean?*

E. Ondo da confesatzea, baña ezdago obligacioric ezagutzen duenean bacoitzac arguiro lecuric eman etziola, cerren becatuac ezdana, ezdago confesatzeco obligacio, edo lotumenic. Esan det ezagutzen danean arguiro, cerren duda equiazcoren badu eman ete cion tentatzeco videric modestiaren paltaz, edo bear becalaco erreprensio edo aguiracoric eguin otencion tentacio ondoan, edo macalegui egon otezan, aguertu bear du confesioan. Christau onai ere asco largatzen ez die tentatu gabe, edo itzez, edo escuz, edo quinu gaiztoequia. Alaco orduan iguasa artutzen bada arpegui astuna eracutsita, edo gaizqui esanda; ezdago becatuic, ez confesacioric. Baña bai arpegui alegrea aguertzen bazaio tentatzalleari, esa-

nagatic epel epel, macal macal, zaudé gueldric : bai tentatzallearequin egoteari jarraitzen badio, cerren ocasion vorondatez dagoanac, nai du pecatua. Norc esan cembat guazur esaten dituzten confesioan cristau ascoc? Galdetzen dio Confesoreac emacuna bati, Badezu cer acusatu seigarren mandamentuaren contra Consentitu dezu gauza loiren bat? Ez Jauna, eranzuten dute; enzu ditut itz chatarrac, eguin diztez mutillac escuca ta oratze batzuec, baña nere vorondatearen contras. Galdetzen dio gauza ascoren berri daquian Confesoreas, Atoz ona, nolaco videz edo ocasioz, guertatu dira gauzo oriec? Joan cihan zu ocasioa cegoan lecu edo gente nasaienarteara? Izan zan bacarric ceunden lecura guciasemea etorrira, videren baten igaro videz arquituta, edo mutil nescatoen junta, olgantza, edo batzacuacuntzeetan? Eguiten cihen pane ta algara gozoa itzquera zatar itsusiai! Oribai Jauna, dio. Eracusten cihen arpegui astun, becoqui illun, itzaltzu, ta aserraturic, ta aldeguin cenduen tentatzallen ondotic? Ori ez Jauna; parre eguiten nuen, divertitzen nintzan, baña esaten nion, egoteco gueldi. Ederqui. Nola diozu bada cere vorondatearen contra izan cirala? Zuc nai ezdituzun ganzeetan egoten cera parrez; ta algaraz? Cerbait esaten dizutenean cere onearen caltean, edo cerbait ostu, egotea cera macal macal, ta algaraz? Suguearen bat ecusten badezu urrean, egoten cera alde eguin bague, ta icutzen badizu arropa edo onean esango cihoque, suguea, zaudé guelli? Ceia guchi! Artuco cenuque iguesa, naico cenuque ill ta zapaldu bertan, larritaco cihaque ecusita beste gabe. Ara bada cer esaten dizua Espiritu Santuac, igues zazubecatua gantic Suguearen arpeguitic becela. *Quasi á facie colubri fuge peccatum.* Chacur amorrotua ecusten badezu, egoten cera urrera cre etorri daquizon? Nola bada diozu nai etzenue la escuca, ta itz gaiztoric, parrez bazaude esan diran toqui ta lagunen artean? Cer? Becatuari etzaió garrotoco gueiago bear Sugue, ta Zacur amorrotuari baño? Ez de estimagarriago zure anima zure honra gucia baño? Certan dago bada parrez, algaraz, ta olgatzten egotea

ten-

tentatzen zaitutztennean itz, escuca, ta oratze gaiztoequin? Dago nai izatean, edo damuric ez ematean becatu mortalac. Ala confesatzen dira asco gente gazte chit gaizqui, ondo aguertu gabe becatuac, ta utsera joeracita gauza astunai.

Badira bai corputzeco becatu osotan erorita ere esaten dienac Confesoreari here vorondatearen contra izan zala. O confesio ederrac! Cer eguin cizua tentatzalleac? Lotu oin biac, lotu escuac? Eta ori mendi bacar baten? Ala izan balitza ere, eguin bear cenden deadar Cerura; deadar Ama Virginari, dei eguin cere Aingueru Goardaco, edo Zaitzalleari. Eguin cenduen ala? Ez. Jauna orrenbeste ere. Bada eguin cenduen becatu corputza emanaz anima lapurrari. Munduco beldur guciac etzaituzten libratzen becatu mortaletic onelaco gauzaan. Ezpata batequin irten, ta illico zaituelaco beldurrez, gogo gabe bazan ere, uzten badiozu corputza becatu eguiteco, egingo dezu becatu mortala, ceren leenago eman bear da vicitza becatua eguin baño. Indar eguiten dizu galtzeco? Erri bacruan bada eguin bear dezu deadar, lagunac bildu ditecen, ta libra zaitzen. Onreric galduco ez dezu daquitenequin ta bai irabaci. Escu, ta onequin, atzaparca ta osticoca equin tentatzalleari. Cer egingo cenuque vicitza galdu nai balizute? Nolaco deadar, garrasi, ta libratu naiac? Bada maiteago duenac corputzeco vicitza animacoa baño, ez da Christoren escolacoa. Erregu, sari, esquintza guezurrezco batzuequin engañatzen dira, ta guero esaten dute confesatzean, Jauna, ez nuan nai, nere gogoaren contra izandu zan. Guezur andia, confesio gaiztoa. Ipiñico balizute gaiztoac Christoren Imagina bat, ta esan, edo illico zaitugu, edo erabillizazu oinpean Imagina santu au, cer eguin bearco cenuque? Eriotzaren beldurrez erabilli oinpean? Egingo cenuque becatu andia. Oro bat bada becatu loiraco indarca, edo eriotza beguien aurrean ipiñita tentatzen zaitutztennean. Galdu bear dezu leenago vicitza, ta izango cera Martiri bat, ta zure icena izango da cristau errietan onra andicoca, ta

P.

ZU.

zure anima zorionecoa Ceruan. Baña guchiagorequin eguiten da becatu ta guero ez ondo confesatu. Cein becatu-gucia ezcutatu, cein estalgarriequin escusatu, oro bat da; ta bear bada gaiztoago escusatzea gutiz ezcutatzea baño, cerren guezur gueiagorequin escusatzen dan.

G. *Eta becatu mortal dudacou, edo ezda-baidacoac bear dira confesatu?*

E. Berez bai. Duda izan liteque, edo eguinaren, edo confesatuaren gañean. Bata da eguin dezun edo ez, consentitu dan edo ez. Bestea becatu eguina, leenago confesatu dezun edo ez. Duda bada arrazoi sinisgarri onecoa, confesatu bear da; baña anima beldurti, cristau leenacor ta escrupulosoena, ez; ta Confesore ondo ezagurzen duenac esaten badio, (largatzeco leengo gauzaai berriz ta berriz erabilli gabe, obeditu begui ichuequin, ta ez beldur izan gaizquitzat artuco diola Jangoicoac bere ministroari, ta bere icenean itz eguiten dionean ecartzen dion obediencia gatic. Zuec enzuten zaituztenac, ni enzuten nau, dio Christoc bere Ministroen gañeco esanac eguitaren gañean. Badira cristau on bein ezecen, bi ta iru bider ere Confesio generalac, ambat garbiroen eguin dituztenac, ta aspertu ecin diranac esaten leenago gora ta beera. Ai ene! dioe; au confesatu ote muen, beste au bear becela esaten otenuen? Aztutzen zate cer esanzuten ta cer ez; deabruac enredatzen ditu, gozo-gucia galaracitzen die Jangoicoaren gauectaraco, beldurtzen ditu comunioraco; ta onelacoac, obediencia iehu ta osobat ezipadie Confesoreari, gueroago ta gaizquiago ebillico dira. Gauza gucietan beti dabilza duda, edo ezta-baideetan. Tentacioetan consentitu duten, edo ez; baña nola mundu-gucia gatic eguin nai ez duten becatu mortalac, oen dudac dira sustrai gabeac, despreciatu bear diranac, ta confesatzeco obligacioric ez dute. Bai ordea conciencia baquezcoa dutenac, ta arrazoi onakin dudatzen diranac eguin ote zuten edo ez onelaco edo alaco becatu mortala, confesatu ote zuten edo ez.

Ona bein baño sarriagotan guertatzen dan gauza. Ume demporan eguiten dira loiqueriac, edo motilchoac nesca-

che-

chequin, edo aiec ta oec alcarrequin. Igarotzen dira urteac; gogoratzen zate acicho eguinda, edo bear bada zaartuta cer eguin zuten, etortzen zate lotsa andi bat confesatzeco. Asitzen dira contuac ateratzen, becatu mortallac ote ciran; badaquite berenez mortallac ciralala loiqueria alacoac; ordea dudatzen dira ote zuten edo ez ezauera osoric becatu mortal izaiteco. Oroitzen dira, nola ezcutatzen ciran gurasoetatic, ta bazutela malicia edo gauza gaiztoac ciralaco ezagueraren bat; ala, ez dute arquitzen arrazoi argui ta osoric sinisteco etzira'la becatu mortallac. Duda edo ezda baida oetan guelitzen dira erabaqui ecinda, ta ez confesatzeco gatic, dioe, bear bada etziran becatu mortallac izango. Ala igarotzen dituzte ucte osoac, ta eguiten confesio asco ezda baida aietan conciencia charrarequin. Enzuten dituzte Sermoietan, nola lotsaz confesatu ecin da, cendenatu zan bata ta bestea; larritzen dira, baña batzuec aurreralen becela arantza ura atera gabe. O animi gaissoac! Ta nola beldur naizan doctrina au enzuten dauden batzuec arrapatzen dituela deabruac sare onetan! O gauza arritzeco! Guetago costatzen zaje batzuei aur demporaco becatuac confesatzeco acita malicia gueiagorequin eguin dituzteac baño. Orela confesatu danaç eguin bear du dempora guci orretaco Confesio generala, aguertuaz Confesoreari, cer ta cembat aldiz, (oroitu albadidi) eguin cituan loiqueriac, nolaco ezaguera zuen, cembat demporan egon dan lotsaz confesatugatu gabe. O cembat cristau galdu diran unetaco becatuac, edo becatu cirudienac lotsaz aguertu ezdituztelaco! Guchi dira urte aietan Jangoicoaren beldur diranac; ez dira palta gaizto malicia goicetic izaten dutenac besteai gauza oquerac eracasteco, naturala berriz chiquitatic macurtu edo obendu dago gaitzeraco, ecusten dituzte edo gurasoetan, ta genle nasaletan gauza edo accio zatarrac, enzuten dituzte itz deonestoac, chimino batzuec becela eguin nai dute ecusten dutena, ta ala eguiten dituzte gaizto nagusien contuac, sinisten ere gaitzac diranac, eguia ecusiatic ezbalira. Lotsatzen dira acita, aimbeste gauza loiqueriac ain goiz, ta guero eguiten dituzte confesio char-

P 2

as:

asco, contura etorriric aguertzen ezdituztelaco Confesioan. Bada edo confesatu, edo condenatu.

Orain bada, Confesioac onac izaiteco bear du izan eguiazcoac, ta osoac. Emendic dator guezurren bat esatea edo engañatzea Confesorea gauza astunean dala becatu sacrilegioco icaragarria. Ezaueraz gauza astunen bat estaltzen badu, ez du cer icharan barcacionic alaco confesio-tic. Contu dezagun dagoala bat becatuco ocasio gaiztoan bere echeco personaren batequin. Dio bere artean confesatzan dagoanac, aguertzen badiot Confesoreari, nola nere echean daducadan becatu laguna, obligatuco nau irtetzera, edo ateratzera, ta absolvituco ez nau bestela. Beldur onequin estaltzen dio circunstancia esan bear ura, ta bacarric confesatzan ditu eguin dituen becatuac. Auda Confesorea engañatzea gauza astunean. Eta cer ateraco du zori gaiztoco guezurtionec alaco trampa ta engañua sartzeaz? Cer valioco dio absolucioac? Bere condenacio guaiagoroco. Confesatu bear da ocasio gaiztoa, cembat demporan dagoan, ta cembat becatu eguia dituen, ta larga ocasioa.

Badira beste batzuec ecandu, usuario, edo oitura gaiztoetan sarturic daudenac eguiteco escuca becatuzcoac edo beren buruaquin, edo besteequin. Bein ta berriz estutu ditu Confesoreac costumbre edo oitura gaizto onelacoen gañean. Cer eguiten dute? Igues beste Confesore erraz bategana, ta esan gabe lengo oitura gaiztoa edo becaturren sustraia, bacarric confesatzan diozcas Confesio artaco becatuac, ta Confesoreac galdetzen ezpadio, noizcoa dan oitura ura, leenagoco confesioan, edo confesioetan alacoric izan duen, artzen du absolucioa, ta dia pocic trampa andi bat eguinda. Baña Jangoicoari ez die parre-ric eguingo, ta ez engañuric sartuco. Au eguiten dute ascoc, confesatzan dira guchitan, aldatzen dituzte Confesoreac igarri ez decen noizcoa dan gaitza; ecin osatuco ditu. Ala vici dira asco milla tramparequin absolucioac aterata sacrilegio andiac eguin, eta obetu gabe. Berriz Confesoreac galdetzen badio, leenagoco confesioetan alacoric eguin duen, dauca obligacioa aguertze-co. Jauna confesa-

tu nituen leengoac esan oi dute. Ezda ansi; jaquin bear du Confesore edo animaco Medicoac, noizcoa dan gaitz ura, anciñacoa, zaarra, edo berria-Gaitz zaarrac beste osacarri edo erremedioac escatzen ditu.

Ona beste trampa, ascoc eguiten dutena. Ematen dioe itza confesoreari eguingo dutela gauza osturen baten biurrera, edo restitucioa onelaco edo alaco demporan. Guero naguitzen dira, ta ez dute ecer aitatzan urrengo ta gueroagoco confesioetan beren naguitasuna ta biurtze-co atzerapena, edo badiaz bere berri eztaquian Confesoreagana estutu ez dezan Confesore ezagutzen duenac bere obligacioa. Ala igarotzen dituzte urte osoac confesio gaiztoac eguiten.

Confesatzan ere dira gaizqui eguia ez aguertuaz tratuari asco irabaci vide gabeac eguin, concenciac quezcatu, ta galdetu nai ez dienac fede onaz Confesore jaquitun bati dan edo ez vitezcoa beren irabacia. Enzuten badute cerbait predicatzan tratu oquerren contra, itotzen dituzte viotzeco colpeac, ta confesatzan dira ecer aitatu gabe obliga ez dezan Confesore jaquitun biurtzera vide gaiztoco irabacia. Onela confesatzan dira diruac prestatu premiaz escatzen dienai, ta obligatzen dituztenac biurtzera cerbait gueiago, edo dirua aurreratzea gatic obligatzen dituztela necazari gaisoac ematera gari edo artoa chit merque, edo orobat Icatzac precio laburrean. Oec dira logreria garbiac; bada dirua prestatzea ta irabacia edo gueiago pagaeracitzea; dirua aurrez ematea icati, ta gari edo artoac gatic (orobat beste gauza gucietan) da berez becatu logreria garbicoa. Becatu au guchic sinistu nai dute, ta guchiagoc ondo ta garbiro confesatu, ta lapur onratu ta castigu gabeco oec diaz beren diruac emen largata Judas diruzalea becela Infernucio Sullezara. Erraz ezagutzen dira escuz eguiten diran lapurretac. Oen contra deadar eguin oi dute Predicadoreac baño gueiago lapur andiagoc, baño ezcutuagoc diranac, ta eztago oentzat lurrean castiguric aientzat becela. Confesatzan ere dira chit gaizqui eguia ez aguertuaz guizon averats edo ondasundun bat baño gueiago, diru goseaz

limosna chit guchi eguiñaz, edo pobreac bear dituztenac alperric gastatuaz, edo jocoetan, edo bear extiran gauzeetan. Esatea ezdagoala obligatoric limosnac eguiteco dá Evangelioaren contra doctrina berri bat eracastea. Aberatsen salvacioa, da chit gaitza, dionaz Jesu-Christo te-tigo ecin obeac. Etzan lapurretaco videz aberastu Evangelioan condenatu pintatzen dan averatsa, condenatu van bere gogortasuna gatic. Lazaro pobreari limosna eguinezaz. Eta cembatec confesatzen dituzte onelaco cequeatasun edo diru nai gueieguiac?

Esan degu eguiazcoac ez ecen, izan ere bear duela oscac confesioac.

Ona emendic datorren zucen videa, ta fedeco doctrina Treutoco Concilio Saatuan eracatsi ta erabaquia. Isiltzen edo gordetzen duenac Confesioan becatu mortal edo bere circunstancia esan bearcoren bat, eguiten du sacri-legio andi bat, ta ala comulgatzen bada beste andiagobat; au aditzen da maliciaz edo ezagueraz gordetzen badu, edo beldurrez, edo lotsaz; ceren utzi badu aztuz, edo ~~orain~~ ezaz, ta bere culpa gabe, ezdu alde onetatic becatuic eguingo.

Bigarren. Guchitzen dituenac becatu eguinac, au da eguin dituenac baño guchiazo esan lotsaz ta beldurrez, eguiten du confesio gaiztoa.

Irugarren; edertzen ta apaintzen duenac becatu mortalen bat quentzen diola bere mortaltasuna arintzat bece-la confesatuta, eguiten du becatuzco confesioa, ta ala jarraitu badu ezagueraz gaizqui confesatzen ta comulgatzen, eguin ditu confesio ta comunio gaizto adiaña sacri-legio, ta Pazcoa cumplitzeco demporan ala confesatu ta comulgatu danac, ez du bete edo cumplitu Pazcoaco obligacioa, ta bai eguin beste becatu bi gueiago. Nolaco becatu pilloac biltzen ditu bere animara!

Ecusi dezagun nola engañatzen dituen deabruac anima beldurti asco. Cembat ote dira chiquitan edo gueroa-go ganadu edo beste animalia-aren batequin eguin dituzten becatu itsusiac dala escuz, dala obraz, edo beguiequin, daudenac urte osoetan estaltzen beldurrez, edo lotsaz?

Cem-

Cembatec onelaco becatu chit asco eguinda guchitzen dituzte confesatzeco demporan, edo becatu oso osoac edo obrazcoac ciranac esanaz izan cirala tocamentu edo escuca utsac? O lujuria eceri barcatzen ez dio zuna! O becatu aspertzen ta guelditzen etzerana! San Pedro Apostoloac dion becela. *Incessabilis delicti*? Cer asmatzen ez dezu? Becatu au zabaltzen da sentidu gucietara, ta eguiten dira ain gauza itsusiac, ecen lotsatzen da pasioa igarota eguin duena bera. Norc sinis lezaque ganadu ta aberrei ere barcatuto ez diola? Norc sinistu cristau bat biurtuco dala gauza ain itsusiraño? Beiac, chacurrac, ardiac, ta ganadu beltzac ere izan oi dira becatu lagunac. Becatu andia ta icara garria; baña edo confesatu, edo condenatu; eztago beste videric. Ona emen egemplo sarri enzuna, baña ascori confesatu eraci diozcana onelaco becatu gorderic ceuzqueenac.

### Egemploa.

**P**elagio ceritzon guizon gazte edo mutil batec eguin zuen bein becatu itsusi bat ganadu edo abere batequin. Bere concienciac paqueric ematen etzion, baña lotsatu zan confesatzeco. Siniseraci cion deabruac confesatu gabe penitencia andiac eguinda salvatuco zala. Sartu zan Conventu estu baten ta artu zuen abitua. Bere penitencia ta azaleco vicitza santu irudicosa gatic, cegoan virtute andicorzat. Ordea Suguea barruan, ta deadarrez conciencian Ainguerua; Pelagio, alperrac dira zure penitencia guciac confesatzen ezpadezu daquizun becatua. Baña gueroago ta gaitzago eguiten citzaion Confesoreari aguertzea, ceren cegoan Santu baten ustean. Onela ill zan. Eguin zan bere enterrua, ta uste zuten bere lagunac milagro andiren batzuec eguingo cituela ill ondoan. Ecusi zuen Sacristauac urrengo gavean cegoala Pelagioren Corputz illa Sepulturatic aterata campoan, ta enterratu zuen berriz. Oro bat beste goicean arquite zuen campoan, ta icaraturic emancion contu Conventuco Nagusi edo Añatari.

Jet-

Jetsi zan au beste Fraile guciequin Gorputz illa cegoan toquirra, ta galdetucion itz oequin, Pelagio, izan cere na cere vicitzan chit humilla ta esanecoa, esan bear didazu, cer nai dezun? Cer esan nai du lurretic campora irtetzeac? Bear dezu Sepultura honra andiagocoren bat? Ai nere galdua! eranzun cion difuntuac; condenata nago betico; ez du lecu santuric bear nere corputz madaricatuac. Infernuan nago ta egongo naiz dempora beticoan abere batequin ancina eguin nuen becatu bat confesatu ez nuelaco. Ezdide ecer valio nere penitencia guciac. O Abata, quenzadazu nere aogan dagoan hostia consagratu au (edo artu zuena ill aurean) ta Jangoicoaren vorondatea da ni enterratzea leiza baten abere zatar bat becela. Ah Pelagio zori zaiztocoa! Cembat errazago izango zan zuretzat humillic lotsa gucia garaituta confesatu lacendu zucen cere becatua, ta eguin guero eguin cini-tuen penitencia! O nola egongo ciñan gaur Ceruan Jangoicoaren misericordiac cantatzen beste becatari penitente ascorequin batera!

Ah Cristau zaudena confesatu gabe onelaco edo beselaco becatu itsusi bat edo asco! Nai dezu joan Infernura Pelagiori lagun eguitera? Bada bitic bat, edo zucen confesatu, edo zucen condenatu.

Deabruac arrapatzen ditu beste batzuec eztratzen dituela aguertu bear diran circunstancia edo lagungarriac. Aide batequin gauza loiren bat consentitu duenac, edo eguin nola edo ala, escuz edo obraz, esan bear du aidea zala lenengo edo bigarren gradu; baita gueiennen iritzian irugarren edo laugarren gradu an aidetasuna, ala odolecoa, nola eratsia, edo conatzatzatic datorrena. Eta esatea bicarric eguin duela onelaco edo alaco becatua persona libre edo ezcondu batequin aidetasuna beldurrez gordeta, da gaizqui confesatzea.

Oro bat persona consagratu edo castidadeco votoa daucaarequin consentitu edo eguin dan becatu loa, bear da confesatu personaren circunstanciaz icentatu gabe nor zan. O lujuria! Ez naiz aspertuco esateaz. Eta norafio igaro ceran! Eta nola lurreco Aingueruac ta Castidadea-  
rea

ren. predicatzalleac ere batzuetan eguin dituzun Demonio gaizto ta tentatzalle! Aingueruen oguia jaten dutenac mantenitzen ditu uen ganadu beltzen zucu ta janariaz! Elizaco Sarean arrai mota guciac biltzen dira; Sacerdote onac ta gaiztoac ta ala estadu gucietan. Jangoicoac guero alderatu edo apartatuco ditu Judas ta San Pedro, Saerdote ona ta gaiztoa. Gaiztoai jarraitu cienac conseju, edo gauza gaiztoetan izango dute Infernu guciz andia. Ceruco Aingueru bat dirudianac ere eracasten badi-zute doctrina gaiztoric, esan animaren calteco itzic, edo eman Christoren contraco tentacioric, esan beldur gabe, madaricatu izan didilla. *Anabema sit.* Au da San Pablo ematen duen consejua. Madaricatu alaco doctrina, alaco itza, ta alaco tentacioa; ta igues eguin alaco Aingueru gaiztoagandic. Lucifer Aingueru andien artecoa zan; erorizan bere santidadetic, ta erori eraci cien ambeste Aingueruri. Parcatu etzien Jangoicoac, ta daude Infernuco Leiza sutuan. Ala guertatuco zaie conseju edo tentacio gaiztoai lecu ematen dienai ere, oficioz Ainguerua baño gueiago danaren tentacioetatic igues eguiten ez dutenai.

Confesio garbiac ta osoac escatzen du ez nastatzea becatuac; bear dira aguertu pensamentuzcoac pensamentuzcoac becela, itzezcoac, deseozcoac, tocamentuac, ta obrazcoac bacoitza oquertu gabe. Onetan cembat guezur sartu oi da confesioan? Iduqui ditu batec baccarrean ta bere buruarequin escuca ciquin ta asmo chaar-recoac, artu ditu ala atzeguin lujuriatic sortuac; ta confesatzeco orduan esaten du, Jauna, egon naiz pensamentu gaiztoai lecu ematen. Guezur andia. Pensamentua baño gueiago zan. Pensamentua igarotzen da vlotzean lecu ematen zaionean, ta escuca zatarrac dira beste becatu modua. Ala beste batzuec pensamentu gaizto vorondatez iduquiac gatic esaten dute, igaro citzaizcola bereala, etzuela lecuric eman. O cembat trampa ta guezur? Norc banaan aitatu? Becatu oso ta obrazcoac eguinda, badira esaten dutenac, consentitu edo eguin dioztela tocamentuac. Eman gatic lecu apaca, ta escuca indecentea esaten dutenac, etzituztela nai.

Itz guchitan, estaltzen, edertzen ta apaintzen edo, escusa chaarrequin confesatzen duenac becatu mortal, edo bere circumstancia esan bearrecoren bat, e, niten du sacrilegioa, comulgatuta beste bat; ta egon danac urteren batuetan, edo vicitza gucian agertu gabe confesioetan lotsaz edo beldurrez, eguin bear du dempora guci artaco Confesio general edo guciena Confesore jaquitzen ta aldan onenarequin; ta nolaco damua eraman bear ezlu ambeste sacrilegiotzar eguin dituen animae? Nolaco esguerrac eman vicirie gorde duelaco Jangoicoac, ta ez ill beingoan. Ananias, ta Safira guezurtiac becela? Oec ta Judas dira egemplo ederrac ta Escritura Santeetan artuac, beldurtzeco becatari lotsoor ta confesio osoac eguiten ezdituztenentzac.

Elizaco lenvicio urteetan etzuten cristauac viotz bat baicic. Ondasunac ceuzqueenac eramaten cituzten Apostoluen escuetara, ta oec ematen cizten pobreac ciranai, ta ala etzan gauza banacoric. Ananias ta Safira cerizten ta senar ta emazte ciranac, saldu zuten soro bat, ta alcarrequin itundu ciran ezcutatzeco diru zati bat ta eramateco beste gucia Apostoloai pobreentzat. Joazan bada Ananias San Pedroren aurrera bere diruequin, ta esancion, ona emen saldu degun Soroaren valio gucia. Eranzun cion San Pedroac, Ananias cergatic eman diozu lecu Satanasi, ta guezurra esateco Espiritu Santuari, gorde dezun ezquero echean lur salduaren diru zatia? Ez diozu esan guezurra guizonari, ta bai Espiritu Santuari. Itz oec aituta, erori zan bertan illic Ananias; etorri ciran guizon gazte batzuec, ta eraman zuten corputz illa lurra ematera. Etorri zan gueroago Apostolo onen aurrera Safira, ta etzequien cer guertatu citzaion bere Senarrari, ta jarri zan San Pedroren aurrean. Esan cion Apostolo onec; niri ecarri zatan dirua, da lur salduaren valio gucia? Bai, esancion Safirac. Cergatic batu cerate guezurra esateco Espiritu Santuari? Enzuten det zure senarra enterratzetic datocenen pauso otsa. Au esan da, erori zan bertan illic emacume guezurti ura ere bere Senarra becela. Castigo andi onequin sartu zan beldurra cristau gu-

gucietan, ta icasi zuten nola eguia ezcutatu bear ezdan Sacerdotearen onetan. Ezcutatu zuten zati bat Ananias ta Safirac, esan cien guero guezurra Espiritu Santuari San Pedrori esatean. Noraco dira bada urte osoetan dijoazanac sarri Confesorearen onetara guezur andiangoac esatera, ta andic guero viotz guezurti ta sacrilegio batean artutzera Jesu-Christo? Nolaco penitencia eguin bear ezdute onelaco becatari lotsaric gordetzen ezdienac Jesu-Christo berari? Cer icharon dezaquete confesio oso, general, ta damu andico batequin garbitzen ezpadute anima, ta eraman aurreraoan vicitza guciz on bat? Issillic e onzatzu Christo orain artean castigatu gabe Ananias ta Safiraren becatua baño ascoz andiangoac eguinda. Baña zure zorigaiztocoa Jesusen icharote onequin valiatzen ezpacera, ta aurrera bazoaz confesio ta comunio gaiztoac eguiten. Judasec ere ucatucion bere azmo gaiztoa Christori; ta comulgatu zan guero. Baña cer izaro citzaion? Sartu zan bere corputz ta animan Satanas edo deabrua, ernega eraci cion onec, ta azquenean jo zuen Infernuan, leenago condenatu ta ceudenac sartu etziran toquir. Onela bada izango dute azquen chaarra, ta Infernu guciz andia besteen aldean confesio ta comunio gaiztoac eguinda penitencia eguiazeo gabe eriotzac arrapatzen dituenac. Pensatu ondo. Bitic bat, edo ondo confesata, edo betico condenatu.

## ERACASTE X.

### Gauza beraren gañean.

**I**tz eguin badegu ere cerbait becatu issildu, edo lotsaz estalduen gañean, badago gaia bigarren doctrinaraco.

G. Cer egon diteque ordeaz esanac esanda?

E. Becatuac ondo ez aguertzeco eguiten diran trampa, ta ematen diran aitzquia, esesio, ed escusa vi-



de gabeac, esan bearrean arguiro, becatua guchitu gabe, ta cer ta nola dan? Ona Escritura santaco egemplo eder bat. Josue Israelarren Egerecitnaren Buru zala, galdu zuten oec guda edo batalla bat ascoren eriotzarequin. Galdetu cion Jangoicoari Josuec, cer tan cegoan castigu ura? Eta adiraci cion aguertuco zala noren becatua gatic izandu zan, ta bota citzala suerteac, ta erori citzation Acan ceritzon Soldadu bati. Artu zuen au Josuec, ta esan cion, eman eguiozu gloria Jangoicoari, ta aitor ezazu cer eguin dezun? Bacequian Soldadu errucarri arc gastigo andia izango zuela eguia confesatzen bazuen; ala ere naiago izan zuen vicitza galdu becatu ezcutuan eguina, ta inore munduan etzequiona ucatu baino. Confesatu zuen bada onela. Guerra irabacian guelditu nintzan granazco capa batequin, cillarezco amabi dirurequin, ta urrezco cana batequin, cesiec valio zituen berrogueta amar siclo; azzan monda edo diru modu orduan usatua: nere diru naiac edo goseac gorde eraci ciztan, ta estaldu nuen cillarra lurraren azpian. Confesio ain garbi ta ce au eguinda, etzuen lurreraco barcaciore izan, ta bereala ill zuten arrica. Orara nola confesatu bear dan becatua edergarri gabe; ta nola confesio eguiazcoac ematen dion honra Jangoicoari, ta desonratu gnezurrezcoarsquin. Cer eranzungo die Jangoicoari cristau becatuac esaltzen dituztenac Juicioo eguinean Acan edo Soldadu arc irten ta esaten dienean; nie confesatu nuen aguiria nere becatua eguin nuen malicia guciarequin ta eguin nuen gucia barcacioren esperanza gabe, ta nequiala galduco nuela vicitza becatua aguertuaz. Eta zuec cristau izan ceranoc ucatu dituzute, edo ez esan bear becela lotsu apur bategatic Sacerdote gordeco cizunaren belarrian ta confesanta Jangoicoac barcacioa esquifi, cizuten egun zorionecoetan. Ala lotsatu ta condenatuco du Soldadu arc cristau confesio guezurrezcoa gatic condenatuco dana, ta ezdu iduquico cer eranzun cargu andi oni. Becatu bat dago dio San Agustinec, Jangoicoac berac barcatuco ecin duena; ta becatu au da becatuaren esaltzea, excusa edo defensioa. Ac-

satzen danean bat ezarri dituela madaricacioco itz edo maldicioac, certara dator edertzea esanaz erenenagueraci ciden seme alabac, ecin dezaque vicitzaric inore nere senarrarequin, Santa bati ere galeracico dio paciencia; ordi bat, ondatzalle bat da? Certaco escusatzea esanaz eguinditez calte andiac nere auzocoac, ecin ecusi naute, beguitan artu naute, ta gorroto badiet; da motivo andiac gatic. Paquean utzico balidate, baquean egongo nintzaque, ez diet nie gaizquiric eguin. Au da eguiazco confesio humilla? Zure humiltasun ta pacienciaren paltaz eguin dituzun becatuen culpa egotzi besteai; ta aguertu oen becatuac cereac baino arguitasun guciagorequin? O confesio damugabea, ta mutildua! Certaco da consentitu ezquero accio edo escuco loiac, esatea; Jauna, ni paquean nengoan, ez nien videric eman, ni egongo nintzan gueldi larga balidate. Atoz ona; ta tentacioari lecu emanaz ez dezu becatuac eguin? Cergatic uratu etziñon arpeguico narrua, edo igues eguin ez bereala? Certaco aserre andi batequin esan etziñon gaizqui cere anima lapurrari? O confesio ederqui apainduac! Acusatzen cera; Jauna, emandiet lecu pensamentu gaiztoei, ta accio zatarrai, baña certaco ez esan, au datorrela joaten ceralaco olganza edo pesta lecuetara: lecusten diozula gauza chaar asco, amorio ichu bat artu diozula, aguerzen dituzula becatuen iturri, ta etor videac? Bai berriz. Guezurra aurrera; gorde bearren dana ta utzi circunstancia Confesoreac, zu ondo osatzen jaquin bear dituanac. Certaco Confesore begairatu batec luza-tu dizunean absolviaoa larga artean ocasio gaiztoac, emanartean emiendaren señaleac, edo eguin artean restitucioa, zoaz ernegatzen, gaizqui esaten, ta guero buirtu bearrean beragana ordenac cumplituta, joatea beste Confesore bat engañatzeraz, esaten diozula nai dezuna, ta estalzen diozula beste leenago Confesorearequin guertatu zatzun gucia? Certaco dira asmo galgu oriec? Cergatic ezcutatu becatuac? Oia emen estalgarri asinatzen dituztenac. Beldurtu nintzan confesatzeco, ceren ueste nuen bearco zala joan Erromara edo Inquiciora absolviaoa

izateco. Enzun det noizbait ecin Confesoreac absolvi lezaqueala Bulda santuarequin ere heregiaco becatua, ta neritzon nic neuzcan becatuac cirala heregiacoac. O debruaren asmoac animac atzeratzeco Confesio oso bat eguitetic! Cer ote da zuc heregiaco becatutzat daucazun ori? Ganadu, edo animalia motaren batequin eguinicaco becatu itsusia? Ezda ori heregiaco becatua, ta edocein Confesorec absolutuco zaitu orrelaco becatutic damu oso batequin confesatzen badezu. Ezdago berriz inolaco videz ecergetic absolucioa izateco Erromara, ta Inquisiciora joan bearnic heregiaco becatu eguiazcoan erori bacina ere. Confesoreac berac artuco ditu videac zuc bururic aguertu gabe izan dezazun absolucioa. Heregiaco becatua dago ucatzen ezagueraz ta temaz becela Fedeco articulo, edo Elizaco doctrina erabaquibat. Berriz etortzea gogoracio gaiztoac, duda modnac Fedeco Articulo edo Elizac erabaquita dauzcan doctrina contra, ezda becatua damu ematen bacizun alaco tentacioac etortzea, edo cere vorondatez ta ezagueraz lecuric ematen ezpaciñen. O cembat alditan egon diran asco confesatu ecinda onelaco pensamentu ichusi, becatu etzirñac, beguitanduric acordatzeaz beste gabe becatu heregiacoa eguin zutela!

Bigarren engañoa; Jainca beldurtu nintzan Confesoreac nor baiti esango ciola, edo aurreracoan beguiratuco cidala arpegi astunarequin, ta ecusten nenduen lecu guciñan oroitu edo acordatuco citzuzcola nere becatuac. Confesoreac iñori esan? Ezda erreco balute ere Confesoreac aguertu? Ezda zerorri ere ecer aitatu premia, ta zure nai oso edo licencia gabe. Urte ascotan izan nai Confesore, ames asco eguin ditut milla eraqueriatan, ta esaten dizut eguia, inoiz amesic eguin ez dedala iñoren becatuarequin. O Jangoicoaren Providencia miragarria! Ezdunai amasetan ere ecer gogoratztea. Confesoreai enzün dituzten becatuac. Confesore izan diran ascoe galdudute burua, edo zoratu zate. Oec esan oi dituzte milla gauza igaro; ordea ez da inoiz ecusi onelacoac ere aitatztea confesioco gauzaric, ta gende gaiztoren bat-

zuec

zuec noiz bait cerbait aitatu badie tentatzeco, aserratu oi zaie zorota guzti. Enzun dezaquezu guciago? Bai. Izandira munduan Sacerdote Confesoreac Judas bera baño gaiztoagoac, izan diran heregiac eracatsi ta herege ascoren buru izan diranac, ta Confesorearen contra asco esan ta escriptu dutenac Lutero batec becela. Guclaz ere ezdute inoiz aguertu confesioan aiturico gauzaric; ez beldurrez, ta escrupuloz, ta bai Jangoicoac bere providencia miragarriaz aztueracitzen dielaco ecer esatea. Eta cristau eroa, beldurtuco cera Confesoreac ecer esan ezdezan? Uste dezu egongo dala zure becatuac buruan darabiltzala, ta eguingo dizula arpeguiera astuna? Nai dezu egemplo eder bat?

Cebillela San Luis Beltran misioac eguiten elduscitaion bein guizonbat confesatzera: baña au cegoan bealaunac icara eguiten ciela, ta icerdi otz bat corputzean irtenda bere burua cecusalaco Santu andi baten onetan, ta bere anima becatu itsusiz bateric. Igarri cion Santuac bere beldurra. Asi citzaion galdetzen becatuac amorio ta samurtasunic andienarequin. Esaten zuenean becatu itsusi bat esaten cion ecertan guelditu gabe, aurrera, ederqui explicatzen cera. Onela esaten cituen animo andi batequin guciac beldurra igarota, ta esanago, ta arpegi alegreaco Santuac, ceriozala pocezo negar malcoac guizon gaiso aren buru gañera; ta emancion penitencia usate zuen baño arriñagoa esaten ciola; nere Semea, zure becatu andien penitencia nere contura artzen det, nic eguingo det zure ordeaz beste gucia. Guizon gaisoac ito bear zuen negarrez bere becatua damuz, ta esan cion Confesore Santu andi ari Aita, beste becatu guciac ere enzün dizquidaz emetasun, edo paciencia andi batequin; enzün bear dit bada confesatzen nago ala etorri zatan gogoracio gaizto bat ere. Icusi dedanean berorren biguntasuna nere becatu andiac enzuteco, etorri zat gogoraczdala berori izango esaten duten becein Santua, berorec ere noiz edo berriz eguin izan dituela nere moduco becaturen batzuec; ceren nola artuco nenduen ala ez izaitera ambeste amorequin? Nola icaratu ta aguiraca ito

ez

ez ni becelaco gaizto bat? Ai nere Seme viotzecoa, esan cion guchi gorabera Santuac; Jangoicoari esquerrac, ezdet orrelaco gauza gaiztoric eguin: gaztechoa nintzala mundua ezagutu baño leenago deitu nenduen erreligiora ta gorde nau bere misericordiaz becatu loietatic. Ordea cer nai cenuen? Ceruco Aingueru Santu ta ni baño garbiagoac alegrazcen badira Jesu-Christoc dionaz becatari baten biurrera edo conversio eguiatzcoaz, nola ni gozatuco ez naiz ecusi ezquero onelaco damuarequin Confesio general edo oso bat eguiten? Nola nic zure malcoac bilduco ezditut equintzeco Jangoicoari, cesiec ateratzen dituen zure viotzetic? Animaco Medico eguin banau Christoc, nola poztuco ez naiz zu osatuta ecustean? Eguin banau Aita animacoa: zuc esan dezun becela, nola consolatu ez nere Seme espiritucoa eguiten danaren osasun ta vicitza berriarequin! Non arquite nezaque nic bazcari gozoagoric! O nere Semea; Iraun zazu bada emen artu dituzun gogo santuetan. Salvatzen baguera bioc cantuoco diozcaguz Ceruan alcarrequin Jaunari, zuc, ichoran cizulaco penitencia eguiteco, ta nic bidaldu zaituelaco nigana Christoren pasioco frutua zure animan irraasteco. Ala eguin zuen guizon arc aurreracoan, ta arquite zuen Ceruraco ate idiqua. O cristau beldur icaraz zaudena aguertzeco cere becatu urte ascotacoac, cergatic etzoaz billatzera Confesoreric virtutetarena? Dezu premia urte csoetaco edo vicitza gucico confesio general bat eguiteco? Ez izutu becatuari betico agur bat eguin nai badiozu, ta larga nai badi tuzu becatara eramian zaituzten ocasioa andi ta ezagun guciac. Cer atera dezu becatuco atseguin ustel ta zatarretan animaco quezca ta arantzac baicic? Jangoicoaren contra zabiltzala, nola arquite benetaco paquea? Nolaco poza izango ezda berriez zurea, becatuen carga astuna botata, bazoaz Jesusen besoetara Magdalena bat eguific?

G. *Ab Fauna esan dute batzuec, ori erraz esaten da; baño ezdu inorc enzun nere becatuac becein itsusiric Ai esanda baneuzca; eta nola aurreracoan eguingo nuquean vicitza chit on bat. Baña dauzcadaz becatu bi edo iru chit jar-*

*jarregarri edo lotsagarriac; besteac esango nituzque errazago, aiec esanda baneuzca.*

B. Ai cristau eroa! eta nola castigatzen zaituen deabruac. Nai dezu betico condenatu? Ori ez Juuna. Uste dezu salbatu cindezeala aguertu gabe? Ez Juuna: ori tedeco gauza da. Deritzazu gaur ecin dezula eguingo dezula guero errazago? Ala uste det. Etorrico da misio renbat, arquiteco det noiz edo noiz Confesore ez ezagun bat, ta erraz esango diozcadala deritzat. Baña nic esaten dizut deabruaren asmoac dirala oriec. Atoz ona; eta badaquizu icharongo dizula Jangoicoac misio berri bat etorri artean? Dezu lurrean egun seguru bat? Eta Jangoicoac zuri dempora luzatzeco da vitartean confesio ta comunio gaiztoac eguitea vide, edo merecimentu ona? Baña etorri didilla misio, etorri Confesore ez ezagunac; uste dezu esango diozcazuela becatu guciac ecer gorde gabe? Etzaituela icara berri batec artuco, itoeracico dizuna viotzaren ondoan cere becatua? Ona egemplo icaratzecoa, ta sañi esan badaere Eracastegui edo Pulpito santuetatic, beti izan dana frutu andiaz. Emacume bat arquitezen zan urte csoetan lotsaz bere becatuac confesatu ecinda Confesore e agunic etzeducalaco aitzagui edo estalquiaz. Ceraman vicitza guciz estu bat, jaten zuenac ere onic eguiten etziola. Ai esanda baneuzca cion, nere becatu guciac! Eta nola eramango nuquean aurreracoan vicitza guciz on bat! Ai Jangoicoac ecarrico bali Confesore campoco, ez ezagun ta jaquitun bat! Orra non elduciran erri artara igarovidez Misionari bi. Poztu zan icusi cituenean, ta joan zan Elizara urrengo goicean icharotera Sacerdote campoco aiei. Sartu ciran oec Elizan ineza esateco. Emacume gaiso ura urreratu citzaion Misionista batari, ta escatu cion confesa eezala. Bai ta pocic, eranzun cion Jangoicoaren ministro anima billa cebillen arc. Asi zan Confesioa, ta vitartean cegoan beste Misionista bere laguna Eliz baxter baten oracioan, ta ecusi zuen onec, nala Zapo errescada batec procesioan becela irteten zuen Elizatic campora. Au cer da? cion beregan. Nondic dator zapo belz oiec? Begui animacoa-

quin jarraituric, ecusi zuen nola irtetzen zuten emacume confesatzen cegoanaren aotic. Icara santu batequin cegoala erreparatu zuen, nola emacume aren ezurri an cebillen Zapo chit andibat, irten nai ta irten ecinic, pelea baten becela; baña bere viotzeco damu andi batequin ecusi zuen, nola animalia edo piztza zatarra sartu citzaion sabelera irten gabe. Bereala Zapoen Proceso irten zuen gucia buirtu zaulengo videtic, ta guci guciac sartu ciran lengo toquirá, edo emacumecaren barrunbera. Jaiqui zan Confesiotic emacumea, bai ta Confesoreare, ta mesa eman zutenean, esan cion bere lagun Confesoreari beste Misionistac; au ta au ecusi det puntuan confesatu dezua emacumea confesatzen cegoan arcan; ta beldar naiz lotsa andiren bat ematen cion becaturen bat estaldu dizula. Confesoreac billatu zuen andra ura Elizan; ordea etzuen arquite joan zala Echera. Jangoicoari gracia emanda meza ondoan, esan cien alcarri, goacen emacumecaren echera galdu ezdidin bere anima gaisoa; igo zuten gora, baña arquite zuten illic. Icaratu ciran len igaro az, ta orduan aurean ecusten ceudenaz. Jarri ciran oracioan escatzeco Jangoicoari igaro anaren arguia: ta orra non piztu citzaion, edo aguertu Infernutic emacume illaren anima echura guciz ieara jarrian sugue ichusi ta izugarri batec beti zauritzen ciola viotza, ta beste gucia suz inguraturic. Guelditu ciran Jaunaren seruitzari biac conorte, edo cenzugabe becela beldurraren belducrez, ta esan cien emacume condenatu aren animac, Jangoicoaren Ministroac, anima zaitzete ezutera nie esango dizudena; jaquin bear dezute, nola egon nintzan ni urte osoetan confesio onic eguin gabe ezcutatzen nituela gazte eguactan eguin nituen becatu batzuec, ta oen artean bat guciz ichusitzat neducana. Deabruac engaiatzan nenduan siniseraciric largatzeco confesioan aguertzea bacetu aiec beste dempora bateraco; Confesore ezagunari ecin alaco gauza ichusiric esan citequeala; etorrico zala noiz edo noiz campoco ez ezagunen bat, ta, ta alaco bati esatea zala guciz erraza. Ona non Jangoicoac bidaltuta, escusaric izan ez nezan, etorri zina-

ten zuec erri onetara. Asi nintzan confesatzen; esan nintzen bat ez ta beste guciac, ta bat ura esateco sarri abiatu nintzan, baña sartzen citzaitan icara chit andi bat, ta azquenean gorde nizun aguertu gabe. Arc orain zaugatic oracio alperric eguin, galdua naiz betico, ez gucian nere azquena, ta predica ezazute mundu goicoaren Justiciac, ceñec ébaqui ciran nere vicitza beincatuac osoro.

O cristau ero, ta deabruac emacume ura becela engaiaturic zauzcana, ceren zai zaude? Ecin aguertu dedala becatu guciagorequin anima cargatuta? Confesio ta comunio gaiztoaquin gogortuco zatzu viotza, gueitu lotzu becatuen neurria, largaco podere gueiágo, beteco decelaco deitzeac, ta joango dizu Jangoicoaren len be-Infernuc Cura Luciferren onetara, esaten dizu San Vicente Ferrerac, non ez dezun ecer esan gabe largaco, ta emango dizu inois acabatuco ezdan Penitencia.

Becatu icaragarriac dira, diozu, ta ecin aoran artungoicoaren contra? Madaricatu dezu bere icen santua? Arduac illzuelaco? Cer eguin dezu bada? Poztu cera Jugetsaia, edo aur bateatu jabea dezu bada? Ill dezu ceuce igarri, lezaquean eguin dezu becatua estaltzerren? Norc man dezu hostia consagrata echera, ta eman chacurrari, Eguin dezu deabruarequin tratua, saldu diozu anima ce-Christo, ta bere jarratzaleai emin guerra? Ofi eguintu guciz andia. Norc eguin du munduan Manases Erecituelaco guciac deadarrez ta negar andiaquin Confesio ezcutucoric etzeguen eguactan. Eta esango dezu guerra

becatu icaragarriac dauzcatzula! Cer ote dira berac? edo escuca ciquin cere buruarequin eguiñac, edo animaliarequin eguindaco becatuac, edo sarri confesoreac enzun dituen, beainzat bai eracurri, becatuac. Aitatu ecin dezula diozu. Ona bada cer eguin bear dezun. Esan Confesoreari, lotsa andia ematen diden becatu bat, bi edo gueiago dauzcat ta inoiz confesatu ezditu danac; ta berorrec lagundu bear dit paciencia andi batequin galdetuaz; ta esan ecin mandamenturen contracoac diran. Ecusico dezu, nola Confesoreac itz au enzunda, animatueo zaituen, ta esaneraci. Pecatu andiagoac eguiten dituzu comunio gaiztoequin zuc esan ecin dituzun besteac baño, bada tratatzen dezu Christoren corputz eder Ceruan, ta hostia santuan dagoana Judiac tratatu zuten baño deshonra gueiagorequin; ta au naidu deabruac zuc becatuac ez aguertuaz. O anima cristaua! Nola iduqui dezaquezu lur-raren gañean paque apur bat, nola farre gozo bat eguin, nola joan lotara, conciencia gaizto ta larrituarequin? Cain zorigaiztocoac etzuen egun on bat ecusi bere Anay Abel justoa illzuenetic, beti cebillen iguesi erriric erri mundu guciac ill bear zuelaco beldurrez. Zuc cere beste becatu ecin esan dituzunai gueitzen diozcauz s. cri-legio izugarriac comunio ta confesio gaiztoequin, ta darrazu Christo ber bera cere becatu zatarran ta infornucoac dauden Carcelara. Orra cer eguiten dezun osoro ez aguertzeaz.

Adiezazu egemplo au, ta ecusico dezu nola paqueric arquiteco ecin dezun atera artean cere viotzetic gorderic dauzatzuen becatuac. Zaldun averats batec eguin zuen beia becatu guciac ichusi bat. Danutu citzaion laster; ordea nola cristaua zan, confesatu bear zuen saluatuco bazan. Baña gogoratuaz beste gabe esan bear ciola Confesoreari, irtetzen cion icerdi larri batec. Ernegatu zuen bere buruarequin paqueric arquiteco ecin zuelaco ifion. Enzun zuen noiz bait becatu aztutzen ciranac confesioan, barcatzen cirala, ta etorri citzaion burura aztuco citzaiola berac eguia zuen becatu itsusia irten ezquero munduco erri andiac ecustera, ta aietaco diversio, jolas, edo

olgantza modu gucietacora ematen bazan. Ala eguinzuen; bacebillen erriric erri, jocoric joco ucatzen etziola bere buruari nai alcezaquean jostatu edo diversioric. Ordea gucia alperric; beti arantza viotzean, lo gozoric ez, ta bere becatua beguien aurean beti. Ecusiric etzuela paqueric arquiteco bere asmo eroaquin, esan zuen; bear bada limosna andiac eguinda, gaisoac Hospitaletan ecusi, ta consolatuta, Elizetan ordu luceac igarota, aztuco citzaiola bere becatua, edo barcatuco ciola Jangoicoac confesatu gabe. Baña gueroago talarriago bere viotza: Cer valio dizue, esatencion concienciac, zure Elcoizaco egoera luceac, zure limosna guciac becatu ori animatic bota gabe? Azquenean bere buruari paquea emateco erabaquizuen Judasec beca urcatzea. Bacijoan eguitera; ta orra non arquiteco zuen videan San Ignacio Loiolacoren Seme, edo Jesusen Compañiaco Sacerdote bat. Beren agurrac eguinda, erregutu cion Zaldun triste arc igo cedilla bere Cochera; alacoac izan ciran erreguac, ecen sartu zan Sacerdote Jangoicoac prestatuciona. Jaiqui zan Ostia illun edo eguraldi trumoezcoa; asizan esaten Religiosoura, ecin gauza ona zan conciencia garbia iduquitzea, nola paqueric etzeucan becatuan cegoanac; onaztarri batec, edocein gauzac eraman cezaqueala mundu onetatic, ta confesio eguiazeoac ecarri cezaqueala bacarric zorioneco izatera mundu onetan ere; lorreco ebillera, jolas ta diversio guciac etzearrela animaco descansu, atseren edo paque irauncorriac. Jauna, esancion Zaldun arc; nondic daqui berorrec nire berri inoiz alcar ecusigabe; ta bata besteagandic urruticoac izanda? Non iracurri du nere concienciaco librua? Nic ez det berori ezagutzen enanzun cion Erreligioso arc; baña nola San Ignacio Loiolacoc encargatzen digun beti itseguituco gauza ona, ala irten dide enzua dituenac. Ala bada Sacerdotea ta Confesorea naiz, ta ecertaco nai banau, emen nago prest animaren salvacioan laguntzeco. Confesatu gabe balitza eguingo nuque edocein gauza; baña ez niri aitatu aguertzea nere conciencian gorderic daudenac. Izan didilla ala; esancion Sacerdoteac, baña arzazu librucho au, eguizazti emen-

emendic esamina confesatzeco ezpada ere, dānu andi bat artzeco; ta guero bioc ibillico guera mendi onetan paseo batzuec ematen. Eguin zuen ala; irten zuten alcarquin basora, ta cebiltzala, esancion Sacerdote arc. Etzera zu orren jaquituna animaco gawceetan, ta nic aitatuco dizquituzdaz nolaco becatuac eguin oi dituzten guizon errucariac; mandamentu onen contra eguin oi du-te au ta au, beste onen contra au ta au, baita onelaco ta alaco becatua ere; ta aitaticion Zaldun arc eguin zuen becatua. Ai ene! Orise da nere becatua, esan cion Jesuita anima zale ari. Orrec narabil zoratuta. Ori da nere animaco borrero gogorra; ta ori ecin esanac inori, neraman burua mendi onetan urcatzera baquea billatzerren. Oratu cion laztanga Sacerdote asmo Santuz beteari, et zin citzaion bere ofietan; ta esaten dio confesatu bear nau, enzun bear dit nere Confesio general edo vicitza gucicoa, pocic esango ditut ecusi ezquero idiqui didala nere viotza, atera dedala sugue tormentatzallea. Ala eguin zuen negar andiaquin; eman ciozcan milla esquer Confesore ain onari, biurtu zan bere eshera, ta eguin znen guero vicitza santu bat.

An Christau maite, zaudena becatuac aruertu gabe lotsaren lotsa; ; cereñ zai zaudē? Alperrac dira zure asmoac; ez dezu paqueric arquituco emen lurrean esan artean guciac estalqui gabe. Concienciaco arra vici da, ta vicio da guero ere Infernuan orain iltzen ezbadazu becatuari eriotza emanaz Confesioco ezpada zorrotzarequin. O becatua! Laburra da zure atseguña ta lucea zure miña. //Amon Zaldun zorignitoco ta Daviden Semea gaisoa argalduric dabill Thamar emacune ta aidearen amorez. Milla asmacio eguiten ditu eracarteco becatua, ta indarrez becela irtetzen du bereaz; baña becatu eguin orduco amore loi gucia biurtu citzaion gorrotora, ta egun guchiren buruan ematen dio oriotza dama engañatu zuenaren Anaje Absalonec, ta jetsi zan Infernura becatua- ren arrarequin.

G. *Ab. Fauna esango dit onela confesatu ecinic dagoanen batec; norc arqui lezaquean orain aitatu duen*

(1) 2. Reg. Cap. 18

be-

*becelaco Sacerdote on ta viotz biguñeco bat! Baña ezdet nic arquituco orrelacbric. Nic ez daquit nondic asi ere ambeste urteco confesioa. Itz gogor bat enzuten badet ecingo ditut esan.*

E. Eguia diozu alde batetic; Confesoreric Confesora dijoa desberdintasun edo diferencia andia. Bear dezu autu ta billatu aldezun virtutetsuena ta jaquitunena vide luceac eguin bear badira ere. Enzun ta enzun baño eguiten ezduen Confesoreac, edo presaca ta gogo chaarrarequin dagoanac, nola largaco du paquean naaste andiac dauzcan anima lotsatia? Galdetzen ezpazae ascori, ta icutu zaurian, gueldico dira becatua gaizqui esanda, ta irtengo du anima gaissoac sartu zanean baño quenca gueiagorequin. Artzen ezpadira itz biguñequin, la-guntzen ezpazae ateratzera ezcütuan dagoan sugue oquer-tu ta quiri millatua, ta barrenago sartuco da. Eta cer, itz gogorren batequin icaratzen bada? Cergatic conde-natu zan Inglateraco Erregue baten alaba? Enzun egem-plo au, ceñec eraquin dituen Confesio on asco predica-tu dan aldi ascotan.

Inglateran Fedea osoa cegoan egunetan, izan zuen Erregue batec alaba bat gucia Jangoicoari emana. Bere edertasuna zan inorc ez becelacoa, ta billatzen zuten Er-regue campocoen Semeac escontzaraco Ordea etzien en-zuteric ematen, ta eguin cion Jesu-Christori castidade-co esquintza edo voto osoa. Egun gucia igarotzen zuen edo eracurtzen libru onac, edo oracion, edo gaisoi hospitaletan laguntzen, eta etzegoan Inglaterra gucian beste cer esane ezpada Dama aren limosna, humilitasun, ta virtuteac. Egunoro eracurzen cion Paquetzat ceucan Zalduncho batec libru devocioco bat, ta guero onec muñ eguiten cion escuan aldeguiteco demporan. Deabruac emendic artu zuen Dama santa ura galdutzeco videa. Escuan muñ eguiteco orduan, etorri citzacion guerra lu-juriacoa, etzion lecuric eman egun ascotan; baña oca-sioa gucia quendu etzuelaco, egun batean alacoa izan zan deabruaz eman cion becatu naia, ezen eguin zuen Zalduncho gaste arequin escuca edo tocamentu itsusi bat.

Las-

Laster igaro zan atseguin loia ; baña ez beingoan concienziaco arra. Damutu citzaion bereala ; chiquitzen zuen negarrez bere burua ; deabruac ematen cion ernegacio-co guerra. Cer eguin dezu? Erregue andi baten alabac eguingo zuen gauza ain ichusia bere servitzari batequin? Nora dira zure limosnac, zure oracio, penitencia, ta obra on guciac! Ah traidorea! Zuc eguin cision Christori Castidadeco promesa, edo esquintza beticoa. Galdu dituzu ambeste ezcontza eder, gordetzearren, ta orais erori cera becatu itsusian. Ala cerabilen deabruac desesperacioco videan. Guclaz ere atera zuen contu, obe zuela mundu onetan lotsa apur bat igaro ta confesatu zucn, ta ez guero Infernuan aguertu. Joan zan negar andiequin bere Confesorearen onietara, ta esan cion, Jauna erori naiz tocamentu ichusi baten nere servitzari gatzcho batequin. Confesore cenzu guchicoac esaten dio, Cer? Berori erori becatu ain ichusian? Erregue baten alaba, ta ambeste urtean santa bat becela vici ezquero? Cer dio? Eguia da? Alaco moduz icaratu zuen ce mai edo aguiraca vidgabeco arc, ecen esacion edertuaz; pensamentu naiz an edo eonsentitu bat izan zan, ez guiago. Eta cer? esan cion berriz Confesore char arc; guchi da pensamentu loi bati lecu ematea alaco vittutean vici izan danarentzat? Nora dira berorren limosnac? Nora penitencia ta ambeste obra on? Beldurrago eguin zan Damu gaisso ura, ta esan cion Confesoreari, Jauna, ecin esanezaque lecuric eman niola gogoracio loi ari. Onela galdu zuen Confesio guztia, becatua guchituaz, ta azque-nean ecerecera jo eraciaz lenengoan ondo confesatu zuena. Absolvitu zuen Confesoreac, comulgatu zan, ta gueitu cituen becatu sacrilegio andico bi? bere tocamentu ichusiaren gañean. Gueroago ta lotsaago ta artuzuen eriotzac conciencia garbitu gabe. Pobre guciac negar eguin zuten bere eriotzan, Inglaterra gucian etzan enzuten ezpada ill da gure Erregueren alaba santachoa; ta uste zutenean eguingo zuela mirari andiren bat, besteric guertatu zan. Aguertu citzaion anima Santa bere ezagun datti gucia suz inguraturic, ta esan cion nola ta cergatic

condenatu zan. Baña ò Confesore gogor astun, ta itz garratzaquin videan eman ciona issiltzeco becatua, ta nolaco contua eman bearco dion Jangoicoari! Billa ezazu bada cristau lotsaatia, ez Confesore lasai, mundu zale, ta nola alacoa, baicic anima zale, oracio zale, libruzale, ta Jangoicoaren urreco bat. Onelacoac gatic uste oidute cristau lasaiac, estuac dirala; baña oec dira biguñenac ta animac gueien maite dituztenac. Certan dago biguntasuna? Ematean bereala absolucioa cristauaren anima prestatu gabe? Itz eguitean becatariari becatua ezagutuco ez duen moduan? Largatzean ocasioco videetan ardura gabe? Emplastu arin eta azalecoequin osatu nai izatean barren barreneco gaitza gaissoari contentu ematerren? Ori litzaque gogortasunic andiena, animaco osasuna ez billatzea. Ecusten bazaitu Confesore Jangoico zale batec eldutzen cerala becatuen damuz ta on izateco gogo sendoequin, nolaco poza artuco ez du zuri erasotzeco becatuic itsusienac? Nolaco poza artuco ezdu Jangoicoac bialtzen zaituelaco osatu zaitzan ardo ta olioazco unguentu edo balsamo biguñarequin? Cembat atseguin artuco ez du anima baten salvacioraco vitarteco edo instrumentutzat artu duelaco? Ezdiozu enzungo esaten Fariseo gaiztoac becela, *recedé ame*, quenduzaitte emendic, zoaz nai dezun lecura, ta bai Jesu-Christorequin, atozte nigana becatuen carga andiarequin macurturic zaudenac, ta carga ori quendu nai dezutenac, nic arindu, nic consolatu, nic lagunduco dizuet.

Badaquizu cerc mintzen duen Confesore jaquitun ta anima zale bat? Ecusteac becatuaren ardura ta damu gabe datocela confesatzen asco, larga nai ez dituztela becatuen ocasio andi ta ezagunac, ondutzeco gogoric eracusten ez dutela, restitucioac eguin nai ezac, artu nai ez izateac osagarriric. Oequin ere peleatzen dira amorezco itzaquin ezagueracitzeco beren animetaco peligro andia, ta luzatzen badie noiz edo berriz absolucioa izaten da amorez, ta presta ditecen becatuen damua Jangoicoari escatzera. Baña topatzen dituztenean viotz bigunduac, ondu nai dutenac ocasioac larga ta, prest daudenac osagar-

ri edo erremedioac artzeeco, negar eguiten dute pozaren pozez, artzen die penitenteai amorio garbi ta Ceruco bat beren animaco umeai becela, eguiten dute oracio oen salvacioa gatic. Ez dira falta non, edo non, errian edo auzocoan onelaco ministro celo andicoac, ta billatu onelaco bat viotz gucia aguertzeco ecer estaldu gabe. Baña lotsa ta beldurrac cer asmatzen ez du?

Badira beste batzuec leenago ezcutatu duten becatua aguertzera animatzen diranac, baña ez esatera lotsaz gordeta iduqui dutela ambeste confesiotan. Acusatzen naiz Jauna chiquichoa nintzala eguin nuela laguncho batequin onelaco edo bestelaco loiqueria bat, bi edo gueiago, ta gogoratu zat confesatu ezdedala, aztu citzala-co. Guezurra diozu. Etsizatzun aaztu, sarri gogora etorri zatzu sermoietan, ta beste ordu ascotan; iduqui dezun esanda lotsaz ta beldurrez, ta orain lotsatzen cera berriz esaten, nola lotsaz confesatu gabe gorde dituzun, estaltzen dituzu ori esanda confesio ta comunio gaiztoac, ta cer valio dizu aguertzea lengo becatu confesatu gabeac aguertzen ezpadezu cembat confesio ta comunio eguin dituzun confesatu ecinaz beldurrez? Lenengoan asco zan esatea becatu eguiñac; baña larga duenac confesioan lotsaz aguertu gabe, esan ere bear du arguiro, estalqui ta gira bira gabe becatua gogoan ceducala eguin dituen confesio ta comunio chaarrac. Gauza bat da aztutzea, ta beste bat lotsaz ecin esanic gordetzea. Aztu utsa esan bear da aztu utsa becela, ta lotsaz confesatu ezdana, izan dan becela. Orra len esan nuena, nola gueroago ta gaitzago dan becatuac confesatzea, guero esan bear diralaco confesio ta comunio gaizqui eguiñac ere.

Orain lotsa andiarequin arquitzen naiz; dio beste batec, baña condenatzeco beldurrac confesatu eracico dizquidaz guciac eriotzaco peligran. Uste det emango didala Jangoicoac asti ta lecu; deituco diot Confesore on bati, ta confesio general batequin garbituco det nere anima. O deabruaren gogoracio gaiztoa! Nondic daquizu emango dizula Jangoicoac epe galanta ta astia? Iltzen ezdira asco beingo batean ecertaco astiric ezduela? Onela iltzen ez-

di-

diranac ere, cembati burua galdutzen zaie ta ecusten dira arrazoi argui gabe? Ezdet ori nai: demagun ezague-  
ra osoarequin zaudela: baña non iduquico dezun burua conciencia ondo esaminatzeco urte ascotaco confesio ta vicitzaren gañean? Gaitz gogorrac, buruco miñac, calentura erregarriac, beldurrac, aietan dabiltzan gendeac largaco diute ondo confesatzen, ta matasa guciac baño naastuago iduquico dezun conciencia ariltzen, edo garbitzen. Erraz izango da arpeguiz arpegui esatea Confesoreari ambestē becatu, len mantillapean ta sareta batetic esan ecinda egon baciñan? O ichutasuna! Beldurrac esan eracico dizquit, diozu bai, ta beldur utseco confesioa nolacoa da? Ah eguia esan nai balute eriotzaco peligran confesatu ta guero osatu diranac, ta nola esango luqueen batzuec gorde cituztela becatuac lotsaz, ta infernura bear zutela osatu expalitu Jangoicoac!

Enzun ezazute San Antonino Florenciacoac contatzen duen guertaera edo egemplo beldurgarri au. Dama ondo jaiobatec eguin zuen bere buruarequin, ta bacar bacar-ric escuca loi edo desonesto bat; atseguin gaiztoaren ondoren sartu citzaion eguin zuelaco damu ta pena andia, cerring etzan beste batzuec becelaco bein, birritan, ta gueiagoan eguinda ere vici diranac damu gabe. Chiquitzen zuen negarrez bere burua. Ai ene! esaten cion concien-  
ciaz Aingueru onac, becatu mortalean zaudē; iltzen bacerā condenatua cera. Zoaz Confesore bategana ta aguertu ezazu eguin dezuna estalqui gabe. Bada edo confesatu, edo condenatu. Gueroago ta gaitzago izango dezun. Baña deabruac ematen ciozcan contraco gogoracioac; nola len ain garbia ta modestia izanic esango diozu Confesoreari gauza ain itsusi bat? Cer esango dizu? Utzi ezazu beste era obeagoren bateraco. Ala engañatu zuen, ta confesatu zan ecer aguertu gabe, baita comulgatue-re. Gueroago ta gaitzago eguiten citzaion ta bere animaco quezca, beldur ta larritasunac igaro ecinic, beti triste cebilleja, erabaqui zuen sartzea monja. Etsegoan Conventu gucian bat berac beste penitencia ta oracio eguiten zuenic, ta zan guciē egemploa. Baña suguea III



gabe; confesatzen ta comulgatzen zan munduan eguin zuan becatua aguertu gabe. Jangoicoac penitencia ta oracioco demporetan ematen ciozcan inspiracio edo argui andiac : Ah gaissoa! Cer valio dizue ambeste penitenciac zure humiltasunaren paltaz aguertzen ezpadezu becatua ta eguiten dituzua sacrilegioac? Armiarma baten bearra, neque alperra, arbola igortuari simacerra, edo ongarria botatzea. Confesaezazuz. Baña beldurrac etzion largatzen, ta aurrera penitencia ta confesio gaiztoac. Alaco baten eguiten dute Conventuco Nagusi. Orduan gaitzago ceritzon confesatzea virtute andiaren usaia zabaldu zualaco. Bete zuen becatucn neurria, eldu citzaion azqueneco gaitza. An ere etzion largatzen conciencia edo Aingueru onac; deitucion Confesoreari, ta azqueñean beldurraren beldurrac ateracion itz labur au, Jauna, escrupulo bat etorri zat. Baña nola Confesoreac ceducan Santatzat esancion oriec dira deabruaren tentacioac, bota escrupulo oriec; ala gueiago esan gabe confesatu ta comulgatuzan, artuere zuen Oliacio edo Uncio Santua, ta illzan monjaz inguraturic negarrez ceudela alaco Abadesa santa bat galdu bear zutelaco. Ilzan gau artan cegoan bacarric Coruan beste monja virtute andico bat encomendatzen bere Abadesa defuntaren anima. Orra non lamparaco arguiac eusi zuen queriza belz ta izugarri bat; icaratu zan gucia, baña Jangoicoaren graciaz sendotuta, galdetu cion; Cer cera, ta cer bear dezu? Ai ene! Eranzuncion ichura bezzac, ni naiz zuen Abadesa gaur ill ta Infernuañ nagoana; ez nigatic oracioric eguin; Jangoicoaren Justiciac arrazoi andiarequin condenatu nau; sarri vicitzan deitu cidalaco confesatzera gaztechoa nintzala munduan eguiñ nuen tocamentu edo escuce loi bat. Inoiz ezdet confesatu, alperrac izan dira nere penitencia, ta oracio luceac; ni izan nindequean Santa andi bat becatua eguin, ondo confesatu, ta guero eguin ditudan obra onaquin. Ordea galdua naiz galdua naiz, nere honra, gueiagoan iduqui nuelaco, nere anima baño.

O egemplo arriac biguntzecoa! Becatu bacar batec galeraci bearra ambeste penitencia! O onra gaiztoa ta cem-

cembat eraman dituzun infernura. Confesatu ecin cituzua munduan issilchoric, dacar beste mundutic Jangoicoaren Justiciac aguertzera becatu guciac ta bere condenacioa beste monja bati, ta onen vitez besteai, ta andic ona publicatu da Pulpito ascotan besteen bildurgarriraco. O cembat erazago izango zuen issilchoric damu andi batequin gordeco cion Confesori bati! Ah Christauac! Bada-go zuen artean inorc onela deabruac engañaturic? Atoz ona esatera eriotzaco orduan aguertuco dituzula ez becatu bacar bat monja arc becela, baita ere lotsa gueit-zeco asco diran becatu izugarriac. O cristau zoratua! Nai dezu anima galdu betico onra apur bategatic? Cer diot? Onra galdutzen dala? Confesoreac mespreciatuco zaituela? Galdu zuen onratic Magdalenac joan zanean Christoren ofietara an negarrez ta ascoren aurrean aguertzera bere vicitza gaiztoa? Galdu? Alabatu ztien Christoc, atera zuen arpeguia gaizqui esaten zutenen artean, ta desonra andiarequin eldu zana biurtu zan Christoc onratuta. Eta nolaco onrarequin zabaltzen da bere confesio humill, ta penitencia? Samaritanaren vicitza chaarrac, non ecartzen dio desonratic penitencia eguin ezquero? Ah Christauac! Nic esaten dizue, confesio garbi eguiaczo ta oso batec laguntzen dionean becatuen damu, ta ondu nai cindoac, onratzen duela anima Confesorearen beguietan ere. Eta cembat gueiago Aingueruen beguietan ta Jangoicoaren aurrean? Nola onratu etzuen, Evangelioac con-ratzen duen Aitac, Seme galdu ta echera biurtu citziona? Nolaco ereztua ta soñoco ederrequin apaindu etzuen bere ofietan becatuac aguertu ta negar andiequin barcacioa escatucionean? Bai Jauna, cion David Erregue penitenteac Confesio ta edertasuna alcarrequin janci edo batu dituzu. *Confesionen et decoren induisti.* Ezda Christoren aoco itza Aingueruac jai andia celebratzen dutela Ceruan becatari baten eguiaczo buirra edo conversioan? Orra nola onratuac diran Ceruan ere ondo confesatzen diranac.

Orie orrela dira, dio nore edo nore; baña ez da erraz aguertzen urte ascotaco becatu issilduac, ta eguin di-

dira confesio-comunio gaiztoac. Eta errazago da emen lurrean cramatea vicitza larri ta quezcaz bete bat, ló goricere ecin eguin dala? Cembatec amesetan ere igarotzen dituzte icara andiac! Ona batequin neuri guertatu zatana, ta inorc ezagutu ecin dezaqueana. Eguin zuen Misionista batequin Confesio generala, baña larga cion becatu itsusi animaliaquin eguiña, ez aaztuta, bai beldurrez. Gueroago gau baten izan zuen ames beldurgarri bat chacur andi baten ichuran galdetzen ciola, atoz ona, cer jaten dezu? Cerequin mantenitzen cera? Icara gorrian cegoan guizon tristea. Gu mantenitzen guera bada Infernua piztia chaarren araguiarequin. Etorri citzaion gogora nola gaizqui confesatu zan, nola estaldu zuen lotsaz becatu itsusi bat. Esnaatu zan ta icerdi larri batequin. Luce iritzi citzaion gauari confesatzera joateco; jaiqui zan bereala ta eguna baño leenago irten zuen nere billa; etzirudian zana beldurraren beldurrez, ez aguertzeco becatua, cerren erraz confesatu cituen utzi zuena ta beste guciac; baña bai condenacioco beldurrez. Lagundu nion amorez ta aleguinez, ta damu andi baten señaleaquin eguin zuen nere iritzian Confesio eder, ta oso bat. Jangoicoac emancion guizon gaiso oni mirarizco gracia bat, deitu cion ames onean, ta aguiiri izan zuen cerucoa zala dei ura, ecusi ezquero cein erraz aguertu cituen bere becatu len esanac ta ez esanac.

Ah cristaua! Zuc lo eguiten dezu ames beldurgarri gabe confesio ta comunio gaiztoac eguiten dituzula? Parre eguiten dezu, olgatu galanqui concienciaco quezca gabe? Cer esan zure viciera modu orren gañean? Canguenatuta dagoala zure viotza misic artzen ezduenean. Betico eriotza urrean dezula, Jangoicoac larga becela zaituela. Baña etorrico da ordua, ceñean iratzartuco ceran lo zorro gogor orretatic. Zuc estaltzen dituzu, Confesoreari aguertu gabe, daquizquitzun becatuac; ta nic, dio Jangoicoac Natan Profeta santuareu aoz, nic aguertuco dizquituzdaz, ta arpegiuan eman; nic eracutsico diet gende guciei zure billostasuna, ta desonratuco zaitut reinuen artean. Bai, dio San Gregorioc, becatuac ifz

egui-

eguiten dute. Zure becatuic ezcutuenac, gordeenac, ta lotsagarrienac itz eguingo dute juicioo egunean; esango dute. Zuc eguiñac guera. Badira Saul Erreguearen guisaco asco largatzen dutenac illgabe Agag Errege guicena, gordetzen dituztenac gauzaric valiosoenac, ta bacarric ill ta erre guchi valio duten gauzac? Cer esan nai det? Badirala confesatzen dituztenac beste becatu chiquiagoc, ta ez becatu guizen, lodi lodi ta itsusien batzuec, guciac illbearrean confesioco ezpataz. Ordea esango die eriotzaco esturan Sauli becela ecusten dituztenean oe aurren ichura belzac, *Amalecites ego sum*. Ni naiz zuc ill bear cenduena. Ecusico du anima lurren ichura, ta esango dio, ni naiz araco abere edo guiberri becuraco billatu ninduzuna. Ecusico ditu aurchoc, ta esango die, gu guera becatu eguitera eraman guinduzunac. An ecusico dute batzuec aurchoc chiqui becatua estaldutzeagatic bateo gabe ta amaren sabelean galduac. Eta nolaco ernegacioa, nolaco desesperacioa ecustean arguiro eriotzaco candelan becatu ondo confesatu gabcac? Illo zera azquenean, ta joan bearco dezu Jesu-Christoren Tribunalera Ainguerua, deabrua, ta zure conciencia testigo dituzula vicitza gucioco Confesio generala eguitera. Nola irtingo dezu deabruac ta concienciac acusatzen zaituztenean, nola onelaco edo alaco becatua confesatu gabe larga cenuen lotsaz ta beldurrez, onra apur bategatic? Noraco cera Coristoren onetatic? Nora? O sailto icaragarria! Infernuc Luciferren onetara. Cer eguingo dezu an? Usatu ta estallu becatuic Confesoreari becela? Ederra, guchitu, ta escusatu? Ez. Esango dituzu nai ta ez damu gorria andi ta chiquiac desesperacioco amorruequin; emango dizute comunio orde dra- goi en beazuna, ta azquenean beti beti irausgo duen penitencia. Ez nau ni gaurco sermoian ecertan artutzen dioe batzuec: nic ezdet confesatu gabe ecer larga daquidala ta lotsaz. Ero garbiac dira provecho gabeco ta calte andico confesioac eguiten dituztenac. Ez naiz ni guzurrac esatera joan confesorearen onetara? Ez? Atoz ona vicio gaiztoetan sarturic egon cerana, confesiotic becatu-

ra,

ra, becatutic confesiora zabilzana, ez diozu esan Confesoreari ~~de~~ dezula proposito eguiazco ta sendoa ez guezagoren guezago becatutic eguiteco? Ori bai Jauna. Bada cein guezur andiagoric! Zu biurtzen cera erraz becatu- ra, zure propositoa izan da guezurrezcoa, zure confesioac gaiztoac ecer confesatu ezpacendu becela. Eta vici- cera guci<sup>z</sup> estaltzen dituenac baño condenacioco peligro andiagoan confianza vide gabearequin vici ceralaco. O nola egunen baten aguertuco dan viotza becatuarequin cenducala damu det Jauna guezurrez esaten cenduanean! Ai nere cristauac! Eta nola deabruac arrapatzen dituen asco confesio char ascoren videz. Mundua beti bat beca- tu ta guci; aurrera lujuriac, aurrera irabazte videga- beac, aurrera becatu modu guciac, ta aurrera confesio gaizto ta frutu gabec. Confesatu nai ezpadituzue zucen, utzi nai ezpadituzue benetan becatuco ocasio ezagunac, barcatu Jesu-Christori esaten dizue Elizáco Santu andi ba- tec. *Parce in te Christo*. Certaco zoazte laztan palso bat ematera Judasec becela? Certaco jan nai dezute Jangoi- coaren juicioa comunio gaiztoetan? Certaco eldu sillatze- ra becela zuen condenacioa Christoren odolarequin. Ez dira asco ta guezegui beste becatuac? Etorrico cerate per- seguitzera Jesu-Christo berbera sacrilegio andien videz? Bada bitic bat, edo ondo confesatu, edo betico condena- tu. Cer nai dezute? Pensatu ondo.

## ERACASTE XI.

*Nola Confesioari lagundu bear dion satis-  
cio edo ordea biurtzeac.*

Facite fructus dignos penitentiae. Luc. 3.

**I**cusi degu igaro diran doctriaetan nola confesio onac  
esat.

escatzen dituan viotzeco Contricío edo damua, ta aoz becatuac aguertzea. Baña bear da Jangoicoaren Justiciari ordaña edo satisfacioa ematea penitenciareren videz; au da espirituco penitenciarari lagundu bear diola azaleco edo aguirico penitenciac.

G. *Cer penitencia modu da Sacramentu Confesioa-  
ri lagundu bear diona?*

E. Da Confesoreac, animaco Juezac becela, ema- ten diona.

G. *Izan liteque confesioa ona satisfacio, edo Confesoreac emandaco penitencia eguin ezagatic.*

E. Ecin izango da ona viotzeco satisfacio gabe, eda vorondateric ezpadu confesatzen danac cumplitzeco penitencia arrazoiz ematen zaiona; baña izan liteque ona ta valioso obraz ez eguiñagatic. Guerta diteque Confesoreari aztutzea eman bear cion penitencia. Onelaco penitenteac berac gogoraeraci bear dio; baña guerta ere diteque confesatzen dagoana ere ez oroitzea. Alacoan ona da zconfesioa beste gauzaric falta ezpazaio. Bañe ur- rengo biurtzen danean confesatzera, esan ber dio, nola aztu citzaion penitencia ematea, edo aitu etzion berac cer penitencia eman cion. Orobat eriotzaco aldigaizto edo ac- cidente baten ecin penitenciaric cumplitu dezaqueanean, danuaren señaleaquin Confesoreac absolvitzen duanean, izanditeque Confesioa onata valioso penitenciaric cumplitu ezagatic, nola aozco confesio gabe ematen dan abso- lucioa ordu alacoetan, edo confesioa escatu dualaco gais- so edo eri dagoanac, cdo eraman duan vicitza onean ar- quitzen dualaco Confesoreac señale bear duicoa absolucioa emateco. Ala bada ezda bear bearra aozco confesioa, ez- daere obrazco satisfaccioa ecin dan aldietan, ta asco da vorondate, edo viotzeco confesioa edo becatu aguertzea, ta viotzez penitencia artu ta cumplitu nai izatea.

G. *Beraz aidala badu penitenteac penitencia artu, ta cumplitzeco obligacioa?*

E. Bai, ta artu nai ezpadu ez dago prestatua abso- lucioa artutzeco. Ez beldur izan Confesoreac penitencia guezeguiac ezarrico diozcala gaurco egunean penitenciarari,

onco uste izanagatic astuneguiac dirala. Ala gueienez ematen dituzten quejaac guezurrezco ta arrazoi gabeac dira, ta astuneguiac izatea noiz edo berriz guertatzen bada, ecin bereburuz larga lezaquez cumplitu gabe. Alacoan joanditeque beste Confesore jaquin, ta virtetsun bategana, aguertzeco oni guertatzen zaiona. Baña cer guertatzen da batzuetan? Igues e nitea Confesore zucen, jaquitun, ta anima zalecatic, ta billatzea beste nola alaco bat bere erara itz eguingo diona, ta oni nai duana esan, ta guchitu edo quendu eracitzea beste Confesoreac arra oiz emacion peninencia. Ona egemplocho bat. Dia bat confesatzera; Confesore beguirvtuac aztertzen ditu animaco pelgroac, arquitzen du penitente ura dala bulla zalea, danzazalea, sarri dijoala onelaco lecueta; arquitzen du edo ezagutzendu ecin iraungo duala bere argallasunari beguiraturic artu bear duan proposito sendoan aldeguin gabe alaco ocasioetic: bear bada (ta gueienez guertatucaco da gende gazteequin) arquitzen du edo danza beretan, edo danza lecueta, edo joan etorrietan igaro dirala escuca, itz, eta accio desonestoac. Esaten dio Confesoreac nic absoluituco bazaitut, larga bear diezu olgantzta edo pesta ealtegarri oriei; galdu dizue len anima, santa batec ere iraungo ezdu virtutean onelaco lecueta dabilleta; cembat guchiago zuc? Ematen dizut bada penitencia osagarriztat ez joateco dantza naastu ta nescach mutillen artecoetara. Ez det nic zugatic conde-natu nai beguiratun bear diot nic zure animaco salvacioari, ta galeraci bear dizquitudaz salvacioa galtzeco diran ocasio andiac. Cer eranzuten due batzuec? Jauna ez diot penitencia orrelacoric artutzen. Besteac ere badabilta. Cer esango due aldeguiten badet len ain zalea izan naitzan pesta edo olgantzeetic? Zalea izan zera? esaten dio Confesore onac. Ambat gaiztoago. Zuc ez dezu confesora ecarri ondutzeco proposito eguiacoric. Proposito eguiaczoac escatzen du vorondate zoli ta sendo bat ez becatuco ocasio jaquin ta ezagunetan sartutzeco, aldeguiteco becatutic suguearen arpeguitic becala. Christoc dio, beguia atera, ta onia ebaqui bear dala anima galtzeco vi-

de jaquina ematen badigue; au da beguia ta onia baño bearrago bada ere utzi bear da anima ez galtzeagatic. Ez dezu ecusi cere animann cembat peligrotan arquiteceran; cembat escu estutze amorezco danceetan? nolaco itzcho cariñozcoac? Eta cer ecusi dezu cerequin edo bestequin tale edo vide orieran pesta ondoan? Oec ez dira ocasio jaquinac? Cerdio? Ez dira becatu ezagunac? Esango dezu guezur bat zuc nai ezdezula inorc alaco accio chaarric eguitea? Ez diezu arpegui alegrea aguertzen, parrocho eguiten? Cerc zaramaz alaco lecueta benetan nai e padezu inorc alacoric eguitea? Chacur amor-ratoac balebiltza plaza orietan joango cinaque? Ezda oguei escutuco bategatic ere. Au certan dago? Corpuzceco pelgroac beldur gueiago ematean animacoac baño. Eta nori beguiratu bear diozu gueiago, corputzeco vicitzari animacoari baño? Onelaco arrazoiac enzunda mututzen dira; dioe batzuec beren artean, ez nau absoluituco artzen ez badiot penitencia au. Ematen die itza Confesoreari, baño ez cumplitzeco asmoarequin, edo beste Confesore bati danzatzeco licencia escatzeco gogoz. Ateratzen due absolucioa, badijoaz comulgatzera berac daquite nola; diaz guero beste Confesore contu guchico bategana, ta bear bada danza ecuste zale bargana. Oni esaten dio, Confesore batec eragotzi dit penitenciarean bean danzara joatea. Eman beguit berorrec beste penitencia bat, quendu besteac amana Bai esaten dio, zoaz ta ibilli zaite modu onarequin. O Confesore ta Penitente bata bestea galdutzen dezuenc! Sinistu beingoan arrazoi gabe eman ciola penitencia eman ciona lena zoco Confesoreac? Idiqui penitenteari vide ebiltuco becatuco peligroetan? Ez Jaquin Confesore batec eman bear dituala penitencia osacari edo medicinalac; ta quendu besteac ondo emanaz? Ori da animaco Borrero baten officioa eguitea, ta ez medicorena. Cer eguiten du ta eguin bear du Medicoac eririric edo gaisoric dagoan batequin? Galdetzen dio noizcoadan gaitza, certatic etorri citzaion, nola asi zan; ta eragotzen dio gaitzarequin contuac eteraric, jaatea edo edate a onelaco edo alaco gauza; ta ez da medico. ona izan-

go largatzen badio gaissoari eguiten calte eguin dezo-  
quena. Nolacoa izango da bada animaco Osaguilla edo  
medicoa, largatzen badio cristau animan eri ta gaisso da-  
goanari ebilten gaitz eguingo dien lecu ta olgatzetan?  
Eta cer damu darama confesore on ta beguiratuetatic al-  
deguin ta dihoanac penitencia arinac ematen dituztenac-  
gana? Ona cer dion San Bernadino Senacoc, ez dutela  
alacoac becatuaren damu gueiago deabruac basio. *Non  
plus habent contricionis quam diabolus.* Eta salvatuco di-  
ra?

*G. Certaco ordea Confesorearen penitencia confesio  
onarequin barcatzen badira becatuac?*

*G. Certaco?* Jangoicoaren Justiciari biurtzeco beca-  
tuarequin quendu zaion honra; gaisqui eguitia castigat-  
zeco penagarriren batequin; becriz becatuan ez erorte-  
co contu gueiago iduqui dezan becatariac, ta ala confe-  
sioco penitenciac ez dira bacarric eguin daco becatuen cas-  
tigoan, bai ta ere bearragoac berriz becuric ez eguite-  
co. Certaco Guraso onac castigatzen du Seme gaizqui  
eguin duana? Cergatic maisuac bere escolacoac? Ondu  
ditecen, berriz alacoric eguin ez dehen. Nolaco escanda-  
lo ta gaiztaqueriac ecusico liraque errietan Justiciac inor  
castigatuco ezpalu? Cerbada! Jangoicoaren contra jauqui  
danac becatu mortalen batequin, ezdio eman bear sa-  
tisfaccioa? Ez castigatu gaizqui eguitia? Ote dauki be-  
catu mortala cer dan penitenciaric eguin nai ez duanac,  
edo becatu asco ta itsusiatic gatic gauza neque guchicoac  
basio eguin nai ez dituanac. Jangoicoa izanic ain ona ala-  
co moduz aserratzen da becatu mortal baten contra, non  
daducan prestatuta illoiz azquenic izango ezduan Infernu-  
co sua. Eta bere misericordia andiagatic eman digulaco  
epe, ta dempora penitenciaric vitez, izango guera na-  
guiac penitencia eguiten! Berriz nolaco penac dauzca  
Purgatorioan becatu mortal barcatu ta arinacgatic ere?  
Cer dira lurreco penitenciaric gogorrenac Purgatorioco  
tormentuen aldean! Uisa, edo ezti gozoa. Beraz beca-  
tuaren ezaguera guchi du penitencia arin batzuequin pa-  
quetzen danac. Ala bada Confesoreric beguiratuac emate-

ten dituzten penitenciac dira guciz laburrac, ta eguin  
errazac becatua cer dan cerbait ezagutzen dutenezat, ta  
eguiac damuarequin confesatzen diranentzat. Beguira  
dezagun lurreco Justiciarequin igarotzen dana Egui-  
ten du batec lapurreta andi bat, arrapatzen du Alcateac,  
darame Cercelara, ezarten dittez cateac, daude lecu qui-  
ratsu, edo atsituac, ez dute oetzat lasto zati laster us-  
teltzen dana baicic, jan guchi, declaracio astuac, ta az-  
quenean ateratzen due erritic, ta bear bada bidaltzen  
due Gaztelu edo presidio batera, ta nolaco nequeac iga-  
rotzen ez dituzte onelaco lecuetan? Gucciaz ere ezdu  
inore esaten gueiegui castigatu duela, ta bai merecitu  
duala. Eta nolaco penac carcelac, estutasunac eraman oi  
dituzte eriotzaren bat dutanac? Urte osoetan milla pena  
ta naigave, ta guero ateratzen due Urcamendira deshon-  
ra edo lotsaariric andienanarequin. Eta bearrac ez dira one-  
laco castigu gogorrac? Orain bada, lurreco Justiciac be-  
guiratzen die lapurreta ta eriotza eguindaco becatuei gui-  
zonen contracoac diran aldetic: escatuarren barcacioa ne-  
gar andiequin, confesatuarren beren gaizqui eguitia hu-  
miltasunic andienarequin ezda libratzen castigatic. Esan-  
go bacio urcamendira bear duanari barcatzen zaiola eriot-  
za, basia egon bear duela Conventu batetic irten gabe  
amar urtean, eguin bearco dituala egunean eguneango  
baraurrac, jauqui gaverdi gucietan corura Cartujo batec  
becela, artuco luque trucatzez penitencia au? Bai ta es-  
quer andiequin. O cristauac non da gure fede ta arrazo-  
ia? Cer du cer ecusi becatuac guizonen contra dan al-  
detic ipintzen bada berdintza edo comparacioa Jangoico-  
ren contra dan alde? Becatu asco ta itsusiatic eguin di-  
tuztenai, Infernua merce izan dutenai mil bider zoaz esa-  
tera eguin decela urte betean egunoro ordu bete oracio  
astean baraur bi, erabilli araguiaren contra cilicio bat-  
zuec, esango lizuque, il nai dezun, zoratu zatzun. As-  
co dirala berentzat Errosario devocio guchico batzuec,  
altarac visitatzea, edo beste errezo labor batzuec echean  
eguitea. O penitente ederrac! Illois becatu mortalic eguin  
ezpalue ere, ecin penitencia guchiago esca lezaquete. Ala

ez due batere ezagutzen cer dan Jangoicoa ofenditzea becatu mortal batequin. O ichu:mena! O Fedearen illtasuna! Nola lujurioso batec ecico du bere corputz gaitzera macurtua, dio S. Carlos Borromeoc, mancatu gabe modu onean cilicio, baraur; ta disciplinaquin gabe; edo nola edo ala sacrificioren bat eguiten ezpadu? Nola inoren ondasunac vide gaiztoz beretu dituanac, eman Jangoicoari satisfacioa, ta ebaqui anrreraco inclinacio gaiztoa, restitucioac eguiñaz gañetic, ematen ezpadu cer bait limosnaz, ez diot Zaqueo penitenteac beste, baña bai Confesoreac modu onean aguinizen diona bere ondasun edo errentai beguiraturic? Nola Sobrario, edo cristau arro sutsu edo colerara emanbatec eci dezaque bere genio gaiztoa, biraoti, ta gaizqui esalea, oraciora ematen ezpada, ceña dan osagarriric ederrena osatzeco animaco gaitzac? Nola Jangoicoaren gauceetaraco naguia, ta atzeratua izan danac artucodu vicitza berri bat, ta palagatu Jangoicoaren Justicia, ezpadia sarri sermoiac enzutera, mesa nagusi edo bere Eleizacora, Vespera, Errosario ta beste gauza onetara; ta sarriago ezpadia confesioco Sacramentura! Eta cer eguin bear ezdue errietan escandalo edo egemplo gaiztoac eman dituztenac, ta anima ascori eman becaturaco ta Infernuraco videat? Nola onelacoac deseguin escandaloac vicitza santu batequin egemplo onac eman gabe? Gucliaz ere, esango dizue asco dala confesatzeta, ta penitencia ezcutuco ta erraz erraz batzuec eguitea, ta nai due Confesorea ez escura joatea ecertan. Nai dituzte len becela munduco bulla ta olgantzac; len becela jan edanac, len becela corputza eregatu ta gozatu. Cer gueiazo penitencia bear bearrac, Confesoreac herac escusatu ecingo dituanac ere ezpadituzte artu nai!

Ona egemplo batzuec. Izango da guizon bat ardoara emana, sarri moscortu dana, Ardantegui edo Tabernac gueiago, edo beintzat gogo obeaz visitatu dituana. Eleizac baño. Ezagutzen du Confesoreac bear duela eguin premiaz Confesio generala, becatuaren sustraia dagoala Tabernan sartzean bere moduco lagunequin, an berandutu

ta joaten zala echera zabuca, ta Errosario orde daranzala biraoac, ta deadarra emazte, edo Seme alaben contra. Esaten dio Confesoreac Confesio gucia enzunda, zure vicitza, lengoa izango da, irauten badue, ocasioac ta ala ematen dizut penitenciatzat ez Tabernan edateco ofice sartzeta, edango dezuna edatea, edo cere echean, edo beste baten lagun beguiraturic, ta edan aldi, edo goiz, edo arratsalde baten ez igarotzea quartillo batetic, edo gueien guclien quartillo ta erdi ardoac igaroco etzaituan moduan. Esaten badu penitencia gogorra dala, ecin cumplituco dula ez darana danuric, ta ecingo ere du absolutu Confesoreac, cerren ez dion aguintzen, penitencia gabe ere eguin bear duana baicic, au da ez sartzeta becaturaco ocasio jaquifia dagoan lecluan, ta ez edatea baicican edan dezaqueana animaco, corputzeco, ta honraco calte gabe. Bene benetaco penitencia eguin nai balue vicio onetara emanac izan diranac, ez luquee ardoric aon sartu bear, edolaere urez ondo naastu gabe. Turcoai galeraci edo eragotu cien bere Profeta falso Mahomac; ia Tabernac ecusten ezda beren errietan, ta noiz edo berrix jaquiten badie ezcutuan ere edan dutela ardo, banatzen dituzte maquilla colpe andiequin. Eta guri Jangoicoac bacarric eragotzi digu edatea arrazoiaren caltean, ta ez degu bere legue ain bigun au gordeco? Eta cer esango die Turcoac Christau edalai Juicicoco egunean?

Arquituco du Confesoreac bere echean daducala edo errico beste eche baten becatu loiarean ocasio andi ta jaquifia. Adisquidea esango dio, aguintzen dizut cere ocasioa quendu bear dezula, ta bota cere echeac mirabe beclua laguna; au da ematen dizudan penitencia, cumpliazuta atoz guero absolutio esque. Esaten dio besteari, ematen dizut penitenciatzat ez becatuco ocasioa daucazun echean sartzeco, ta inon topatzen badezu becatu lagun ori, ez guelditzeco itzquetan berarequin. Ez due penitencia onelacoa artu nai? Datoz confesatzera damu gabe, ecin absolvi litzaquez Confesoreac, cerren penitenciatzat ematen ezpalie ere, obligatuac daude aguintu diena eguitera; bada aldequin nai ez duenac becatu dezaquean ocasio vo-

rondatezco, ta urrecotic, ez du eraman bear absolucioric, ta ala daduca Eliza Ama Santa erabaquiric.

Elduco zaio beste bat egon dana luzaro gorrotoan, itzic ta agur onic ere eguin nai ezda etsaitzat daucanarequin, auzoai egemplo chaarra ematen diela, alcar visitatzen ez dutela gaissotzean auzoen artean oi dan becela. Esaten dio Confesoreac; barcatzen ez dionac gogo onez etsaiari, edo gorrotoa viotzean gordetzen duanac quendu gabe, ez dacar damuric ta ecin absolucioric izango du paquetu ta escandaloa quendu artean; zoaz bada ta eguizazuz baqueac, itz eguin bear diozu amorez, naiz ceuc ofenditu dezula, nai zeu leenago berac. Ez dezu bera etorri daquizun zai egon bear; zaude obligacioan paqueac eguin ta escandaloa quendutzeco, ta ecingo dezu ori eguin, humillatzen ezpucera orrenbesteraño. Zuc uste dezu ceu cerala ofenditua, arc berriz usteco du bera dala, ta nic diot bioc ofenditu dezutela Jangoicoa, ta lagundu bear esana ta egemplo gaiztoa ematen ascori. Ez du humillatu nai, ez artu penitencia? Ez darama damuric ta ez du izan bear ere absolucioico graciari Confesoreac berac galdu nai ezpadi penitentearequin batera. Au ez eguiña gati irauten due gorrotoac; itzic ta agurric eguin nai ezac dempora luceetan. Ala artu, ta cumplitu bear dira penitenciac, baña gueien becatuco sustraia ta anima osatzera dijoazanac: bestela ez daude prest confesio ona eguiteco.

Ah Jauna! Penitencia gogorrac, baraur ta corputzaren pena garriac etziran eguin munduan vici bear duteentzat: oric dira chit onac Conventu barrun beetan eguiteco, edo eremuetan ezcutuan vici ciranentzat. Ecin dezaque mundu zabalean vici bear dutenac. Ederqui. Eta penitencia gueiago eguin bear ez du occasio andiagoean sarturic dagoanac? Non icasi da doctrina au? Cembat cristau daude corputz ta osasun galantarequin araguiari su ta su ematen dienac orduetatic camporaco janta edanequin, goiz erdia, eguzqui zabalai leioac ichita sartu ezdidin arguia guela barrumbean, igarotzen dutela lotan edo gira ta bira oe biguñean; eguin gucian Jangoicoaren gauza onic eguiten ez dutela, ezpada gueien mezabat enzun,

errosario bat esan ta devocio arinarequin? Eta oec daude devototzat. Cer eguingo du onelacoen aragui erregalatu edo gozatuac penitenciarequin eci ta escuratzen expada? Nequezale gaissoac bai, achurlari, icatzguin, ta lan guilla ascoc igarotzen dituzte pena edo neque asco, corputza mancatzen due ta zorionecoac onelacoac penitencia orde, ta Jangoicoaren gracion badaramez ambat pena. Oec badue beren bearretan cilicio ta disciplina ederra. Ai, ta vici balira batzuec becela tramparic eguin bage zucen ta garbi, ta nola Capuchino batec beste satisfacio emango lioquen Jangoicoaren Justiciari! Nola errazago igaro lituzqueen nai gabe, pobreza, ta bear gogorretatic etortzen zaizten nequeac, goicean obra guciac Jangoicoari esqueñi, ta beren becatuen ordean eramango balituzque? Nola merecituco ezdu asco baserrietan, ta erri barruetan servitzen dauden mirabe, ta morroe gaissoac? Ecin due beren vorondateric, igaro bear dituzte echeco andren genio chaarrac, ta molde gabeco aguiracac, goicetic jaiqui ta egungucia nequepean ecertaco asti gabe becela, soldata altzen etzaie ascotan beren janciraco; gaisotzen badira, edo bidaltzen dituzte echetic campora, edo gastatzen dituzte boticacotan ta osaguilleequin zoorrac eguiterañ. Nolaco penitencia vicimodu au eramaten badue becatuen ordean, pacienciaz, ta Jangoicoaren gracion? Ola guizonen vicitza, norc adirazo nolacoa dan? Cembat emacume ezcondu ume ascorequin, errentac nequez pagatzen, urteco artoaren beldurrez, ta bear bada senar ordi ta ondartzalle batequin vici bear dutela? Nor erruquituco ezta ecustean nequezale ascoren vicitza gogorra? Baña ó negar eguiteco gauza! Esan dezaquegu ascogatic Profeta batec ciona, *erein zuten asco, ta batudute guchi*; necatzen dira armiarriac becela eun ecertaco eztana ciotzen. *Telas araneae texerunt. Beren frutu ta bezzrac alperric eguiñac.* Cer gatic ori? Ceren eramaten dituztea neque, pobreza, ta naigave guciac, ez penitenciac, espirituz, ez pacienciaz, ta bai gueienac erneguz ta biraoz, edo vicitza gaiztoan sarturic daudela; batzuec dira ardoara emanac arrazoiaren ta echeco calteaz; besteac eguiten dituzte lapurreta agui-

ri edo: engañuac: officioetan, ta cembat Injuriaco vicio gaizto ta zatarrean sarturic? Oec darame Gurutze gogorra; baña lapur gaiztoarena. becelacoa, ta curutzetic joco dute Infernua jozuan becela: lapur gaiztoac. Gracian ez dago anac, eramana gatic penaric andienac, ezdu. Ceruraco. ecer irabacico. O nequearen azpian vici ceraten nequezale maite nere viotzaren erdian zaudenac, ezaguzazute gaissoac eguia; eguizazute Confesio quiz on bat, jarri zaitezte Jangoicoaren gracian, esquinazute guero vicitza ambeste penazcoa. pecatuen ordean, Confesoreac ematen dizuten penitencia laburra cumplituric, ta ecusico dezute, nola poztuco. ceraten eriotzaco orduan.

G. *Nola erraztuko zaizquiguz penitenciac?*

E. Gogora ecarriaz, nola castigatzen ciran becatuac: Moisesen leguean, ta nola Elizaco lenvicio urteetan Jesu-Christorenean. Ona Moisesen leguean cer aguin du zuan Jangoicoac. Esaten duanac blasfemia, au da. itz gaiztoren bat Jangoicoaren, edo bere icen. santuaren contra, izan dezala eriotza, iltzen duela arrica. errico. gendac. Izan didilla illa. Gurasoari birao gaiztoren bat ezarten diona, ta orobat luzatzen badio escua. Seme lotsagalduco Gurasoari obeditu nai ez dienac, ta vicio gaiztoctara emanac, izan ditezela arrica. illac, ta arrien artean ezcutatua. Emacume ezcondu becatu loian erorten dana guizasemeren batequin, illa izan didilla, baita becatu laguna ere. Abere, edo ganaduren batequin becatu eguin duana izan didilla illa, baita ganaduba bera ere. Ala ceuden eriotzaco sententia barcatzen. etziranac auride edo senide Legueco liburuan izendatzen diranequin becatu eguiten zutenentzat, ta becatu lagunentzat. Aguintzen ere zuan arrica iltzeco guizaseme, edo emacume Igarle videgabeco, edo Aaztuac. Ona nola becatua dan. vide gaiztoric gauzaac jaquin nai izatea. Zoazte zoazte orain consultatzera onelaco gende moduai, non galdu dan, edo norc ostu dizuen onelaco ta alaco gauza. Ecusico. dute alaco Igarla guezurti, ta alacoen atzean dabilzanac, nolaco castigua izango duten.

Ah Jauna! esango didazu, ancina Jangoicoac eman zuan.

zuan legue ura gogorra zan; baña Jesu-Christoren leguea biguñago da. Quendu ciran legue gogorrac, ta sartu guifian paquico ta amore leguean. Bai, eztago Christoren leguean alaco odol isurtzeric. Ordea becatu len eriotzaz castigatzen zana chiquiago ote da orain? Chiquiago? Ascoz andiago ta itsusiagoa cristau diranentzat, ta Infernuan gueiago castigatuac izango dira cristau alaco becatuac eguinda penitencia eguin gabe condenatu diranac, Moisesen legue santuan gaizqui eguin ta condenatuciranac baño.

Baña ez dezu uste izan bear Christoren leguean beti eman dizala penitencia laburrac. Norc eracurri lezaquez viotzu gabe lengo demporetan Elizac ematen cituan castigu ta penitenciac becatu ezagutu ta aguertuac gatic? Uste dezu asco zala confesatzea ta oracio batzuec esatea? Garizumaco baraurbat ausitzen zuanac, ceducan oguei egunean ur ta oguico baraur gogorra; ta berroguai eguneco lau dempora, edo Quarta demporetaco baraurren bat ausitzen bazuan. Gurasoai vide gabeco injuria ematen cienac, eguin bear zuten iru urteco penitencia icaratzecoa edecein. Despreccio andiren bat ematen cienac zazpi urteco penitencia. Elizan Oficio santuetan berriquetan egonciranac amar egunean ur ta ogui utseco baraurra. Guezur jaquifaren gañean juramentu eguiten zueenac berroguai eguneco baraurra ur ta ogui, ta guero zazpi urteco penitencia. Etsaitasunean edo gorrotoan egon ciranac ambeste ur ta oguico baraur, cembat egun egonciran tratatu nai ezta. Seigarren mandamentuaren contra persona libre, nescach edo mutilla erorten bazan, iru urteco penitencia, Elian sartu gabe echa gordetzen zuala negar eguiten. Ezcondu cegoan emacumeac becatu araguzcoa eguiten bazan, amar urteco penitencia comunioric artu gabe dempora guci orretan. Doncella bat erorten bazan, nafz alarguna, guizonen batequin amar urteco penitencia. Arrebaren batequin becatu eguiten zuanac vicitza gucico penitencia. Conata edo beste aideren batequin becatu eguitegatic amabest urteco penitencia. Amarrenac ez pagatzea gatic oguei eguneco ur ta ogui utseco baraurra,



ta pagatzea lau bider gueiago. Lapurreta gauza pisura eldutzen zana gatic, zazpi urteco penitencia; ta orobat guezur astunen bat erasteagatic lagunari. Onela beste becatu moduac gatic ceuden ipiñiric urte osoetaco penitencia.

Baña cer eguiten zuten penitenciaco urte orietan? Adiezazue. Garizumaco lenvico egunean aguertu bear zuen Eleiza atarian janci loi, pobre, ta cerbait urratuaquin, onelacoac ciran lutu janciac dempora aietan. Elizan sare-raciric ipintzen cien Obispoac autsa buruan, ta ematen cizten cilicioac penitenciaco señaletzat: guero echuten ciran lurrean, ta ala Obispo, nola Sacerdote ta beste gendeac eguiten zuten oracio barcacioa escatzeco penitencian sartzen ciranac gatic. Eguiten cien Sermoe labur bat Obispo Jaunac, ta esaten cien, bota bearcituala Eleizatic dempora zati bateraco, Adan atera zuan becela Jangoicoac Paradisutic bere becatuaren castigoan. Ateratzen cituzten bada Eleizatic, ta ichtizen cizten ateac. Nolaco vicitza eraman bear etzuten guero beren echeetan? Etziran oe biguñean echuten baicican lur gogorraren gañean; baraur ur ta oguicoac cembat? Etzuen diversio ónetara ere irtetzen, ta descomulgatu batzuec becela egoten ciran gauza ascotan. Norc ecusi ceizquean penitente fervoroso aiec. Eliza atarian auzpezturic negarandiequin erregutzen. Elizan sartzen ciran Christauai, orocitezela berac gatic misericordia Jangoicoari escatzeco? Urte osoetan egotenciran onela Elizan sartu gabe, ta guero ecusten zuanean Obispoac eguin zutela negar asco beren becatuac gatic, eman zutela egemplo ona vicitza penitentearequin, largatzen cien Eleizan sartutzen; ez ordea meza gucian egoten, ezda ere comulgatzen, ta bai Sermoi eguiten zana enzuten, ta meza zatibat. Mezaco Ofertorian sartzen zanean Sacerdotea, irtetzen zuan Diacono edo Mezara laguntzen zuan Ministro Eleiz guizonac esateco. *Zoazte, asi da Meza. Ite Missa est;* ta irtetzen zuen humill humillie ezagutzen zutela etzirala prest ta diña egoteco mezaco demporan. Nolaco negarrequin irtetzen zuten gaissoac beren becatuaren anditasuna ezaguturic? Ah bai, esaten zuten!

Gal-

Galdu degu gure becatuequin Adanec galduzuan baño lecu obea, ta fruta obea. Irugarren aldian meza enzuteco licencia ematen cien; baño ez comulgatzeco, ta egon bear zuten urte osoetan, penitencia andia eguin da ere, comunioco maira artutzen etzituztela, beste dempora zati ta luce bat igaro gabe prestatzen penitencia berriequin. O demporac! O egun ederrac! Nora cerate? Becatari guciz guchi, ta berac Santu bat eguiteco ascociran penitencia eguiten mundu guciaren aurrean. Cer ecusten da berriz gure egunetan? Becatua becatuaren gañean lotsaren apur gabe, ta guero penitencia ichura batequin palagatu nai Jangoicoa, ta paquetu conciencia. Negarren artean igaro bear diran demporac Jangoicoa ofenditu dalaco, igaro oro bat danza ta olgantzta gucietan, corputza eregatu ta erregalatu, jan ta edan galanqui, apaindu aldan bestean ecer ezpalira becela eguin dituzten ofensa edo becuric itsusienac. Eta onelaco vicitzarequin uste dute salvatu penitencia gueiago gabe? Oraingo becatuac ote dute gaiztotasun guchiago becatariac gueitu diralaco? Erietzaco tormentuen beldurrez fedean faltatzen zuenac, vicitza gucian len comulgatu gabe, penitencia andiac eguinda ere, bein baño gueiagotan ecusizan becela; orain beldurgabe ta vorondate oso osoarequin becatu asco eguinda, confesio arin batequin bereala comunio santura? Aiec ere confesioac eguin cituzten orain baño negar gueiagorequin. Eta becatuac ta becatariac gueitu diralaco laburtu bear da penitenciaco espiritua? Ordu onean, ez gaitecela gu egon Eleiza atarietan soñoco urratuaquin lepotic beeraco socaquin, ta autsez burua estaliric; sartu gaitecela beti descomulgatuac ezpagaude Eleiza santuetan, Sermoa enzun, ta meza santua ere bai; baño ez eguin guere vorondatez penitenciaric, ez becatuen damu andia artu, ez vicitza obetu, ebilli munduco bulla gucietan, ta vici anima garbi ta iñoiz becatu mortalic eguin ez dutenac vici ez diran becela, becatu asco eguin ezquero? Non icasi da doctrina au? Ezta iñoiz deseguingo San Juan Bautistaren esan au: Eguin penitenciarren frutu, edo obra eguiazco, edo bear becelacoac.

Con-

## Confesio generalaren gañean.

Recogitabo tibi omnes annos meos in amaritudine animæ meę. Is. 38.

G. **C**eren gañean izango da gaurco doctrina?

E. Confesio generalaren gañean, ceña dan ascoc ueste duen baño bearragoa; cerren ondo eguitetic dator anima ascoren salvacioa, ta ez eguitetic, edo gaizqui eguitetic beste ascoren condenacioa.

G. *Cer da Confesio generala?*

E. Da confesio len banaan eguñen berriztaciõ bat, esaten dirala Confesio batean len confesatuta dauden ta ez dauden becatuac. Confesio general au izan diteque edo vicitza gucicoa, edo dempora zatiren baten eguin diran Confesioena, bacoitzari nola conveni zaion, edo nolaco premian arquitzen dan, guero esango degun becela.

G. *Certaco da ordea Confesio generala len eguin badira Confesioac?*

E. Da bada, edo seguruagoan joateco Jangoicoaren videan, edo lengo Confesioac gaizqui eguin badira arquitzeo salvacioco vide berez bacarra, ceña dan confesio ona. Eracatsi degu igaro diraa doctrineetan, nola Confesioco Sacramentua dan becatuco Ichasoan creri diranentzat bigarren ol bear bearra bautisunoco Oucia ausi zai enentzat; au da, berriz arquitzeo neque andien costuan bateoco gracia galdu duenentzat, beintzat viotzeoco confesioa. Eracatsi ere degu astiro, nola confesio asco eguiten diran gaizqui, edo esaminaren paltaz, edo danu ta proposito eguiazcoa ez eramanz, edo bear becela becatu esan bearrac, ez esanz. Confesio gaizqui eguñequin ez dala barcatzen becatua, ta bai lengoen gañean gueitu confesio ta comunio beste sacrilegio. Beraz eztago onelacoentzat berez heste videric, eguitea baño Confesio general, edo gai qui eguin gucien berriztaciobat. David Erregue

Pe-

Penitentatear demporan etzegoan. Confesio Sacramentua zanic. Ordea cembat alditan confesatzen ciozcan Jangoicoari negar andiequin, ez bacarric bere becatu loi, ta eriotza eraguñia, baita ere vicitza gucicoac! Ezequias Erreguea, Santua zan; baña esaten cion Jangoicoari, nic ecarrico ditut gogora nere vicitzaco urte guciac nere animaren damu ta mingoztasunic andienean. Eracurri nañ baditugu Jesu Christoren legueco Santuen vicitzac, ecusico degu, nola eguin cituzten bein baño gueiagotan. Confesio generalac, humillatzeoco Jangoicoaren aurreañ, becatuac obeto e agutzeco, damu andiagartutzeco, ta anima obeto garbitzeco.

G. *Baña bear bearra da Confesio generala?*

E. Bai chit ascorentzat, ~~ez~~ gucuentzat. Ala bada Confesio generala da guchi batzuentzat alperra ta caltegarria; da guciz ascorentzat chit ona, ta bear bada gueientzat premiña osocoa, edo bear bearra. Enzun doctrina au contu andiarequin. Esan det guchi batzuentzat dala calte garria; oec dira anima beldurtieguñ, icaracor edo eguiaz escrupulosac, ceintruec eguin zuen len ondo vicitzagucico Confesio gucien edo generala, prestatzen cirala ambat ondoen, guelditzen cirala eguin ondoan concienciaco paquean, ta Confesorearen uestean ere ondo eguin zana, ta vicitza on ta berri batequin ematen cituztela egriazco damuaren ezauvide edo señaleac. Onelaco batzuei guertatzen zaie guerora animaco paquea galtzea; icara beticoan arquitzen dira; ondo confesatu ote nintzan, esan ote nitua; becatu guciac bear ciran circunstanciaquin. Dijoaz Confesoreagana sarri betico lelo edo soñuarequin; confesio ascotan esaten die, Jauna gogoratu zat becatu au, circunstancia au, ta aspertzen ezdira esatez; aztutzen zaie cer confesatu zueñ, ta darame vicitza tormentuz bete. Deabruac laguntzen die conciencia naastzera, quendutzen die gozo ta poz gucia Jangoicoaren gauceetaraco, etortcen zaie pensamentura: eztagoala salvacionic berentzat, ta tentatzen dira largatzer: artuduan vicitza ona. Confesoreari ecarrico balie obediencia osoa, erraz quenduco lituzque quezea ta arantzator-

tormentagarriac ; ordea esaten due beren artean, ezdaqui Confesoreac nere barrun bean igarotzen dana ; uste du confesatuta daucadalas escrupuloso bat naizala, ta cer valioco dit niri engañatzen bada Confesorea ta largatzen beditut becaturen batzuec aguertu gabe? Nola ni salbatu? Confesorearen ofetatic irten orduco comulgatzeco joan aurrean berriz gogoratzen zaie ancinaco beste becatu edo circuastanciaren bat ; icaratzen dira ; ecin comulga nindeque , dioe , eguin bear det sacrilegio andi bat biurtzen ezpanaiz confesatzera ; becatu anditzat pintatzen die deabruac , confesatuac ez confesatutzat , ondo esanac oquer esanac becela , ta ala etorri dira bat baño gueiago ernezatzera, ta beren buruac illtzera paqueric arquite ecinda. O cembat asmo dauzcan Infernuco etsaiac ! Gaiztoai zabaltzen die gueiegui Ceruco videa , daramaz confianza videgabeco batequin penitenciaric ez eguitera ; arrapatu ecin dituanac vicio gaiztoen videz , arrapatu nai ditu desesperacico vide estutic.

O anima gaisso tormentu oetan zaudena ! Esazu eguia. Confesio generala eguin cenduanen larga cenuan becatu mortalen bat, edo circuancia esan bearren bat lotsaz ta beldurrez ezaguera osoarequin ? Ori ez Jauna ; esan nituan gogoan neuzcan guciac, ta ez nuan ecer utsi lotsaz Absolucio santua artuta guelditu cianan viotzeco paquean ? Bai Jauna, ta neritzan arinduta cegoala nere anima carga pisu bat quendu banu becela, ta pozac negarra atera cizquidan. Eta animaco paquea galdu baño leenago esan cionzcan Confesoreari becatu edo circuancia azturen batzuec ? Bai Jauna. Ez dizu esan Confesoreac arrezquero ez eraguiteco lengo gauzaai, odo esanac daudela, largatzeco bere contura ? Bai sarri ere. Eta Confesio generala eguinda artu cenuan vicitza obe bat ? Aldeguiten dezú becatuco ocasio ezagunetatic ? Bai Jauna, ta naiago nuque ill ere becatu mortal bat eguin baño leenago. Bada eroa, cergatic iduquiric zure Confesio generala señale ecin obeac, zabiltza deabruari lecu ematen, ceñec ez duan nai zure animaco paquea ta ona ? Cergatic eguin ez ichu ichuan Confesorearen esanac ? Je-

su-Christoc esan zuan *Zuec enzuten zaituanac*, neu enzungo nau. Confesorearen itza zuretzat da Christoren itza, Confesoreari obedecitzea Christori atsegua ematea. Zu zaude laño artean, bear dezu beste arguitzalle bat ; cera ichua, bear dezu ichumutil bat erori nai ezpadezu ta galdu burua. Etzera piatu beñre cere argui ichuraquin, bai eguia zuc baño argui gueiago duan Confesorearen esana. Ala bada ez confesatu, burura etortzen dira begitacioac, uste izanagatic confesatu bear dituzula ; cerren sinistu bear dezu zure concienciaren berria daquian Confesoreac obeto ezagutzen duala zuc baño cer bear dan confesatu ta cer ez ; ta consuelo gueiagoraco cer edo cer largaco bacendu, aguertu gabe conciencia paquetsua duenentzat aguertu bearra dana, etzinaque zu galduco, ta obedienciaren sacrificioac circuancia aitatu ditugunetan, libratzen zaitu obligaciotic ta ez dizu esango Christoc juzgatzeco orduan, cergatic eguin cenuan nere ordean itz eguiten cizunaren esana ? Cergatic obeditu nere Ministroari ? Cergatic jarraitu ez cere arguiac ? Eranzun bada beldurrari, nic obedecitu bear det, au da Jaunaren vorondatea, Joan bear det comulgatzera Confesoreagana berriz biurtu gabe. Obediencia osoa artutzen badezu egun guchiren buruan etorrico zatzu paquea, aldeguingo du deabru Aingueru estalquiaz janci danac, ta artuco dezu vide ohea Jangoicoa servitzeo. Ascorentzat dira chit onac beldur modu edo escrupulo oec Confesio general ondoan ; gueitzen da Jangoicoaren beldur santua, garbitzen da anima espirituco tormentuequin. Baña luzatzen badire gueiagui, ta Confesorearen esanai jaramonic eguin gabe zabiltza cere argui guezurrezcoei jarraitzen, ateraco dezú calte andia. Esana esan, Obediencia, obediencia ichua, ta au da vide bacarra ta segurua alaco animentzat ; ez igues eguin beste Confesore zure animaco berri eztaquiaganana Confesio general berri bat eguiteco asmoz. Galduco dezu burua, ta necatuco cera elperric. Beraz onelacoentzat alperra da Confesio generala ; cerren amar eguinda ere biurtuco diran lengo beldurrtara, ta quendu bearrean gueituco zaco.

Esan det doctrina au aditzen dala Confesio general onaren señalearquin confesatu diranentzat ; ta eman dira señalearc. Oadea badira bai cristau escrupulosac diruditenac, sarri confesatzen diranac, ta esaten ere bai beti beldur dirala ondo confesatu ote diran, larga ote duen becaturen bat ; eguin dituztela Confesio generalac ta paqueric arguitu ecin duela. Esaten due len aitatu ditugun benetaco escrupulosoac esan dueena berbera. Ala esaten die Confesoreac, zaudete paquean, utzi lengo gauza zaarrai, ta nola Concienciac quezcatzen dituan lotsaz larga zutela cer edo cer, ccin paquetu dira esan guciaquin, dabilitza larri Aingueru onac mintzen dielaco espiritua. Noiz bait esaten due, Jauna *aztu zatan* confesatzea onelaco edo alaco becatua, esau bearrean estalqui ta quezur gabe, utzi zuela beldurrez ta ezagueraz, ta egon dala confesio genereletan ere esan edo aguertu gabe. O anima gaisso onela confesatzen ceratenac! Certaco dira girabira, ta guezur estaldu oriec? Ezdira escrupuloac atormentatzen zaituztenac : dira bai Jangoicoaren inspiracio edo gogargui ecarri nai zaituztenac Confesio zucen ta garbi bat eguitera. Onelacoac gucienez vici dira beste becuric eguin gabe confesio chaarrac baño, ta errazago engañatzen da Confesorea pensatzera dira a escrupuloac. Oec lotsa andia iduqui oi due aguertzeo beren Confesoreari eguin dituzten confesio gaiztoac, ta esateo arguiro, nola beldurrez egon diran urte osoetan becaturren bat edo beste aguertu gabe. Arquitzen badira emen onelaco cristau argal ta errucarriren batzuec, arbeze nere conseju au ; ta da billatzen beste Confesore on bat eguiteco berriz Confesio general oso oso ta garbi bat, aguertzen diola igaro zaiona ta esan gira bira gabe, artéz, ta zucea, nola egon dan lotsaz aguertu ecinda, combat demporan, noiztic noiza confesatzen zan, ta beste becatu guciac ; cerren confesio gaizqui eguifietru esan ciran beste becatuac diran esan gabeac becela. Ala bada Confesio generala eguiteco premia jaquifia duenac, nolacoac diran duda gabe lotsaz becatu mortelen bat esan gabe egondiranac, ecin dezquete beste confesio, ta comu-

municoric Confesio general oso batequin anima garbitu artean. Eadu valio esateac guero eguingo det Misioren bat datorrenean, ez beste luzavideric artzeac ceren becatuac ezagutuaz aguertu gabe dauden arteco confesio ta comunioac dira beste ambeste sacrilegio. Onetan ascoc utseguin oi due. Badira bai sacrilegio andiac eguiten dituzten anima batzuetan virtute usiac, ta usaiac, obra onac diruditenac, ta onela gueiagio zoraeracitzen die deabruac. Dira escrupulosac, icaracorrac ecerecetan, ta irensten dituzte becuric beltzenac, ta icaragarrienac ; ta euscal errietan esana dan becela, *zaietan ciogui, ta irinetan ero*. Fariseoen guisacoac escuac garbitu gabe maian cembat jaateco beldur andia, ta Christo perseguitzeo illarteraño beldurric ez. Ala dira bada comunio gaiztoquin Christo perseguitzen duena, ta Ave maria bat ondo esan ote duen, icara daudenac. Beguia badago ondo esan ote duen, icara daudenac. Beguia badago garbi, ta gueun gabe, corputz gucia arguitua izango da ; baño beguia gaisso ta gaizto badago, edo lausotua, corputz guciaere illuna egongo da ; ala dio Christoc. Esan nai det, bagabiltza cinzó, zucen ta asmo garbiarequin, emendic jaiotzen diran eguitada edo obra guciac onac izango dira. Aguertzen dionac arguiro, zucen, ta vorondate garbiarequin Confesoreari viotza, eguin guero here esana, obeditu ichu ichuan ; baño bagabiltza estalquiz, ezcutuca, issilca, girabiraquin, ta cinzotasun gabe, ezdu Confesoreac erru edo culpári izango conseju chaarra amaten badio ; nola Osaguilla edo Medico batec iduquico ezduan osagarri oquerra ematen badio gaisso danari, onec estaldu diolaco gaitz eguiazcoa. Jangoicoac madaricatzen ditu viotz tolestu edo dobleac, aoran bat ta viotzean beste bat darabiltenac.

G. *Baña norentzat izango da ona, ta provecho andicoa Confesio generala?*

E. Chit ascorenzat. Badira cristau ez guchi, ceintzuen confesioac ez duen señalearc ezagunic obligatzeco Confesio generala eguitera ; ceren ez duen issildu ezagueraz, ta lotsez becuric, ez izan ere usuario, oitura, edo costumbre gaizto luceric ; baño ezda virtute jarraituric

ere, bai cerbait apelac ta naguiac Jangoicoaren servicioan, edo noiz edo berriz ere eguin dituztenac becatu mortalen batzuec, ta ez eraman guero penitente on on baten vicitzaric. Baña banaan aitatuta aguertuco da obeto esan dedana alde batera edo generalean. Onela bada, da chit ona Confesio generala inoiz leenago eguin ez duen gucientzat, ta nere ustean da chit ona escrupuloso egiazcoentzat ere len inoiz eguin ezpadue, ta escrupuloetatic libratzeco videa Confesore on bat arquitzen badaue. Ona arrazoi adiutu, edo egoquia. Ezdago inor zuzen jaquin dezaqueenic aur demporaco, edo zortzi urte tic amabost urteraco confesioetan utsic eguin ezdala. Icasten da aoz doctrina, nola bear diran ondo confesatzeco esamina concienziacoa, danu, ta proposito Jangoicoagandic sortua, osoro becatu mortal jaquinac, dudacoac, ta beguitanduac Confesoreari aguertzea. Baña nola prestatzen da dempora artan, zoro aietan ondo confesatzeco? Ernan nai dizut etzenuala eguin becatu jaquin ta andiric, etzenuala eguin becatu loi ta Injuriacoric (cembat libratzen !ote dira sagar ustel au jau gabe?) ez ostu ere gauza pisuric. Baña non da Teologo edo Confesore ain jaquina, ta erabaquico dituana zuzen, urte aietaco becatuac ciran edo ez astunac dularen apur gabe? Gaztechoac eguiten dituzte biraoac edo alcarri, edo artu aoran ta aserrez icen deabru, demonio, edo barrabasena; ascoc uste due becatu andiac dirala onelaco biraoac, berenez ezpadira ere. Nola enzuten da meza urte aietan? Batera ta bestera beguiac darabilitez, alcar jooca dabilta, parroca, ciraca, ta atencio apur bat ipintzen ez duela. Gurasoi cer lotsa gordetzen die? Berriz alcarren artean batzuetan burruca, bestectan auzca, ta ucabilca, ta ez guchitan arrica. Confesatzen ere dira, bai: baña aurrera esan diran paltac; danu ta proposito ondo arina, edo utsac. Beste aldetic ezdaquite cer dan becatu mortala, ezta ere cer veniala; mortalac dirala esango dute ez diranac gatic; mortalac diranac, dirala arinac. Bada nor paquetuco da dempora artaco confesio arin onaquin, ta bear bada chaarraquin? Ala bada ondo esan det Conf-

fesio generala dala guciz ona len eguin ez duen gucientzat. San Luis Gonzaga guchi arquitzen dira humill ta garbiac, devoto ta Jangoico zaleac lenvicico urteetan; ta esan dedan becela Santu beti Santu izan gazte onec ere eguin zuan confesio generala ito bear zuala uste citaquan danu negarrezcoarequin; ta vicitza gucian gauza bic ematen cien quezca ta pena andia; bata gaztechoa zanean artu ciolaco bere mendecoa becela zan Soldadu bati, polvora apur bat issillic; ta pocic emango ciona escatu balio; ta bigarrena, aitatu citualaco, cer esan nai zuen jaquin gabe Soldaduen artean enzun cituan itz garbi etziran batzuec, ta bein bacarric. Oec izan ciran bere becatu, vicitza gucian negar eraguin cienac, gueien gueien becatu venialac baño etziranac. Bestela chiquichiquitatic, ta seasatic becela eman cituan santidade andico señale ezagunac. Confesio generala da ere chit ona Estadua artu nai duen cristautentzat. Nola sartuco da bat ondo Eliz uizon izaten bere anima garbitu gabe cetaca ta mancha gucietic? Fraile edo Monjaric arquituco ezda bear bada abitua artzeco demporan, edo profesio aurrean Confesio generalean bat eguin gabe len eguinda ere, escrupulo andiren batzuec gatic eragotzen ezpadie Confesoreac. Abadeac ere eguin oi dute ordentzeco eguin oi dituzten egercicio santuetan. Bada cer? Ezconduco diranac Sacramentu andi bat artu bear duenac ez dute garbitu bear beren anima milla peligroren erdian sartu bear badue? Baña cer diot ona dala confesio generala ezcondu bear duenean? Gueien gueientzat da bearra ta obligacio estucoa: O gazte munducoac! Nolacoada zuen vicia dempora gaizto oetan? Igarotzen dituzte urte asco ecin esan besteco pensamentu araguzcoai lecu ematen diela: malicia edo ezaguera sartuzeco unetic, Jangoicoa amatu bearrean, ematen diez primiciac deabruari; chit goiz tentatzen ditu infernucotsaiac, ugari darabiltez itz zatar nagusiai enzunac, batac besteari eracasten diela doctrina gaiztoa conversacio lotsagarrietan; itzetatic igarotzen dira escua ta beste tocamentu ichusietara, edo mutilchoac mutilchoaquin, edo nescachachoac nescachachoquin, edo bai bear bada aiec oequin.

Edo confesatzen ez dituzte lotsaz, edo confesatzen badituzte, ez apaindu gabe. Non da oen damua? Non obetzea vicitza? Amasei, edo amazapi urtera eldutzen diranean, iritetzen due plazara, ala esan oi due; ta orobat, munduan burua aguertzerá. Botatzen da lotsa gucia, dabilta pestaric pesta, apaintzea ta jostatzea baño gogoan besteric ez dueela. Norc contatu cembat torpequeria, cembat accio gaizto ta ichusi eguiten dituzten; viotza prestatura becela, pensamentua ta aua idiquita naicunde edo deseo liquitsetara, itz, ta gogoracio loi gucietara? Nolaco videac ematen ezdituzte becatuetaraco? Eguin ta eraguin accio chaarrac, tenta ta tenta videan arquitzen dan edo cein nescach. Buruco illeac baño becatu mortal gueiago animan iraaften dituztela. Escontza usietan sartutzen dira; pasio gaiztoari gueiago beguiratzen die ezcongucieian virtute, ta vicitza onari baño. Ascoc berriz artzen dituzte ezcontzaco libertade guciac ezcondu baño leenago, ta sartutzen dira Ezcontzaco Sacramentu andi ta santuan Asmodeo Infernucio etsai andia ondo ta obeto servituta. Eta nola guero zori edo suerte ona izango due? Combatec esan oi due ezcontzeco vorondatea iduqui ta itza eman ezquero, Eleiz deiac eguiten abiatu ezquero, ezconduta dau dela Jangoicoaren aurreraco? Ta doctrina heregiaco onequin eguiten dituzte aitatu ere bear ezdiran becatuic andienac. Onela prestaturic dijoazanac confesatzera ezcontzeco egunean, edo egun aurrean gueitzen dituzte sacrilegio andi bi confesio ta comunio gaiztoquin, ta sartutzen dira estaduan Jangoicoaren madaricacioarequin. Ala vici dirala ecin dezaquete confesio general onic ere; cerren Confesio general onac escatzen du aurrez prestamentu ona; ta beingoan ezcontzeco egunac artean vicitza gaiztoa eramanda, nola eguin esamina contuzcoa, ta eracarri Jangoicoagandic damu eguiazcoa? Erraz da mauru beltzac bere narru edo azala zuritzea? Ala bada ezcontzaco gogoan sartutzen danean bereala asi bear du Confesio general ta osobat eguiteco ondo prestatzera; joan Confesore on battegana ta esan oni eracatsi dezola nola prestatuco dan, batzere libururic ta eracurteric ezpadu. Erabaqui bear dituzte,

tu

tu ocasio chaar guciac; ez tratatu inolaere ezcongaiarequin, dalaco peligro andico gauza, ta bear dan beste dempora artu Confesio on bat eguiteco; ta ala prestamentu onaquin, penitenciaco espirituarequin sartu bear da Ezcontzaco Sacramentuan.

Da ere Confesio generala guciz ona len Confesio generala eguin duentzat. Adirazoco det. Guertatzen da misio, edo egercicio santuen videz Jangoicoac viotza icuric, eguitea Confesio generala bere ta Confesorearen satisfacio osoro. Guero asitzen due vicitza guciz on bat, sartut en dira oracioco videan, ta egunoro aurreratzen dira Jangoicoaren servicioan, Aurrerapen oetan arguitzen zaie asco entendimentua, egunean baño egunean gueiago artzen due damu gueiago leenagoco becatuena, ta nai die Jangoicoari satisfacio osoa aleguinaz eman penitencia Confesoreac ontzat emanekin. Onelacoac eguiten badue berriz Confesio generala, artu oi dituzten arguiequin, esan oi dituzte becatuac len esan cituzten baño arguioago, ezaguera ta damu andiagorequin. Eta norc esan cembat on, edo provecho atera oi duen bigarren Confesio general onequin? Ala ere esana esan, anima sartuta badago eguiazco escrupuloetan, ezda eguin bear, beintzat conciencia paquetu artean; ezda ere len ondo confesatuta dauzcan becatuac confesatzeco beldur ta icara andiren bat badu; cerren guerta liteque lotsaz cerbait largatzea, ta paquean cegoan conciencia quezca andietan sartzea. Ala ere ondo da jaquitea, Confesio ondo eguinetan esan diran becatuac largaco balira aguertu gabe ezagueraz ta vorondatez ere, dan becela dala, ezdala, gueienen irituan, confesio gaiztoric eguiten nola eguiten ezdan, largatzen diranean becatu venialac aguertu gabe, ceren berenez becatu venial ezagunac ta becatu ondo, auda confesio onean aguertuac, diran vorondatezco, ta ez bear bcarreco confesaquzunac. Baña nola guchic daquiten au, guerta liteque, confesio gaiztoa eguitea ez jaquinez bigarren Confesio general vorondateco ta premiagabecoan lotsaz becatuaren batzuec larga, ta uste izateaz gaizqui confesatu dala. Orregatic bigarren Confesio generala eguin

nai

nai duanari lenengoa ondo eguin ezquero, emango nioque conseju, eguin dezala lenengo eguin zuan Confesorearequin beldur guchiago iduquico dualaco len berri daquianari esateaz. Baña contu; lenengo Confesio generala gaizqui eguin zuanac, eguin beardu beste bat ondo, salvatu nai badu, ta orduan aguertu lengo confesioetan esanciran, ta etziran becatu mortalac, jaquiñac, edo dudacoac beren circunstancia aguertu bearrequin, baita ere eguin diran confesio gaiztoac.

Badira cristau modu batzuec, ceintzuec vici izan diran conciencia epel batequin; bazuen Jangoicoaren beldurren bat, becatu mortalac eguin nai eza, baña bai izan ere mundu zaleac, naguiac Jangoicoaren servicioan; ta eguin oi dituztenac becatu venialac ardura gabe, ta obetu gabe; confesatu noicean bein ta beti bat vicio chiquietan; beste batzuec ebilli dira aucitan dempora lucean, ta sarri ernegacioac, ta gaizqui esateac. Ezta Confesorerie jaquitunena aizartu edo atrebituteco esatera ta agutzeraz duen edo ez onelacoac premia edo obligacio estua Confesio generala eguiteco; baña bai beldur moduren bat iduquitza ondo confesatzen ote dan edo ez bere epeltasun, ta contu guchiagatic: dudatzen ere da gauza batzuetan ciran edo ez mortalac, acusatzen cituanean penitenteac aserre, ernegacio eta gaizqui esateac. Nola bada irten epeltasuneco vide peligroso artatic? Nola irten duda gogorretatic eguin gabe Confesio generaloso ta garbi bat ederqui prestatuta?

Da ere Jangoicoaren videan aurreratzeco vide ona urtean bein urte artan eguin diran becatuen Confesio general edo osoa, illean bein, edo astein bein edo sarriago confesatzen diran cristauentzat, ta San Ignacio Loiolac animaric onenai ematen cien conseju urtean birritan eguiteco. Norc esan cembat laguntzen duan animaren contu onec aurreratzeco Jangoicoaren videan? Baña ona emen neque andi gabe urtean bein Confesio general, ta vicitza gucicoa eguiteco vide edo modu erraza, ta animarentzat provecho edo on andicoa, len bein ta sarriago Confesio generala Confesorearequin eguin duten cristau-

ent-

entzat. Artu dezaque batec, cerbait esamina aurrez eguin da, egun bat igarotzeco erretiro, edo bacartadean, eraciaten daquianac, ta oracioari dempora emanda. Egundeder onetan, jarri, deritzon ordu baten, Jesu-Christoren Inagiña baten aurrean, ciñatu, esan *Ni becataria* confesatzera balijoa becela, ta confesatu ceaztasunandi batequin bertan dagoan Jangoicoari, vicitza gucian eguin dituan paltac; artu guero gogoan cembat izan diran, cein andiac, nola Jangoicoac bota lezaqueala Infernura, bota eztuan; artu guero damu guciz andi bat guciagatic propositoarequin aurrera eramateco vicitza ohea esan onen ondoren Nere Jesu-Christo Jauna, ta eguin deritzonean penitenciaren bat. Bacarrean, ta Jangoicoari eguiten zaion urteoroco Confesio general onec ez dacar nequeric, ta bai ecin esan beste onera edo provecho anima garbitzeco.

G. *Baña norc eguin bear du nai ta ez, edo premia Confesio generala.*

E. Chit ascoc, ta bai nere uste osoan emen arquitzen diran ascoc ere. Ona emen regla edo zucen vide uttic eguin ecin lezaqueana. Confesio generala da obligacio estu edo premia gogorrecoa leenagoco Confesioac gaizqui eguin dituzten gucientzat, ta Confesio general ta zucenbateguin gaizqui eguiñac remediari ez dituztenentzat.

Confesioac izan ditezque gaiztoac esaminaren paltaz, damu ta proposito eguiazcoaren paltaz, becatuac osorta vorondatez ez esanaz, edo penitenciac artunai ezaz, sarri ausiaz, edo confesio ascotan cumplituezaz.

Emendic ateraco da argui andia igarteco noiz dagoan obligacio astuna Confesio generala eguiteco.

Esaminaren paltaz izango dira confesio gaiztoac, baicoitzaren naguitasunez, alperqueriaz, edo arduragabez gogora ecartzen ez diranean, ta guero onen paltaz confesatu gabe largatzen diranean becatu mortalen bat, edo batzuec, esamina contuzcoa eguin belitza gogoratu, ta confesatueco ciranac. Onetan erorten dira beranduric berandu esamina azalaco arin ta beingo batequin confesatzen diran becatari batzuec. Oec gatic dio Señeri venegararri ta misionista andiac, guciago dirala confesatuga-

Y

be

be largatzen dituzten becatuac confesatzen dituztenac bñ. Igarotzen dituzte mandamentuac itoca, beingoan, ta bacarric guelditzen dira becatu itsusi, lodi lodi, ta edoceñi gaitz deritzonetan ; largatzen dituzte esaminatu gabe pensamentuz ta itzez eguinac ; edo beintzat iduqui ezpadue gogoric gauza gaizto ta aguiricorenbat eguiteco, ez dira guelditzen bestelaco atseguin zatar, itz loi ta caltegarrietan ; ez aztertzen ere iñori eman ote dien egemplo gaiztoric. Cembat obligacio cumplitu bearrac esaminatzen ez dituzte Guraso, Alcate, Erregidore, ta Oficioac dauzqueenac? Eta ezagutzen ezpadituzte becatuac beren esaminaren paltaz, ez dira barcatuac izango. Argui berezco bat bear da Jangoicoac emana becatu ezcutuacoac ezagutzeco ; ta oracio on bague izango ezda argui au. Ala bada esaminari lagundu bear dio, batecere carguac dauzquenen artean, argui escatze gogozco batec, ta artu, bear dan adina dempora, Esaminaren doctrinan esan guenuan becala, gogoratzeco becatuac.

Baña confesio gaizto gueiago eguiten dira eguiazco damu ta propositoaren paltaz esaminarenaz baño ; cerren damu ta proposito eguiazcoac berez dacar conciencia azutzeco ta becatuac ezagutzeco gogo ona.

Damu au guchitan arkitzen da becatu izandanean zorionecoa munduraco. Ecusico dira becatuac videtic izan duenac ezcontza beren gustoco bat, igo duenac fortunac, neseame izatetic igaro diranac Señora edo echecoandra izatera, pobrezatic diru edo ondasun-dunac. Oec nola esan eguiaz ta viotz viotzetic, damu duela Jangoicoa ofenditua, naiago duela alaco fortuna edo zorion munduacoac iduqui baño guelditzea ancinaco meetasun ta pobrezan? Bada mundu onetaco edocein gauza gueiago estimatzen duenac Jangoicoaren gracia baño, ez du becatuaren damuric Becatuac calteac munduraco ecart/en dituanen, gorrotatzen da nola bai becatu, ta ezda gauza ain gaitza Jangoicoaren ofensa dalaco ere gorrotatzea, nola dan mundu fortuna, zorion, edo mesedeac dacarzuigunean. Lapurreria baten Justiciac artutzen badu bat, sartzen badue Carcelan, gosca igarotzen badu, atsacabe

oetatic jaso lezaque viotza Jangoicoagana, ta damu artu Manares batec becala catean ofenditu dualaco Jangoicoa ona ; emengo peneetatic igaro dezaqueez fedeco beguiae Infernuco Carcelara, Ceru geldu duanagana, ta bai amatzera ere Jangoico maitagarri emen castigatu nai izan duana. Ordea lapurretatic, irabaci gaiztoetatic averastu danac, nequez gorrotatuco du becatu, nequez biurtu irabaci gaiztoac. Nescach, anima, honra, ta estimacio gucia munduraco galdu duanac becatu eguinda ; bere maitatzallearen palsaqueria ezagututa, ecusten da negarrez, ille tiraca, ta emegacio gogorrean Damu du becatu eguiña, ez eguiaz beingoan bear becala ; baño Jangoicoaren gracia arkitzen du onelacoen viotzean prestaera ohea gorrotatzeco becatu Jangoicoaren ofensa dan aldetic, bestelaco nescach becatuetic sari andiac, estimacioac, ta fortuna lurrecoac atera dituztenac baño. Confesoreac ere ezdu ambeste neque ezagueracitzeco becatu, munduoen pagu gaiztotic gogoraeracitzen dionean, cembat maitatzalle ohea dan Jangoicoa, cembat oheac diran bere servitzarientzat dauzan sariac, cembat paque gueiago arkitzen duen garbiri vici diranac? O Christauac! Eta certara joco due azquenean becatutic datocen zorion edo fortuna? Cer ateraco dne emen egun on batzuec igaro ta guero betico Infernuco pena ta atsacabebetan egoten badira! O nola esanjo duen provechu gabe; zorigaiztoco fortunac! Obe nua Jangoicoari jarraitu baño, vici izan banintza confianza gucia beregan ipiniric ; igaro pobreza apur bat ; cembat averastasun oheac izango nitzean gaur Ceruan! Ala bada estimatzen ez duanac gueiago Jangoicoaren gracia lurreco onra, ondasun ta vicitza bera baño, ezdu danuric, ez Confesio onic onela confesatu dan arte gucietan, ta bear du eguin Confesio generala?

Damuric ez darame confesioetara prest duenac irabaci videgabeac eguiteco ; onelacoac dira mercatari dendera, Escribadu, ta beste tratulari atera alduen gucia ateratzen duenac, beguiratu gabe legueac emitea dituan zucenvideai. Errietan carguac dituztenac eguiten ere dituz-



tuzte, (ez diot guciac, bai batzuec) trampa asco issilchoric ta contuac emateco trampa berriac igarri ez decen beste Justiciaco ta vecinoac. *Au bear det, neque asco artu det, besteac ere eguiten due*, au da beren betico lelo ta soñua. Galdetzen die cinzó ta garbiro Confesore jaquitunai utsic ez eguiteco gogoz? Cein guchi-Eguin ta guero concienciaco quezcac obligatzen ditu cer bait esatera confesioan, baña milla edergarri, apainduria, ta estalquirequin Confesorea bere alde iduquitze. Oen confesioac dira gaizqui eguiñac, izango ere bai buirtu artean, iñola alduela, videgabeco irabaci. Oen artean sartzen dira logreria zaleac, diruac prestatzeagatic escatzen duenac emana baño gueiago : asco trutu dira gaizqui eguiñac ezte. galdetu nai guizon jaquitunei, ta beintzat ez garbiro, ta eguia billatzeco gogoz. Onela confesatu diranac eguin bear due Confesio generala asmo sendo barequin buirtze. irabaci chaarrac ; bestela ezdago ez confesio onic, ez barcatoric.

Eguin bear due Confesio generala damu eguiazcoaren paltaz len eguin diran confesioagatic, ocasio gaizto ta ezagunetan egon diranac alderic eguin gabe confesio ondoan. Becatuaren ocasio andi ta urrecoetan daudenac, daude becatu jarraitu ta beticoan. Confesatzen nintzan Jauna ; absolvitzen ninduen. Bai ; baña cere animaco caltean, ceren edo engañatu dezu Confesorea ocasio gaiztoac aguertu gabe, edo arqitu dezu Confesore contu guchice bat, zure animaren salvacioagatic neque guchi artu-duana, ta eman dizuna bien caltean izan dan absolucioa. Certaco da confesatzea, confesio ondoan biurtzen bacera lengo olgantz, pesta, joco, eche, edo lagunetara, nondic jaio ciran lengo becatnac? Ezpadezu gogo ta animoric largatzeco animaco galvideac, edo ocasioac, zure damua beguitandua ta guezurrezcoa da, becatuac oñen gafiñean daude ocasio ezagunac oñean badaude. O nola corputzeco gaitzetan iduquiten dan contu gueiago ! Nola igues eguiten duen osasuna galtzeco pelgroetatic osasuna beneñan nai duenac !

Emendic dator zucenvide edo regla dudagabeco au;  
Con-

Confesatzeco vitarteetan billatzen ta ipiatzen ez dituztenac vitarteco egoquiac irretzeco becatuaren oitura edo usuario gaiztoic ; edo peleatzen ezdiranac garaitzeco griña, edo pasio chaar gauza gaiztoetara arrastatzen dituztenac, confesatzen dirala gaizqui, ta eguin bear duela Confesio oso, guciñen, edo generala. Ondu gabe, ta indarric eguin gabe animaco etsaiac garaitzeco, non da damu ta eguiazco propositoa?

Orain bada eguin bear due Confesio generala vicio jarraituetan iraun duenac, vitarteetan confesatzen dirala. Onelacoac dira maldicioac ezarteco oitura luceac iduqui dituztenac ; batzuetan eguiazco gorrotoz besteetan intencio edo gogo gabe, ta guchitan escandalua emangabe; confesatu bai, baña aurrera leengo oitura gaiztoari.

Cembat onelaco? Badira Guraso beren seme alabeequin conturic iduqui ez duenac urte ascotan, nola nai vici izaten largatzen dienac; jaquiñagatic, edo jaquin bearrean, vici dirala pauso gaiztoetan, atzeraten ez dituztenac. Badira ere beren egeñplo gaiztoequin laguntzen dienac gaizto izaten. Badira ere seme ta alaba lotsa gaiztoa gordetzen dienac Gurasoai, conseju onac artu nai ezditu tenac, ematen dizteela naigave asco eranzuera gogorrequin, ta vici modu chaarrarequin. Irauten due urteetan onela, confesatu dira, baña gaizqui, cerren leengo vici modua beti ceucaten oñean.

Badira gorrotoan, tratatu nai ezta, ta etsaitasunean luzaro egon diranac, edo auciren bat darabilteñaco, edo beren iritzian injuria andiren bat artu duelaco. Oen confesioac izan dira gaizqui eguiñac, edo ondo esplicatzen etziralaco confesioan, edo emendatzen etziralaco.

Badira ardoara emanac, mozcortzen diranac beren anima, onra ta ondasunen caltean, erri guciac ezagutzen duala beren vicio gaiztoa, ta berac guchi. Oen confesioac izan oi dira guezurrezcoac, edo proposito eguiazco gabe eguiñac. Badira seigarren mandamentuaren contra modu ascotara utseguiten duenac, urteac igarotzen dituztenac pensamentu char ascori lecu ematen, itz zatar ta itsusi asco esaten, ta pocic enzuten ; escuca des-

onesto ta zatarrac eguiten edo consentitzen ; beren bu-  
ruequin ere atseguin itsusiac artutzen. Norc esan man-  
damentu onen contra ascoc eguiten dituzten loiqueriac?  
Auda becatu aspertzen ta guelditzen ezdana bein artu ez-  
quero , dio San Pedro Apostoluac ; *inaccessibilis delicti*;  
beguequin , belarriaquin , mingañarequin , escuaquin ,  
memoria , entendimentu ta vorondatearequin , comput-  
zarequin ciquintzen duela anima ! Norc esan berriz  
cembateraño zabaltzen dan ? Ezconduac ere galdutzen due  
odolari zor dien lotsa ; personaric beguiratuenac izan bear  
duenac ere arrapatzen dituala batzuetan deabruac ; ani-  
malia edo aberequin ere bat eguiten dirala , aur choai  
eracasten zaiela becatu eguiten. O vicio lotsagarria , ba-  
ña aimbeste erro ta sustrai botatzen dituana ! Cembat egur  
ezarten etzaio lujuriaco su berez viciari iraundezan ? Ol-  
gantza edo pestas iriciquitzen duenac , conversacio amo-  
retic sortuac , jan edan gueieguiac ta cer ez ? Ala irau-  
ten due urte osoetan ; confesatzen dira , baña edo gue-  
zurrez , edo obetasun gabe. Egunea batzuetan beldur  
apurren bategatic , edo gogait eguinda atseren badue ero-  
ri gabe , sartzen dira berriz gogo berriarequin , vidiatzi  
necatuac arnasa artu ta jarraitzen dion becela artu zuan  
videari. Dira abere beltz ciquintzatic joaqui ta ondo gar-  
bitu baño leenago , berriz ciquintzara ecauten diranen gui-  
sacoac. Norc sinis lezaque ume ezcontzacoz beteta dau-  
denac ere , ez largatzea gaztetan artu zuen vicio gaiztoa ?  
Norc aguretu , buru murrutuac , ta oin batarequin sepul-  
turan daudenac , beneric ecin duenean , esango dituzte-  
la itz berdeac , ta eman gazteari conseju gaizto-lasaigar-  
riac ? Nolacoac dira onelaco gucien confesioac ? Cembat  
sacrilegio izugarri ! Cembat vide gabe edo injuria Jesu-  
Christori aldaraco Sacramentura urreratzen diranean ani-  
ma ta sentidu ciquiñaquin ? Oec biurtzea osoro Jangoi-  
coagana ta gorrotatzea becatu ain maite ta eraatsia ! Cein  
gauza gaitza ! Eta cembat gaitzagoa ez biurtzea lengo  
ebillera , conversacio , lagun ta ocasioetara ? Cembat laba-  
narri arqitzen ez due pauso gucietan ? Nolaco sustrai sen-  
doac

doac ipiñi ez ditu beren viotzetan vicio gaizto onec ? No-  
laco indarrac , nolaco oracio ta diligenciac eguin bear ez  
dira ecitzeco aragni gaizquirac ditua ? Nolaco contua be-  
gui ain lasai ebilli diranequin ? Cembat tentacioc esetcico  
ez dia ? Nolaco guerrac igaro ez Infernuco etsaien alde-  
tic ? Gauzaric guchiena ta nequerie arinena da aozco con-  
fessio general oso oso bat eguitea , anditzat badaucate ere.  
Cembat gaitzagoa da onelaco viotzac ongui prestatzea da-  
mu andibat iristeco Jangoicoagandic , ta artzea iraungari  
egoqui ta bear becelacoac ? O cristau gaisso lujuriaco  
catea gogorrequin lotuta luzaro egon ceratenac ? Cer esan-  
go dizuet ? Ecin saluaco cerala ? Ez. Gauza gaitza da-  
la zuec Jan oicoagana eguiac biurtzea , ta irautea vici-  
za garbiant ? Bai bai. Cer eguin bada ? Eguin diligencia  
guciac , consideratu astiro cer dan ta nolacoa icharoten  
dizuen castigo beticoa Infernuco carcelan ; nola dan ain  
arina , ta iraupen laburrecoa becatuaren contentua , ta be-  
ticoa bere tormentua eguiacoz penitenciarequin confesio  
iturrian garbitzen ezpada. Nola ecer valioco ez dizun egun  
batzuetan becatu eguin ga e egoteac , irauten ezpadezu  
vicitza garbiant. Pensatu astirio , nolaco Ceru ederra gal-  
dutzen dezun atseguin itsusi , zatar , ta iraupen laburre-  
coac gati ! Cein beltz ta izugarria larga dezua anima Jan-  
goicoaren irudi edo imagiñara eguiña ! Gogoan artu ecin  
ona ta maitagarria dan zue ofenditu dezua Jangoicoa ! Ta  
nola paciencia andiarequin egon dan zuri beguira gau ta  
egun ascotas zu castigatu gabe beste asco becela ! Nola  
orain ere zu biilatzen zaituan zue bera billatu bearrean.  
Nola emango diozun atseguin andia , buirtzen baccera be-  
ragana , largaric becatuco lagun ta ocasioac. Nola poz  
gueiaco arqituro dezun Confessio eder , ta negarrezco  
batequin animaco carga astuna botata , iraunda baño leen-  
go vide zatar gaiztoetan. Oec bada bear due eguin Con-  
fessio general ongui prestatua saluatu nai badue.

Izan oi dira confessio gaizqui eguiñac proposito eguiac-  
coaren paltaz puscaca , ta apurca becela dempora luceetan  
gauzaac ostutzen diranean , confesatuagatic ondutzen ez  
diranac , leengoan dirauteenac , biurtu gabe quenduac itza-  
ema-

emanagatic Confesoreari. O cembat onelaco errietan! Olio, ardo ta janedan bestelacoac saldutzen dituztela legueco neurria baño laburragoan, edo naastzen dituztela obeto irabazteco; apurca apurca igoten due gauza astunera. Euri tantac chiquiac dira, baño ascorequin eguiten dira puzu andiac, aci ibaiac, ta ujolac ere jaiqui. Orobat dendera saldu erosietan edo irabazte gueieguiac, edo neurri laburtuequin gauzaac ematen dituztenac. Onelacoac beti daude pecatu mortalac taasco eguiten cerren beti dauden prest chiquietatic andira igoteco irabazte chaarretan. Eguin bear due nai ta ez dempora guci artaco Confesio generala, edo gaizqui esplicatzen ciralaco confesio bana-coetan, edo emendatzen etziralaco; baño ezta valioco Confesioac, laguntzen ezpadio biurrera edo quenduen restitucioac, inolare aldala, ta aldan bestean. Norc esan alde onetatic eguiten diran confesio proposito eguiaczo gabeac? Cembat daude urte osoetan zor eguiaczoac pagatu gabe naguitasunez, luzatzen dituztela arrazoi on gabe ta jabearen vorondatearen contra arquitzen dutela gastu alperretaraco, ta jaartzen dirala, ez guchitan, inoiz ez pagatzeco peligröan, edo eriotzac ustecabean artu dezaquealaco, edo guerora cerequin pagatu iduquico eztualaco? Cembat vici dira contuetan utseguin dualaco tratuco lagunac, igarriric utseguina lagunaren caltean dagoala chit pocic, aguertu gabe utseguina? Cembat, errico diruac gobernatzen dituztenen artean, contu oquerrac eman, aloguer bear ezdiranac artu, ta vici diranac urte osoac paque galantean concienciaco quezcai jaramon gabe? Cembat maior-domo edo Elizaco Cofradietacoac, edo inoren ondasu-netacoac, ezcutuan jan ta contuetan guero milla trampa sartutzen dituztenac? Cembat testamentario nagui, cembat heredero diru zaleagoac, anima zaleagoac baño, vici dira urte osoetan meza aguinuac atera gabe, luzatzen dituztela Purgatorioco anima gaissoen caltean, ta eguin bear ciran beste zor pagatzeac eguin bague! O confesio ederrac! Jangoicoa engañatu ecin due munducoen beguie-tatic extaltzen badue ere beren cuticia, edo inoren gau-zeen gozatze vide gaiztoaco Onelacoac confesatu dira gaiz-qui

qui, edo aguertzen etzituztelaco zucen beren trampac, gueienez guertatzen dan becala, edo emendatzen etziralaco, edo buirtzen etzielaco bacoitzari berea cequentasunez. Baña erraz da onelacoac Confesio general ona eguitea? Ez: cerren araguitu ta echetuta dauzqueen inoren gauzaac, ta min andia artu bear due ebaqui, atera, ta biurtzeco bacoitzari berea. Emango dituzte milla esesio, aitzquia ta escusa; *ecin det orain, ecusico det cer eguin aldezaquedan, mantenitu bear det ta janci nere burua ta ebecoac; etorrico da dempora obeago bat, ta ez naiz illo biurtu gabe.* Ala ecin eguin beguitanduequin engañatzen dituzte ascoc Confesoreac, ta ecusten dira ostutze modu asco, confesioac confesio gañean, ta restitucio guci guchi. Ezdago Confesio general ondo eguinic ezpado restitucioric, inola aldeza, edo aldan bestean. Ala bada ez alperric necatu esamina eguiten, ta confesatzen; bada, cer eguin? Aurrez eguin diligencia osoa biurtzeco bacoitzari berea, ta ez esan guezurrez ez det cerequin. Aguertu eguia Confesore jaquintsu bati, ta Christoc badio beguia atera, ta ona ebaqui bear dala escandalua ematen badue, nic ere esango dizuet, obe dala guchi jan, pobrecho janci, ta nequez igaro inoren gauzarequin jan ta janci ta guero Infernura erori baño.

Ala bada esana, egon diranac dempora lucean vicio gaiztoren baten sartuta, edo obligacio astunen batzuec complitu gabe beren culpaz, eguin bear due dempora guci artaco confesioen berriztacio garbi bat; ceña dan Confesio generala, ta au eguin gabe jarraitzen badue confesatzen, confesio gaiztoac eguingo dituzte.

G. *Contu gogorra, esango dezu. Nic esaten nituan becatu guciac, ez nuan eser gordetzen; uste ere nuan baneramala damu ta propositoa; esaminatzen nuan conciencia centu andiarequin; ordea guero pasioac berrizcigtatzennenduan. Certaco bada ausico det burua, ta eman cerequin Confesoreari berriz esaten len confesatutaco becatu mortal guciac?*

E. O debruaren asmacio anima asco galdu dituana atzeratuaz Confesio generala eguitetic! Cer atera dezu be-

catu guciac aguertuaz leengo Confesioetan, ta Confesio-  
reac ascotan luzatu bear cizun absolucioa gaizqui emanaz,  
baldin ezipaceraman bear becelaco eguiazco damu, ta pro-  
positoa? Zure iritzi edo uste izate chaarrac ecarrico di-  
zu barcacioa? Ez, ez. Apaiz batec bateatzen badu aur-  
choa ardo zuriarequin uste izanic urarequin bateatzen  
zuala, ondo bateatuko da aurra? Eta barcatuco zaio be-  
cātu amaren sabeletic dacarrena? Ezez, esango didazu. Eta  
cergatic ez? Cerren bear dan ur eguiazcoa, ta ez begui-  
tandua bateoa ona izango bada. Bada nic ere esaten di-  
zut, ain bearrac dirala, confesioa ona izaiteco, damu ta  
proposito eguiazcoa, nola ur eguiazcoa bateoa ona iza-  
teco. Ala, zure uste izateac ez dizu eguingo confesio ona,  
ta jaquin ere bear cenuan obetasun ta emienda gabeco con-  
fesioac cirala eguiazco damu ta proposito gabe eguinac. Cer  
eranzuten dezu? Ona cer esaten dizun Espiritu Santuac,  
*bere becatuac gatic baraur eguiten duan guizonari, biurt-  
zen bada lengo becatuetara, cer valioso dio bere humillat-  
zeac; edo norc enzungo du bere escaari* edo oracioa?  
Norc icara andi bat artuco ez du Jangoicoaren itz au en-  
zunda? Cer esan confesioco humillatze, oracio edo par-  
cacio escatzeac gatic, laster, ta sarri buirtzen bada lengo  
becatuetara? Gaur negar ichuraz, bularrac colpetzen ta esa-  
ten, damu det Jauna, ta andic laster becatuta biurtzen;  
ta onela becatu ta confesio, confesio ta becatu. Norc esan  
benetan damutzen zala, ta artutzen cituala ondutzeco vi-  
de onac? Norc igaro naico du alaco confesioquin Chris-  
toren aurrera? Beraz eguin bear due Confesio generala  
ondo ta ondo prestatuta.

Baña ezta ecertan igarten obeto ta arguiroago Confe-  
sio generalaren prenia, nola dan leenagoco confesioetan  
largatzeaz becatu mortalen bat ezagueraz, ta lotsaz aguer-  
tu gabe, ta ascoc uste duen baño utseguin gueiago dago  
gauza onetan. Ona bada guztiraco ona izango dan zucen  
videa. Larga duanac ezagueraz ta beldurrez confesatu ga-  
be becatu mortal ezagun edo duda osocoren bat, edo be-  
catu mortaltzat ceucana confesatzeco orduan, edo becatu  
mortalaren circunstancia becatu berria eguiten zuana; ta

oro bat apaintzen duanac edo guchitu mortal izatetic ve-  
nialera joeracitzen diola, eguiten du confesio gaiztoa, ta  
cambat confesio ta comunio eguin dituan aguertu gabe  
becatu, edo becatuac ezagueraz, eguiten ditu beste am-  
beste sacrilegio, ta eguin bear du dempora guci artaco  
Confesio generala; ta Confesio general onetan aguertu  
bear dira, ez bacarric lotsaz gorde ciran becatuac, baita  
ere aleguinez vitarte artan eguin ta confesatu ciranac ere,  
cerren confesio gaizqui eguinean confesatuac, dira ez con-  
fesatuac becela.

Au eguin izanic, aztertu bacoitzac bere conciencia,  
ezagutzeco nolacoac izan diran confesioac, inoiz ecer ut-  
zi ote duan lotsaz confesaquiza ta astuna ceritzonean.  
Arquituco dira uste dan baño gueiago, edo guciz issildu,  
edo edertu, edo guchitu dituztenac, ta onela igaro dira-  
nac confesatzen urte osoetan. Beguira cer dion bacoitza-  
ren conciencia.

Ori orrela bada, dio batec, nic naita ez eguin bear  
det Confesio generala, cerren chiquichoa nintzanean eguin  
edo consentitu nituan ciquinqueria ta nauscontuac nere  
lagun aide batequin, escolaco lagunequin, edo au-zoco-  
taco nescach mutilchoac alcarrequin guenbiltzanean, ta  
ez ditut inoiz ondo confesatu, cerren ematen cidaten lot-  
sa andia chiquitan alaco gauza zatarrac eguiteac ta egui-  
ten eracasteac, ta sarritan gogora etorri, ta quezcatu be-  
nante ere, pensatzen nuan batzuetan etzirala becatu as-  
tunac izango, ez niaqueala nic orduan cer eguiten nuan,  
ez nuala ezagutzen cer zan becatu mortala; baño eguia  
esateco gucia izan da lotsaren lotsaz ez confesatzea gatic;  
ez nintzan inoiz paquetzen; enzuten nituanean Pulpitoe-  
tatic, nola bata ta bestea condenatu ciran becatua beldur-  
rez ez aguertuagatic, icaratzen nintzan, etortzen citzaiz-  
tan gogora chiquitaco becatu loi edo itsusac; batzuetan  
pensatzen nuan confesatzea; beste batzuetan atzeratzen  
nintzan, ta ala ezda baida onelacoetan igaro ditut chiqui-  
tatic onaco urte guciac. Ori orrela da? Bada eguin bear  
dezu chiquitatic onaraco Confesio generala, ta au eguin  
artean ez dezu beste confesioric eguin bear. Duda pisu

andicoac ez aguertzea Confesoreari ezagueraz ta lotsaz, becatua da. Chiquitaco loiqueria aiec eguin oi dira malicia moduren batequin, billatzen dira lecu ezcutuco ta baccarrac, ta arguiro ez pensatuagatic urte aietan becatu mortalac ciranic, beti edo gueienez egoten da ezauera moduren bat arrazoari gaizqui deritzona obra char ura. Onez gañetic confesatu ez dituzu gaizqui cerintzola ez confesatzea, egon cera quezca andietan, conciencia paquetzen etzan inoiz osoz, ta noicean bein quezcatzen cihan. Onela eguin diran confesioac dira fede chaarrecoac, ta ala obligatua zaude confesio general bat eguitera.

Niri guertatu zat, dio beste batec, eguitea orain amar edo ogeui urte animalia batequin becatu itsusi bat edo gueiago, ta alacoa izan da nere lotsa, ecen ez naiz atrebitu edo azartu confesatzera. Bai? Bada edo eguin dempora guci orretaco confesio gucien berriztacio bat edo Confesio generala, edo condenatu.

Ni ere arrapatzen nau gaur doctrinac, dio beste batec, cerren larga ditut confesatu gabe fedearen contraco pensamentu gaiztoac, uste nuan Confesoreac iduquico ninduala heregetzat, etzegoala Erromara gabe barcacio-ric, ta ala eraman det vicitza triste ta arantzaz bete bat. O Christau deabruac engañatua! Bear bada lecuric eman etziñon pensamentu oriei, ta Jangoicoaren contraco pensamenturic itsusienac ere becatu ez dira vorondateac laguntzen ez dionean. Baña nola egon ceran lotsaz gordetzen confesatzeco obligacioa cenducalo usteaz, eguin dituzu confesio gaiztoac, ta eguin bear dezu gucien Confesio generala.

Nic eguiten nuan beste trampa modu bat, diñ norc edo norc. Iduqui nituan lotsaz aguertu gabe dempora zati baten becatu batzuec, ta nola lotsa nintzan esatea Confesoreari lotsaz larga nituala, esan nion guero aztu citzaitazala, ta lotsaz confesatu gabeac esan nituan aztuac becela. Bada eguin dituzu confesio gaiztoac, cerren ezcutatu dituzu becatu andiac, oec dira confesio ta comunio sacrilegoac, ta dezu obligacio estu estua eguitemo lotsaz confesatu gabe asi cihatic onarañoco Confesio generala.

Ala

Ala da. Gueiago costatzen zaio bati esatea arguiro becatuac lotsaz confesatu gabe larga dituala, becatuac berac esatea baño; baña guciac esan bear dira, ala eguin diran confesio ta comunio gaiztoac, nola orretaraco lotsaz confesatu ezaz videa eman duen becatuac.

Nic gueiago eguin det, esango didate beste christau batzuec; chiquitatic asi nintzan pensamentu ciquinai lecu osoa ematen, itz zatarrac esaten ta enzuten, eguin ditut escuca ichusi asco edo nere araguiarequin baccarrean, ta lagun gai/toequin; onela igaro ditut urte osoac diversio gaiztoetan buruco illeac beste becatu eguiten modu gucietara; confesatzen nintzan sarri, baña esaten ez nituan erdiac ta guchiago ere; esaten nituan arinenac, ta astunenac gorde; nere begui oin escu, edo sentiduei ematen nien atsegin gaizto asco; ez nuan eguiten guero ez esamina onic, ez artu damu eguiazcoric, ez confesatu laurdenic, ta onelacoa i'an da nere vicitza gucia, gaizari vorondateco atea zabaldua, mandamenturic gueienac auzitzen nituala certan edo artan. Nic ezagutzen det orain arguiroago eguin bear dedala Confesio generala. Baña nola garbitu nere conciencia matasatua? Nola gogora ecarri guciac? Nola nere aotic atera ambeste becatu itsusi?

Christau eroa, nai dezu aurreracian ondu ta vicitza berri bat artu? Nai dituzu larga becatuco ocasio galgari ta ezagun guciac? Nai dezu artu damu andi bat cere vicitza ta ambeste sacrilegio itsusi gatic? Ondu nai ezpadezu, larga nai ezpadiezu lagun, adisquide, lecu, eche, ta olgantzta galdu zaituzte nai, alperra izango da Confesio generala. Baña penitencia eguin nai badezu lengoac gatic, ta artu aurrera vicitza garbi ta chit on bada, ez dago gauza gaitzic Confesio generala eguitemo: billa ezazu anima zalea dan Confesore jaquintzu bat; esan lenengotic pilloan nolacoa izan ceran, no a confesio onic eguin ez dezun urte ascotan edo vicitza gucian, ta erregutu ezozu galdetu daguizuela banaan mandamentuetic. Bai cristaua, zaarra bacera ere vorondate ona ba dezu ta gogo ona ecer ez largatzeco, ateraco dizquitzu Confesoreac bere itaune, edo galdetze prestaquin zu

re

re viotzean dauden becuric itsusienac, ta banian ecin atera diranac, ateraco dira oitura edo usuarioz. Ah bai ta nolaco paquea gueldituco dan zure animan conciencia garbitu ezquero! Nola pozaren pozac negar gozoac ateraco dizquitzun! Nola ezagutuco dezun gueroago ta gueiago Jangoicoaren ontasuna, ta eramango zaituan argui berri bateç amatzera ta servitzera Jaun ambeste paciencierequin icharan dizuna, ta zu billatu zaituana. Nolaco atseguina eriotzaco orduan contu guciac ondo eguinac iduquitzeaz Jangoicoaren Justiciarequin Confesio general garbi, cinzo, zucea, ta damu andico batequin! Berriz, cer eguingo du anima, becatu gaizqui confesatuquin eriotzaco trancean arkitzen danac? Nola garbitu conciencia naastu ta matasatua? Nolaco estutasua ta ernegacioac artuco du ecusiric bere anima becatuz, ta sacrilegioz betea! Ezagutzen du Confesio zucen garbi, ta generalaren premia, ta nola izan zuan astia, ta era ona osasun on ta entendimentua arguiarequin ondo guciac esateco, ta vicitza garbi bat eramateco? Arkitzen du Confesoreac estu, larri, ta urte ascotaco confesioac gaizqui eguinda. Confesorea ezpada anima zalea, paciencia andicoa ezdio contu andiri artuco, largaco du confesio arin batequin len baño erestuago. Confesore on bat arkitzen badu ere, nola zucendu anima guciz becatuz josia, sacrilegioz betea, esamina onic eguin ez duana, beldurrez ta icaraz dagoana iltzeco, gaitzac buru gucia astundu diona, ta itzac ere nequez-baño atera ecin dituana! O cristau deabruac orain ambeste atzerapen, naguitasun, ta ecin eguin ematen dizuna, erraztucodizu or lu estu artan? Cerc ichutzen zaitu? Cer ateratzen dezu becuric becatu zabiltzala? Cembat negar malco gori bota bearco dituzu egunen batean oraingo atseguin ustel zatarrac billatzen dituzulaco? Cembat irauago dizue vide gaiztoco irabaciac, eguiten dituzun trampac, ta lagunari quendu diozcatzun ondasunac? Trocatu, edo errebesatu bearco dituzula, dio Espiritu Santuac, jan edo bildu cinduen averastasunac. Cer ateraco dezu eguiten dituzun confesio ta comunio sacrilegioetic, edo eguia estaltzen dezulaco, edo damugabe ur-

bilt-

biltzen ceralaco confesio sacramentura? Nolaco castigo icaragarriac icharoten dizu Infernuan Cristoren computz ta anima santuari ematenciñelaco becatuco lecu itsusia?

Ai, Jauna! dioe batzuec, nai nuque garbitu nere conciencia, artzen det gogoa eguiteco Confesio generala; badaquit arquituco nuqueana atseguin ta paque gueiago nere animaco carga andi ta pisu au quenduta banuca. Ordea be-reala larritzen naiz, icerdi larri batec irteeten dit, gogoratu ta bestegabe, esan bear ditudala ambeste becatu itsusi ambeste confesio ta comunio gaizqui eguin ditudanac Ezdaquit ez nondic asi, ez nola jarraitu. Nai dezu bada artu nere conseju ongui irtengo dizuna? Zoaz Ama Virginiaren Imagiña baten aurrera, echun zaite anbertan, escaezozu bere laguntasuna garaitzeco infernuco etsaiac ematen dizun beldurra. Eguizu negar cere becatu andiagatic, ta nere contura lagunduco dizula Confesio general eder bat eguitera; ta arquituco dezu, bestela arquituco ecin dezun paquea. Nai dezu enzun neuri gertatu citzatan egemplo bat? -Ona bada-

Vici zan erri baten Persona bat vicitza gucia eraman zuana becatu modo gucietan; etzuan inoiz confesio onbat eguin; chiquitatic asi zan becatuac eguiten, ta iraun zuan urte ascoan becatuac becuri iristen. Ecin sufrituric bere concienciaco deadarrac, cebillen Judas becela salvacioaz ernegatuta, esperanza gucia galduta, ta onec ceraman edocein becatu eguitera; baño ecin arquite zuan ecertan pocic, ta ala bein baño gueiagotan dei eguiten cion Infernuco etsaiari bere anima salduzeco ta berequin tratuac eguiteco. Ordea etzion Jangoicoac licenciaric eman deabruari artaraco. Urte ascotan confesatu ere etzan, ez comulgatu; cerren alde batetic etzuan viotzic becatu guciac Confesoreari esateco, ta bestetic beldur zan comunio santura eltzen anima ain loi ta gaiztoarequin. Au zan eguiten zuan gauza on bacarra, au da ez nai izatea gaizqui comulgatu. Bere gaiztaqueria gucien artean etzan Ama Virginiarequin aaztuta vici. Ecin zuanean baqueric arquite erabaqui zuan, deabruac ala puztuta puztu edo Ibai batera bere burua botatzea, ta ala, bere us-tez,

tez, paquea billatzea. Asino galdu onequin joanzan egun batean Ibai ondora, ta burua urari eman orduco, oroitu zan Ama Virginiñaz, ta belaunico jarriric asi zan esaten iru *Ave Maria*. Cer valioco otecion ito balu burua? Bereala artu zuan eriotzaren beldur andiac, ta biurtu zan echera ecer eguin gabe. Dempora zati bat igarota, nola Confesio general bat eguitera atrebitzen etzan, biurtu citzaizcon quezcac, ta ernegacioac, ta esan zuan, ito bear det buruau, ta ez len becala beldurtuta, eguin gabe, echera biurtu. Joan zan bigarren aldian Ibai ondora; esan cituan orduan ere iru Ave Maria belaunico; ta bertan artu zuan condenacioco icara andi batec, ta buirtu zan berriz echera. Baña gueroago ta estuago cerabilen deabruac. Zuc arquituco ez dezu paqueric vici ceran artean, confesatuco ecin dituzu vicitza gucico becatuac, ta etzera salvatuco. Zoaz bada ta emanezazu buruari paquea ta ito zaitte. Cer eguin zuala deritzazu cristau errucarri arc! Esan zuan beregan, ni banoa Ibai ondora icaratuco naiz ta ezdet animoric artuco burua uretara botatzeco. Asmatu zuan erostea baso erdi aguardiente; joan zan ibai ondora irugarren aldian, esan eituan belaunico iru Ave Mariac, ta icaratu etzidin, edan zuan aguardiente animoa artzeco eraman zuana. Baña, ó Jangoicoaren ontasuna! Artu zuan bereala lo astun batec, ta lotatic iratzartu zanean sartu citzaion icara andia, buirtu zan echera; ta azquenean animatu zan nere onietara eltzera, urruticoa bazan ere. Eguin zuan vicitza gucico Confesio generala erraz erraz esaten cituala becatu itsusi guciac. Nolaco poza nerea Jangoicoac bialdu cidanean anima Virginac deabruaren ortzetatic libratu zuana! Eta nolaco poza berea arquitu zanean conciencia paquetsuarequin? Ah cristau premia andian arkitzen cerana! Garbiezazu cere conciencia, billaezazu Ama Virginaren laguntasuna, ta arquituco dezn salvacioco atea idiquiric. Amen.

Nola

*Nola Confesio generala eguin ondoan irauin bear dan vicitza onean ta nola irauingo dan.*

**E**zda gauza sarriago ecusten danic, nola diran Confesio generalac misioco egunetan, baita ere beste dempora batzuetan. Badirudi erriac aldatu dirala onera. Ordea guchic irauten due gogo santuetan, ta lau edo bost ill igaro baño leenago, negerrac leortzen dira, ta erriac biurtzen anciñaco vicitza lasaira. Atseren apur bat artu due pasioac, baña guero azcortzen dirá: alcar ecusi gabe egon ciran adisquide chaarrac Confesoreac eguinduric, edo Sermoien videz, gueldica eguiten dituzte visitachoac gauza chatarric ez eguiteco asmo deabruac edertuarequin. Ecusiac dacar parrea, itzqueta amorezcoa, ta egun guchiren buruan ascetzen due pasioa, galdu lotsa ta beldur gucia, ta dira guerora egunetic egunera gaiztoagoac.

Beste batzuec eguin zuenean Confesio generala artu zuten asmoa biurtzeco ostuac, calte eguinac, edo irabaci vide gaiztocoac; emancien itza Confesoreari ambat lastarren egingo cituztela restitucio edo gauza quenduen biurrerac. Ordea min ematendie echetic ecer ateratzec, ta dabilitza aurrera confesatzen cumplitu gabe obligacio ain bearra.

Beste batzuec eman zuten itza confesatuco cirala illean bein largaco ciela olganza, ta pesta len galdu cituztenai, eramango zueela vicitza modu oneco bat:: baña dempora guchiren buruan largatzen die Confesatzeari, ta ez Tamboril señuari; lasaitzen dira cumplitzen ez dituzte penitenciac, ta biurtzen dira ancinacoac izatera. Itz guchitan; asitzen dira ondo, jarraitzen due gaizqui, ta bucatzen due vicitza eriotza gaizto batequin; cerren gaitzera biurtzerequin eguiten zaio Christori injuria, edo vidégabe guciz andi bat, sendotzen dira deabruaren indarrac, ta argaltzen animarenac. Iraun nai expazan, cer-

Aa

tacq

taco asi? Eta cergatic irauñ ez asi ezquero vicitza on bat? Ah gende ero ta gatgabea, esaten cien San Pabloc Galatacoai, nore lausotu ditu zuen beguiac ez ecusteco eguia, ta jarraitzeco guezurrari? Asi ciñaten ondo, eguin ere bai vide zati bat eguiaren eza rutzan. Cergatic onic onenean larga diezu vide onari? Nore izan da onela galdu zaituztena? *Quis vos fascinavit?*

Iru gauzac dacar morroe bat largatzera bere eche-co Jauna; lenvicicoa, aldatza edo mudanzareu bat dacuoanean echecho Jaunagan; bigarrena, serbicioa lengoa ezdanean; irugarrena, laburtzen bazaio alagorea, edo urte saria. Echecho Jaun, len bigun erruquiorra zana, biurtzen bada gogor, astun, ta gogaitgarria izatera, aldatzen da beste bat becela izatera; morroca bacegoan confianza osoan, gultzen contuaz, ta beingoan morroe azpico eguiten badu, gaitz deritzo aldatza oni, ta dijoa ehetic. Azquenean, amar ezcutu soldatatic eresten badio hostera, ez dio ondo jaquitzen. Ordea, ce arrazoi argui lezatuque anima Jangoicoaren serbicioan sactu danac igues eguiteco, largatzeco Jaun aldatu ez dana, mesederic guchitu ez diona, ta bearsariac ugari ta laburtu gabe emango dioz-cana? Jaun maitagarri onec artzen du Aitaren icena; gaitu bereac, ala berac eguinac gualaco, nola bere odolarequin erosi guinduelaco. Cergatic igues eguin alaco Aitaren ehetic atseguin ematearen aragui gaiztoari, edo munducoen esamesac gatic? Edo Infernuco ersaiaren tentacioai lecu ematea gatic? O esquergavetasun ichusia! Confesio generala osoro ta damu andiarequin eguin danean, nolaco poza viotzac, nolaco arintasun ta paquea zor andiac pagatu ta zor gabe guelditzen danac becelacoa? Certara joco du paque arc biurtutzen baguera lengo vicitza gaiztora? Cembat arrazoi dauzcagu bada irauteco vicitza onean, egunoro obeac izateco, ta virtuteric virtute gabiltzala izateco eriotza ona! Esanda dago; *irauten duanac onean azqueneraño, salvatuco da, ez asi, ta largatzen diona onizateari. Obe izango zan nola bait eza-gutzeca eguia, ez sartzea Jangoicoa serbitzen, aldeguite-co bere leguetic. Eche eder ta audi bat asi duanari, par-*

re eguingo die neque andiac artu, ta largatzen badu bucatugabe erdi eguinda.

Nondic dator ordea ez iraute vide on artuan? Ona cer dion Christoc. Echearen cimentua eguin da arearen gañean, dator eguraldi gaizto bat, jaiquitzen dira aiceac, ta zujoalac, ezarten due lurrera eche gucia cimentu argal ta chatarra ceucalaco. Ala bada virtuteari ezarten ez-pazaioz cimentu onac, erorico da laster tentacio andien aice gogor ta ujolequin. Nabasariari escua ezarten dionac soroan bear eguiteco, ezdu atzera beguiratu bear, ta bai equin bere lanari. Au eguin bearda virtuteco lanean; bestela ezda gauza neretzat dio Christo ber berac. Ecusi bear degu bada cein diran cimendu onac erori ez didin anima-co bear gucia. Gauza guciac datoiz bi oetara, aldeguite-ra onean irautea galeracitzen diguten gauza guciatic, ta eguitera onean irauteco lagunduco diguenac.

Lenengo, alde eguin bear deguna, da becatura garmeezan ocasio ezagunac, ta onetan eztago parcacioric. Gaizqui len vici izan diranac dau de gaiso edo eritasun andi bateric igues eguin duenac becela, argal, erorrerazac; edo cein jatecoc, conta andiarequin ezpadabilta, gaitza biurtuco dienac, beste sendoi calte eguiten ezpadie ere. Beraz converti berriac arreta gueiagorequin aldeguin bear due erorvide; edo becatuaren ocasioetic, virtutean luzaro irauñ ta sendotu diranac baño. Aientzat ocasio ezagun ta ur utrecoac dira lagun, lecu ta ebillera asco, besteentzat urruticoac diranac. Contu dezagun cristau luju-riaco amore, ta videtan oitu dan batec, Jangoicoaren argui batequin bere vicitza gaiztoa ezaguturic, eguin du-la Confesio general eder, ta damu andico bat. Onelaco batec irauñ nai badu artu duan vicitza on ta berrian, nolaco contua iduqui bear ez du? Beguiac ozturic dauca ecuste amoragarrietara, belarriac canta, edo itzqueta zatarra atseguinez enzutera. Non nai becela arquituco da nai ta ez ere lengo ezagun ta lagun gaiztoequin. Oec emango die videren bat bear ez diran gaucetaraco. Bada artzen ezpadie lagun aiei gorroto santu bat, igues eguiten ezpadu chacur amorratu bategandic becela alien arte-



tic, arpegi astun bat eracutsiric, laster galduco da. Eta cer joaten bada lagun aien artera berac nai duala? Cer aguertzen bada carrica edo plazaan prest ta esquintzen becela burua danzaraco? Nola irauñ? Nola piztuco ezda aññaco amorio edo oniritzi araguzcoa? Nola parre, itzqueta, ta escu estutzequin licatuco ez da bere viotza? Nola deabruaren soñuan issilduco ez du Jangoicoac bacar-zaleai viotzetan ematen diena? Galdu da bai, anima gais-soa igues eguindu Christoren escolatic, ta sartu da infer-nuco escolan. Sartu zaa peligro beretzat ezagunean, ta beste gabe galduco da. Anima onac, ta virtutean sendo-tuac ere ezluques iraungo luzaro galdu gabe. Cer eguin-go due anima argal ta becatutic irten berriac? Igues ba-da igues Babilonia gaiztotic. Bacartzen diranac ere badue cer eguin irauteco vide onean. Infernuco etsaiac ingurat-zen gaitu alde gucietic; oracio, penitencia, ta gauza onetara emanac ere peleatu bear du garaitzeco tentacio as-co, batez ere len becatari andia izan bada. Oec galtzeco ecartzen ditu Infernuco etsaiac beste etsai bera baño gaiz-toagoac, ta esesten die guciac. Bada nola izango ez di-ra galdu ta garaituac munduaren erdira irtetzen duenac, mundu etsaiandiarequin laztantzen diranac? O ichumena eguia au ecusten ezpada! Beraz larga bear dira diversio edo olgantz peligrasoac; igues eguin alaco laguneratic suguearen arpegiutic becela. Ala ez eguitera, galdua da anima gaissoa. Orobat edanean len erorten zana al-deguin bear du edateera tentatuco duen guizon ardanzalee-tatic, aldeguin Ardantegui edo Taberneetic, non sartu ezquero, jaquin bear duen, len guertatu zateenaz, iga-roco dirala edanean. Adisquidetasun gaiztoren bat iduqui duteenac auzoan, edo urrutiagoco echeren baten, ez due ara gueiago joan bear, ez, esateraco, agursicuric ere eguin videren bat arquituta ere adisquide caltegarriari; ta quen-du bear da aleguñez bere gozotic alaco adisquile gaiz-toa. Largatzen bada amore chingarren bat, jaquico da su andia, ta egur guciac quendu bearrean, guertzen badira berriac, irtengo du garondagarriac.

Bigarren etsai igues eguin bear dana da mundua, esan  
nai

nai det, ez dala beguiratu bear lurrecoen esan esetara. Nere ustean calte gueiago eguiten du anima onera biurtu diranetan mundu gaizto onec, infernuco etsai gaizto gu-ciac baño. Mundu zaleac ecusten badue beren lagun len izan dana Jangoicoaren aldera giratua, asitzen dira mi-lla farra, ta siñu eguiten. Ona emen egun guchico San-ta aldaretan ipiñi bearco deguna; guc condenatu bearco degu; onec izan Ceruan Coroa andia. Zu becelaco eroac galduco dira. Burua laster galduco dezu. Cergatic irten ez pesteetara! Cer gauza chaar eguiten da? Guc ere sal-vatu uste degu; infernua ecusteco dago. Onela milla ber-riquetarequin beldurturic, atzeratzen dira Jangoicoaren videtic, lotsatzen dira Christoren escolacoac izaten, sar-tutzen dira munduaren erdian. Baña cer guertatuco zaiet? Lotsatuco da Jesu-Christo ere alaco gente beldurtzac bere umetzat artutzen. Eta issilduco da mundua eguin alac eguinda ere? Largatzen badiozu vide onari, irteten ba-dezu apainduta, bazabiltza pesta ta diversio galgarrietan, esango due, ona certara etorri dan onen santidadea. Agui-ri da engañatu dituala Confesoreac. Eguizu nai al gucia; ez dezu mundua issilduco, San Juanec eguiten baditu ba-rraur gogorrac, gaixqui esango due, Christo ecusten bada Zaqueo ta beste echeetan cerbait jaaten animac irabaztea gatic, esango du dala buruquina, edala, ta sabel andicoa. Beraz ero garbia da munduco esamesen beldurrez largat-zen diona Jangoicoaren videari.

Irugarren eragozpena irauteco artu dan vicitza onean, dira igaro bear diran tentacioac. Asco da anima bat sart-zea vicitza on bat eguiten, bereala irteteco videra atzera eraguiteco. Ezagutzen du Infernuco etsaiac nola igues eguin dion? Gueitzen ditu tentacioac, ematen ditu beldurrac, ecin jarraituco duela asi duan videan, alperric dabilela egun batzuetan, guero ere erorico dala. Eta cer, cristauac ar-tutzen baditu neurri onac irauteco? Cer, sartutzen badu oracioco, ta penitenciaco videan. Eta artzen ez duen as-moric, dio Santa Theresac, eragozteco oracio issillecoa. Asco da oracioco lecuan jartzea sentitzeco tentacio zatar-rac, loa, beldurrac, corputzeco min edo oñazac. O ani-  
ma

ma gaissoa! Ez icaratu : equin equin lan eder-orri ; garaituco dituzu etsaiaren asino guciac irauten badezu atzeraric eguin gabe. Ez dezu sentitzen gozotasunic ? Zaude leor , gogor , pensamentua eci ecinda? Ezda ansi. Aurre-ra. Zure iran-penac bigunduco du Cerua ; jo atea , eguin oles berriz ta berriz , ta idiquico zatzu. Nola uste dezu garbitu anima lengo becatuen loi , cetaca , ta ugar gucietati estutasun gogorrac igarõ gabe? Peleatzen badezu tentacioen contra , oec badira belz , ichusi ta ciquinec , be-requin garbituco cera , nola lisibaco auts loituac garbitzen dituen zapiac. Jaiquico zaizquitzu guizonen persecucioac , zure contra izango dira aideac , adisquideac , ta mundu gucia. Araguaia bera egongo da escatzen atseguin zatar-rac. O Christoren Soldadua ! Ez izutu : eman arpeguia et-sai guciai ; zure pacienciarequia garaituco dituzu mundu-coen persecucio ta irauñ guciac. Araguaia ecico dezu ora-cio ta penitenciarequin ta ucatuaz escatzen dituen gauza chatarrac , ta fede sendo batequin Infernuco etsaia , ta az-quenean bear becela gudätzen duenac , izango du inoiz cimeldu ta igartuco ezdan Coroa.

Gauza gogorra ! Esango dezu ; betico guerran ebilli bearra. Atoz ona. Nolaco naigave ta penac ez daramez hur-reco Erregueren Soldadua guerraco demporetan? Otza , bero guciagua , jaateco laburra , lo guchia , ta diltzeco aubeste peligro , ta azquenean vicitzarequin irteten ba- due ere , cer sarri ematen zaie? Berriz Jangoicoaren ser- vicioan peleatzen dutenai , nolaco sariac icharaten ez die Ceruan? Non da gure cenzu ta fedea?

Ah Christau maite Jangoicoaren servicioan sartu ce- rana , jaquin zazu , azqueneraño irautea virtute onean da- la guchi batzuenac ; ceren artu naiez dituzten neurri ego- quiac orretaco. Bear , dira bada gauza bi ; bata Jangoicoa- ren aparte aparteco gracia edo la guntasuna , ta guere al- deti artzea vitarteco sendoac. Jangoico , zu gabe eguin zaitusanac , salvatuco etzaitu zen gabe , dio San Agus- tinec. Bear eguin bear du gracia gurequin batera , dio San Pabloc. *Gratia Dei mecum*. Oraia bada eracatsi bear- det cein diran gure eguin videac irauteco artu degun vi-

de

de onean , ta egunoro aurreratzeo vide onetan. Ichasoan aice ederrarequin cijoan oncia guelditzen da batzuetan aiceac uts emanda calma edo paque caltegarrian : dago ez aurrera , ez atzera lecu baten. Ah onci gajoa ! Orrela ba- zaude , etzera elduco uste edo gogo cenduan lecura. Beste batzuetan jaiquitzen zaizco aice gogor ta contracoac , bo- tatzon due Oncia atzera , galdutzen ditu aice ederrare- quin eguin cituan videac. Ichasoan dijoazanac ez due one- quin bearric ; nai ta ez guertatzen dira , ta ichasvidiazti- ric jaquitunac ere , ecin eragotzi lezaquee ez aice contra- coa , ez aicegabetasun edo calma caltegarria. Ordea Espi- ritu Santuaren aice ederra berez beti dago prest ; aice oni laguntzen badiogu , beti joango guera aurrera. Gu naguitzen baguera , gurea da bearra edo culpa. Bana non- dic izango degu aice ederra? Oracio gogocotic. Bai , ora- cioa da , non Espiritu Santuac arguitzen dituan gure en- tendimentuac , ta berotu vorondatea ezagutzeco becatua- ren calteac , gorrotatzeco viotz guciarequin , ta maitatze- co Jangoico ain ona ta alde gucietatic maitagarria.

Certan dago cristauac penitenciaric ez eguitea , edo eguiten asi bada , ez irautea?

Dago , dio Jeremias Profeta Santuac , viotzarequin az- tertzen ez ditugulaco etorquizun , ta gure Fedeco gauza miragarria. *Quia non ist qui qui recogitet corde. Orai zaitte* , gogora etzatzuz zure azquenuiac , etorquizuna , oec dira eriotza , juicio edo contu eman bearra , betico Gloria , edo betico Infernua , ta ez dezu inoiz becatuic- eguingo , edo iraungo dezu vicitza onean ; ala dio Espi- ritu Santuac. Oro bat cembat gauza miragarri ceatuco ez liraquez Jesu-Christoren vicitza , Pasio ta eriotzaren ga- ñean , artuco baguendu asti pusca bat egunoro ? Astiric ez det oracioan dempora igarotzeco. Guezur garbia. Cem- bat cristau egoten dira oean eguzquiac irtanda ere gira ta bira dabiltzala , edo lo gogorrean daudela aspertu ar- tean ? Guero eguna darame paseo , berriqueta luce , joco ta nai dituzten gauceetan. Cembat onelaco gende mota er- rietan alperrierari emanac , meza arincho bat enzun , ta ito itocaco Errosario bat esanda , asco eguin duela derit-

zeea-

zeeala. Gaceta eracurtea pocic; libru animaraco onac ecesi ere nai ez ecin bestez baño. Corputzarequin contu andia, cer jan dan, cer jango dan, aragui ona, ardo ona saltzen dan edo ez contu andia, ta animaco salvacioa ceertacotzat iduqui ere ez. Utzi gueroraco, datorrena datorrela. Onelaco vicitzarequi nola iraun vide onean? Nola aragua jaiquico ez da eci bearrean, gozatzen ta guicentzen bada? Ordu erdicho bat oracioan igarotzeko, gogoan izateco cer dan eriotza, cer beti-iraune edo Eternidadea, eztago ta bai lo asco eguiteco, bai jan edanean ta jocoan igarotzeko. O anima gaissoa! Eta cein guchi maite zaituzten guizonic gueienac.

Beste batzuec dira ain emanac beren irabaci naietara non da igarotzen dituzten eguneco orduac arazo andietan orducho bat animarentzat gorde gabe. Necazari, ta bearguillac berac ere artu lezaquete cerbait dempora nai balue, cristau on ascoc artutzen duen becela, oracio, edo meditacio zaticho bat iduquitzeko. Certaco gabiltza? Ecin iraungo da vicitza onean viotzarequin aztertu edo ceatzen ezpeditugu etorquizunac. Itzellico da suric viciena, erregaric ematen ezpazaio.

Ordea, nola eguingo da, ta ceren gañean meditacio sántua? Ecin dempora labur onetan adirazo dezaquet. Billa ezazu Confesore jaquitun ta Jangoicozco bat, aguer ezozu zure jaquin naia, ta bere obligacioari eranzun nai badio, eracatsico dizu, ta zucenduco zaitu oracioco videan. Ona emen beste gauza bearra irauteco vicitza onean, Confesore on baten auquera edo eleccioa.

Jauna, Confesore guciac dira onac, gu ondo bagoaz; au da ascoren soñua. Baña ez Sansa Teresarena, ceñec escatzen duan ardura edo contu andia Confesoreac billatzen, ta guchic eguin zuan Santa ura lenvico urteetan galdu etzutenean Confesore jaquituria laburrecoac, becatu venialac gatic esaten cien ecer etzirala, ta mortalac chiquitzat ceuzcatela, inois becatu mortal eguinic ezpazuán ere Santa andi onec; baña ipini zuten eguiteco, vide látsaiac eracutsiric. Gaisotzen baguera Osagui-lla edo medico asco dauden errietan, ez da billatzen nor

nai

nai, edo edocein; baicic icenic onena duana. Auci bat darabillonac billatzen du Leaaduric jaquitunena. Eta animaco gaitzetan, tentacio andien aucietan ezda billatuco Confesoreric onena, virtutetsuena, Jangoico-zaleena? Berriz igues eguin bear da Suguearen arpeguitic becela Consejoari charrac diranetati. Ainguerua izan bear duana eguiten bada deabru, Ceruco videa eracatsi bear duanac eracasten badu infernucoa, igues igues alacoaren arnasatic. Zori gaiztocoa bai Sacerdote anima galtzallea; baña zori gaiztocoa laguntzen diona, Jangoicoa ofenditzen; mardicatuac beste gucién artean alaco Persona sacrilegoac, ta penitencia eguiazco batequin biurtzen ezpadira mugonez, erorico dira Infernuco Osin ondo saconean. Estadu guciétan daude onac ta gaiztoac; onac salvatuco dira, ta gaiztoac condenatu. Esana esan billatu Confesore zur, jaquitun, ta alditequean onena zucendu gaitzan Jangoicoaren videan; ta orretaco confesatu sarri, ta comulgatu Confesoreari ondo deritzonean.

G. *Beraz sarri confesatzea ta comulgatzea izango da vitarteco ona irauteco vicitza onean ta gordetzeko Confesio generalaren frutua.*

E. Nola ere dan. Sarri escuac garbitzen dituanac garbiac iduquico ditu: sarri aldatzen dan alcandorea ezda ain loi cecatua egongo, nola egun edo illascoan aldata ezdana. Sarri confesatzen diraac Confesorearen conseju asco artzen due, sarri aztertzen dute conciencia, sarri eguin on izateco proposito edo gogoac, ta nola onec lagunduco ez du ondo vici izatera? Berriz guchitan confesatzen diranac, ez due animarequin ardura edo conturic, ez Christogana eldutzeco goseric, ecin bestez becela, edo oniritiziz dijoaz confesiora, gogo gabe, ta ala prestaera charraren siñalea.

G. *Baña noizic noicera confesatzea ondo izango da?*

E. Ezda erri oetan inor, gaisoren bat ezpada, confesatuco ecin daná edolaric illean bein. Oraciora edo vicitza espiritucora emanac, sarriago eguin oi dira, ta baicoitzac artu bear du bere Confesorearen iritzia, ta ez irten munducoen erausi ta berriquetac gatic. Elizaco le-

Bb

nen.

nengo urteetan, Apostoluen doctrinac artu cituztenac, comulgatzen ciran egunoro; argatic ciran ain ónac orduco cristauac. Gaur ecusico balitza, Sacerdotea ezdan cristau bat, egunoro comulgatzen nolaco ceresanac, parreac, ta gaizqui esateac ala Confesore, nola penitentearen contra? Obedienciaren bean dabilena, dijoa zucen. San Agustinec nai zuan igande gucietan comulgatzea vicitza ona ceucatenac. Au berau San Francisco Salesec, becatu venialeraco eraspenic ezpadago, ta bai Christoren gosea. Sarriago eguiteco, ecusi bear da nolaco frutuac ateratzen diran comunio sarricotic, ta au ezagutu bear du Confesoreac. Gauza onen gañean itz eguingo da astiro Comunioaren gañeco doctrinan.

G. *Cergatic da gauza ain ona Igande, edo demequetean comulgatzea?*

E. Ceren dan videric ónena jai-egunac santificatzeco, edo Jancoicoaren onran igarotzeco, ta Jai-egunac ondo gordetzea da vitarteco egoquia irauteco vicitza onean. Ala da, ala da, baña ez da ala eguiten. Jai-egunac dira gueienentzat becacu egunac; Jangoicoaren egunac, deabruaren egunac. Oetan dira joco gueieguiac, ordiqueriac, danza naastu, ta moldegabeac. Oetan eguiten da Infernucio Ferial, non eguiten dituan debruac irabazte andiac. O negar eguiteco gauza! Asteco bearegunac escatzen dira oguia billatzeco corputzeco vicitzari irau-eracitzeco. Gorde zuan Jangoicoac egun bat bera onratzeco, guere animaco vicitza gordetzeco, ta goiac beratu dira; egun santuac igaro dira becatu egunac izatera. Mezacho bat enzun devocio gabe ta egun gucia olgantza, joco, ta ecin aitatuco diran zatarquerietan. Eta guero nai da betico saria? Eraman Coroa onean irauten duenai emango zaiena?

Baña irauñ nai duenac vicitza onean, ta salvatu, igaro bear dituzte egun guciac gaitz andiric animari eguingabe, ta artu egun bacoitza ondo igarotzeco neurriac. Ceruetaco erreinuac escatzen ditu neque edo indarrac, ta necatzen diranac, edo indar eguiten duteenac, arrapatuco dute, ala dio Christoc. Gure animaco salvacioa ote da cereguia laburra, non eta eguneco dempora zati bat

bear

bear eztuan? Cer ateraco degu mundu gucia gueretuaz, anima galtzen badegu? Edo cer eman dezaquegu bere ordean? Igarotzen dira ichasoac vicitza galtzeeco arriscu andiequin, diru apur batzuec gatic. Gaiso daudenac edaten dituzte edaderic mingoztzeenac osasuna gatic. Eta anima aberastzea gatic? Eta gaisotu bada osatzeco, cer eguiten da? Baña, orren neque andia da ordu erdi bat goizago jaiquitzea oracioan igarotzeco? Neque andi bat eragozpanic ezdegunean Meza bat devocioz enzutea? Neque andia Ama Virginiari goizoro, ta gauoro iru Ave Maria errezatzea gorde gaitzan becatuco tentacioan erortetic? Neque andi bat noizic noicera guere bearren artean viotza Jangoicoari goratzea erlojuac jotzen duanean Ave Maria bat esan, ta ordu datorreneco obrac esquintzea? Neque andia da esamina apur bat oera joan aurean eguitea aztertzeo nola igaro degun eguna? Neque andia da atsecabe, edo damu ematen digun gauzaren bat izan degunean, jasotzea viotza Jangoicoari, ta bere amorez issilchoric igarotzea? Neque andia da tentacioco demporetan gurutzte bat becoquian, edo viotz gañean eguitea gorde gaitzan Jangoicoac, erortetic. Ah christau esquergabea! Ori zor diozu Jaun maitagarri infernura bota gabe zauzcanari ambeste becatu len eguinda? Arzai on deitu zaituanari beragana zure goze ta bear balitza becela? Certaco dira zure negarrac, zure Confesio generala, zure itzonac ematea, irauñ nai ezpadezu vide santuan? Iratsi bada ta ausnartu itzatuez itz oec, *Irauten duenac aiqueneraño, izango du Cerua.*

Bb 2

CO-

# COMUNIOAREN

G A Ñ E A N

E R A C A S T E A C

DOCTRINA I.

*Cer eracusten digun Fedea Aldareco Sacramentuaren gañean.*

**I**Racatsi degu orain arteco doctrina ascotan, cer eguin bear dan Confesio ona izateco; ecusi bear degu orain beste doctrina batzuetan, nola prestatu bear dan comunio oneraco. Izan diteque gauza bearragoric?

G. *Cein da bada lenvico prestaera?*

E. Da Fedea, edo sinistea osoro ta sendo Aldaraco Sacramentuan artzen deguna, ez dala lurreco oguia, ta bai Aingueruena; au da Jesu-Christo gure Jaun onaren corputz eguiatzcoa. Au da, Jangoicoac eguin dituen mirari gucien artean andiena, dio Santo Thomas bere Devotoac, edo da mirari bat, ceñean dauden sartu, edo bilduric beste mirari asco.

G. *Cein da Fedea eracasten digun lenvico mirari, edo eguia?*

E. Da bada Sacerdoteac consagratioco itzac intencio, edo gogo onarequin esaten dituanean Ogui, edo hostiaren gañean jartzen dala an bertan Jesu-Christo gure Jaunaren Gorputz eguiatzco Ama Virgina dandic artua, gupatic jario, ta crucificatua bear bera; ta oro bat ardoaren gañean esaten dituanean consagratioco beste itz batzuec, guelditzen dala Jesusen Odol eguiatzco, edo bene benetacoa.

Con-

G. *Consagratu baño leenago, cer da hostia meza emateco ipintzen dana?*

E. Da irin ta urarequin eguiten dan ora, erreaz ogui guelditzen dana; ta da lurreco oguia, ezpadu ere gure artean legani edo azcarriric. Oro bat consagratioco itzac Sacerdoteac esan baño leenago Calizan arquitzen dana, da matsardoa, ceñi egozten zaion ur apur bat. Ordea esan dan becela, Consagratioco itzen vertutez edo indar Jangoicoac emanaz, ogui orde guelditzen da ostian Christoren corputza, ta ardo orde Calizan bere odol eguiatzcoa.

G. *Nondic dauate Sacerdoteac escuide ain andi au?*

E. Jesu-Christo gandic, ceñec eguin zuen lenengo consagratioco, ta orduan eman cien bere Apostoluei beste ambeste eguiteco escuidea, baita ere ordentzeco Sacerdoteac, ta ala igaro da gure egunetara consagratzeco escuide au; igaroco ere da munduaren azqueneraño. *Ni egongo naiz zuequin mundua bucatu artean*, esan cien Christoc bere Apostoluei Apostolu aiec ill ciran mundua bucatu baño leenago; ordea Apostoluei esquintzea an Eliza Ama Santari esquintzea. Apostoluc larga cituzten beste Apostolo edo bere indorengoac. San Pedro zan Christoren ordean guelditu zana beste Apostoluen ta Christau gucien Buru: Obispo Jaunac dirade berriz Apostoluenondorenac; ala dirau lurrean Elizac. Beti izan da Erromaco Aita Santua; beti Sacerdote nausietaco edo Obispo Jaunac, beti arrezquero beeragoco Sacerdote Obispo Jaunac consagratuac, edo ordenduac, beti cristau asco edo guichi, beti iraun du Sacramentu aldaracoac persecucioric gogorrenen artean ere, ta beti egon da Eliza lurrecoan Jesu-Christo ber bera, Ceruan aguirian egoteac eragozten ez diola, gurequin egotea.

Bigarren eguia edo miraria da, oguiaren, ta ardoaren izate edo naturalae biurtu edo aldatzea Christoren corputz ta odol eguiatzcoa izatara. Jangoicoaren itz edo nai izateac ez du gauza ez gaitzic edo ecin eguinic. Berac esan ta nai izanaren indarez eguin ciran beingo batean Ceruac, eta Lurrea. *Ipse dixit et facta sunt*. Ecerecetic alaco gauza andiac eguin cituen neque gabe. Bada nola

erraz

erraz erraz eguingo ezdu gauza batzuec beste batzuer a aldatzea? Canango errian premia aldi baten morco andi batzuec bete eraci cituen urez, ta guero bereala ur gucia biurtu zuen ardo eder izatera. Leenago uraz zan, guero ardoa; ardoa zanean ura etsan, ceren ura zana aldatu zuen ardo izatera. Onela bada, dio San Ambrosioc, Consagratu baño leenago ostian ecusten dana, ogui lurrecoa da, baño consagratu ondoan ogui lurrecoa ezda, ta bai Jesusen aragui ederra; oro bat Calizan egotzi zan edaria consagracioa eguin baño leenago ardo lurreco edo matsecoa zan, baño consagratu ondoan da Christoren odol eguiazcoa.

*G. Cerbait aditu det cer dan conversio edo biuzrrea mirarizco au; ordea nai nuque enzun beste comparacio edo berdintza bat.*

*E.* Ona emen zuri atseguin emango dizun gauza adi-garri bat. Guizon batec jango ezpalu urte gucian ogui utsa, ta edan ez ardoa baño, ogui ura biurtuco litzaque aragui izatera, ardoa ere bai odol buirtzera. Guc jaten ditugun gauzac buirtzen dira beste gauza batzuec izatera; aur chiquicho amaren ugatza baño edaten ez dutenac acitzen dira aragua, ezur, odol ta beste gauza ascotan. Beraz amaren bularretic artzen duen ugatzarequin eguiten da aragua, ezurra, odola, illea edo beste gauzaac. Bada nola Jangoicoac Sacerdotearen itzai indarra edo virtutea emanda buirtuco ez da lurreco oguia Christoren aragua, ta ardoa here odola izatera? Buirrera, edo aldati on deitzen dio Trentoco Concilio Santuac Transustanciaciona, edo izate bat beste batera igarotzea.

*G. Ezdet cer eranzun arrazoi ain arguira: b. daquit Jangoicoarentzat gauza ecin eguini ez dala, ta sinisten diot Elizari, ordea gauza gaitza da aditzea beguien contra sinistu bear degula. Beguiac consagracion ondoan ere, eracusten digute oguin hostian, ta ardoa Calizan. Beraz sinistu bear degunaren contra.*

*E.* Bai, ta arrazoia da sinistea gueiago utsic eguin ecin dezaquean Christo, ta bere Elizari, gure begui uts bera, edo engañacorrai baño. Chalupa baten gabiltzala  
icha-

ichasoan sartutzen degunean erramua urean, uste degu oquerra dagoala erramua: bequiac oquertzen gaituzte. Beguiac sinisten badiegu usteco degu dudaren apur gabe, ausia edo oquertua dagoala erramua; ordea ateratzen badegu uretatic, ezagutuco degu zucena edo ausigabea dagoala. Ichas bazterretan oncian dijoazanac uste dute aitzac, lurra, ta gueldi dauden beste onciac ere badabiltzala. Ordea gueldi daude, ta guzurra diote beguiac. Gure sentiduac uts ematen dute gauza ascotan. Orregatic ambeste beguitacio. Berriz Fedecac ez du guezurric, ez beguitacioric, ta bai cinendu galduco ez dana. Beraz gauza bat eracusten dutenean beguiac, ta beste bat Fedecac, oratu bear diogu Fedeco ancorari galdu nai ezpadegu heregien ichas andietan. Ala bada consagracion itzac esanda guero ere, beguiac eracusten badigute lengoa bera, au da lurreco oguia edo mats-aroda, ez dago an ez oguic, ez ardoric, ta bai corputzeco beguiequin ecusi ecin dezaquegun Christoren aragui ta odol eguiazcoa.

*G. Cer dira bada an ecusten ditugunac? Cerbait ecusten da?*

*E.* Bai, ecusten dira ogui ta ardoaren ichurapen, edo irudi utsac, ceintzuec consagracion ondoan guelditzen dira ichasgarri gabe, edo lurreco ogui ta ardo bague Jesu-Christoren corputz, ta odolaren estalgarriztat, ta ona emen irugarren eguia edo mirari sinistu bear deguna.

*G. Nola adi guenzaque cerbait, cer diran ogui ta ardoaren ichurapen edo irudi utsac?*

*E.* Fedeco gauzaac sinistu bear dira, adigarriric ezda goanean ere. Jangoicoa ez lizaque Jangoico izango, eguin ecin balu guc aditu dezaquegun baño gueiago, dio San Agustinec. Lurreco gauza chit asco ecin aditu dituzte guizonic jaquintsuenac; nola bada aditu Jangoicoaren eguitada edo obra ain miragarriac? Guizon cenzu apur bat dutesenac aitortu bear dute, cein gauza ezac diran gure arguiac ezagutzeco guerez gafeico gauzaac. Lurreco gauza, edo comparacion esan ta aditu ecin banazute, esan cion Christoc Nicodemus, Maisu anditzat cegoanari, nola adituco nazute lurrez goracoac esaten badizquituet? Je-

susec esquini zuenean Sacramentu au largatzea, esan cien Sermoi baten, *Nic emango dedan oguia, nere aragua da.* Asi ciran Juduac itz oec enzunda aucitan edo erriertan, *Nola izan diteque (cioten) onec ematea guri joateco bere aragua? Itz gogorra, norc enzutea emango dio?* Lee-nago jarraitu cienac ere Jesusi, igues eguin cien batzuec. Ecin aditu zuten, nola emango zuen bere aragua janaritzat. Beguitandu citzaien orduan ceducan aragui ecuscorra zatituco bearco zuela oquela zati bat becela. Cer eguin bear zuten? Sinistu Christori berac aditu ecin zuena; ezasi aztertzen nola eguingo zuen. Ala bada eraqueria ta arrotasun ecin andiagor da, uste izatea sinisteco Fedeco gauzaac, aditu bear ditugula.

Baña gatocen utzi guenduan galdetzeari eranzutera. Ona cer diran irudi utsac gauza bera gabe. Icusi dezu inoiz gau odei gavean Ilarguia? Bazoaz Ibai ondora ecusico dezu uretan an ta emen Ilarguiaren imagina, ichurapen edo irudia. Esadazu, badago Ibaian benetaco Marguic? Ez. Cer da bada ecusten dezun argui biribil Marguia dirudiana? Da, eranzungo didazu, Marguiaren imagina, edo irudi utsa. Oro bar, beguiratzen badezu artez Ispillu batera, ecusico dezu cere Ichurapen edo irudia, gucia cere irudicoa; lodia bacera, lodi moducoa, beltza bacera edo churia ceran becelacoa. Zu etzande Ispillu artan, Ispilluan ecusten dezun imagina edo irudia ezdago zuri iratsia; zurea da, baina dago zu ispilluan egon gabe. Onela bada, galdetzen badidazu, cer dira consagracioco itzac esanda ere ecusten ta icutzen diranac? Diran ogui ta ardo gabe daoden ogui ta ardo ichurapen edo irudi utsac. Len, consagratu bano leena o hostia, oguia zana, churi churia bazan, zabala, bibirilla, edo lau barrenecoa, consagratuta ere, guelditzen diran ogui irudi utsac, izango dira churi, zabal, biribil, edo lau barrenecoac, au da, lenciran becela. Berdintza, edo comparacio oquin cer ait ezagutzen da, nola egon ditezquean ogui ta ordo consagratuetan, ogui ta ardo eguiazco gabe, beren ichurapen edo irudi utsac, ta irudi oen azpian Jesusen Gorputz, ta odol bene benetacoac.

Ba-

Baña ona emen Aita Luis Puente Veneragarri ta Jangoicozco gauza ezcutucoetan argui andia izan zuenac darrren beste berdintza osoago bat. Ipinzazazuz Olla loca baten azpian arrautza batzuec; ta chitachoac jaio bear duten aurrean, beguiratzen badiezu arrautzai, usteco dezu osoac daudela, zuringo ta gurringo lencituztenequin. Gaitetic ecusten dezu len ecusten cenduan gucia, colorean, ta echuran. Ordea ezdago aietan arrautsa azal, ichura edo irudia baicic. Lengoz zuringo, ta gurringo orde, daude barrumbeetan chitacho vici vicias. Len arrautza eguiazcoac ciran zuringodunanac, guero arrautza irudiac ta irudi oen azpian becela chita viciac. Chitac eguin diranean ez dago arrautzen izate eguiazco edo sustanciaric; ta arrautza eguiazcoac ciranean, etzegoan chitaric. Ecusico ezpagueu guere beguiequin egunoro becela, nola co biurtza, edo aldatzea eguinen duen arrautzaren izateac Olloac ematen dien berotasunarequin, norc sinistuco luque? Jangoicoac eman cien, edo Jangoicoac prestatu zuan naturaleza, arrautzac iduquitzeco chita gaiac, ta guero berotasun egoqui batequin irtetzeco chita viciac arrautzaren izatea galduta becela, edo batetic bestera alda tuta. O comparacio ederra! Onelaco virtutea badu Olloaren berotasunac, nola erraz sinistuco ez dezu Jangoicoac eman diela Sacerdoteai consagracioco itzen vitartez aldatzeco lurreco oguia Jesu-Christoren Corputzera, ta matz ardo bere odolera, guelditu gabe benetaco ogui ta ardoric, ta bai oen ichura utsac? Jesu-Christoc autatu edo escogitu zuenean oguia bere Corputz gaitzac eman cion prestaera egoqui bat Consagracioco itzen vides bere aragui eguinda guelditzeco.

G. *Cein da laugarren mirari, edo oguia sinistu bear deguna?*

E. Jesu-Christo gucia dagoala Ostia oso, edo gucian, ta gucia Ostiaren apurric chiquienean, hostia erdititu, naiz zatitzen danean, ez dala zatitzen, ez erdibitzen Christoren Corputza, bai bacarric ostiaren ichurapen edo irudi esan ditu anac.

G. *Gauza aditzen gaitza, esango dezu; nola ori guere.*

Cc

ta

ta liteque? *Badira mirari au adirazteco comparacio, edo berdintzaren batzuec?*

E. Bai. Ona San Agastinec dacarrena. Sermoiguilla batec eguiten duen itza, gucia dago aditzalle gucietan, ta gucia aditzalle bacoizean; guciac enzuten dute itz gucia, ta bacoitzac enzuten du gucia, itza erdibitu gabe. Gueienen iritzian gure Anima dago osoro Corputz gucian ta gucia corputz zati ta apur bacoitzean; ez zati bat buruan, beste bat viotzean, ta beste zatia bularrean, bada ez du zabaltasunic animac. Cein aurraren anima, cein guizon aci batena, ez da bata baño bestea andiagoa. Nai dezu beste comparacio aditzen errazagoa? Ecusten duenac bere burua Ispillu oso ta andi baten, ecusten du bere irudi edo ichura osoa; eguiten bada guero Ispillu ura lau edo bost zati, ez da zatitzen irudi edo guizon ichura; beguiratzen duenac bere burua zati bacoitzean, ecusten ditu arpegui ta escu osoac, edo zatitu gabeac; ta esan guenzaque guizonaren imagina edo irudia dagoala osoz Ispillu osoan, ta osoz edo gucia edoecin parte edo zati beguiratu alditequenean. Onela bada Christoren Corputza dago osoro Ostia gucian, ta osoro zatituaren edoecin apurrean.

G. *Gauza andi ta miragarria, fauna iduquiric Christoc Guizon ondo eguin batecoac, becelaco anditasuna, egoitea osoro ostiaren apur chiqui chiqui baten.*

E. Ongui diozu gauza miragarria dala, baño Jangoicoarentzat ezdago gauza gaitzic. Nola izan liteque suac ez erretzea? Bada ez du erretzen Jangoicoac nai ez duenean erretzea, ascotan guertatu dan becela. Gauza miragarria Zaldia baño andiago dan ta Camelloa deritzon Aberetzearra igarotea jostorratz baten zulotic, bada Christoc berberac dio errazago ori eguingo dala guizon aberats diru zale bat salbatzea baño. Bada Christoren naiz erraz igaroco bada alaco aberetzarra jostorratz baten zulo chiquitic, erraz egongo da Christoren Corputz gucia Ostiaren apur chiqui baten, guc aditu ecin badegu ere nola guerta ditequan.

Bostgarren eguia edo mirari sinistu bear deguna Jesu-  
Chris-

Christoren Corputzarequin batera daudela Ostia consagratuan bere odola, bere anima, bere Jangoicotasuna.

G. *Noia ori?*

E. Jesu-Christo dagoalaco viciric, dala Ceruan, dala aldaraco Sacramentu sentuan. Piztu zan Christo illen arctic berriz ez iltzeco. Orain bada, Corputz vici batec iduqui bear ditu odola, ta anima. Jesu-Christoren Jangoicotasunac ez dio larga bein artu zuanari. Obeto aditze-co jaquin bear da, Jesa-Christo ill zanean aldeguin zuela animac corputzetic; anima joan zan Guraso Santuen Limbora, ta Corputza guelditu zan Curutzean ta guero Sepulturac. Baña bere Jangoicotasuna egon zan beti, ala animarequin Limboan, nola Corputzarequin Gurutze ta Sepulturac. Onela bada, Ostia consagratuan dago Jesu-Christoren Jangoicotasuna, edo Trinitade gucix santuco bigarren Persona guizon eguin zana.

G. *Baña Calizan consagratioco itzat esan ezquero ote dago Christoren odolaz gaitetic beste gauzaric?*

E. Bai; odolarequin batera daude bere Corputz osoa, anima, ta Jangoicotasuna, ta ostian dagoan guci gucia dago Calizan, ta Calizan dagoana Ostia consagratuan.

G. *Trinidadeco bigarren Persona Jangoico dana bada dago Ostian, naiz Calizan, egon bearco dute berez lenengo, ta irugarren Personac ere, edo Aitac, ta Espiritu-Santuac?*

E. Ala da, cerren Jangoico bat baicic ez izanic, iru Personac ecin egon ditezque bata besteac gabe. Baña nola bacarric bigarren Persona eguin zan Guizon, bacarric bera dago beregan dauzcala Ostian Christoren Corputz ta Anima ta beste Persona biac ez ala, ta bai beste modu goratu guc, aditu ecin dezaquegunean.

G. *Ostian badago Calizan dagoan gucia, ez gueiaga ez guchiago, certaco esaten da Ostian artzen dala Christoren Corputza, ta Calizan bere odola?*

E. Ederqui galdetzen dezu. Ona ordea adigarria. Ostiara itzen virtutez dator artez Christoren Corputza, ta nola Corputz vici bat ecin egon litequeari odol ta anima gabe, oec dijoaz laguntzaz, edo batutasunez, ez itzen



indarrez ; eta nola bigarren Persona Jangoico danac ecin larga lezaquean artu zuen guizatasuna, egon bear du Corputz ta animarequin. Egon ere ecin diteque Trinidadeco Persona bata besteac gabe. Beraz Ostian daude Corputzarequin, Odóla, Anima, ta iru Personac len esan bece-la. Orobat Calizara consagracioco itzen indar edo virtutez dator Christoren odola, ta nola odol viciac escatzen duen Corputza ta anima, oec dijoaz, ez itzen indarrez, ta bai laguntzaz ta unjoz, edo batutasunez, bigarren Persona Jangoico dana Corputz ta anima bereganatuaquin, ta beste Persona biac bata bestea gabe egon ecin ditezquealaco.

*G. Cer da ordea itzen indarrez edo virtutez etortea Christoren Corputza Ostiara, ta bere odola Calizara? Nola nequezalear adilezaquete itzera ori?*

E. Ona cerbait aditzeco videat. Dijoat guizon bat zaldiz ; deitzen dio norbaitec eche batetic biur didilla. Zaldiz cijoan guizon ura dia deitu dionaganá Zaldi, soñoco ta guoi. Etzien deiric eguin ez Zaldiari, ez Zaldunaren janci edo soñecoai, guciatz ere berequin daramaz Zaldidunac Zaldia, ta bere arropa edo janciac, ceren berequin ceramazan Zaldia ta arropac. Ala bada Sacerdoteac ostia consagratzeco unean deitzen dio bacarric Christoren Corputzari esan esanaz gure Salvaguilleac esan cituen itz oec, *Au da nere Corputza* : bacarric izentatzendu Corputza, ta au jartzenda Ostian itzen virtutez. Baña nola Corputza egon ecin ditequean guizon vici baten odol, ta anima gabe jartzen dira Ostian oec, ez deituac izan diralaco, bai lagundu ta alcarturic daudelaco corputzarequin: berriz Trinidadeco iru Personac, len esan diran arrazoiac gatic. Orobat, ardoa consagratzeco unean Sacerdoteac, deitzen dio bacarric Christoren odolari gure Salvaguille onec esan ta eracatsi cituan itz oequin *Au da nere odolaren Coliza* : Bacarric aotzen edo icendat en du Christoren odola, ta au da jartzen dana Calizan itzen dei edo indarrera : baña nola odol vicia batu edo alcarturic dagoan corputz ta animarequin, oec jartzen dira Calizan laguntzaz edo batuteraz, ez deituac izan diralaco, ere

eta iru Persoua Jangoico bat diranac len esan dan becela.

Eguia au obeto arguitzeco ona jaquitana eracasten duteena ; consagratu balu San Pedro edo beste Apostoloren batec Jesu-Christoren Corputza Sepulturac egon zan orduetan, jarrieco zala Ostian Corputza anima gabe, ceren etsegoan lagunduric animarequin.

*G. Ostia consagratuan dagoan gucia badago Calizan consagratu dan ardoan, certaco eguiten dira consagratio aparteco bi, bata ostia edo eguiarena, ta bestea ardoarena?*

E. Arrazoi bi gatic. Alde bitatic beguiratu bear zatio Consagratio santuari, Sacramentua dan aldetic, ta Sacrificioa danetic. Sacramentua dan aldetic, nai izan zuen eguin Convite, edo Janaria becela ; ta convite onraco baten, bear da jana ta edana, ta animaco vicitzari iraun eracitzeco ez da asco jaana edaari gabe, nola ez dan corputzeco vicitzarentzat. Sacrificioa dan aldetic, izanic Meza santua gure Redentore maitagarriaren eriotzaren Iru-di edo Imagina vici bat, nola eriotzan aldeguin zuen Odolac Gorputza gandic, adirazo bear zan Sacrificio onetan Curutzeco eriotza edo sacrificioan guertatu zana consagratio banaac, edo apartecoac eguinic, ez corputza egon ditezquealaco ostian odol gabe, ez Calizan odola corputz gabe, baña bai itzac eguiten duen alderatze modu asco esan nai bate gatic.

*G. Ezdaquit nola izan ditequean esan dana. Sacramentua dan aldetic ematen bada janaren ta edanaren Convitean, nola Sacerdote ez diranac edaten ez dute Christoren odola?*

E. Ancinaco demporetan ematen citzaien cristau Sacerdote etziradenai ere edaten Calizatic Christoren odola ardo consagratuaren irudian orain Sacerdoteac artzen duten becela. Ordea arrazoi onac gatic eragotzizuen Elizac, ta premiaric ere ez dagoalaco. Esan degu Jesu-Christo dagoala viciric Ostia consagratuan, ta ala bere zañetan duela odola. Beraz ostia consagratua artzen duenac artzen du Christoren odola edanari moduan ezpada ere.

*G. Fedeco gauza guciac sinistu bear ditugu begui i:bi-aquin*

*aquin, ordea chit onac dira egemplo edo guertaerac Fedea sendotzeco; nai nituzque batzuec enzun.*

E. Ongui diozu fede laburrecoentzat chit onac dirala Jangoicoac Fedearen sinisgarri eguin dituen mirariac, ta ez da Fedeco Articulatoric, ceñen arguivideraco eguin diran gueiago. Cembat bider ecusi da Ostia consagratuetatic odolara irtetzen heregeac despicio arrigarriac eguin ondoan? Cembat alditan aguertu da ascoren beguietan aurcho ederraren irudi edo ichuran? Cembat bider abereac ta infernucoac belaunicaturic Ostia santua igarotzean? Cembat Sacerdote Santuac ecusi dute arguiro Jesus Ostian bertan meza emateco orduan, ta arguia ceriatela Corputzetatic? Norc esan, cembat atseguin gogoz beteric arquitzen ciran comunio ondoan San Ignacio Loiolaco, San Felipe Nerico, Santa Theresa ta ambeste Santu ta Santa! Au da bai janari atseguin guciac dauzcana. *Omne delectamentum in se habentem.* Ah nola esan dezaquean Christoc Isaac Esauri baño arrazoi gueiagorequin! *Ogui ta ardoa eman diot zure anexe Jacoberi,* au da eman al dezodan gucia, cer eman dezaquezut zuri? Eman guri Jesusec ogui ta ardoaren irudien azpian bera dan gucia, cer eman dezaquegu gueiago? Eta cer emango ez digu berequin batera guc bear becela anima garbiaquin artutzen badegu! Ona Santa Theresac beste mundutic etorrira esancioña Jangoicoa ecusteco gosez cegoan anima chit on bati. *O anima zori onecoa! Cergatic larritu ta necatzen cera Jangoicoa ecusteco egarri penazcoaz, egun oro badago altara santuan guc Ceruan gozatzen deguna ber bera? Guc ecusten degu arguiro Gloriaco arguiarequin; zuec lurrean Fedeoquin ta merecimentuarequin. Zuen emengo gozatzecac gueitu dezaque merecimentua.* O ta baguenu guc Fede vici bat, amore andi bat, ta conciencia garbi bat eldutzeco gracia gucien Iturri vicia! Nola desterro edo erbeste onetaco naigabeac gozatuco liraquean Jesus sarri visitatu ta artuaz! Certaco da ecustca Fede vici bat duteentzat! Ona emen egemplo ederra! Egun batean meza ematen cegoala Sacerdote bat Parisen, aguertu zan Jesus Ostian aurcho eder baten irudian chit ascoc ecusten zute-

tec-

teela. Joan ciran arinca berri au ematera San Luis Erreguari; Jauna; betor laster Ostian ecustera Jesu-Christo aurcho eder baten ichura zoragarrian. Eranzun cien Erregue Fede andicoac; ez det nic ecusi bear corputzeco beguiequin sinisteco Ostia consagratuan dagoala Jesus ber bera. Sinisten ez duteenac, dijoazala ecustera corputzeco beguiequin. O Fede vicia! O Fede engaiatu ecin dana corputzeco beguiac becela! Sinistu bear degu bada sendo sendo, Ostia consagratuan adoratu, ta artutzen deguna dala, Aita Eternoaren Seme gure amorez eguin zana guizon Ama Virginaren sabel garbian, Gurutzean ill zana ber bera, ta orain dagoana Ceruan Aingueru, Santu ta Santa guciac adoratzen duteena, ta etorrico dana Juicio egunean mundu gucia juzgatzerá. Au ondo sinisten duenac, artuco ditu vitarteco onac viotza garbitzeco mai Santura eldu baño leenago. Ala izan didilla.

## DOCTRINA II.

*Nola gauden comuniora obligatuac, ta cein gauza chit ona dan sarri comulgatzea.*

**E**Racatsi degu igaro dan doctrinan, nola sinistu bear diran comulgatu baño leenago, Aldaraco Sacramentu Santuan sarturic dauden mirariac, ta nola Fedeco eguia dan Ostia consagratzen danean, arquitzen dala Jesu-Christo ber bera.

G. Certaraco ordea utzi sigun gure Redentore maitetac Sacramentu ain miragarria!

E. Prestaera onaquin artzen duenarentzat, izan didin animaco janaria, gracia ta vertuteac gueitzeco.

G. Beraz comulgatzeco obligacio estua da?

E. Nola ere dan. Ona arrazoi zucena. *Jaten ezpadezute Guizonaren Semearen* (icen au artzen zuen sarri Christoc)

toc) *aragua*, ez dezute *vicitzaric izango* zuen animetan Orain bada animaco *vicitza*, edo gracia gabe Ceruric ez dago. Comulgatu gabe animaco *vicitzaric*, edo *graciaric* ez. Beraz bear bearra da, al didilla, comulgatzea, sal-  
vatuco bada.

G. *Eta comulgatu ecin danac eriotzaco peligroan, nola izango du salvacioa?*

E. Comulgatzeco prestaera, vorondate edo nai sendoa-  
requin. Arquitu zan Santa Juliana Falconeris azqueneco  
gaitzean comulgatu ecin zan gaitzaz. Escatu cion Sacer-  
doteari ecarri zezola Ostia santua edolaric adoratzeco. Ala  
eguin zuen Apaiz bere animaco garbitasun, ta Christo-  
ren gosea ezagutzen zuenac. Escuan artu zuenean eracus-  
teco ta adoratzeco Julianac, ezcutatu citzaion Sacerdotea-  
ri escuetatic Ostia santua, guciac arritu cirala mirari are-  
quin. Andic laster arpegui gozatsu batequin ill zan San-  
ta zorionecoa, ta erantzi zuteenean illa becela jancitzeco,  
arquitu cien viotzaren gañean ostiaren marca edo seña-  
la modu bat, ta igarri zuten, ostia igaro zala Santa andi  
aren barrenera.

G. *Noicic noicera comulgatu bear degu?*

E. Edolaric urtean bein Pazcoaco egunen baten, ta  
leenago eriotzaco peligroan ba, aude.

G. *Jesu-Christoc cer aguindu zuen gauza onen ga-  
ñean?*

E. Etzuen gauza erabaquiric utzi; bai comulgatu bear  
zala *vicitza beticoa* izan nai zuenac, ta sarri eguitera  
dendatu edo animatzeco, esan zuen, *ogui au jaten dur-  
na vicico da beti*. Eracurten degu San Lucas Evangelis-  
tic esribitu zuen Apostoluen Eguicarietan, lenongo cris-  
tauac comulgatzen cirala eunean bein; eta nola cristau  
aiec ceuden Christoren amorez beteac, gauza alperra be-  
cela zan ipintzea aguindu jaquin, edo egun erabaquiric.  
Persecucio gogorren artean vici ciran, ta billatzen cituz-  
ten leiza, Cobao, edo lurazpiac meza esateco, comulgat-  
zeco, ta oficio santuac eguiteco. Argatic ambeste cris-  
tau, ambeste martiri dempora zorioneco aietan, irtetzen  
zuteela comunitic Leoi sua botatzen zutenac becela. Iraun  
zuen.

zuen oitura santu onec eun urte baño cerbait gueiago. De-  
vocio artan cerbait oztu zanean Gendea, comulgatzen ci-  
ran zortzi egunetic zortzi egunera Aita Santu Pio lenen-  
goaren ordena edo aguinduz. Naguitu ciran guerora cris-  
tauac paquearequin, ta azquenec Inocencio irugarren, ta  
Erromaco Aita Santuac Letrango Concilio Santuan ipini  
zuen mandamentu estu bat, comulgatu bear zala guchie-  
nez urtean bein Pazcoaco demporan.

G. *Ori orrela izanic, certaco da sarriago comulgatzea?*

E. Eliza Ama Santac ecin bestez becela ipini zuen ur-  
tean beingo comunioa, ecusiric cristau ascoren atzerapen  
ta naguitasun lotsagarria. Baña beti eman du conseju, be-  
ti erregutu comulga gaitecela chit sarri. Ona cer esaten  
duen azqueneco Concilio general, edo Elizagucicoac, au  
da Trentocoac. Naico luque Concilio Santuac meza gu-  
cietan izan ditecela comulgatzeco cristauac; esango balu  
becela, comulga ditecela egunoro.

G. *Alde batetic erregutu egunoro comulga ditecela  
cristauac, ta bestetic ez aguindu urtean bein baño comul-  
garzea, nola da ori?*

E. Nola dan? Becatuac gueitu ez ditecen ecusiric gu-  
re naguitasuna, ez du ipini urtean beingo comunioa bai-  
cic aguinduz edo becatu mortalaren bean. Berriz ondo  
esan, erregu, ta palaguequin becela ecarri nai gaitu sar-  
ri comulgatzera. Ama batec ecusten duenean bere seme-  
choa gaisoric, adoregabe, ta aguinte guchirequin igui  
ematen diola jaatecoac, edo botica edariac, cer asmo art-  
zen du? Nere Semechoa, esaten dio, ecin vicico cera jan  
gabe; osatuco bacera artu bear dezu edaari mingoitx au  
Ecusiric bere atzerapena, naieza, ta icara modua jaana  
ta edari gucia artutzeco, esaten dio erreguca ta palagu-  
ca, aurra bada, arzazu nere escuetatic collara bat salda;  
ondo esanda artu eracitzen dio; aurra beste collaracada  
bat, ta ala gueldica gucia ezpada ere, artzen du mutil-  
choac: beste batzuetan jan edo edan dezan, esquintzen  
dio dirua, gozoa, edo cer edo cer, ta dacar alimentua  
artzeera. Onela bada gure animetaco Ama becela eguiten  
dan Eliza santac, ecusiric bere Semeen gaitza, ta nola

comunioco janari gabe vicitza beticoa galdu bear dan, cer asmatzen du? Ene umeac, arzazute edolaric urtean bein janari osacarri au, ta gueiagotan ar dezagun, erregutzen gaitu, ta urteco egun ascotaco dauzca Aita Santuen vitez ipini, edo esquiniric indulgenciac, anima gaitrecen esquin-sariequin artzeera comunioa sarriago. Au nai du, au escatzen digu erreguz, ta ez bacarric comulgatzea urtean bein.

G. *Urtean bein baño comulgatzen ez diranac, nola vici oidira gueienex?*

E. Arrazoi eguiatzeco gabe, ta beren naguitasunez largatzen duteenac, Jangoicoaren beldur guchicoac dira, fede argalecoac ta daude pecatu ascotan erorteco peligro andian. Gauze etsaiac inguraturic, tentacioac ez dira paltaz; iguesi becela dabillenac etsaiac ta beren tentacioac garaitzeco laguntasun ta vitartecoric sendoenetic, nola garaituco dituzte? Igues Christoren maitic, ta nola iraun animaco osasunean? Cer icharan dezaquete Jesu Christo gandic onelaco nagui, alper ta bera amore gabeac, edo beintzat guchicoac? *Atozte nigana*, dio Jesusec, neque, carga, edo tentacio andien azpian vici ceratenac, ta nic arinduco dizut, nic ateraco zaitut tentacio gucietatic, nic emango dizut janari gozo, ta sendagarri bat. *Et ego refician vos*. Christo dago gau ta egun Eliza santuetan Carcela baten becela zarraturic, dator egunoro Aldara santuetara, ez bacarric Sacerdotea comulgatu didin, baita ere naiz comulgatu ditecen beste cristauac, ta gu urte gucian bein baño ta ecin bestez becela, elduco ez guerala? Nola artuco ditu vorondate chaarreco comunioac? Ezpalitza munduco oniritzia gatic, edo escomunio santuaren beldurrez, edo chartela eman bear dalaco, egongo liraque batzuec urte osoetan confesatu ta comulgatu gabe. Oec, cer icharon dezaquete Jesu-Christo gandic? Nola eguiten ere dute beren urteco comunioa? Ote dira oraciora emanac? Iracurtzen dituzte libru onac? Eguin limosna asco? Eta nola iraun lezaquete becatu gabe?

Obe da gaizqui comulgatu baño, urtean bein baño ez comulgatzea : au da beren soñua.

Nic

Nic diot, obe dala gaizqui comulgatzeco, ez comulgatzea inoiz; obe da ez comulgatzea Pascoaz ta eriotzaco orduan ere, ta obe da infernura jester batere comulgatu gabe comunio gaizqui eguiñquin baño. Ordea, noc obligatzen zaitu ta esaten dizu gaizqui comulgatzeco? Gaiso bati esaten dio Medicoac, arzazu alimentu bear dana. Gaisoac eranzuten dio; ez det artuco, cerra gaitz eguiagodit. Medicoac dio, jaten ezpadezu, ilco cera naita ez; ez dago osagarriric jaten ez duteentzat. Dani dala, ez det jango illa bete onetan. Gaitz eguingo dit. Ez dizu gaitzic eguingo janac bear dan becela artutzen badezu. Garbituco dizugu sabel ori voticaco batequin, ezarrico diogu saldeati ozpin edo vinagre apur bat. Ez orrelatoric eranzuten dio gaiso ero edo gaiztoac; irauten da bere tema chaarrian, ta egun guchiren buruan iltzen da janezaz. Cer esango cenuque onelaco gaisoa gatic? Eta cer esan bear da cristau nagui asco gatic, ceintzuec sarriago ez confesatu ta comulgatzeco aitzaitzaz ematen duten, obe dala gaizqui comulgatzeco batere, edo urtean bein baño ez comulgatzea? Esaten badiezu, argalduco dirala animaco janariaren paltaz, presta ditezela animaco loiac quenduaz, onela gaitzic eguingo ez diela comunioac, ez dute enzuteric ematen, ta nai dutalaco vici nasaitasun guciac, aldeguiten dute Cristoren mai ederretic. Eustea da garizumaco egunetan gende gazte lasai urte gucian Sacramentuetic iguesi ebilli diranac, bear bada parre ta ista eguiten cienac cristau on sarriho comulgatzen cira nai, ecustecoa da, diot berriz, cein larri ta estu ebilli oi diran Pascoaco cer eguiac egui artean. Norequin confesatuco ote naiz? Esaten du bacoitzac. Esamina apur bat eguiten dute, libru on bat edo beste eracurri; beste batzuec, bear bada asco jaquiñagoac, dijoaz Conventu batera, an bost edo sei egun eguinda, engañatzeco ezagutzen ez duan Sacerdoteren bat. Igarotzen dute nola ala confesioco ibaichoa, au igarotzeco, ezurten dute carga dio Santa Theresac, ta comunioco lotsagaiztoco-bat eguiinda, carga berriz lepota, esan nai det, lenjo vicitza lasai, olgantzata chatar, ta ocasioetara. O gende zori gaiz-

Dd 2

to-

tocoac! Cer ateraco dezute azquenean! Orra certara josten duten zuen urteco comunioac.

Beste batzuec dira Pazcoaz ere comulgatzen ez diranac, esaten duteela beren artean, certaco comulgatuco naiz sacrilegio bat gueitzeco? Ni nago ocasio gaizroan, edo batere ondu gabe lengo confesiotic, edo cumplitu gabe penitencia, restitucioac::ecin absolvituco nau Confesoreac; certaco berriz confesiora joatea guezurrac esateco, becatuac issiltzeco? Obe det icharan dempora obeago batera; guerora quenduco aldet ocasio gaiztoa, quendu oitura chaarrac, cumplitu penitencia ta restitucioac. Estalgarri oequin, chartelaren gira bira bat eguinic, daude iru ta lau urtean confesioico ta comunioico sacramentuetara eldu gabe. Calahorraco Obispaduan urteco comunioa arrazoi eguiazco gabe largatzen duteenac, daude eguin ezaz beste gabe escomulgatuac inore jaquin eza gatic.

Eliza Ama Santac aguintzen du artzen duena eriotzac Pazcoaco comunioa eguin gabe, ez didilla artua izan Elizan ez vicitzan, ez enterratzeco, ta alacoari quendu bear zaiola Santuen Comunioa, edo cristauen arteco partiltasun animacoa.

Nola eraman lezaquete egun on bat lurrean, nola lo eguin gozoro, Eliza Ama Santaren aserrearen bean? Ichatroten dute guerora ondutzeco ta onduta comulgatzeco. O eraqueria! Nor da bere vicitzaren jaube! Norc eman dio itza ilco ez dala uste cabean! Becatuac gueituaz, Cristogandic aldeguiniaz, errazago izango da salbatzea? Baña Jauna, esango dute, prest ezpanago, certaco joan confesio ta comunio chaarroc eguitera? Presta zaite, quendu edo irten ocasioetatic, zoaz Confesore on bategana, agueritu oni cere premia ta estadu chaarra ecer gorde gabe, bere consejuequin emango dizquituz ondo prestatzeco videac, ta orduan prest expazande absolucio ta comunioa artutzeco, ematen dio escuidea Elizac Confesoreari, arrazoi onarequin luzatzeco Pascoaco egunac, edo egun sefialatuac igarota, deritzonean comunioa emateco. Vorondate onecoentzat, ta Jangoicoagana biurtzeco vitar-

te-

teco sendoac artunai dituztenentzat, erraz eguiten da; ordea ez vorondate sendo ta onic ez dutenentzat.

G. *Comulgatu naiz; ez naiz ni orren gaiztoa, non da largaco nuquean urteco comunioa, au diote beste ascoc.*

E. Comulgatu cera? Baña nola? Ondo edo gaizqui? Larga dezu lotsaz becatuen bat? Eguin dezu len confesio chaarric? Ori bai Jauna. Beraz ez dezu Pazcoaco comunioarequin cumplitu. Confesio ta comunio gaizqui eguinequin uste dezu emango diozula atseguin Eliza Ama santari? Ezetz dio berac. Atoz ona, nor baitec zor bazaitu ogeui ezcutuco bat, ta pagua ematera badator diru char edo palsoarequin, artuco cinoque? Urrea irudiagatic urrea ezpada, ez dezu artuco Zortzi ducateco edo ogeui ezcutocoa. Ala ez da? Eta pagatu nai diozu comunioico zorra comunio gaizto ta sacrilegio garbiarequin? Bada ez dezu ecer eguin. Cer diot? Gueitu dituzu becatu andi bi, bata gaizqui confesatu ta bestea gaizqui comulgatu ceralaco. Confesio, ta comunioric eguin ez duenac Pazcoaz, eguin du chit gaizqui, lotsaric gorde ez diolaco Eliza santari, ta ala eguin ditu bi becatu mortal, ta Calahorraco Obispaducua bada, bere gafean du descomunio osoa. Ordea gaizqui confesatu, ta gaizqui comulgatzen diranac, eguiten dituzte lau becatu mortal, bi, urratu dituztelaco Elizaco mandamentu biac, ta beste bi sacrilegiocoac, gaizqui tratatu dituztelaco Sacramentu biac. Orra nola gaiztoagoac diran batere confesatu ta comulgatu ez diranac baño.

G. *Beraz berriz ta ambat lasterren confesatu, ta comulgatu bear dute onelacoac?*

E. Ala da; cerren cumplitu ez dituzten Elizaco mandamentuac. Pagatu ez duanac zoorren bat, edo diru gaiztoarequin pagatu duenac, pagatu bear du ambat lasterren sefialatuta cegoan epean edo demporan ez pagatugatic. Ala ez da? Bada comunioico zorra, pagatu ez duenac bear zan epe edo demporan, pagatu bear du ambat lasterren. Eguiten dute au becatari ascoc? Ez da burura etorri ere berriz confesatu ta comulgatu bear duteela prestaera onaquin. Nola nai confesatu ta comulgatu badira, beguitantzen

zen

zen zaié cumplitu dituztela Elizaco aguinuac. O ichu-  
mena! Cer esan bada urte oso, ta ascoetan gaizqui con-  
fesatu ta comulgatu diranac gatic, dala lotsaz becaturen  
bat, edo gueiago larga dutelaco aguertu gabe, edo da-  
muric eraman ez dutelaco? Cembat becatu egotzi ote diez  
beren animai? Eta nolaco becatuac?

G. *Eta eriotzaco pelgroan badago comulgatzeco obli-  
gacioric?*

E. Bai, dio Santo Thomas andiac, ta ateratzen da  
obligacio au beti Elizan ala eguin dalaco, Concilio San-  
tu ascotan aguinu dalaco, ta arrazoiac ere eracasten di-  
gulaco.

G. *Certaco da ordu artan comulgatzea?*

E. Orduan bear degulaco laguntasun chit andi bat in-  
fernucó etsaiquin, ta eriotzaco gaitzequin peletzeco. In-  
fernucó etsaiac eguiten dute aleguina milla aldetara be-  
renganatzeco anima, daquitelaco galtzen badute era edo  
ocasio ura, ecingo duteela ecer guerora. Berriz nolaco  
ertape edo paciencia bear ez da igarotzeco Jangoicoaren  
amorez ordu artaco naigabe, gaitz portiz, ta larritasu-  
nac? Sartu bear da Eternidadeco videan. Nolaco indar-  
rac bear ez dira vide estu ta beldurgarri onetan? Elias  
Profeta santuari vide gogorrac eguinda, goseac argaldu-  
ric arkitzen zala, aguertu citzaion Ainzueru bat, eman  
cion autsazpian errericaco oziua, ta esan cion, *Elias. jai-  
qui zaité, ta jan zazu, oraindican vide luce gogorra iga-  
ro bear dezu.* Jan zuen, ta ebilli zan chit erraz ogui arc  
eman cion sendotasunarequin, ta igo zuen Jangoicoaren  
mendira. Eliasec orduan baño vide gogorriagoa eguin bear-  
co degu eriotzaco trancean. Utzi digu ordea guri Profe-  
feta santuari emancitza cion baño ogui obe, ta sendagar-  
riagoa, ogui Ceruti jetsia, Jesu-Christoren aragui ederra  
berbera. Nola indartu, ta sendotuac gueldituco ez di-  
ra gracion artzen duteenac, Jesusen gose diranac? Nola  
galduco ez dute beren indar guztia infernucó etsaiac, Je-  
susec eguin dion visitarequin anima bere maiteari?

G. *Nola baño prestatu bear da azqueneco comunio  
santua eguiteco?*

Be-

E. Beti ondu prestatu bear badegu ere, ordea contu  
gueiagorequin eriotzaco pelgroan. Ezda orretaraco icha-  
ran bear, inola al didilla, ez lasga confesioa, Apaiza joan  
artean Elizaco ondasunequin, edo Ostia santuarequin.  
Confesatu bear da leenaz bere gogoco duen Confesoreari  
dei eguinda. Anima escrupuluz betea ezpada gaisca, pre-  
miaric ez dagoanean ere, chit ondo da Confesio general  
bat eguitea. Onela eguiten dute cristau, Sacerdote, ta Frai-  
leric onenac ere. Billatu Confesore len artu ta animaren  
berria daquiana, lotsaren bate gatic aldatu nai ezpada. Ez  
beguiratu munduco esamesai animaco salvacioa dijoacun  
gauzaan. Cura edo Erretore Jaunarequin confesatzeco at-  
zerapen edo beldurra badu, dei eguin beste bati. Eta no-  
laco damu videac artu bear ez dira? Ondo garbitzen ba-  
guera emen Sacerdotearen avrrean, garbituac arquituco  
guera Christoren arruean, edo juzgatzeco orduan.

G. *Baña erraz da ondo comulgatzea azquenean, lee-  
nago naguia zana sarri comulgatzen, edo comulgatu a ga-  
tic, gaizqui comulgatzen zana?*

E. Cer gauza gaitzagoric! Era ona ceucanean urbil-  
du nai ez Christo gana ecin bestez baño, ta joango da  
Jesus gogo onarequin alaco nagui, ignesla, ta amore ga-  
beco anima gana? Eta cer; vicitza gaizto batean era-  
man baditu egun ta urte osoac Jauna gana biurtu, ta  
obra onen aciric erein gabe? Esango die Saul gaiztoari  
Samuel Profetac esan ciona, *quare inquietasti me ut sus-  
citarer!* Certaco atera eraci nazu sagrarioco Obitio zu-  
gana etortzeco?

E. *Eta badago obligacioric comulgatu baño leenago  
prestatzeco Confesioco Sacramentu santuarequin?*

E. Bai becatu mortalen batequin arkitzen bada ani-  
ma, ta oro bat arrazoizco ez da baida, edo dudarequin  
arkitzen bada: Ez da asco Acto contriciocoarequin pres-  
tatunaia, ceren Eliza Ama Santac aditzen ditu Confesioa-  
ren gaiscan San Pablaren itz oec, *Proba*, edo garbididi-  
lla *guizona*, ta jan dezala guero ogui santu onetatic,  
bada bear ez becela, edo becatu mortalean jaten duenac,  
*jan ta edatendu bere juicio*, edo condenacio-videa. Pro-

bant-

bantza, edo garbiquizun au eguin bear da Confesioco itzarian. Ala bada ezda asco berez Acto contricioco bat eguin ta eltzea comulgatzera leenago becatu mortal jaquin, naiz dudacoan dagoana. Orrela eguiten dira eguiazco Acto contriciocoac? Asco ote da aorequin esatea? Nola laco aldatze ta trucada animacoa bear ez da Jangoicoaren amorio eguiazcora? Nola bada eldu comulgatzera becatuan dagoana Acto contricioco beguitanduquin? Baña gueiago. Beliaqui batec Magdalenac berac baño amorio gueiago artu diola Jangoicoari, becatuen damu andiagoadaducala Pelagiã, Maria Egipciana, ta Cortona penitenteac baño, ta Cerutic Aingueru bat etorri ta esango baliu gracian jarri dala damu amorezcoaren videz, ez legoque prest eldutzeco comulgatzera, confesatu gabe becatu mortala. Bear bearra da confesioa comulgatzeco becatu mortal ezagun edo dudacoan dagoanarentzat.

G. *Noiz asitzeko da comulgatzeco obligacioa?*

E. Ezdago urte jaquin ta erabaquiric : gazte batzuec dira besteac baño iratzarriagoac, adin gueiagocoac, iracarla obeagocoac, ta oiturac ere ez dira berdina gucietan. Eriotzaco peligroan bearragoa da comunioa Pazcoaz baño. Ala bada beguiratu bear zaie gauza ascori. Comulgatzeco bear da jaquin, cer artzen dan, nor dan Jesu-Christo, ta iduqui devocio moduren bat. Badira gazte guraso onen umeac, ondo aciã, doctrina ederqui daquitena zortzigarren urteraco, oec comulgatu bear bear dutena. Beste batzuec dira beranduago ere doctrina ezdaquitena, gaizqui aciã, ala baserrietan nola caleetan. Anima Cargua duteenac aztertu edo examinatu bear dituzte lenengo comunioraco, ta Gurasoac eraman berai. Utseguiten andia da, nere ustez, dio San Francisco Salescoc, luzatzea gueigui animaco janari osasun emallea dempora oietan, noiz azcor ta jaquitunagoac diran gaztechoac amargarren urtean, len amabostgarrenean baño. Ondo confesatzeco combat gauza jaquin bear ezda? Nola prestatu ez eguiazco damua izateco? Nere ustez ondo confesatzeco prestaerac dauzcatenac, erraz iduquico dituzte comulgatzecoac, edo beintzat ez illascoan comunioa luzatzeco

ar-

arrazoiric. Guca dago gueienez vici moduan. Badira gazte gaizto, aciã charrecoac, gauza onic eguiten ez duteenac, ta bai gaizqui asco. Mezatan beti enredoan, birasac ugari, beti becela auzca, burruca ta arrica, gurasoai lotsa gaiztoa ecartzen dienac, inoiz ondu gabe. Icasten dituzte alcarrequin itz zatarrac, eguin lotsatzeco gauzaac. Onelacoac doctrina jaquina gatic, ez daude prestatuac comulgatzeco. Bear dituzte bada artu oitura o'beac, ta larra gaiztoac. Ez dute gueienez danuric : orain confesatzen dute gauza bat, guero ucatu ; batean amar dirala, bestean oguei, aora edo gogora lenen etortzen zaiena batere esaminatu gabe conciencia : becatu chiquitzat dauzcate, berez andiac diranac, ta anditzat chiquiac. Nondic dator ambeste calte? Eracasten etzatelaco, *gaizqui acitzeu diralaco, gurasoen conturic ezaz ; et saepe numero Parochorum incuria, qui negligunt puerorum catecheses.*

San Gregorio Aita Santuac contatzen du bost urteco aurchu bat condenatu zala. Orra nola batzuec icasten ta ezagutzen dituzten gaiztaqueric mugonez, edo ehit goiz.

Ona berriz beste guertaera atseguin gueiagocoa. Gaisotu zan bederatzi urteco mutilcho ondoaci ta guraso onen semea. Arquitzen zan illzeco peligroan, ta joan citzaion visitzetzera bere Cura, edo Erretore Jauna. Mutilcho gaissoac escatucion ecarteco comunioa. Sacerdoteac ueste zuen gazteeguiã zala comulgatzeco, ta ez tristetzarren ecarri cion ostia consagratu gabea. Eranzun cion mutilchoac, *Jauna, certaco engañatu nai nau? Au ez da Sacramentoa* Ecusiric Sacerdoteac ambeste argui, ezagutza, ta devocio, ecarri cion ostia consagratua, ta artu zuen gaztecho arc andi ta cristua on baten amorio, ta atseguinez.

O combat comunio eder eguingo lituzqueen gaztecho ascoc, ondo eracatsiac baleude, echean egemplo ona balecuste, ta gurasoac balira bear becelacoac! Arguizai samur baten becela eraasten da gauza ona, edo charra gazteen viotzetan. Cein ederqui ta laster icasten duten eusquera gaztecho euscara baño enzuten ez duteenac. Berriz badator euscalerrira erdaldun andi edo aci bat, cein nequez, ta gaizqui! Nondic dator mutilcho ascoc igues

Ee

egui-

eguitea Elizatic comultatzeta laster, guelditu gabe Jesu-  
si eskuerra ematen, edo dauden dempora apurrean bate-  
ra ta bester beguiac darabiltezala devocioren tanta gabe?  
Eracasten ez dielaco, nola egon bear dan, guchienez or-  
du laurden baten, viotz batu ta humillarequin pen-  
satzen cer artu duten, nor etorri zaien, cer escatu bear  
zaion, ta nola esquer andiac eman e guin dien mesedea  
gatic Nolaco injuria edo videgabeac ez da Jesu-Christoc  
amorezco altara santuan? O lotsatzeco gauza!

## ERACASTE III.

*Cembat on eguiten dituen comunioco Sacra-  
mentuac, eragozpenic ipintzen ez du-  
ten animetan.*

**G.** *C*eertaraco eracatsi degu igaro diran doctrina  
bietan, ala Fedea eracatsen duena Sacramentu onen  
gañean, nola cristauac duten obligacioa artzeeco?

**E.** Eracatsi de u ezagu eracitzeco cembat mesede ta  
on andi eguiten dituen gure animeetan eragozpenic ipint-  
zen ez padiogu.

**G.** *Cer da eragozpenic ez ipintzea?*

**E.** Da eramatea, on eguin dezan, bear diran pretae-  
rac, ta gucien cimentarria da egotea anima Jangoicoaren  
gracian, ta irabaci ta frutu osoac becela artutzeeco bear  
dira Fede vici bat, Esperanza sendoa, ta amorio garbi  
bat. Eta oec ta beste virtute guciac aci ta gueitzeco da  
gauzaric onena Comunioa, eracatsico degun becela.

**G.** *Cein da Sacramentu santu onen lenengo on, ta  
frutua?*

**E.** Da ematea ta gueitzea gracia Jangoicoarequin adis-  
quidetzen edo laztantzen gaituena. Beste Sacramentuac  
ere eguiten dite frutu ta onau, ordea ez Sacramentu onec  
becela. Beste Sacramentuetan ematen du, edo gueitu Jan-  
gon-

goicoac gracia, gauza, edo creaturen vitez, nola bateoan  
uraren, ta Confirmacioan crismaren vitartez; bafia Sacra-  
mentu santu altareoan ematen du ta guitu Jesu-Christo  
ber berac vitartetasun gabe.

**G.** *Cein da bigarren on, mesede, edo fruta eguiten  
duena?*

**E.** Da izatea animaco bazcari, edo janari gozoagoric  
ez dana; ta lurreco janariac corputzean eguiten duena,  
eguiten du Sacramentu onetan ematen dan janariac, ondo  
prestata dagoan animan. Ona Santo Tomas devoto andi-  
diac, ondo probatuac becela, eracasten dituenac; Sacra-  
mentu onec, dio, irau-eracitzen dio animaco vicitzari,  
nola lurreco oguiac corputzeoari. *Sustentat.* Aci ta gueit-  
zen du animaco vicitza, lurreco oguiac aci ta guicentzen  
duen becela corputza, *Auget.* Galdu dana bila eracitzen  
du, argaldua sendotu, lurreco ogui edo beste janari osa-  
suntsuac corputzarequin eguin oi duen becela. *Reparat.*  
Azquenean, ematen dio animari atseguin, paque, ta go-  
zotasun andi bat, nola lurreco janariac gose danari cor-  
putzean eman oi dion. *Delectat.*

**G.** *Nai nituzque enzun lau frutu onen explicacio cea-  
goar.*

**E.** Ona bada. Esan degun lenengo frutu au da mante-  
nitu edo iraua eracitzea animaco vicitzari Lurreco ogui  
ta beste janariac erasten edo unitzen dira Corputzarequin.  
Alcartasun, eraaspen edo unio onen vitez; lurreco oguia  
guizonaren aragui, ta ezur eguiten da. Onela dirau gui-  
zonaren vicitzac, bestela illico litzaque jan ezaz. Beraz  
lurreco alimentu edo janaria ta edaria bear bearrac dira  
irauteco vicitzan. *Sustentat.* Onela bada, Christoc comu-  
nio santuan ematen digun bere aragui, edo Cerutic jetsi-  
rico oguiac alcartzen gaitu berequin, ta moduren baten  
berequin bat eguiten gaitu. *Nere araguaia jan, ta nere-  
odola edaten duena, nigan guelditzen da, ta ni berequin*  
ala dio Christo ber berac. *Comulgatzen ceranean,* esacion  
bein Jaun onec San Agustini, *zu aldatzen cera nigan, ez-  
ni zagan,* nola guizonaren araguaia eguiten edo aldatzen  
ez dan ogui izatera, ta bai oguia araguaia.



G. Ezda aditzen erraza esan dan aldatze au comparacio edo berdintza gabe. Ala bada ecarri beza bat edo bat, obero aditu dezadan lengo esana.

E. Chit gogotic eguingo det escatzen dilazuma. Ecu-si dezu inoiz nola gaissoai ematen dizten noiz, edo ber-riz pildoracho urrez gafeztu edo estalduac? Urre au guel-ditzenda ecertan aldatu gabe, ordea ematen dio corputzari bere indar edo virtute ongarria. Ala bada Christoren araguaia comunioan ez da aldatzen guizonagan edo gure aragui izaten, ez gure anima, bafia ematen dio animari vertute guztiz andi bat ceñequin nola bait bereganatzen gaituen.

Nai dezu Santo Thomasec dacarren beste comparacio bat ezun? Ona bada. Eztitzen danean madari, edo cher-men piuta eder bat irasagar batan ondo, edo ofean, ecu-sico dezu nola irasagarrac ezduen aldatzen madari men-dua irasagar izatera, ta bai madari edo cherimen menduac irasagarra, madari arbola izatera. Ez irasagarraren ondo edo ofiac galtzen duela bere izate edo naturaleza, bafia bai ematen zaiolaco madariaren vertutea eguiten du-ten batutasun, edo unioa gatic. Norenac dira frutuac? Ez irasagarrarenac, bai madariarenac. Nore sinislezaque guertatzen dan naturalezaco mirari au egunoro espaguen-cus? Onela bada anima alcartzen da Christorequin comunioan, moduren baten cristotzen da, edo ematen ditu, ez creatura frutuac, ta bai Cristoren frutuac, Christo aldatu gabe animan ta bai anima bera Christo gan, nola bait Jangoicotzen duela. *Deificat animam*. Alcartasun, ta heregantze Christoc animari eguiten diona, ez da bacar-ric fede utsecoa, bai eguiazco ta benebenetacoa, dio San Chrisostomoc. *Non fide solum, sed et recipit*. Eguiten guera Christoren ostatu, egotegui edo tabernaculu viciac, ta San Ciprianoc dionaz, Christoren erabiltzallac, senide becela, edo odol batecoac Ama Virginaren Seinea-requin, *Christi-feri, concorporoi, consanguinei* :: Izan li-teque mesede andiagoric?

G. Nola baha irauñ eracitzen du Sacramentu onec animaren vicitza? Substantat.

Ona

E. Ona nola. Corputza janari gabe argaltzen, ta aguin-te gabetzen da; argaltasunac edo aguinte gabeac dacar al-dichaarra, ta guero eriotza ezaguna. Janariac eragotzen ditu calte oec, biurtzen ditu indarrac, sendotzen du cor-putza, ta ala irauten du urte ascoan vicitza, bestela jan gabeaz galdu bear zana. Ala bada, Ogui Jangoicozco Sa-cramentu aldaracoan ematen danac irauñ-eracitzen dio ani-maren vicitzari, emanaz gracia sendagarri, edo indargui-llera, ta gracia onen videz irauten dute anima ascoc es-pirituco vicitzan. *Zuen Gurasoac jan zuten basamortoan Mana*, edo goietatic intza becela erortentzan eztimodua, *baña ill ciran: ordea nire oguia jaren dueenac, vicitza beticoa izango du*, esan cien Jesu-Christoc bere Sermoia enzuten ceudenai. Zan esatea becela, ez corputzez ilco etzirala, ta bai emango ciela graciaco vicitzan irauteco indarra emen, ta guero Ceruan beste vicitza beti beticoa.

G. Beraz guchitan bafia eldutzen ez diranac Comu-nio santuco maira, becatu mortal gabe artzen badute ere guchi artze aictan, argal, ta indar gabeac egongo dira animan?

E. Ala da. Ecusten dira pobre batzuec, cer edo cer jana gatic ez iltzeco bestean, dabiltzala ofien gafean ar-gal, erquin, ta ichuratic irrenda; ozta dabilta zutic, ce-ren jan guchiac ecin eman lezaque sendotasunic. Ala ba-da bacan, edo guchitan comulgatzen diran animac, na-guitasunez danean, ebillico dira animaco argaltasun go-gorrean, virtutean aurreratu gabe, ta tentacio andietan erorteco peligro gogorrean, eeren ez dituzten billatzen in-dar vide, edo sendagarriac diran graciac Christoc esquint-zen dien mai ederrean.

G. Ori orrela bada, beraz ecingo du cristauac aur-rerapenic eguin animaco vicitzan, ez aci virtutean, igue-si becela badabil mai onetatic?

E. Ongui diozu, ceren comunio santuac dacarren iru-garren mesede, edo ona, da ematea vicitza espiritucoan acitzea.

G. Azalda beza nola dan ori.

E. Chit pacic eguingo det. Corputzeco janariac, ez ba-

ba-

bacarric iraun-eraci oi dio vicitza araguzcoari, bai ta ere acitzea edo-gueitzea eman. Aurchoa jaio ta cerequin acitzen da? Urte bete igaro orduco cembat aci oi da? Cerc emari aciera, edo corputzeco gueitzea? Amaren ugatzac. Guero nola dijoa aciaz oguei urteraño guchi gora bera? Jaanaz. Ala bada acico da anima vicitza graciaocan, gueituco zaizcoz vertuteac, izango da humillagoa ta garbiagoa: izango du eroapen edo paciencia andiagooa lurreco nai gaveetan; gueituco zaio Jangoicoaquico amorioa: lagunari barcatuco diozca gaitzeguinac, ebillico dira vertuterico vertute Siongo Jangoicoa ecusi artean betico vicitzan. Fe-dea piztucio zaie, Emausco discipuloai piztu citzaien be-cela, Jesu-Christoc oguia zatitzean. Aurreratuco dira Es-peranzan, gogoan iduquiric Jesusen esquintza au, *Nere araguaia jaten duena vicico da betico*. Espiritu Santuaren doai z beteco da, prestaera andiaquin badarama anima. Le-nengo <sup>distauac</sup> viotz batecoac becela ciran, beti paquean; ondasun <sup>gabeac</sup> eramaten cituzten Apostoluac gana etzue-nai zatitzeco, pobre esturic etzan; martirioan vicitza ema-teco nolaco gosea ta carra? Nondic ambeste vertute? Ce-ruco janaria egunoro ta prestaera ederrequin artzen zute-laco. Santa Maria Magdalena Paciscoe esan oi zuen, co-munio prestaera osoaquin eguin bat asco zala anima bat eramateco santutasun andira. Cer esan guenzaque gueiagoe?

G. *Cein da laugarren mesede edo on animan eguiten duena?*

E. Biurtzen ditu indar cerbait guchitu edo galduac. *Restaurat.*

G. *Nola izan diteque ori?*

E. Alde ascotara Becatu venialac barcatuaz, imper-feccio edo utseguite ezauera chit arinarequin eguitetatic garbituaz, becatuen ugar, edo cetaquetatic anima libra-tuaz, ta churituaz.

G. *Ez da erraz aditzea esan dana astiroago explica-tu gabe.*

E. Ona bada. Becatu venialac erraz eguiten dira, ta guciz ezauera laburrez ta vorondate guchirequin eguin oi diranac. Anima virtutean aurreratzen diranac ere ez dira

libratzen onelaco utseguite arinetatic. Persecucio, ta nai-gaveetan quejachoren bat, gueiegui estutzea gaizqui esa-ten digutenean, Jangoicoaten vorondatearequin ez osoro ta laquez berdintzea viotza; desprecioac ez artzea issil issi-llie, oracioco orduac laburtzea noiz bait, edo nequearen beldurrez, edo naguitasunez, edo bear becelaco prestaer-quin oraciora ez joatea, murmuracio chiquichoac, ta onela ecin contactu beste becatu arin, ta imperfeccio eza-gutzen ez diranac begui Jangoicoac arguituaquin ezpada. Eguzquia sartzen danean guela baten ecusten dira aidean mota, ispita lauso bestela ecusten ez diranac. Arropa zu-ri ta garbi piñ baten ezagun da mancha edo loiric chi-quiena, ez ala zatar trebes baten. Asco alditan olio man-cha galantac ere ecusten ez dira. Onela, anima on Jan-goicoac arguitzen dituenac, ezagutzen dituzte utseguite ta palta asco, cristau epel naguiac ezagutzen ez dituzte gau-ceetan. Ezaguera gabe damuric ez da artzen damu gabe ez da ecer batcatzen, barcatzen ez dan becaturic arinenac izango du castigua beste munduan: ala dijoaz becatu mor-tal gabe iltzen diran gueienac Purgatoriora, non egongo dira luzaro, becatu venial ascorequin eriotzac arrapatu cituelaco.

Beste batzuec dira gazte egunetan eraman zutenac vi-citza lasai, mundutâr, ta gaiztoa. Vicitza onequin co-mulgatzen ciran, eguiten cituzten sacrilegio ichusiac edo danutu gabe, edo becatuac estalduta confesatzen ciralaco. Oec Jangoicoaren argui andi batequin biurtu ciran bera-gana, eguin zuten Confesio general oso ta damu andico bat, aci zuten vicitza berri bat. Ordea cembat garbiqui-zun onelaco animac? Cembat ugar edo cetaca animan guei-ditzen diranac becatuac berac barcatua gatic? Urte asco Religio estuetan, penitencia beticoan becela vicitza era-man duteenac, santutat ceudenac, joaten badira guenac gueienac Purgatoriora, ta guchi guchi batzuec Cerura zucen, nolaco garoitu bearra iduquico ez dute becatueta-tic irten berriac becela diranac? Cembat urteco Purga-to-ria icharoten ez die garbitzen ez padira gueiagoe? Peni-tencia corputzecoac onac dira, limosnac onac; ordea sinis-na-

nazazu, prestaera onakin eguiten diran comunioac guei-ago garbitzen dutela anima bestelaco obra on guciac ba-ño. Bai dio San Francisco Sales ondo probatuac, badira lecu batzuetan erbi churiac. Cergatic? Cerren beti jaten duten elurra, ta elur churia beti jaanaz churitzen zate narrua. Ala guertatuco zate Bildots churi eder Christo da-na sarri sarri, ta ondo prestaturic jaten duten animai; chu-ritu ta edertuco dira; quenduco dizte cetaca ta loi gu-kiac, ez dira atzeratuco beste eguite onetatic; ta bai go-go gueiagorequin eguin.

G. Ori ondo dago, baña nola gordeco gaitu aurrara-coan becatuetan ez erortetic?

E. Ona nola : comunio ondo eguiñac arguituco du gure entendimentua, ezagutzeco becatu venial, ta imper-fecioac. Argui onequin ezagutuco degu, cein gauza cha-arra dan inolaere ofenditzea Jangoico maite gaituena be-rra dan gucia emateraño. Comunio ondoan, eguiten diran acto fedeco, esperanzaco, caridadeco ta esquer ematea-quin vorondatea iriciquitzen da, esquintzen dio viotz gu-cia Jesusi; ezagutzen du cein maitagarria dan, cein ona, ta artzen ditu gogo berriac ez emateco injuriaric. Emen artzen du ezagutzen dituen falta gucién damua, damua- laguntzen dio damuari aurrera alacoric ez eguiteco pro-positoac, ta ala artzen ditu neurriac erorteco berriz fal-ta chiquietan ere ezagueraz, ta noiz edo berriz ccrbaitean uts eguiten badu, damutzen zaio berea-la, ta lotsa andi batequin dijoa comultcera : emen art-zen ditu indar berriac, ta onela dijoa aurreratzen Jangoi-coaren videan. Ala da; ezdago santu izateco vitarteco urragoric, nola dan comunio ondo eguiña. Emen garbit-zen guera, dio Trentoco Concilio santuac egunoro eguin oidiran utzeguite chiquietati, ceintzuec diran auts eras-ten diranac igarri gabe. Emen pagatzen diran Jangoicoa-ren Justiciari diozcagun zoorrac, garbitzenda anima Bil-dotsaren odolean, ta prestatzenda betico atseguñac art-zeco, cerren dan Jesus ematen zaiguna etorrigo dan Glo-riaco Bai, edo prenda ederra. *Futura nobis Gloriae pig-nus datur.*

No-

G. Nola errazizen du Ceruco videan?

E. Ona nola. Beldurra sartuaz gure animaco et-saiac, ceintzuec eragotzi nai diguten ebiltza Ceruco vi-detic. Aragui bat degu uzarcatu, ta eraman nai gaitue-na bere naicunde ta atseguñetara. Nolaco esetsi ta guer-rac jasotzen ez ditu? Nola arrotu ez? Sentidu guciac su-ematen die. Nola ecita escuratu etsai gaizto au, ceñec ne-gar eragun cion bein baño gueiagotan S. Pablo Apostolua-ri? Nola eci? Goacen sarriho ta prestamentu onakin mai Christoc ipintzen digunera, an santificatuco da nola bait gure araguia Jesusen aragui eder ta garbiaren icutze ta egoteaz, ta onequin galduco ditu bere arrotasunac, au-sico zaioz bere egoac, ta gure vorondatea escuratuco du, ta ecarri arrazoico videra, ta noiz edo berriz arrotzen bada, bereala galduco ditu indarrac. Badegu beste etsai bat, ta etsai baten, asco etsai; esan nai det infernuco Dragoi ancinacoa ta gaurcoa, ceñen mendean becala dau-den bere aguindura ambeste servitzari, edo Aingueru gaiz-to berequin infernura erori ciranac. Oec ezdute loric egui-ten; gava ta eguna oro bat dira oentzat; ecin ecusi dute gure onic, nai luquee gucioc condenatzea, inorc Christo ez servitza, ta ala dabilitza gure inguruan gure animac irinsteco, dio San Pedro Apostoluac. Nai dezu ja-quin, cein dan animaric sendoena garaitzeco etsai oec? Da, dio San Christomoc, comunio ondo eguiña. *Facti diabolo terribiles.* Eldu gaitecen dio, confianza ta amo-rio andi batequin mai eder onetara, ta irtengo degu Leoi batzuec eguinda, indarrez beteric, arpegui eman ta igues oracico diozu Deabruari. Christoc largatzen duen usai, Aingueru onentzat gozoac, igui ematen die Infe-rnuco gaizquinai, ta artzendute iguesa.

Ipiñi cituen Jangoicoac Paradi-soan arbola mota bi bes-te ascoren artean. Arbola bata zan osasuneco, edo vi-citza luzatzen zuana. Etzan inor ilico arbola artatic jan ezquero, jaten expazuen bigarren Arbolatic, ceina zan eriotza cecarena. Cer eguin zuen Sugue asco jaquinac edo deabruac? Etzion esan, ez consejuric eman Evari jaa-teco osasuneco arbolaco frutua, ta bai eriotz a emango cio-

Ff

ne-

netic. Ala bada gaur ere , ez die putzic emango cristau onai jandecen Sacramentuan Christoc ematen digun osasun ta vicitzaco frutua , bai atzeratu aleguñez eldu ta urreratu ez gaitecen mai santura , daquitelaco nola iraungo degun becatu gabe , animan ill gabe , ta aurrerapen andiac eguiten virtuteco videan. Norc esan cembat guerra ematen dituzten infernuco etsaiac joan ez ditecen cristau onac comunio santuco maira ? Nolaco icara , beldur , ta atzerapenac ? Cer eguin bear da ? Eman contu osoa Confesoreari , ta eguin ichu ichuan aguintzen diona. Comunio bat galtzen duen cristau onac bere naiz , ta beldur vidgabeaz , nolaco calteac bere animari ? Nolaco atseguñia deabruari ?

*G. Nai nuque fauna enzun egemplo edo guerta-cuntza bat jaquitico gordetzen ote dien lotsaric infernucoac Jesu-Christo Sacramentuan dagoanari.*

E. Ona Aita San Franciscoaren Coronica , edo bere Religio andiaren historia edo guertaeretaco Libru baten eracurtea dana, Trailo ceritzon Jaun batec zeucan Alemanian bere echean emacume virtutetsu edo vicitza onecobat ; baña Jangoicoac ala laqueturic , jabetu ciran Infernuco gaizquinac emacume gaissoaren corputzaz ; orre-gatic largatzen cien noiz edo berriz paquean Elizara joaten, meza enzuten ta echean bere Senarrerequin tratatzen. Egun batean irteten zuela San Franciscoco Conventuco Elizatic, igarotzen zan ate ondotic Apaiza Hlostia consagratua ceramala gaisso bategana. Belaunico jarri zan emacume gaizquidua beste an ceuden gende ascorequin batera , ta barric oen artean arquitzen zan Judu batec macurtu etzitian belaunac. Emacume ura jaiqui zan cegoan toquitic, ta onen vitartez edo escuz eman cion etsaiac Juduari bellarondoco edo massallaco icaragarri bat esaten ciola , Zorigaiztoco ta esquer-gabeco guizona , cergatic honratzen ta adoratzen ez tezu Ostian dagoan cere Creadore , ta Jangoicoa ? Eran-zun cion Juduac , Ostia gucietan badago Jangoicoa , Jangoico acar bat izango ez litzaque. Ah tontotzarra , esan cion deabruac emacume aren aotic ; artu zuen Galbae zulo asco ceuzcana , ta ipiñiric Eguzqui ar-

gui-

guitan , ator ona , esaten dio , ez dec ecusten nola ambeste zulotic aguertzen dan Eguzqui osoa , ta nola esateco moduau sartutzen dan Eguzquia zulo ascotatic bat izanic ? Ala bada , bat da Jesu-Christo , bat Jangoicoa , ta orre-gatic dago lurreco Ostia consagratu gucietan. Onela obligatuac izan dira noiz bait infernucoac aitortzera damu gorrian Jesusen Sacramentuco egoera eguiazcoa , adoratzera Jesus San Pabloc adieracitzen duen becela itz oequin, Jesusen icenean guciac belaunac macur ditzatela , Cerucoac , lurrecoac , ta infernucoac. Ordea beste asco alditan tentatzen dituzte guizonac eguiteco Jesus Sacramentatuari eguin al injuria ta deshonra. Tentatu dituzte Judu ta herege asco bota ditzen Ostia consagratuac surtara , lurrera , ibaira , zacur ta zaldien ezarrietara. Tentatu ditu aitatu ecin ditudan gauzaric ichusienac eguitera. Tentatzen dituzte cristau onac joan ez ditecen comulgatzera, baita ere gaizqui vici diranac ondu gabe joan ditecen becatu mortalean , onela injuriatzeco aleguñez Jesu-Christo bere amorioa aguertzen duen lecuric ederreanean. Nola garaitu ambeste animaco etsai gaizto ? Ancina esan zuen Davidec guero guertatuco zana , ta ipiñico zuela bere aurrean Jangoicoac mai bat , ceñen janariarequin sendoturic garaituco cituen etsai guciac.

Animari ez ecen, corputzari ere emaa-dio sarri indarra. Santa Catalina Senacoc, oraindic gaztechoa zanean, ecin ecer jan izaten zuen comulgatzen zan egunetan ; ematen cion igui jan guciac ta corputza guelditzen citzaion janda baño indar gueiagorequin. Galdetu cion Confesoreac, nola egon citequean gose gabe ; nola indar osoaquin egun osoetan alimenturic artu ez da ? Eranzun cion ; Jauna, ain andia da sentitzen dedan atseguin, edo gozotasuna Jesusen Corputza artzean, cein da ecin artu det lurreco gauzaric jaateco gogoric ; ecin comulgatu naizanean , Elizan sartuaz , Sagraria fedeco beguiac eramana , Elizan sartzen naiz. Meza eman duen Sacerdotea ecusiaz beste gabe , gogoan artuaz bere escuetan egon zala Christoc , edo comulgatu ondoan bere bularrean cerabillela , bere espiritu gucia sendotzen cion , ta guertatu citzaion

Ff 2.

noiz

noiz bait. Garizumaco lenengo egunetic Christoren Ascensio, edo Ceruco igoyeraco Jaira artean, egotea Santa aitatu degunari, ecer jan bague; bacarric bai comulgatu egunoro, ta au zan bere indarrac oñean ceuzcana.

G. *Cein da esan degun azqueneco on edo mesede Sacramentu onac eguiten duena?*

E. Da animan largatzen duen atseguin edo gozotasun ecin esan bestecoa. Lurreco jatecoac atseguin emin oidu, ta esan ere oi da, gozoa dan gauzac aragui ona egutea duela. Baña mingaña cetacatu edo ugartua badago, etzatio atseguin edo gusto onic artutzen. Eracurten baditugu Santuen vicitzac, ecusico ditugu cein amorez urtuac, cein gozatuac guelditzen ciran comunio aurrean, comuniocounean, ta comunio ondoan. Cirudien ito bear zutela contentuaren contentuz, ceru berri baten arquitzen cirala, ta amore gozoz ordituac; non ceudea ere etzequitela. Ain Santu andiac ere ez diranac, baña bai ebilli virtuteco videan, izan oi dituzte aldi ascotan lurreco gende eroac beren olgantza gucietan arqitu oi duten baño atseguin gueiago. O nolaco negar samurrac! Nolaco nasai aldiac, ta viotzeco olgura, ta ascatusunac!

G. *Ori orrela bada, ez dute comunio onic eguingo comunio ondoan motel, agor, ta sicu sicu daudenac?*

E. Ez da eguia zuc ateratzen dezun contu edo ondoarena nic esan dedanetic. Santo Thomasec berac dio, samurtasan, gozamen, ta atseguin senticor ta ezagunac ez dituztela arquitzen anima onac beti ta era gucietan, comulgatu ondoan. Ordea ez da inoiz izan anima virtutean aurreraturic noiz edo berriz, baita aldi ascotan ere probatu gabe comunioco gozotasunac. Eman niri, dio San Agustinec, Jangoicoa benetan maite duen anima bat, ta aituco du esaten dedana. *Da amantem et senti et quod dico.* Baña cristau beti epel, ta contu guchirequin vici izan diradenai itz eguiten badiet, ez naute aituco, ez dutelaco inoiz probatu alaco gozotasunic. *Urreratu zaitzete berregana*, dio David Erregue Santuac, eguizute bere esana, quendu viotzetic Jangoicoaren amorea, galdu edo gahitzen dituzten gauzaac ta arguituac izango cerate. Argui

gui onec iriciquico du viotza, ta jaiquico dira amoregar andiac. Ordea probatu oi ditu Jesusec animaric maiteenac viotzeco agortasun, entendimentuco illuntasun, espirituco mingoiztasunequin, comunioan ere lengo gozotasunic sentitzen ez duteela. Uste dute igues diela betico Jesusec, ezcutuco becatuaren batequin aserra-eraci diela, larga dituela guci: emendic cembat negar samin, cembat estutasun! Confesoreac animatua gatic, ez die sinisten, ta vici dira animaco martirio gogor baten. Daude Jangoicoa amatu nai sendoan, eguingo luque edocein ganza Jesusi atseguin ematerren; ta uste izanic maite ezduteela Jaun ain maitagarria, daude penaz ta naigavez. O anima zorionecoac! Igaro negu gogor orretaco ortasunac, gau illun orretaco beldurrac. Jarraitu fedearaquin Christoric, eguin berari atseguin emango dion gauza gucia, ta artuco dituzu paciencia ta humildateco frutuac. Igaroco da negua, arguituco da eguna ta orduan ecusico dezu, cembat mesede ecarri dituen zure animaren barrenera, Jesusen igues eguite edo ezcutatze amorezcoac. *Sicut tenebræ eius ita et lumen eius.* Andiac izan badira illuntasunac, andiac ere izango dira arguiac.

## ERACASTE IV.

*Nola prestatu bear dan anima ateratzeco frutu onac Comunio santutic.*

**I**Cusi degu orainagoco doctrinan cembat on ta mesede datozquion ondo comulgatzen dan cristauari. Orain ecusi bear da nor ondo comulgatzen dan.

G. *Nor da bada ondo comulgatzen dana?*

E. Bear diran prestaeraquin urbiltzen edo urreratzen dana Sacramentu andi onetara.

G. *Ori bai; baña cein dira ondo comulgatzeco prestaera?*

Bat-

E. Batzuec dira corputzaren aldetic, ta besteac animaren aldetic datoizanac.

G. *Cer escatzen da corputzaren aldetic?*

E. Baraur oso osoa, eriotzaco peligroan ezdanean, ceren artzen danean comunioa eriotzaco videan laguntasuna izateco, ez da escatzen baraur egoteric, erraz erraz ecindanean. Gaisotze andiaquin daudenac artu-bear dute sari alimentua, edo boticacoren bat, ta ezda erraz eraguciac ondo etortzea osasunaren calte gabe baraur osoarequin comunioa artutzeco.

G. *Cer aditzen da comulgatuso danac eraman bear duen baraur natural edo oso osoaren icenez?*

E. Aditzen da, comunio aurreco gauerditic comulgatu artean, artu bear ez dala ez jan, ez edari gauzaric.

G. *Ori ondo aditzen det, baña badet cer galdetu; galtzen ote da baraurra ortz, edo aguiñen artean guelditu oi diran lengo janaren izpi, edo apurren batzuec irinsuten badira chistuarequin batera, edo arnasa artzean?*

E. Ezda baraurric ausitzen, cerren ez diran artzen jaateco gogoz, edo jaari moduan. Orobat odol tantaren batzuec iriteta badute aguiñe, ortz, naiz oietatic, ta irintsi-arren chistu moduan edo chistuarequin batera, ezda baraur oso au galtzen, ta comulga diteque. Arpeguia garbitzean Elizara joan aurrean igarotzen bada eztarritic, berariaz ez dala, ur tanta bat edo beste, ez da baraurra galduco, ta ez eragotzico comunioa. Berriz norc nai daqui aora etorri dan chistu mea, nai loditzarra berriz irentsia gatic, comulgatu ditequeala beldur gabe. Beste batzuec dira beldurrez daudenac comulgatu ecinda elchorenbat, edo benetan edo beguitacioz igaro zatelaco eztarritic. Oec dira beldur sustrai gabeac ta aienatu bear ditana.

G. *Ondo da comulgatzera dijoanac ez artzea Tabaco orri ta autsic?*

E. Nola ere dan, ta guciz tabaco-orria. Sentidu gucien ildura edo mortificacio osoa eraman bear dan une edo denporan, ez da ondo, atsequin molde gabeco, ta corputzaren palagarria eramatea. Berriz aquiratstuarequin

ez

ez dirudi ondo, ez Confesorearen sudurrai igui ematea, ez Christo baicen gauza andia usai zatar ta mingain quatuaren gañera eramatea. Cerda ansu baraurric ez ausia gatic? Ez da eguiaz becatu mortala comunio aurretic tabaco-orria pipa, edo papeletic quian artzea. Ordea comuniora eraman bear dira Jesusi onra emango dien prestaerac. Erreque edo Jaun andien aurrean pipa artzea, litzaque injuria ematea. Etzaio zor gueiago Jesu-Christori? Tabaco autsa artu gabe dijoanac atsequin gueiago emango dio Jesus mortificatu, ta mortificacio zaleari, artu ta sentiduari atsequin emanda dijoanac baño. Guchi guchi dira tabaco autsa artzen duteenac vicio edo palta gabe. Ala bada edolaric mortifica ditecela comulgatze aurrean, baita Eliza santuan ere, ta guciz Sacramentu santua aguertuta dagoan egunetan, eta meza enzutean.

Corputzaren aldetic escatzen ere da modestia andia jancian, arrotasun gabeco sofocoquin aguertzen dala humildadez beteric dagoan Jesusen aurrera. Nolaco janci humillarequin ez dago Jesus Ostia santuan bere Anditasua estaltzen duela? Jangoicoari esquerrac, euscaltzerian ez da ecusten jancian aldetic aguirico arrotasunic comulgatzera dijoacenetan. Escatzen ere da beguetaco lotutasun, edo modu ona; comulgatzera dijoanac, joan bear du ots gabe, pauso gueldicho ta zatarqueria gabeco ebiltzearequin beguiac goraturic, ez arinegui batera ta besteira beuira darabiltzala. Balego fede vici bat, ezaguera andi bat, ta artuco bagueni ondo gogoan nor gana goacen, nori hostatu eman bear diogun, joango guinaque atencio andi batequin, ta atencio onec ecarrico luque corputzaren aldetic bear dan reverencia. Sacerdoteac alde batera ematen baditu, ostiachoac eracatsiric daudelaco, igarotziac beldur gabe.

G. *Nolaco prestaerac eraman bear dira animaren aldetic?*

E. Dira iru guisacoac, comunio aurrecoac, comunio orducoac, ta comunio osteco, edo ondorengoac.

G. *Cein dira comunio aurreco prestaerac?*

E. Lenengoa, bearra, ta beste gucien itur-burus, da

Jan-

Jangoicoaren gracia, ta au gabe ezdago comunio onic, ta bai calte andicoa. Esan guenuen lenagoco doctrinan, nola gracia gabe dagoan animarentzat bearra dan, aurreco prestaeratzat Sacramentu santu confesiocoa.

*G. Asco da graciaco estaduan comulgatzea, len aita-tu ditugun frutu guciac ateratzeco?*

*E.* Ez: cereñ gracián, edo pecatu mortal gabe urratzen diraden guciac ez daramez prestaera oso osoac irabaci guciac ateratzeco. Ona cein ederqui adierazo cion Jesu Christoc Santa Catalina Senacori. Nere alaba, esan cion, iduquitzen da candela iriciqui bat escuan; dijoaz asco candela artan iriciquitzera bacoitzac berea; guciac ematen die arguia; ordea ateratzen da argui asco edo guchi bacoitzac nolaco candela daraman. Badijoa bat candela me chiqui, babil laburrecoarequin, argui guchiago atera, edo artuco du librer dico candela batequin dijoanac baño: ta librer dico candela ta dagoquion babillarequin dijoanac baño gueiago artuco du sei libraco candelarequin dijoanac. Guciac artzen dute arguia; ez ordea guciac berdin, nolacoa daraman candela, alacoa izango da argui artua. Au beran guertatzen da nere Sacramentura urreratzen diranetan graciaco estaduan; guciac ateratzen dute arguia, edo nere graciaren gaarra; batzuec guchi, besteac gueiago, nola diraden dactzien prestaerac.

*G. Nor da gracián egone gatic prestaera laburrarequin eltzen dana comuniora?*

*E.* Da lenen, guchi gogoan arturic, ezaguera laburrarequin ta oitura utsez bezala dijoana comulgatzera. Janaria apurtzen edo ceatzen ezpada, ez du onic eguiten orregatic esan oi da Otsoac beti diradela argalac, cereñ irinsten duteñ jaatecoa itoca, ta ceatu gabe. Bada pensatu bear da comulgatu baño len egun aurreric, ta egun bertan, nor artzeera gbacen; cein dan Jesu-Christo; nor gu; cembat amo-dio eracusten digun bere aragui Jangoicozcoa guri ematen, nola ematen digun eman ala; nola gu ere obligatuac guelditzen gueran guere viotz, ta sentidu guciac berari ematera esquer gaiztoacoa izan nai ezpadegu: Pensamentu, edo consideracio onec ecarrico digu

lot-

Iotsa santu ta reverencia andia. San Francisco Asiscoc, gogoratuarequin, *Fauna zu nor cera, ta ni nor naiz* atera oi cituen amorezco, ta humiltasuneco car andiac, ta emendic bete virtutez. Baña bagoaz comulgatzera viotza aurrez prestatu gabe, elduco guera epeltasun andiarequin, egingo diogu arrera motel, otz ta gago gabe-co bat, ta lotuco degu Christoren escu emallea, ta ir-tengo degu frutu laburrarequin.

Bigarrenac dira obetzen ez diranac beren vicitzan, eguiten dituztenac becatu chiqui edo arinac beldur gabe, oituraz, ta ezaguera arguiarequin. Onelacoac vici dira becatu andietan erorteco peligroan; Jangoicoari amorio gu-ciz laburra die, daude epeltasuneco estadu caltegarrian, ta Christo gana dijoaz viotz ondo garbitu gabearequin. Erregue bat dijoanean norbaiten echera, garbitzen da eche gucia goitic bera, ez da largatzen amelaun, ez autsic, apaintzen ere da aleguin guciac egongo dan lecu, edo guela. Becatu venialac dira gure animo amelaun, ta utsac. Oec guere vorondateco escobarequin quentzen ezpaditugu, au da, artzen ezpadegu comulgatu baño leenago becatu chiqui edo venialen damu eguiatzco, ta obetzeco asmoa, emango dio gu Jesu-si, igui eman bear dion hostatu ez garbitua, autsez bete.

Ona cein ederqui adierazotzen duen San Francisco Sa-lasec. Badaucagu conserba usai gozocoa. Onci baten, per-seguituco dute euli chatarrac, ta segurueni da estaltzea. Onci ura euliric sartu ez didin. Baña demagun arquitzen dutela sarrera conserbategui artara euliac. Euli bat edo beste sartu, apur bat conserva jan edo artu, eta bereala eguiten badu egaa, calte guchi egingo dio conserbari. Ordea euli asco badijoaz, bertan asebeste eguinda guelditzen badira egaatu gabe, ustelduric, nori emango ez dio igui alaco conserba euli ito ta atsitzuz beteac? Cembat calte eguin ez conserbari? Onela bada becatu venial bat edo beste eguitea arinca, ezaguera laburrez, caridadeco conserba gozo ederra daucaten animai ere guertatzen zaie. Gracián daudenac badute conserva caridadecoa; ordea batzuec euli ascoz, ta bertan illez, au da, becatu venialez beteac: eguin ta eguin, ta bertan ito egaatu gabe;

Gg

da-

damuric artu ez, ta dijoaz Christogana atseguinic eman-  
go ez dion prestaeraquin. Emendic dator sarri comulgatua  
gatic irautea vicitza epelean, ez aurreratzea virtuteko vi-  
dean, beren buruben ildura edo mortificacio guchi edu-  
quitzea, aserra-errazac izaitea, guezur chiqui edo calte  
gabeac esatea ugari, janean billatzea atseguin gueiago  
ematen diona naguia Jangoicoaren gauza neque apur bat  
dacartereraco, bacarric daucatelata contu lodi lodi bat ez  
erorteco becatu mortalean. O vicitza peligro andicoa! Je-  
susequin ain urri, cicotz ta cequen dabillenac, cer icha-  
ron dezaque? *Gauza chiquietan beguiratua ez danac, gucl-  
dica joco du bez*, dio Espiritu Santuac. Nola ur epela  
trocatu edo errebesa eracitzeco ona dan, ala ateraco di-  
tur edo trocattu nere aotic vicitza onelaco epela darame-  
nac, esacion Jesu-Christoc alaco bati San Juan Evange-  
listaren vitartez, edo mandatari zala. Ona itzac berac.  
*Naiago nuque otza haciña edo beroa; baña ceren ceran  
epel ta naguia, trocattu bear zaitut*, edo bota nere gan-  
dic. Da esatea, ez dirala Jesusen viotzean ondo sartuac  
egongo. Ceruco videan nagui, epel, ta ardura gabeac di-  
ranac, ez dituztela artuco Jesus. gandic comunio ondoan  
bere maitatzalle cindo ed pin piñac artu oi dituzten atse-  
guin gozagarriac. Biotz naguiac, zure epeltasunac nasten  
darozquit erray guciac. Erdi lo zaude, ta cere naguita-  
sunac ez dizu eznaatzera uzten. Au esaten die Christoc be-  
catu venial edo arinac ardura ta contu gabe eguiten di-  
tuztenai, viotz batu edo barriundua ez darabiltenai, lo as-  
co jahi ondo, ta olgantzta munducoetan dabilzanai, gaiz-  
to gaiztoac, edo becatu mortalecoac izan eza gatic. Oen  
artean badira erdi munducoac, erdi Jangoicoaren izan nai  
lurqueenac. *Divisum est cor tuum*. Bañatu nai lurren viotz-  
za; eman erdia munduari, ta beste erdia Jesusi; au da  
etsai, inoiz alcattu ez diradenaquin, vici paquean, bai  
atseguin eman; ordea biequin galduco dute. Onelacoac nai  
dute confesatu ta comulgatu chit sarri, astean bein edo  
birritan; baña aurrera lengo vicitza naguiari, aurrera be-  
catu venialac ardura gabe ta ugari eguiteari confesätzen  
badituzte becatu venialac, da damu gabe, cerren ez di-  
tuz-

tuzten artuzten neurri egoquiac obetzeco; leenac beti. Oen-  
lacoentzat ez da ain sarri comulgatzea.

San Agustinec ematen cien conseju bere Sermoietan  
enzunlai, comulga citecela Igande edo Domeca gucietan.  
Conseju ederra, dio San Francisco Salescoc, baña contuz  
eguin bear dana. Zortzi egunetic zortzi egunera comul-  
gatzeco bear da becatu mortal gabe egoteaz ostante, ez  
iduqui amorio edo eraspenic becatu venialac diradengau-  
zai; ez erortea becatu venialetan arinqui, sarri, gogo osoz,  
oituraz, ta contu gabe. Bear da eldu comuniora becatu  
venial ezagun gucien damuz, ta asmoaz obetu edo emen-  
datzeco. Bestela, comunio epela eguingo da; ta certaco  
ditu Jesu-Christoc berequin ain sarri adisquide onac ta be-  
re maitatzalle piñac ez dituenac? Ez utzi nai Christo ga-  
tic lurreco on izate edo interes labur bategatic largaco  
liraqueenac, ta joan beragana maite bat balite becela?  
Atoz ona guezur chiquiac ugari ta beldur gabe esaten  
ditu una: Esango balizu Jaun batec guezurric esaten ez  
dezan egun bacoitzean emando dizula oguei errealeco bat,  
guezur asco esango cenuque? Ez Jauna. Oguei errealeco bate  
gatic egongo litzaque edocean, beintzat averats averatsa ez  
balitz, egua gucian guezurric esan gabe. Eta beingo ba-  
ten esango bacendu guezurcho bat, nolaco naigave ta da-  
mua? Ah! Esango cenuque, galdu ditut oguei erreal aur-  
queria bate gatic, contu pisca bat ez iduquitzea gatic. Cerc  
eguiten du pasio char ta zaarra ere garaitzea ain erraz?  
Diru amoreac. Oro bat eguingo cenuque becatu venia-  
lac diraden beste gauza ascorequin. Etziaaque joango Chris-  
toren leguea arkitzen ez dan lecu ta itzquet, alperreta-  
ra, bacenuca errentacho bat egunoro cere echean, ta le-  
cu on onean egotea gatic. Ala ez da? Ongui. Beraz ez  
eguitea zuc Jesusen amorez, Jesusen atseguin, lurreco di-  
ru guciac baño gueiago balia duteenac gatic, eguingo ce-  
nuqueana diru batzuec gatic, da arguiro esatea, Jesusi  
atzea ematen diozula lurreco ondasun galcorrac beguien  
aurrean iduqui ezquero; da esatea, diru apur batzuec es-  
timacio gueiago ematen diezula Jesusen maia eguiteari ba-  
ño. Amatzalle ederrac eguiatz! Eta joan guero ain sarri



Jesus gana, cein ain guchi maite dezun? Ezda asco esatea mundu gucia baño maiteago dezula, bere amorez garaitu nai ezpadituzu pasio chatarrac; artu bear dira ta ill azeri chiquicho animaco maasti ederra guchica galtzen duteenac, ez da asco basaurde zatarrac iltzea; oen caltea aguri ta ezaguna da, ta perseguitzen ere dira. Baña aceri gazte ta chiquiac inorc igarri gabe becela eguiten dituzte calte asco; matsaien, edo charmentuac ez ausiatic basaurde zatarrac becela, ausitzen ta galtzen dituzte pampanu, edo morgotachoac, nondic etorri bear zuten inordoac. Arrapatu bada azericume caltegarri oriec, dio Jangoicoac. *Capite nobis vulpes parvulas quæ demoliuntur vineas.* Au da quendu animaco mastitic, urrutitu, edo aienatu igues decen, becatu venialac, ceintzuec ugari ta vorondatez diranean, ta animan dirautenean quendu gabe, eguiten dituzte calte andiac.

Ori orrela bada ote izango da guchitan comulgatzea. Contu gaiztoa ateratzen dezu. Ona cer esan bear centuqueañ. Ori orrela bada, quendu bear degu Jangoicoaren amorio andia eragozten digun gucia. Ori orrela bada, iduqui bear degu contu chit andia ecertan ere aleguinez Jangoico ain maite izan gaituenari atsecaberie ez emaiteco. Eraman bear degu vicitza Jesusi atseguin emango diona, mundutic viotzez aldeguina. Izan bear degu oraciara emanac ta noiz edo berriz erorten baguera becatu arinen baten, bereala bear diogu escatu barcacioa Jesusi. Artu bear degu fede sendo bat Sacramentu comuniocoaren gañean, piztu baragana eltzeeco egarri andi bat, ta aurchoac beren Amaren bularrean erasten diran amorez edateco ugatza, ala ta gueiago, dio San Chrisostomoc, eguin bear degu guc, eltzeeco comunioco maira, non Jesusec ematen digun Ama batec bere aurrari baño gueiago ta ainorio gueiagorequin, ta gure naigaverie andiena izan bear da comulgatu ecin gueranecoa. Onela bagabiltza, nolaco ondasunac animarentzat? Nolaco irabaci ta aurrerapenac Jaunaren videan? Nolaco amorio ta pozarequin artuco ez gaitu Jesusec iru bider asteoro bagoaz ere. Ah bai ta presatutuco baguina egunero eltzeeco mai santu onetara: Eta

nolaco arrera gozo edo beintzat sendagarria eguingo ez liquegu? Comulga zaitte sarri Filotea, esaten dio San Francisco Salescoc bere Alaba espiritual bati, ta aren buruan besteai, comulgazaitte, ta al dezun gucian cere Confesorearen vorondateaz. Sinis nazazu, ecen nola Erbiac zuritzen diran gure mendietan elurra jaanaz, ala zurituco ere da zure anima, edertu ta apaindu Jesus ain garbi ta ederra jaaten ematen zaitzunean, edo sarri bazoaz Sacramentu onen maira.

Baña Filotea ura zan anima Jangoicoari gucz emana, oracio zalea, becatu arin edo venialetan ez erorteco contu andia zuena, eguaetic egunera aurrerapenac eguiten cituena virtuteco videan. Onelacoac eldu bear dute sarri edo maiz mai santura, nondic ateratzen dituzten ecin esan beste animaco ondasun, ta sinistu nai badiozu Maria Jesus Agredaco veneragarriari, ondo prestatu ta sarri comulgatzen diran anima aseoc gloria gueiago izango duteela martirioan vicitza eman datenen batzuec baño.

G. *Virtutean berriac diranac, edo aurrerapen andiac eguin ez dituztenac comulgatu bear luquee sarricho?*

E. Ederqui galdetzen didazu; ona eranzuna. Anima Jaunagana biurtu berriac, ez dira guciac modu batecoac; batzuec abiatzen dira gogo bero edo fervore andiarequin, daude prest aldeguitico becatu chiquietatic, nai dute sartu oracioco videan, iraun sendo, eguin penitenciac, ta itz guchitan, jarri Confesore aitu baten obediencia osoan vicitza zucen ta garbi bat eramateco. Oec nai ta ez bezala izango dituzte, gueienez beintzat, tentacio ta eragozgarri andiac, ala infernuco etsaien aldetic, nola munducoenetatic. Onelaco animac eldu bear dute sarri, ez beren luruz, baña bai Confesore anima zalearen consejuz, munducoen berriquetai jaramonic eguin gabe. Nola oberto garaitu, ta ebaqui egoac ta indarra infernuco tentatatzalleai Jesu-Christoren aragui santua jaanaz baño? Christoc anima alacoetan largatzen duen usai gozoa, da debruarentzat quirats igues-erazotzen diona ta guelditzen da etsai gaiztoa indar ta aguinte gabe. Ur bedecatu ta Christoren irudi edo imagiac icaratzen, ta urrutitzen

badituzte, nola igues-erazoco ez dio Jesu-Christo ber berac? Nolaco amorroa emanaz? Ala bada, cembat eta tentacio gueiagoz inguraturic arquitzen dan cristau Jangoicoaren servitzaria, ambat sarriago eldu bear du comunio santura.

Ori eguiten det Jauna, ordea ez dira tentacioac guchitzen; naiz gavar naiz egunez, arquitzen ez det paqueric. Certaco da comulgatzea sarri? Beragatic; deabruac irten ez dezan bereaz, ceñec arrabiaz ta gorrotoz gueitzen dizquiztu tentacioac, zu beldurtzeco, zuri igues eracitzeco mai santutic. Comulgatu ondoan desafia ezazu, ta esan icara gabe, ator ona nai badet, etsai gaizto Cerutic deserituta agoana betico; cer nai didac? Nic ez artzea nere Jesus vorondateric onenarequin etorri zatana? Ez diat ere beldurric berequin nagoan artean. Jarri bearco dec belaunico becala bere aurrean, ceñi obeditu bear dion Infernuac. Ah zorigaiztocola! Galduric dec betico Jesus Ceruan ecustea, ecin amataco dec, ez orain, ez inoiz. Cer nai dec infernu andiagoric Jesus inoiz ecusi, ta amatu ecina baño? Nai dec ecusi nola nic amitzen ciadan?

Onela arrabia eracico zaio etsai gaiztoari, ta azqueanean paquean utzico dio animari ecusten duenean confianza osoarequin jartzen dala Jesusequin peleatzera.

G. *Norc gueiago sarri comulgatu bear du?*

E. Jangoicoaren videan arquitzen dituztenac mingoiztasun, ta agortasunac, paque osoric ez ta bai beti beldurric. Onelacoc esuago dute; otz, ta epel arquitzen naiz comulgatzean, ta comunio ondoan; ta esaten da, epelac ez dirala onac Jangoicoarentzat, ta igui ematen diela. Certaraco bada joan sarri comulgatzera? Cembat eta jai andi devotoagoa dan, orduan ni otzago, ta epe-lago. Nic Christo artzea da o pal zati bat artzea becala; ez det gozotasunic ez samurtasunic sentitzen; ta batzuetan etortzen ere zait tentacioa, edo becatu mortalean nagoala, edo Christoric ez da pala hostia santuan. Ai Jauna? Len izan oi nituñ pozandiac, negar gozoac, nere viotza samurtzen zan erraz, ta ez nuen largaco comunio bat lurreco ondasun asco gatic. Baña aldi onetan icaratz-

zen

zen naiz gogoratuaz beste gabe comulgatu bear dedala. Atoz ona viotzeco martirio orietan zauden aaina ezagutu gabe zorionecoa. Nai cenuque viotz guciarequin amatur Jangoicoa? Eguin bere nai ta vorondatea, berari atsequin enian alde un gucian? Ori bai Jauna, gogo eda animaco deseoa ez det galdur; ez nuque nai becatu venialcho batequin ere ofenditu Jangoicoa, ta eguiten dedanean paltachoren bat, damutzet zat bereala, biurtzen naiz Jangoicoari parcacioa escatzera. Ori bai? Bada etzarde vicitza epelean; vicitza epelecoac eguiten dituzte paltac quezca gabe, ez dira penatzen beren epeletasunarequin; vici dira beldur gabe; iltzen zaitez perfeccio edo on on izateco deseoa guciac. Berriz non dic datozquitzu nai gabe ta viotzeco pena oriec? Nai cenuque ondo comulgatu, eraman Christori amorio andi bat, ta nola biguntzen etzeran len bezala, uste dezu amore gabe zoacela; ta zure animan arquitzen dan estutasun ta naigabea, da amorio penazco gueiago valio duena, ta on gueiago ecarrico dizuna, amore gozatsit, eztituzsamur, ta bigun neartsuac baño. Onelaco amore gozeago da; baña beste aldi ascotatic on gueiago dacarrena. Amore gozoac ecarric dezaque confianza arro, ta bere buruaren amore; bi latzean Jesus guere emengo gusto edo atsequinagatic. Baña amore illun, agor ta penazcoac berez dacar humiltasuna, ta ez amatzea Jauna guere gustoz, ta bai dana dalaco fede utsarequin. Ez naiz aspertuco ait eracasteaz, cerean anima on ascotentzat da doctrina animagarria.

G. *Sacerdotea ez danac artu dezaque comunio egunoro?*

E. Bere buruz eguiten badu, ez du ondo egunoro, cerren anima guchigan arquitzen da ambe te comunioraco prestamena. Eguiten badu Confesore jaquitun, ta ventiteco vide ezcutuac ondo aditzen dituenaren aguiaduz edo consejuz, e uin dezaque. Eliza Ana Santac ez du eragotzen egunoroco comunioa, ta balego cristauetan artaco bear dan prestaera osoa, lurrean izan alditequeanez, naico luque; ta ala aguertu du bere vorondatea. Ordea nolala graciari egote utsa, asco ez dan orretaraco, Aita Santu

tu.

ta Erronaco batec utzi zuen auquera edo beguiratze au Anima-zai, ta Confesore aituen escuan. Jangoicoac dempora gucietan izan ditu, baditu, ta izango ere ditu anima vertute andicoac. Oentzat da chit ona egunoroco comunioa; baña ez gueienez bestelacoentzat. Comunio ain sarriac, humiltasun andi baten sustraituric ez dagoan animan, ecarrico du lotsa guchia, edo desprecioa, gosea etzaio gueituco, ta bai gogo betea; ta guero eguingo dira comunio arinegui ta devocio gabeac. Gaurco egunean ecusico balute cristau bat egunoro comulgatzen, nolaco cer esanac ala Confesore, nola comulgatzen dana gatic? Ustecoluque gendeac, ecusi bearco liraqueala milagro edo mirari andiac eguiten alaco cristauac; ez luqueela belarra baño besteric jan bear: icusico balie palta chiquichoren bat, ceñia ecusteco dituzten mundutarrac begui zoli ta arguiac, nolaco burla ta parreac? Ala, baquea errietan aleguinez izan didin, guchi guchitan conveni da egunoroco comunioa. Eguia da ecusia gatic anima bat egunoro comulgatzen bere Confesorearen consejuz, ez dala gaizquiric esan bear; ez du bacoitzac bere buruarequin bestearena ñeurtu bear. Elicac permititzen duena, ez da eragoztecoa escuvideric ez dutenen ao chaarrez. Ez diot nic inñori eman egunoroco comunioric, ez nic baño obeto mereci etzutelaco (inorc munduan mereci ez duena bada ere bein bacarrie comulgatzea) baña bai beste arrazoi onac gatic. (Videatur Calataiudius tract. de Comun.) Sartutzen dira envidia edo ondamuac anima argaletan. Cergatic ni ere comulgatzen ez nau beste becela? Cer ote du besteac ez dutenic? Onela esaten dute beren artean, ta bear bada lagunon aurrean, ta datoz animetara calte andiac. Comulga ditequez egunoro viotzez ta deseoz; onela gueituco da comunio gosea, ta comunio bacanago eguñetan ateraco da frutu egunoro eguñetan atera citequeana, prestamentu gueiago badarama bacanagoetan. Jan bi edo irutan errencomulgatzea, ez da egunoroco comunioa beste egun ascotan comulgatzen ez danean.

G. Norc ere comulgatu bear ez du ain sarri?

E. Fede laburreco gende batzuec, ceintzuec comul-

ga-

gatu ondoan dempora guchi bat eguñada dijoazan Elizatic beren cer eguñetara. Oen fedea da laburra. Au da Jesu-Christo eramatea munduco arazqueria, ta cer eguñen artera. Ecusico baguendu Elizacoquin dijoan Sacerdote bat bere videari larga, eta joaten eche batera Jesu-Christo berequin daramala; ta igarotzeco dempora berriquetta alperretan, jocoan edo jaaten, cer esango guenuque? Fede ta Sacramentu andi onen siniste gucia galdu duela. Cer esan bada comulgatuta laster, cerimoniazco egote labur bat eguin ta bereala dijoazanac gatic gosari edo almortzua artutzer, eta beste cer eguin munducoetara Christo ber bera beren Sabelean daramatela, burura ere etorri gabe, norequin dijoacen! Ona cristauac jaquin bear duen doctrina ondo aztertzeoa. Norc nai daqui Jesu-Christoc diruala hostia consagratuan ogui irudi, edo ichurac deseguin artean. Ez da gucien irichi berdina jaquiteco cembat demporaren buruan deseguiten dan hostia consagratu edo ogui ichura. Batzuec dioe, dagoala deseguin gabe ordu erdi baten; besteac, ordu lauren baten. Beraz ordu lauren bat Jesusequin igaro gabe esquerrac ematen, irteten duenac Elizatic, irtetendu Christo aldean duela. Izan diteque desonra edo vide gabe andiagoric? O Fedearen laburtasuna! Etorri Jesus hostia santura, ta guero gure barrenera gurequin egotera, guri mesede andiac eguitera; nai berac gurequin bacarchoan egon, eta guc igues eguin, artu ta atera guerequin munduco arazo cereguin ta asmoetara? Eta sinisten degu Sacramentu onetan dagoala eguiatz Jesu-Christo? O nola nezar eguiten zuen Santa Teresac ecusten cituenean cristauac, comulgatu ta astiro Christorequin Elizan guelditu gabe, irteten munduco lan ta cereguñetara, contuz eman gabe mesede ain andiaren esquerrac, aztertu edo pensatu gabe, guchi guchienez ordu lauren baten, nor etorri dan gugana, certara etorri dan, norzana etorri dan, ta cer nai duen gugandic bere etorrera miragarria! Ah eta cembat gracia, cembat bedeincacio, ta cembat ondasun animaco ateraco liraquean visita eder artatic! Noiz egongo da Jesus gracia gueiago eguñetaco abagune, edo era onet-

Hh

guan!

goan! Etorri zan gure Jesus vicitza ematera ez ecen, baita ematera ere vicitza lucea ta ugariagoa. *Ego veni ut vitam habeant, et ut abundantius habeant.* Au da, etortzen dala Jesus, ez hacarric ematera guri Sacramentu onec berez dacarren gracia, eragozpenic ipintzen ez dutenei, baita ere ematera beste bedeincacio, ta gracia asco. O calte andi ecin esan besteco datozquigunac astiro Jesusequin ez egoteaz comunio ondoan!

Ona emen guertatu zana Aita Abila Veneragarriarequin. Ecusten zuen Sacerdote santu onec cristau fede laburreco batec. (et-hic erat Sacerdos proh dolor!) comulgatu ondoan bereala irteten zuela Elizatic; ta ezaguera-citzeco bere gaizqui eguitea, artu zuen asmo eder bat. Agundu cien beste Sacerdote edo Abade biri, egon citecela prest candela iriciquequin cristau comulgatu ondoan laster Elizatic irteten zuen ari, laguntzeco videan. Esan ta eguin; cijoanean Elizatic irtetera, jarriere ciran Abade biac bere aurrean beren candelaquin, ta cijoacen aurretic buru utsian. Arritu zan comulgatuta cijoana ecusten zuenaz ta galdetu cien Abade bi aiei; Jaunac, cer da au? Certaraco da nere aurretic Candelaquin joatea? Certaraco izango da? Eranzun cien. Orain comulgatu etzera? Ez daramazu cerequin edo cere bularrean Jesu-Christo? Ez du Jaun ain andi onec mercei guc arguiaquin zure eche-raño laguntzea? Lotsatu zan cristau fede laburreco ura. Ah bai! Cembat cristauri eguin bear litzaquio beste am-beste? Comulgatu ondoan, batzuec guelditzen dira dem-pora apur bat penitencia cumplitzen, beste batzuec alda-rac visitatzen, ez guchi errosario bat artu, ta errezuac eguiten, beren bularrean daucaten Christori ecer esan gabe, amore ta esquerric aguertu gabe. O Fedea! Eta cein illa zauden cristauric gueienen artean! Idiqui arren viotza Jesusi. Bai arren bai.

## ERACASTE

### Comunio gaiztoaren gañean.

**I**Cusi degu igaro diran doctrina edo eracusteetan comunio onac escatzen dituen prestaerac, cer ere dan comunio epela. Icusi bear degu orain, cer dan comunio gaizto ta sacrilegoa, cein beltz ta ichusia, ta nola castigatu oi dituen Jangoicoac becatu mortalean comulgatzen diranac.

**G.** Cer da bada Comunio gaiztoa?

**E.** Da becatu mortalec garbitu gabe eguiten dana.

**G.** Eta pecatu andia da onela comulgatzea?

**E.** Etziñaquet niri ori galdetu bear; Aingueru batec ecingo luque adirazo bear becela becatu onen ichusitasuna. Nola bada eguin dezaque guizon batec? Becatu onic ez dago; baña comunio gaiztoarequin eguiten dana, da gu-ciz ezain, beltz, icaragarri, ta besteen azcarria bezala. Nai dezu ecusi? Adizazu bada. Beste becatuequin ofen-ditzen da Jangoicoa cearretara, ta alboquerara becela, ez artez artez, arpeguiz arpegui, bai bere creaturetan edo leguea ez gordeaz. Baña gaizqui comulgatzen dana, dia zucen Jesu-Christoren contra, eguiten dio ber berari, ematen dio injuria bere Persona Jangoicozcoan. Erregue batec ematen ditu ordena edo legueac; bere mendecoac ez dute obeditu nai: ematen zaio onequin injuria; baña berari arpeguiz arpegui esaten bazaio itz astun edo gais-toren bat; edo ematen colperen bat, cembat andiagooa lit-zaque injuria edo vide gabea? Nolaco castiguac prestatu-co ez liraque alaco gaiztaqueria eguingo luqueanarent-zat? Urcamendian vicitza quantzea, ta escna ebaquitzea liraque guizonen artean castigo laburrac. Erregue leguea ausitza ez da onela castigatzen, ceren ez dan ain belz, ta ichusia becatua, nola Erregue berari eguiten zaiona. Orp bat, cristau batec urratzen duenean Jangoicoaren le-guea,

gunea, cerbait ostuaz, progimoari gorroto izanaz ematen zaio injuria Jangoicoari, ta mercei du beti betico infernua becatu mortal bacoitza gatic. Baña nora igoco ez du ofensa ta injuriac eguiten zaionean Jesu-Christo ber berari emanic ostatu pecatuz ciquindua? Orain bada Jangoicoaren legueac eragozten badu progimoari onra galtzea, ondasunac quentzea, banatu edo iltzea, diralaco guizonac bere irudi edo imaginara eguiñac, Sacerdote bati escuac ezartea bere opensatzat artutzen badu, ta San Pabloc lujuriao bccatua gatic badio, dala nola ere bait loitu edo ciquintzea Jesu-Christoren corputza, cer esan Jesu-Christo bera eramaten bada becatuz lizundu, ta loitua dagoan lecura? Nolaco castiguac izango dituzte zori gaiztoan jaio diran cristau lotsagabe nelacoac?

G. *Ecín ori sinistru liteque, Jauna, esango dezu. Juduac eguin zuten becatua zan eguiac belz ichusia, ta besteric ez bezalacoa. Aies esetsi, ta equin cioten arriaca, itz astunequin; erabili zuten Jesu-Christo ber bera Tribunaletan, deshonoratzen; azquenic quendu cioten vicitza ambeste mesede artu ezquero. Baña cristauac gaizqui comulgatua gatic ez die lotsaric galdutzen Christori, ez burlaric eguin, ez colperic eman, ez crucificatu. Difoaz humil humillic altara aurrera, adoratzen dute Jesu-Christo hostian artu bear duteena; baña ez gorrotoric artu, ez beste desprecioric eguin; predicadoreac asmatzen dituzte, gu beldurtzeco, gauza aso.*

E. Usteco dezu irten go dezula zeureaz? Ona bada nola eguzquia baña arguiago eguingo dizudan, becatu mortalean comulgatzen dan cristauac ofensa ta naigabe andi goa ematen diola Jesu-Christo ber berari, Juduac Pasio santuan eguin citenac baño. Aditu contuz.

Eguita ofensa bat Persuna bati ezagutzen ez diranean ondo onen prenda onac, izan liteque ofensa, ta da beti. Baña ofensa gutzen da ondo ezagutzen bada persona ofenditu, ta onec mercei baditu onra guciac bere prenda andiac gatic. Juduac ezagutu bear zuten nor zan Jesu-Christo, eguin zuten becatu andia crucificatzeaz; baña dio San Pabloc, ezagutu balute nor zan, etzuteela Jangoico glo-

gloriaco crucificatucó; beguitandu citzaten zala Jangoicoaren contra cebillen guizona, zala Sorguin dearruarequin aitzen zana gaissoac osatzeco, ta ichutisun onequin condenatu zuten gaiztrozat; etzequitelaco zala Jangoicoaren Seme berac icharaten zuteena. Onegatic Jesusec, iltzen cegoala, Curutzetic escatu cion Aita Ceruari, Jauna, barcatu oei, ceren ezdaquiten cer eguien duten, ezagutzen ez nautc. Baña nor dago cristau comulgatzen diranen artean, ez daquianic nor dan Jesu-Christo bere viotz ciquifera darana ta ezagutzen ez duena bere Jangoicotzat? Esan bada; equin dezaque Christoc hostia santuic oracio au Parcatu, Aita nerea, cristau onec eguiten didan ofensa izituarria, ceren ezagutzen ez nauen, edo ezdaqui cer eguiten duen? Gein guchi! Guic ezagutzen degu hostian guregana datorrena dala gure amorez munduan gülditu zana, dala Maria Santissimaren Seme bedincatua, dala juzgatu bear gaituena Juicioo egunean. Beraz gure sacrilegioa da ezaguera osoaz eguiña, estalgarri edo escusa batea.

Guaiago. Juduac gandic artu cituenean ofensa ta injuriac, etzegoan bere Gloriaco janci, ta inditauenean. Cirudian guizonen beuietan beste guizonen guisacca; ce duzcan estalduta bere Jangoicotasunaz batera bere corputzeco doai ederrac. Erregue bati ofensa bat eguita Arzai baten soñocoquin janciric dagoanean, ta guciac arguirio ezagutzen ezpada. Erregue dala, ez da gaitaqueria ain ichusia, nola ezaguturic arguiro. Erregue dala, ez da gaitaqueria ain ichusia, nola ezaguturic arguiro. Erregue dala, eguiten bazaio Erregue janciaquin bere Tronoan dagoanean. Au norc ez daqui? Cer eguin zuten Juduac, ta cer cristau gaizqui comulgatzen dazac? Juduac ofenditu zuten arguiro ezagutu gabe, Gloriaco soñoco edo janciaquin etzegoanean. Baña becatu mortalarquin comulgatzen danac eza gururic arguiro nor dagoan Ostia consagratuan, ematen die injuria Jesu-Christori bere Aitaren Glorian edo escutic dagoan demporan, illen artetic piztu ezquero. Dacarte lurrera nola bait indarrez becela Cerni ozuenetic, eramateco bigarren Calvariora, negarrequin dion becela San Agustin andiac. Ez

Ez dago onean gucia. Jesu-Christoc Juduen aldetic ce-ramazanean ambeste atsacabe edo ofensa, bazuen bai cerc poztu, cerc arindu bere naigavea. Artu cituen pena guciac bere naiz, bere vorondatez, cequialaco cembat mesede etorrico citzaizcon guizonari. Bacequian jaioco cirala martiri asco, ta oec iduquico zuteela egemplo edo jarraigari ederra Gurutzeco eriotza Juduen alde edo escuetatic artzen zuenetic. Bacecusan Gurutze artan jaioco cirala ambeste Apostolo, ambeste Virginia Santa ta garbi, ambeste Pemitente, ta anima on dempora gucietan ecusico ciranac; ta esan guenzaque nola ere bai Juduen becatua gatic Adanenena gatic Elizac cantatzen duena, O zorioneco becatu ambeste on ecarri duena! Baña cerc poztuco du Jesu-Christoc daramanian cristau gaiztoac bere barren becatuz betera, bere etsairic andienaren oudora? Cer on etorrico da lurrera comunio gaiztoetic? Cer calte ez?

Ezda onembestean bucatzen comunio gaistoarequin cristauac eguiten dion ofensa. Juduen becatua zan dempora laburrecoa, iraun zuen Jesusen Pasio santuac iraun zuen bestean. Bein bacarric izan zan azotatua, bein bacarric curutzetua, ta beste lotsatasun guciac bucatu ciran bere eriotzarequin. Ordea cembat luceagoa da comunio gaiztoen videz ematen zaion eriotza, edo crucificatzea. Darabilte onelacoac Christoren odola osticopean, San Pablaren itzqueran. Conculcantes Sanguinem *Christi*. Cembat comunio gaizto eguin dira Judasegandic asi ta onarañocoan? Cembat eguingo dira munduaren azqueneraño? Beraz beti darabilte cristauac beren Salvaguille ona crucificatzen munduco lau aldeetan. Eta ain sentigarria izan bazan beretzat Judasec eguin zuen comunio bacarra beste amaica Apostoluac comunio ederra eguin zuten unean, nolacoa izango da ambeste cristauaren comunio gaizto egunorocoequin ematen zaion sentiquizuna, ta injuria?

Ote dago nondic ezagutu comunio gaiztoaren belztasuna esan diran arrazoiac gañetic?

Bai, ta ona cein arguia. Norc nai sentitzen du guciac iago adisquide, ta mesedu baten aldetic artzen dan naiga-

ve, edo injuria, etsai ezagutu baten aldetic artzen dana baño. Juduac eguitea ambeste desprecio, ez da ain sentigarria, ceren diran bere etsai ezagunac. Ordea cristau ain mesedetuac, ain maite izan dituenac eguitea alaco injuriac amorioa gueien aguertzen dan lecuan nola izan ez sentiquizun andia? Ala quejatzen ere da Profeta baten aoz; nere etsai batec esan balit iztastun bat, igaroco nuan. *Si inimicus meus maledixisset mihi substinuissem utique.* Da esatea bezala, Judu ezagutzen ez nautenac parre ta siñu eguitea Sacramentu au Caleric cale darabiltenean, cristauac comulgatzen ecusten dituztenean, igaro errazada. Turco edo Mauru nere conturic ez duteenac, Mahoma nere ordean adoratzen dutenac, ez eguitea niri jaramon ta causioric, ta despreciaztea Meza Santuan nere corputz precioso, ez da arritzeco gauza. Heregeac escritzea libruac nere Sacramentua perseguitzeco, erretzea Eliza Santuac, ostutzea copoeac Sagrarioac ausiric, ta botatzea lurrera ostia consagratuac, edo gañibetaquin zulatzea, igarocorra da; *substinuissem utique.* Oec gucioc nere etsai jaquinac dira, ichaturic daude ez sinistzeco ni nagoala ostia consagratuan, ta sinistuco balue ni nagoala, ez liraque alaco injuriaric eguingo. Baña cristau sinistea duteenac, nere maira biltzen diranac janariric gozoena artzeco, etortzea anima beltzitetquin, nere etsai eguinda eramateco becatuco osin batera, nola nere viotza mimberatu ez? Nola igaro nezaque esquer ain gaiztoa ecusita? *Homo unanims.* Guizon nere animarequin bat becela eguiten dedanac comunio santuaren videz, eguin alaco traicioa? Aingueruren janaria arrapatu demonio batzuec baño gaiztoagoac eguinic dauden cristauac? Eman ganau-beltzai Arri precioso guciac baño gueiago valio duana? Eman zacurrai Santuac Santu eguiten dituana? Simaur loiz beteric dagoan toquirá bota Christo? O Aingueruac! Cer diozute onembeste desprioren artean ecusitan Ceruco Tronan icarazco amoreaz adoratzen dezute Bildotseder, ta ain maite dezutena?

Ots andia eguin du beti munduan Judasen palsaque-riac, eman zuelaco Jesus bere Maisua etsaien escuetan

apa edo musu batequin. Baña gueitzen zuen gaiztaque-  
ria adisquidetzat bere burua emanaz saltzen zuen une ar-  
tin Judas, esaten dio Jesusec, apa batequin saltzen dezu  
Guizonaren Semea? Icen au artzen zuen batzuetan Chris-  
toc. Zan esatea bezala. Ah Judas! Zu nere escolan acia,  
munduan beste asco largata nere Apostolutzat autatua, ne-  
requin mai bateneoan cerana, zu izango cihan ni saldu-  
co ninduzuna, ta ori apa batequin Maisuaren icena ema-  
naz adisquide leial baciña bezala? *Osculo Filium hominis  
tradis?* Bada cembat arrazoi gueiagorequin esango dio  
Jesusec becatu mortalean comulgatzera dijoan edocein cris-  
tauri Judasi esan ciona ber bera. Zu etorrigo cera apa laz-  
tan batequin ni saltzeera; ni eramatera viotz becatuz li-  
zundu ta quirastura? O Ezpañ zori gaiztoco muñ eguiten  
diezunan Ama Virginiaren Seme garbiederrari! O cristau  
gaiztoa! Nere esanac gorde nai ezpadituzu, naiago ba-  
dezu igaro deabruaren escolara, ta serbitu mundua, zoaz  
ordu gaiztoan; utzi paquean niri, ez adisquitzat cere bu-  
rua eman nere etsai andi bat izanic. Izango dit maite  
izango nauteenac, servitzari onac, viotz garbiaquin etor-  
rico diradenac. Ni engañatu nai garbiric zatozelaco estal-  
quiaz? Saldu adisquide baciña becela? Sartu nere viotz-  
zean burai zorrotz bat Joab gaiztoac Abner culpa gabea-  
ri corputzean becela apa laztan batequin. Pezquea dala-  
coan isuri odola ta eman eriotza? *Estudit sanguinem belli  
in pace.*

Buirtzen da Elizaco Santu andi bat onelaco cristau  
gaiztoen contra ta esaten die aserre santuan, Egon ecin  
bacera cere pensamentuac ta itzac ciquindu gabe becatu  
lolan; larga nai ezpadiozu becatu lagunari, cere atseguin  
osoa arquitzen badezu escuca ta laztan lujuriosoetan, zoaz,  
ase zaite becatuz; *baña barcatu Christori;* ez etorri ez-  
pañ ciquinduac esquintzera Jesusi, ez adisquidetzat eman  
cere burua; ez eraman Christo Caifaseu echean baño go-  
go guchiagorequin egongo dan sabel gaiztora. *Parce in te  
Christo.* Gorrotoan vici ceran cristaua, etsaiari barcatu  
gabe, arpegni gaiztoa eracusten diozula, agurra ere ucet-  
zen zabiltzala; ez barcatu nai ezpadezu Christoc aguin-  
dua-

duagatic, ezarri biraoac bedeincacio ta oracio orde, egui-  
zozu nai beste gaitz, baña barcatu Christori. *Parce in te  
Christo.* Etzoacela paque edo comunioco maira. Eragoz-  
ten dizu Jesusec ara eltzea progimoarequin paqueac eman  
nai du humilla zaitecen. Nolaco arpegiarequin a zuertu-  
co cera bere maira bere esanac eguin nai ez dituzun  
unean? Nolaco arrera eguingo dizu bera cere barrumb-  
era daramazunean, ecustera an zure viotz cital, prestu-  
bez, dollor, ta gorrotoan sendotua? Igues bada maite  
orrela zauden artean, ta bestela bere corputz ederra izan-  
go da zuretzat Judasentzat bezala pozoi betico eriotza  
ecarrico dizuna. Inoren ondasunac ceureturic dauzcatzun  
cristau charra, irabaci videgabeac eguinda, gauzaren  
batzuec ostu ta biurtu nai ezta, jarraitu nai badezu cere  
logrerietan, izan beste Judas lapur dirua maiteago dezu-  
na cere anima baño, iraun biurtu gabe bacoitzari berea;  
zoaz nai badezu Infernura; *baña barcatu Christori.* Ez  
joan bere maira; gueituco dezu infernua comunio gaiz-  
toquin, ta Judasec becela aurreratuco dezu eriotza bu-  
rua urcatzen ezpadezu ere. Anima errucarrir urte osoetan  
zabiltzana confesatzen aguertu ecin dezula becatuena bat  
edo gueiago, ez confesatu nai ezpadezu, *baña barcatu  
Christori.* Cer ateraco dezu comunio santuetatic, baicic  
armatzea zure contra Jesusen odola? Dio beste Santu ba-  
tec, *Sanguinem eius contra te armasti.* Daran u Jesu-  
Christo zure guezur sacrilegoen testigo izatera. Ez dezu  
obe infernura joan comunio gaizto gabe. Turcoac, He-  
regeac, ta Gentil fedegabeac eguiten dituzte becatuac,  
ceintzuec gatic condenatzen diran; baña cristau asco ta as-  
coc beste bacatuez gañean gueitzen dituzte comunio sa-  
crilegoac, ta izango dute infernu ascoz andia oa.

Cer besteric eguiten du gaizqui conal gatzan danac?  
Berriztatu Christoren Pasio ta eriotza Jaiñac becela, ta  
erabilli oimpean bere odola. *Conculcantes sanguinem Chris-  
ti,* San Pabloc dionez; ta beren aldetic ciquintzen dute  
Jesusen Corpuz ederra, eramanaz lecuric ciquiniera, ce-  
ña dan anima becatu mortalean dagoana. Sartutzen naute,  
esan dezaque Profeta baten itzequin, leiza edo coboasa-

non sacon baten. *Posuerunt me in iacu inferiori.* Onra ederria Amá Virginiaren Seme garbiarentzat. A quinduco balitzaquio gure arteco bati oe baten egoteco ezcabí, edo corpuz gucico lepraz beteric dagoan batequin, nolaco iguia emango ez liquegu? Eta eramango dala Christo ber bera ezcabí guciac baño quiratsua goa dagoan anima gaiztora?

Enzun orain cer dión San Bernardino Senacoc. Demagun datorrela Eliza batera Mauru edo herege gaizto bat, ta atararic Copoetic hostia consagratua sartzen duela Illen obi edo Sepultura ezur ustelez betean, edo daramala Satstegui edo sinurtza batera. Cer esan ta eguingo guñoque alaco Guizon fede gabeari. Alcaté Jaunac sartuco lúque Carcelan; ta izango litaque beretzat justiciaco castigoa. Bildubo litaque Sacerdote ta beste cristau asco ateratzeco Jesu-Christo ostia consagratuan dagoana, lecu ain itsusitic, ta negarrequin lagundu guñoque altara. Non da gure fedea? Atoz orain, dio Santu andi aitaru deñañac; ez da becatu laburrigoa comunio gaizto baten vider eramatea Jesu-Christo ber bera, corpuz ta anima; ao ta viotz becatuz ciquindura locaitza edo beste lecu zafar batera botatzea baño.

Nai dezu enzun sinisgarri guciagoraco egemplocho bat? Ona einen. Egun baten elduzan cristau bat becatu mortalean comulgatzera. Artu zuten bereala sabeleco miñ, edo ala portitz batzuec; irten zuen Elizatic, ta larri larri joan bear izan zuen bazter loi batera, ta an errebesatu edo trocatu zuen hostia consagratua ciquintza baten; adierazotzeco naiago zuela egon bazter loiartan, cristau aren sabelean baño.

Ah cristau lotsa gaiztocoa! Nora daramazu Jesu-Christo comunio gozistoa eguiten dezunean? Zue sinisten dezu becatu mortalean dagoan anima dala demonioean avia edo vici lecu? Eta daramazu zure amorez ill zan Jesu-Christo deabruaren echera? Bai, dio San Bernardino berac becatu mortalean comulgatzen danac ipintzen du Jesus Luciferren alboan bezala; ta dago an desprecio andi goan Curutzeco arbolan esequita baño. Ai nere Jaun mai-

maitea, dio San Pedro Crisologoc, nora zaramaz amoreac. Asca batera jaio cinanean becala? Calvarioa? Gurutzera? Sepulturara? Ori guchi zan zure gueiegui nai izatearentzat. Zoaz issill issillic cristau gaiztoac eramanda Satanasen echera, ceña dan becatu mortalean dagoan anima zorigaiztocoa. Eche gaizto ta bigarren infernu onetax ipintzen zaituzte alaco cristau madaricatuac, ta au da zuec eguin dituzun mesede andien pagua. Ez naiz ni orain aritzen enzunuz Santuen esanac. Becatu andi go dala gaizqui comulgatzea Elizaco ateac erre, Caliza ta lampara ostu, urtu ta diru eguitea baño. Becatu andi goa dala Gurasoac, Sacerdoteac, ta Aita Santu Erromacoa iltzea baño. Becatu andi goa da seigarren mandamentuaren contraco becuric itsusienac baño. Becatu andi goa dala deabruarequin artu emana iduqui ta oni anima saltzea baño. Gaizto goac dirala ala comulgatzen diranac Anas, Caifas, ta Judas bera baño, onec eguin ezpalu comunio gaiztoa. Ala dio San Bernardinoc.

Ori ecin ala izan diteque; ori da ponderacio edo gueieguita jasotzea. Norc sinistu gaizqui comulgatzen dan cristauac gaizto goa dala Anas, Caifas ta Judas bera baño, au comulgatu ezpalitz? Ala diote cristau ondo ezdaquitena certan dagoan becatuaren anditasuna. Ona baña eguia arguitan ipiniric. Anas ta Caifasen aurrean etzuen eracutsi Jesusec ez icara, ez beldurric. Enzun cituen milla itz astun, artu belar-ondoco lurrera egotzi zuena; ta gucia eraman zuen paciencia ecin andi goarequin. Obligatzen dute Pilatos azotatzera ezurretaraño, ta odola ceriola bere corpuz ederretic, etzuen queja bat eman, ez nai ecic eracutsi. Atoz orain Sacramentu au eguitera cijoanean gurratu citziona. Artu zuen espiritu edo viotzeco icara ta larri batec, ta itz zoli zoliarequin dio, Zuen arteco bat deabrua da. *Unus ex vobis diabolus est.* O arriteco gauza! Esquintzen du arpeguia masallacoac artzeco; corpuz azotetz, ebaquia izateco, luzatzen ditu escu ta onac Curutzean josi duden; ta gucia bere vorondate ta nai osorequin. Eta Apostoloai ta aietan guri eman bear zunean bere corpuzta janaritzat ta odola edaritzat, icaratzen da gucia



larri larririk dio, *Zuen arteco bat deabrua da*. Norc ala icaratu ta larritzen du? Nor zan berequin cegoan deabrua? Nor zan? Judas. Amabi Apostoloen artean au zan becatu mortalean comulgatzeco cegoana. Jesusec sartu bear zuen deabru eguinda cegoan Apostolo gaizto onen sabel belz ta madaricatuan. Etzuen zorigaiztoco onec confesatu nai zueñ bere becatua; ez larga bere Maisua sartzeco artu zuen asmo galdua. Esaten du Christoc; zuen arteco batec salduco nau. Judasec eguiaz esan bear zuen, bera zala, ta negarrequin escatu bear cion barcacioa. Etzuen baña ala eguin, ta bai estaldu bere becatua esanaz, Jau-na, ni ote naiz? Confesio gaizto bat eguinda eguia esan gabe bere becatuaren damuric etzeramala, artzeeco cegoan Judas comunio santua Jesusec consagratoico zuen ta bere escuequin emango cion ostia bere corputza ceduana; comulgatuta laster sartu bear zuen Satanasec Judasen viotz ta corputzean; *post buccelam introiuit in eo Satan-as*; eta Jesu-Christoc egon bear zuen Satanasec bere etsa-iarrequin eche edo toqui baten. Orra cerc larritzen zuen Christo. Orain bada, cembat pozago egongo zan Jesus, Anas ta Caifasea echeetan Judasen sabel madaricatuan baño?

Igaro zan Judasen comunio gaiztoa, baña jaio dira Judas asco munduan. Judasec urcatu zuen burua jabetu zalaco Satanasec bere corputz ta animarequin. Orain bada, baldin comunio gaizto batec eman bacion Jesusi ambeste viotzeco icara, cecusanian beste amaica Apostoloac eguingo cituztela comunio onac gau artan, nolacoa izango litzaque Christoren naigave ta larritasuna lurean vici baltiz len becela padecitzeco estaduan, cristauac gaurco egu-nean eguiten dituzten comunio gaiztoequin? Cembat guei-ago ote dira comunio gaiztoac, onac baño? Beguir cristauen vicimoduari: cein guchi diran onac, ta berac per-seguituac. Cer dala uste degu ecartzea Christo egunoro Cerutic lurrera igaro eracitzeco alaco injuria ta videga-beac. Ah bai! Eta nola pozagoric jetsico litzatean ber-riz Curutze batean beste eriotza bat eramateco, ez igarotzea gatic ambeste injuria, nola daramazan orain cris-

tau ascoren comunioetatic. Obe izango zan Judasentzat inoiz jaio ezpalitza. Bada cer esan bear ezta comunio gaiz-toac urte osoetan eguiten dituztenac gatic? Comunio gaiz-toac bacar bat izandu bazan Judasentzat ain calte-garria, ta Jesu-Christorentzat injuria ain andia, cer izango da amar, oguei, herroguei, comunio gaizto eguin dituztenentzat? Ai ai! dio Santo Tomas Aingueru Maisuac; ai concien-cia loi ta gaiztoarequin comulgatzera dijoazanac! Obe luque, San Crisostoinoc dionez, demonio aldra edo pil-lo bat sartutzea beren corputzetan Jesu-Christoren ara-gui ederra baño. Obe luque alacoac, dio San Ciprianoc, ezarrico balute ichasoaren ondora errotarri bat samatic duela, eltzea baño altara santura becatu mortalean.

Usteco dezu Santuac esaten cituztela sententia oec be-ren buruz edo asmos? Ez cristaua, ez: esaten cituzten cequitelaco guc baño argui gueiagorequin, nor dan Jesu-Christo, cer merci duen; nolacoa dagoan becatu morta-lean dagoan anima, infernuco bat becela beltz ta ichu-si, ta cein pisu andico becatua dan alaco ostatua ematean eguiten dana. Orain issillic daramaz gueienez onelaco sa-crilegioac.

Baña Santuen esan guciac siniserrazac eguiten dira Es-piritu Santuac San Pablaren aoz esan dituen itz oequin. *Jaten duenac ogui* Jangoicozco au graciaco prestaera ga-be, *jaten du bere juicioa*. Au da jatea bere condenacioa, dio San Chrisostomoc. Gaizqui comulgatzen danac, dio Apostolo onec beste lecu baten, artzen du bere gañera edo bere contra becela Jesu-Christoren Corputz ta odola. Cer esan dezaque gueiago? Nor arritzen ez da itz oec enzunda? Cer dala uste dezu cristaua jatea Jangoicoaren juicio edo bacoitzaren condenatzea? Da sillatzea becela Christoren odolarequin icharaten digun juicio estua? Cer dala artzea guere gañera edo guere contra Jesusen cor-putz ta odola? Da nola ere bait esatea, Juduac Pilatosi esanciena, orren odola izan didilla gure gañera. Eta cer atera zuten Juduac Christoren odola issuri erazoaz ta be-re gañera artuaz? Gaur da eguna aien ondorengoai jar-raitzen diena castigo andiac. Nolaco ichutasuna ez ezagut-

zeco Jesu-Christo? Nolaco gorroto ta ecusi ecina Gende guciac? Non da odol mancha andiagocoric Juduena baño? Nolaco castigoa izan etzuten Jesu-Christo illda gueroco urte baten milla bat ta berreun milla goseac ta expatac ill cituenean Christo ill zuten Jerusalemgo errian? Cergatic? Artu zutelaco Jesusen odola beren-gañera, au da eman cituztelaco videa, ta eguin Pilatosi escaariac iltze-co Jesu-Christo. Orain bada comunio gaiztoac baño becatu chiquiagoc gatic badio San Pabloc, dala berriz Christo crucificatzea, dala erabiltzea oimpean Christoren odola, *conculcantes Sanguinem Christi*; cer esan bear da comunio gaiztoaren gañean? Nolaco Calvario gogorra presatzen etzaio Jesusi becatuco ostatu ciquinzan, ta deabruaren echean? Nolaco castigoac ecarrico ez ditu bere gañera sacrilegio gaiztoen videz? Bai dio San Pabloc, emendic jaiotzen dira gaitzac ta eriotzac. *Ideo inter vos infirmi, et dormiunt multi* Ascorentzat da Christoren corputza eriotza dacarren gozoia, nola dan osasun emallea ondo prestaturic artzen duteneutzat. *Mors est malis, vita bonis.*

Ai Cristau becatu mortalean comulgatzen ceran zori gaiztocoa! dio aserre santu batequin San Bernardino Senacoc: Zure gañera erorico dira David Erregue Profetac adierazo cituen madaricacio latzarriac. Izan didilla beren maia laquirio edo catiguarria. *Fiat mensa eorum coram ipsis in lajuum.* Beren beguiac guzundu edo illundu bidiz gauza onic ecusi ez decen.

G. *Nai nuque euzun egemplo bat edo beste ezagutze-co becatu onen anditasuna, ta dacarren animaco calteac.*

E. Ongui escatzen didazu. Nic nai banitu bildu Escritura Santeetan egemplo egoquiac, bearco nuque dempora lucea. Natan ta Abiron irentsi cituen viciric lurrac eramian zuteelaco Sacrificio su bedecatu gabea. Ambeste aserratu bazan Jangoicoa erreverencia falta bat gatic ancinaco sacrificioan, combat gueiagoc aserratuco zaiococurric bere seme maite maitea Inferhu eguinda dagoan toqui baten. Antioco Erregueari cerc ematen cion naigave-nic andiena eriotzaco orduan, corputza usteldu ta inorc

sufritu ecin zuenean. Jerusalemgo Eleizan eguin cituen sacrilegioac. Cembat andiagoc da Eleizaren Jabeari, Christober berari eguiten zaiona comunio gaiztoan? Baltasar Babiloniaco Erregueac nolaco azquena izan zuen bere Aitac Jerusalemgo Eleizatic eramian cituen, onci edo vaso santuetan ardoa edaten zuelaco? Oza Eliz guizona beingo baten iltzen da David Erregue ta guende guciz ascoren aurrean icutu ciolaco Testamentuco Cuchari? Cembat milla Betsamitar ill ciran lotsa guchirequin beguiratu cielaco Cucha Santu berari? Aingueruac azotatzen dote ta erdi illic utzi Heliodoro bat sartu zalaco Jerusalemgo Elizan diruac art eera. Oen becatuac guciz chiquiac ciran comunio gaiztoaren ondoan; ala ere izan ciran ain portizqui castigatuac mundu onetan. Cer icharaten die Jesu-Christoren corputz ta odolari cristau sacrilegioac eguiten dizen vide gabe, edo injuria itsusiatic gatic? Norc conta lezaquez banaan Jangoicoac mundu onetan ere eguin dituen castigo icaragarriac becatu mortalen batequin comulgatzera eldu diranaquin? San Ciprianoc dacar bere egunetan eldu zala emacume bat becatu mortalean comulgatzera, ta comulgatu baño leenago irten zuela Ostia consagrati su andi batec, ta utzi zuela erreta emacume zorigaiztocoa igarotzeco emengo erretzeti beti-erre bearco zuten Infernucoc suetara. Onelaco milla egemplo eracurtzen dira.

Ai Jauna! Esango dute batzuec, noiz edo berriz orrelaco castigoac izana gatic, niri etzait orrelacoric guertatu bein baño gueiagotan eldu banaiz ere comulgatzera gaizqui confesatu ondoan, edo lotsaz becatuaren bat confesatu gabe utzi nuelaco, edo damu gabe urreratu naitzalaco comunioco maira. Osasun galantarequin nago; vici naiz quezca andi gabe; ta orren andia balitza comunio gaiztoaren becatua, oraingo castigatuco minduen. O cristau zorigaiztoan jaioc! Cer diozu? Vici cerala osasunarequin ta quezca andi gabe Jesu-Christori eguin diozcaturic injuria astunen ondoan? Ez luza iritzi, ez: Ez dira zure sacrilegio beltzac sartuco zacu eten ta zulatuan. Zuc biltzen dezu, esango dizut San Pablorequin, Jangoicoaren aserrearen tesoroac bere Venganzaco eguneraco. Gui-

zon gaizto asco eldu dira zaar izatera. Zorionecoa zu Jangoicoac bere cigorra artu ta castigatu bacinduz Aita batec becela. Zorionecoa zu comulgatu cinanean gaizqui zure mii gucia anditu balitzatzu; gaitz andi batequin erori bacina Aldara aurean, zure corputz gucia ezabi edo lepra gogorrez bete balitz, edo Aingueru Santuac etorri eta azotez ebaqui, ta erdi illic guelditu bacina Elizan Heliodoro becela. Castigo onelacoren batequin ezagutuco cenuan zure becatuaren anditasuna, ta izango cenuan penitencia eguiteco laguntasun andia. Baña zureztat dauca Jangoicoac castigo gogorragoa. Zure entendimentuaren beguiac gueun andiarequin illunduric daude, ecusten ez dezu becatuaren belztasuna. Zure viotza gueroago ta gogorrago eguin zatzu, ta urratuco ez da becatuaren danuz; iraungo dezu gaizqui confesatzen, ta largaco dizu paquean Jangoicoac; igaroco zara viotz ciquin batequin injuriatzera Jesu-Christo, ta issil issillic egongo da. Ordea eguiatzuco da Jainaren esana; nic bere demporan emingo diet sari edo pagua. Ori here contura guelditzen da. Issilchoric eraman cituen Jesusec Anas ta Caifasen arrotasunac, Pilatosen sentencia videgabea; borreroen azote erruqui gabeac; esquinizuen masalla aldeac colpeac eramateco, escuac ta ofiac josiac izateco: eguin zuten Juduac berequin nai zuten guciac. Au da zuen dempora, oec zuen egunac, esaten cien Jesusec; etorrico da nerea, ta jaquin eracico zai nor zan crucificatu zuteena. Igaro diran aien egunac, igaroco ere dira gureac. Non diran orain ta azpaldian Anas, Caifas, Pilatos, Herodes, Judas, ta deardrez Jesusec odola escatzen zuten ambeste gende deabrua baño gaiztoagoac? Noren escuetan erori ciran ill ondoan? Cer atera zuten bere gaizqui eguinaquin? Eta noraco dira, noren escuetan erori bear dute orain vicitza gaizto bat eraman ta penitencia gabe dijoazanac altara santuetara? Noraco dira cristau lujurioso asco beren ezpai ciquinequin, ta corputz becatuan lizunduaquin dijoazanac artzera Maria Santissima garbiaren Seme maite garbiagoa? Noren escuetan erorico dira becatuen inguruan dabilztanac, comunotic becatuac, becatutic comuniora. O cristau zorigaiz-

toco ta ordu gaiztoan mundura etorria; onela itz eguiten die San Ambrosioco: ebilli cerate emacume ciquin baten arpeguian lizuntzen mingain zatarroc, ta zoazte guero negar andiequin becatu ori garbitu gabe, laztan edo muneguitera Ama Virginaren Seme lino guciac baño zaria-goari? Escu ciquinduequin becatu loietan elduco cera Christoren mai Santura. Oec dira Ama Virginaren devotoac esaten dituztelaco oracio batzuec mingain deabruzcoequin.

Ez berriz galdetu niri cembat cristau diran gaizqui comulgatzen diranac. Chit asco dira ucatzen, edertzen edo guchitzen dituztenac beren becatuac lotsa gaizqui nitu batequin. Chit asco dira edo ocasio gaiztoai larga bage, edo oitura chaarrac quendu gabe, edo beren obligacio jaquin bearrac cumplitu gabe urreratzen diranac mai santuetara, ta egunoro daramaz Jesusec injuria beltzac cristauric gueienetatic. O nolaco esquerrac artzen dituen guri ambeste mesede eguin ondoan. Nic aci nituen umeac esan dezaque Isaiasequin; baña artu ditut desprecioric andienac, Idiqui ditut iturri ur ederra ta ecin obeagoa ceucatenac; baña naiago dituzte Igituco cingura basatuetaan arquitzen ditzaten ur loi, ta zatarraç. Azquenean esan bear da San Juan Evangelistarequin, campora zacurrac, gaizquillac, lujurioso, ta guezurrezco confesioquin dabilztanac. *Foris canes, venefici, impudici...* Aldatu vicitza, garondo anima vicitza bera artu nai duenac.

# LIBURU ONETACO ERACASTEEN

## ARQUIVIDEA.

- ERAC. I. *Cein gauza bearra dan Confesioco Sacramentua.* Pag. 1.
- ERAC. II. *Confesio aurreco Esamina.* Pag. 13.
- ERAC. III. *Gauza beraren gañean.* Pag. 19.
- ERAC. IV. *Nola ondo confesatzeco bear dan viotzeco damua.* Pag. 28.
- ERAC. V. *Confesioraco bear dan damuaren gañean bigarren Eracastea.* Pag. 48.
- ERAC. VI. *Nola Confesio onac escatzen duen gogo berri, edo Proposito sendoa ez gueiago becatuic eguiteco.* Pag. 61.
- ERAC. VII. *Nola eguiatzco Propositoa dan guziz gaitza, ala vicitza, nola erioitzaco egunetan oitura chaarretan sartuic daudenetan.* Pag. 75.
- ERAC. VIII. *Nola eguiatzco Propositoa ez dagoan becatuen ocasio urreco ta vorondatez coan arqutizen diran Christauetan.* Pag. 85.
- ERAC. IX. *Aozco Confesioa.* Pag. 101.
- ERAC. X. *Gauza beraren gañean.* Pag. 121.
- ERAC. XI. *Nola Confesioari lagundu bear dion satisfacio edo ordea biurtzeac.* Pag. 142.
- ERAC. XII. *Confesio generalaren gañean.* Pag. 156.
- ERAC. XIII. *Nola Confesio generala eguin ondoan irauñ bear dan vicitza onean, ta nola iraungo dan.* Pag. 183.

### Comunioaren gañean Eracasteac

- ERAC. I. *Cer eracusten digun Fedeat Aldareco Sacramentuaren gañean.* Pag. 194.
- ERAC. II. *Nola gauden Comuniara obligatuac, ta cein gauza ona dan sarri conulgatzea.* Pag. 205.

ERAC. III. *Cembat on eguiten dituen Comunioco Sacramentuac era gozpenic ipintzen ez duten animetan.*

Pag. 216.

ERAC. IV. *Nola prestatu bear dan anima ateratzeco frutu onac comunio santutic.*

Pag. 227.

ERAC. V. *Comunio gaiztoaren gaitacan.*

Pag. 241.

## UTSEGUINEN ZUCENVIDEA.

**E**z beingoan arritu Libru onetan arquituco diran Letra-eraslearen utseguinac gatic. Arquitzen dira eguiac nic nai nituzquean baño gueiagø ; ala ere neque apur bat artuezquero, ezda orren gaitza lumaz ta escuz zucentzea. Batzuetan banatuac daude, batera alcarturic egon bear ciran itzac ; besteetan berriz alcarturic banatuac egon bear zuteenac. Euscara eztaquian Librugilleac ecin bear eguin lezaque ain zucen , nola daquianac ; ta ondo beguiratu ta zaitu badute ere nere ordez utseguinac zucentzeco ceudenac, ecin eguin izan dute nai ala. Ni salatu nai banute , garbi nezaque burua. Ala bada ona emen zucenvidea.

*tz nurrecoan daude utseguite oes.*

Erauntzi-archiulari-ceintucec-miscit-lotza-eroten , dutcela erratzen-detuzte-orareco-ascoc-erritan-ezagutuzu-Estalpen-atzoen , contatzea, Eracaela , gaizquetzat-iñor-Aposduen euscalduneun-Oleocioa , naaitzea , nadan , dacá , bestericho batuetan iciriditzen , anim , Eracaleai , præstans.

*Eracurricò dituzu onela.*

Erauntzi-achurlari-ceintzuec , missit , lotsa-erorten , dutela-erratzen-dituzte-onaren-asco-errietan-ezagutu , Estalpen-atsoen-contatzea-Eracasla , gaizquitzat-iñorc , Apostroloen , euscaldunen-Oleacioa , naascea-nai dan-dala-bestericho batzuetan , izcribitzen-enin , Eracasleai , præstans.

Pag.	Lin.	Utsa	Zucena
1.	38.	dionis	dionic.
2.	2.	Confesio	Confesioa.
4.	1.	Bilei	Bilcui.
5.	9.	eriotca	eriotzaco.
6.	13.	utzico	utzico.
7.	34.	dezaquin	dezaqueen.
7.	22.	biurrera	biurtu.
7.	8.	lurren	lurrean.
8.	5.	cituzten	cituzten
9.	1.	billacientza	billacuntza.
10.	12.	guenuzan	guenuen.
10.	14.	ematzeco	emateco.
11.	11.	enzuria	enzuna.
12.	38.	parten	jarten.
13.	22.	losai	lasai.
En la linea 23 de la misma pagina 13 borren se las voces <i>vicitza</i> y <i>ondoan</i> .			
13.	34.	ematean	ematea.
14.	7.	ceintuzen	ceintzuen.
En la pagina 15, y linea 20 antes de la voz <i>aberats</i> , añadase <i>gueiigo</i> .			
18.	13.	asorren	ascoren.
18.	15.	gogoa	gogor.
19.	16.	Bacla	Bada.
21.	11.	adieratzeco	adierazteco
21.	29.	gaitic	gaitzic.
22.	12.	itzi-cere	itzic-ere.
24.	9.	citaiocen	citzaizcon.
24.	26.	piszoan	pisutzuan.
25.	25.	beldurtugui	beldurtregui
26.	25.	erra	erraz.
26.	38.	eguna	eguna.
27.	2.	ezduz	ezdu?
27.	16.	baditza	balitza.
29.	7.	anima	animan.
30.	19.	pneztatzen	preztatzen.
30.	26.	Esazu	Esazu.

ire-

30.	36.	iredico	irudico.
31.	30.	botec	batec.
32.	36.	icentazu	icentatu.
31.	36.	edolare eztutuco	edolaric ezcutuco.
33.	20.	bacartu	barcatu.
35.	12.	ilitz	illiti.
35.	16.	Jau nain	Jaun ain.
38.	26.	onen	onenaren.
En la pagina 39 linea 16 antes de la palabra <i>agabat</i> , añadase <i>arzia</i> .			
40.	26.	biurta	biurtua.
40.	28.	eracio	eracico.
43.	34.	guertatutz	guertatu.
44.	24.	Jaunari	Jaun ain.
45.	2.	bear	bearra.
46.	25.	anci	ansi.
48.	15.	echuza	echura.
48.	19.	jaquitzen	jaquintsu.
53.	35.	atzerat eco	atzeratuco.
54.	8.	beretan	bertan.
54.	12.	zaituen	zatzuñ.
55.	7.	domini	domui.
55.	7.	deuporan	demporac.
58.	4.	ioituco	igituco.
En la pagina 58 linea 20 borrese el <i>ez</i> antes de la voz <i>alcarrequin</i> .			
61.	10.	esatzen	escatzen.
66.	16.	escomalgatzen	descomulgatzen.
66.	26.	bidet	bider.
66.	30.	prosito	propósito.
67.	11.	becetzen	betetzen.
67.	14.	esaten	esaten.
67.	6.	datorquia	datorquio.
67.	11.	zaiten.	zaituen.
67.	24.	ezpadidozu	ezpadidazu.
67.	29.	ditzen	dituen.
67.	34.	emeatu	emendatu.
68.	6.	arteco	artuco.

32

68.	17.	an inaco	aninaco.
68.	12.	Ceruco	Cerucac.
69.	11.	eguiasco	eguiazco.
69.	26.	irenci	irentsi.
69.	31.	bunucomiñ	burucomiñ.
69.	34.	eraguiac	araguiac.
70.	19.	meducueic jojitunena	meducuric jaquitunenac.
70.	20.	Elisca	Eliseo.
70.	20.	niaz	naiz.
70.	22.	estutu	escatu.
70.	22.	cezal	cezala.
70.	26.	itai	ibai.
70.	27.	niz	nic.
70.	27.	oguindu	aguindu.
70.	31.	arguintzem	arguintzen.
70.	33.	arrazoza	arrazoia.
70.	33.	Jaunale	Jaun arc.
73.	29.	batzan	batean.
73.	32.	emeten	ematen.
75.	6.	ut cedo	uts.
75.	7.	cirtenac	irteñac.
75.	8.	ezoriatzaco :: en el titulo ::	eriotzaco.
75.	21.	beldor	beldur.
74.	27.	chiqui	chiqui.
74.	28.	ectu	artu.
74.	33.	aurrarau	aurreratu.
75.	26.	zatecela	zateela.
75.	27.	giratzera	giratzea.
76.	24.	naiz nai	noiz nai.
77.	22.	Eto	Eta.
77.	38.	iretse	irentsi.
83.	26.	Eguin	Equin.
86.	15.	batueuc	batzuec.
86.	33.	ocasia	ocasia.
86.	37.	nainetic	zainetic.
87.	9.	vorondatzecoa	vorondatecoa.
88.	29.	ascacharentzat	ascacharentzat.
88.	36.	pntaco	pntaco.
			leza-

89.	29	lezague	lezague.
90.	38.	ezagutzean	ezagutuan.
		En la pagina 91, linea 22, donde dice, <i>Gauza bat izan liteque batzuenizat</i> , se debe leer, <i>Gauza bat izan liteque batzuenizat ocasioa</i> , <i>besteentzat ez.</i>	
91.	30.	Jaun onen	Jaunaren.
93.	24.	biguirazen	biguiraren.
93.	25.	lorgatzen	largatzen.
93.	32.	echeeta	echeetan.
94.	9.	Aserratuco	Aserratuco.
95.	22.	vidersioetan	diversioetan.
95.	26.	ascoac	ascoc.
96.	27.	itzequitea	itz eguitca.
97.	12.	anguiró	arguiró.
98.	17.	esio	esesio.
100.	2.	becelacoa	becelacoac.
100.	6.	gogortan.	gogoetan.
100.	8.	josiriz	josiric.
100.	8.	zatu	zatzu.
100.	9.	guccituco	guituco.
100.	25.	taiatzen	topatzen.
100.	27.	occoqui	becoqui.
100.	35.	sarrean	sarean.
102.	13.	Apostoluaren	Apostoloen.
107.	19.	baz	bat.
108.	27.	quedu	quendu.
109.	7.	dinarac	diranac.
109.	21.	dezuen	dezun.
		En la pagina 109, linea 24 borrese <i>bea</i> que precede á <i>videac.</i>	
109.	30.	eguiazcoren	eguiazcoren bat.
109.	36.	jada	bada.
110.	13.	guezasemea	guizasemea.
110.	15.	bazacucuntzeta	batzacuntzetan.
111.	15.	etzaituzten	etzaituzte.
111.	24.	cenunque	cenuque.
115.	20.	jaquintsariac	jaquintsuac.

118.	25.	dizatela	
120.	7.	jaquitzen	
120.	20.	Pedroac	
123.	6.	eguintzen	
123.	27.	osatuco	
123.	28.	begniratu	
125.	4.	diran	
125.	5.	Confesomaren	
126.	25.	virtutetzueña	
126.	26.	eguintzen	
127.	21.	arquituten	
130.	28.	dauzatzuen	
131.	3.	jostatu	
131.	17.	cedilla	
131.	27.	irauncorriac	
132.	23.	locsaren	
133.	13.	quenca	
133.	30.	paquetzat	
134.	31.	borrese la letra que hai entre el <i>bi</i> , y el <i>ber</i> .	
138.	7.	igortuari	
138.	7.	simacerra	
139.	6.	isilchoric	
139.	8.	inorc	
141.	12.	animalucem	
142.	2.	<i>damu</i> antes de <i>dezula</i> , borrese.	
147.	14.	bat dutonac	batequin duteenac.
147.	31.	mil bider	milla bider.
148.	5.	borrese <i>gabo</i> antepuesta al <i>edo</i> .	
149.	19.	eragotu	eragotzi.
149.	29.	bectua laguna	becatu laguna.
160.	7.	arguitu	arquitu.
162.	17.	zorõ	egun zoro.
163.	5.	citaquan	citequean.
163.	26.	escua	escuca.
165.	10.	osoro	osora.
166.	12.	ecuin	eguin.
166.	18.	atrebituco	atrebituco.
167.	2.	ereciaten	eracuten.

dituztela.  
jaquitun.  
Pedroc.  
eguin dizte.  
osatzeco.  
beguiratu.  
dira.  
Confesioaren.  
virtutetsuena.  
eguin.  
arquitzen.  
dauzatzun.  
jostatze.  
cezala.  
irauncorric.  
lotsaren.  
quezca.  
pagetzat.  
borrese la letra que hai entre el *bi*, y el *ber*.  
igartuari.  
simaurra.  
esatea issilchoric.  
iñor.  
animaliaren.

168.	22.	aztutzeço	
169.	29.	nit ean	
170.	13.	trutu	
172.	24.	joaqui.	
173.	5.	dia	
177.	11.	eguin	
178.	27.	cenducalo	
179.	30.	bada	
184.	6.	Norc	
184.	35.	ezagutzea	
185.	6.	zujalac	
185.	6.	ozturic dauca	
187.	15.	beldurtzac	
187.	33.	Eta	
188.	26.	sarri	
188.	35.	zaitusanae	
190.	20.	erregaric	
191.	2.	Leaduric	
193.	5.	edaderic	
196.	4.	uraz	
196.	5.	etsan	
196.	13.	biuzrera	
196.	27.	aldatic	
198.	4.	joateco	
198.	18.	Marguiric tres veces por	
199.	11.	Zurengodunanac	
204.	13.	gogor	
204.	11.	nantuac	
204.	32.	vicia	
212.	19.	ertape	
213.	1.	ondu	
213.	16.	arruean	
214.	2.	itzarian	
214.	20.	iracaslabeagoac	
216.	1.	comultaizeta	
216.	8.	da	
216.	32.	dite	
217.	3.	guitu	

azterzeço.  
nituan.  
tratu.  
jaiqui.  
die.  
egua.  
cenucalaçõ.  
bat.  
Nor.  
ez ezagutzea.  
ujolac.  
aituric dauzca.  
beldurtiac.  
Ezda.  
sari.  
zaituenac.  
erregaric.  
Letraduric.  
edaariric.  
ura.  
eztzan.  
biurrera.  
aldatze.  
jaateço.  
Illarguiric.  
Zuringodunac.  
gogõz.  
Santuc.  
vicira,  
eroapen.  
ondo.  
aurrean.  
iturrian.  
icasla obeac.  
comulgatuta.  
daramaz.  
dutee.  
guitu.  
fru-



217. 5. fruta  
 220. 18. ondasun  
 222. 24. erorteco  
 229. 30. eracatsiric  
 231. 18. animo ... ta utsac  
 233. 16. balite  
 238. 34. Jan bi  
 242. 34. guitzen  
 243. 19. batea  
 244. 1. onean  
 244. 14. Jesu-Christoc  
 244. 38. mesedu  
 246. 2. salten  
 246. 7. batenegoan  
 246. 19. dit  
 246. 24. Pezquea  
 247. 4. paqueac eman  
 248. 14. litaque  
 248. 31. gocistoa  
 252. 7. videa  
 252. 13. ciquinzan  
 252. 18. gozoia  
 252. 32. Sacrificio  
 255. 21. ditzaten  
 255. 25. garondo anima

frutu.  
 ondasundunac.  
 ez erorteco.  
 eraatsiric.  
 animaco ... ta ausac.  
 balitza.  
 Jai bi.  
 gueitzen.  
 gabea.  
 onetan.  
 Jesu-Christo.  
 mesedetu.  
 saltzen.  
 baten egon.  
 ditut.  
 Paquea  
 paqueac eguin gabe.  
 litzaque  
 gaiztoa.  
 videac.  
 ciquinean.  
 pozoia.  
 Sacrificiora.  
 ditzuten.  
 garbitu anima.

